

# Elkarte Gastronomikoen Garrantzia eta Eragina Gizartean

Txosten Berezia



**Izenburua:** ELKARTE GASTRONOMIKOEN GARRANTZIA  
ETA ERAGINA GIZARTEAN. TXOSTEN BEREZIA.

**Argitalpena:** Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Defentsa Erakundea  
Gaztelako Atea, 25. 01007 VITORIA-GASTEIZ  
[www.euskadi.net/defentsoria](http://www.euskadi.net/defentsoria)

**Kanpoko Aholkularitzaren aldetik:**  
Farapi Antropologia aplikatuaren Aholkularitza, S.M.

**UPV/EHU-ren aldetik:**  
Isabel Hernando Collazos

**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako  
Defentsa Erakundearen aldetik:**  
Maite Erro Jauregi  
Pilar Sanz de Pablo

**Itzulpena:** Lete Itzulpenak Traducciones S.L.

**Data:** 2010eko otsaila  
**Ale kopurua:** 250 ale  
**Diseinu grafikoa:** WHAT BA!  
**Lege-gordailua:** ----

# Elkarte Gastronomikoen Garrantzia eta Eragina Gizartean

Txosten Berezia



*Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako*  
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres



DEFENTSORIA

# Elkarte Gastronomikoen Garrantzia eta Eragina Gizartean

## Aurkibidea

<b>AURKEZPENA</b>	7
<b>SARRERA</b>	11
<b>1. ELKARTE GASTRONOMIKOEK GIZARTEAN DUTEN GARRANTZIARI ETA ERAGINARI BURUZKO AZTERKETA ETNOGRAFIKOA</b>	15
1.1 Esparru teorikoa	16
1.1.1 Espazio pribatua, espazio publikoa	16
1.1.2 Sexu-genero sistema	18
1.1.3 Generoaren sozializazioa	19
1.1.4 Tradizioa, kultura eta aldaketa	20
1.2 Metodologia	22
1.2.1 Gizarte-antropologiaren aztergaia	22
1.2.2 Elkarte gastronomikoei buruzko azterketaren helburu nagusia	22
1.2.3 Elkarte gastronomikoen hautaketa	23
1.2.4 Landa-lana	24
1.3 Emaitzak	27
1.3.1 Elkarte gastronomikoen deskribapena	28
1.3.2 Elkarte gastronomikoen eragina gizartean	41
1.3.3 Elkarte gastronomikoetara sartzeko emakumeek dituzten mugak	79
<b>2. ELKARTE GASTRONOMIKOEN ZUZENBIDE-ESPARRUA, ELKARTZEKO ESKUBIDEA ETA HAREN MUGA: TRATU-BERDINTASUNA</b>	147
2.1 Elkartzeko eskubidea eta eskubide horren muga: tratu-berdintasuna	148
2.2 Emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa eta elkarte gastronomikoak	162
2.3 Erakunde publikoak eta elkarte gastronomikoen emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea	171
<b>3. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK</b>	177
3.1 Ondorioak	178
3.2 Proposamenak	185
<b>BIBLIOGRAFIA</b>	191
<b>ERANSKINAK</b>	199



DEFENTSORIA

# Aurkezpena

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



*“Elkarte Gastronomikoen Garrantzia eta Eragina Gizartean”* izeneko Txosten Berezi honen asmoa da Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte gastronomikoak sakonago ezagutzea, pertsona askorentzat gure kulturaren ezaugarri baitira, eta, horretarako, gizartean duten garrantzia eta emakumeengana hiko bazterketa-mekanismoak aztertuko dira.

Azterketak bi helburu ditu: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte gastronomikoetan emakumeek, eskubide osoz parte hartzeari dagokionez, jasaten duten bazterketaren ondorioak, motiboak, esanahiak eta mekanismoak aztertzea. Horren bidez, ezagutzak izan eta sare sozialetan eta elkarrean arteko sareetan emakume eta gizonentzako tratu-berdintasunean aurrera egiteko estrategiak sortuko dira.

Eta bestetik, elkarte gastronomikoak arautzeko zuzenbide-esparrua aztertzea, emakume eta gizonentzako tratu-berdintasuna eta sexu-arrazoiengatik diskriminazio eza gaitzat hartuta. Kontuan izanez tratu-berdintasuna zuzenbide-printzipio unibertsala dela eta hura arautzeko arautegiek gizartearen eremu guztietan, baita elkarrean ere, eragina dutela, eta zehatz-mehatz Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte gastronomikoetan, egiaztatu da elkarte gastronomiko batzuk murriztaileak direla: muga arautzeko hainbat dokumentu dituzte eta nazioartean, Europan, nazioan, erkidegoetan eta tokian-tokian indarrean daude. Horregatik, emakumeen eskubideen balizko urratzeak identifikatu nahi dira.

Oinarrian dugun hipotesi nagusia da elkarte horiek funtzio garrantzitsua betetzen dutela gure gizartean eta, horren ondorioz, emakumeak eskubide osoko elkartekide gisa parte hartzeko bazterketek eta/edo mugek zaildu egiten dutela emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra aurrera eramaten. Lehenengo datu aipagarria, eta kezkatzeko modukoa: egiaztatu da datua eman duten 324 elkarte gastronomikoetatik erdiak baino gehiagok (n=190, % 58,6) ez dituela emakumeak eskubide osoko elkartekide gisa onartzen.

Bada, txosten honetan adierazten da emakumeek elkarrean parte hartzeko duten muga ez dela behin gertatutako kontua, eta ondorioak ez dira falta, balio sozial handiko eremuan izaera maskulinoari eusten baitzaio eta pertsonen arteko sareetatik eta garrantzi sozialeko eta prestigiozko ekintzetatik emakumeak urrun mantentzen baitira.

Txosten Berezi honen edukiek elkarte gastronomikoei buruzko azterketak dituzte oinarri, “Elkarte Gastronomikoen Garrantzia eta Eragina Gizartean” txostenaren azterketa etnografikoa Farapi Antropologia aplikatuaren Aholkularitzak egin du eta “Elkarte Gastronomikoen Zuzenbide-esparru Erregulatuaren Analisia” Unibertsitateko irakasle titular Isabel Hernando Collazos-ek egin du (Zuzenbide Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea).



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean  
Txosten Berezia

# Sarrera

“Elkarte Gastronomikoen Garrantzia eta Eragina Gizartean” izeneko Txosten Bereziaren helburua da Euskadiko Autonomia Erkidegoan elkarteek bizi duten errealitatea ezagutaraztea, izan ere, lagun-talde baten arteko interakzio hutsa izatetik haratago jo eta tokian-tokian bizitzan garrantzia eta protagonismo soziala lortu baitute eta, askotan, emakumeen presentzia eta parte-hartzeari dagokionez, jarrera murriztaileak mantentzen baitituzte. Horiek ezagutaraztearen xedea da, sektore pribatuan, emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betearazteko jarduerestrategia aproposak definitzea; hori da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Bulegoari eskatu zaion zeregina.

Horretarako, elkarte gastronomikoak ikuspegi bikoitz batetik aztertuko dira: batetik, gizarte-antropologiaren ikuspegitik, ezaugarriak eta eragin soziala deskribatu eta emakumeak elkarte gastronomiko murriztaileetan izateko aldaketa-prozesuan genero, balio eta sinismenen loturak aztertzen dira, ustez berdintasunezkoa den gizarte baten eremuan; eta bestetik, tratu-berdintasunaren funtsezko eskubidea errespetatzeari lotutako zuzenbide-esparruaren ikuspegia dago.

Informazioa hiru ataletan antolatzen da:

1. atala. “Elkarte Gastronomikoen Garrantzia eta Eragina Gizartean” txostenari buruzko azterketa etnografikoa. Hiru epigrafe ditu:

Lehenengoan, 1.1. epigrafean, azterketa hau oinarritzen den hipotesi teorikoak azaltzen dira. Hau da, espazio publiko vs. espazio pribatuari buruzko edukiak, sexu-genero sistemak, generoaren sozializazioa eta tradizioari, kulturari eta aldaketari buruzko gaiak.

Bigarren epigrafean, 1.2. Metodologia izenekoan, hauek deskribatzen dira: gizarte-antropologiaren aztergaia, aipatu ikuspegitik elkarte gastronomikoen azterketarako ezarritako helburu nagusia, aztergaiak hautatzeko irizpideak eta landa-lanari buruzko gaiak. Gainera, erreferentzia egiten zaie bakarka eta taldeka egin diren elkarrizketen bidez jasotako informazioa eman diguten pertsonei, baita informazioa lortzeko erabili diren beste iturri batzuei ere (parte-hartzearen behaketa, dokumentazio-lana, telefonoz egindako inkesta eta kasuaren azterketa).

Eta azterketa etnografikoaren emaitzak 1.3. epigrafean azaltzen dira. Bertan, elkarte gastronomikoen ezaugarriak deskribatzen dira (jatorria, bilakaera, emakumeen parte-hartzea, inguruarekiko konpromisoa eta funtzionamendua); elkarteek gizartean duten eragina, gizartea dinamizatzeari, nortasunari eta harreman-sareei dagokienez; eta elkarte gastronomikoetara sartzeko emakumeek dituzten mugei buruzko gaiak, era berean, bazterketa-mekanismoak, nortasun maskulinoa eta bilakaera aztertuz.

2. atalean, berriz, “Elkarte Gastronomikoen Zuzenbide-esparrua, Elkarteko Eskubidea eta haren Muga: Tratu-berdintasuna” izenekoan, azaltzen da emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunari eta sexu-arrazoiengatik diskriminazio ezari buruzko araudiaren azterketa, gizartearen eremu guztietan

eragina duena, baita elkarreetan ere, bereziki elkarte gastronomikoetan. Azterketa hiru epigrafetan antolatzen da:

2.1. atalean, *Elkartzeko eskubidea eta eskubide horren muga: tratu-berdintasuna* izenekoan, oinarritzko bi eskubideei, elkartzeko eskubideari eta emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunerako eskubideari buruzko gaiak aztertzen dira.

2.2. atalean, berriz, *Emakume eta gizonentzako tratu-berdintasunaren printzipioa eta elkarte gastronomikoak* izenekoan, adierazten dira elkartzeko eskubidearen pean sortutako elkarte gastronomikoek emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunerako eskubidea gorde edo bete ez izateari buruzko gaiak, baita auzitegiek horrekiko izandako tratua ere, bereziki Auzitegi Gorenak izandakoa.

Azkenik, 2.3. atalean, *Erakunde publikoak eta emakume eta gizonentzako tratu-berdintasunaren printzipioa elkarte gastronomikoek betetzea* izenekoan, tratu-berdintasuna bermatzeko eta emakumeekiko diskriminazio-egoerak erazteko legeek erakunde publikoei eskatzen dieten jarrera proaktiboa aipatzen da.

Aurreko ataletan aipatutako guztitik ateratako *Ondorioak eta Jarduteko Proposamenak edo Estrategiak* 3. atalean azaltzen dira.

Txosten Berezi honetan, Eranskin hauek daude:

- I. eranskina: Elkarriketetan erabilitako gidoi zehatza.
- II. eranskina: Elkarte gastronomiko ezagun eta murriztaile bati buruzko kasuaren azterketa: Gaztelubide (Donostia)



DEFENTSORIA

# 1. Elkarte Gastronomikoen Gizartean duten Garrantziari eta Eraginari Buruzko Azterketa Etnografikoa

## 1.1 Esparru teorikoa

Gizarte-antropologiaren esparru teorikoari esker, ulertarazten dira jarduera-arloen arteko interakzioa (etxeke espazioa, espazio publikoa eta espazio pribatua) eta gizarte-harremanen artekoa, bereziki hierarkizatutako genero-harremanetakoak –gizon eta emakumeen artekoak edo gizarte-ezaugarri desberdinetako gizonen artekoak– eta errealitate-ordena eta esperientziaren arteko interakzioa –gizarte-dimentsioak, sinbolikoak eta indibidualak–. Generoa aztertzean ulertuko dugu aipatu hiru arloek nola elkarrekiten duten gizarte-egitura bat mantentzeko, alegia, egungo gizartean gizona boterea eta pribilegioa izatea bermatzen eta iraunarazten duen egitura.

Jarraian, “*Elkarte Gastronomikoen Garrantzia eta Eragina Gizartean*” azterketan, esparru teorikoa osatzen duten elementuak azaltzen dira: espazio pribatua, espazio publikoa; sexu-genero sistema; generoaren sozializazioa; eta tradizioa, kultura eta aldaketa.

### 1.1.1 Espazio pribatua, espazio publikoa

XX. mendean, emakumeek, taldean eta bakarka, gizarte-, familia- eta ekonomia-ereduaren kontra aldarrikapenak egin izan dituzte, gizartean duten rola eremu pribatura eta ugalketara mugatzen baititu. Lan-munduan, hezkuntzan, aisialdian eta alor publikoan estatus jakin bat lortu ostean, emakumeek eskatu eta lortu dute, salbuespenak salbuespen, bizitza sozialean, jaialdietan eta aisialdian berdintasun gehiagoz parte hartzea. Antzeko dinamika bat ere hautematen da Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta elkarteetan, koadriletan, lagun-taldeetan edo antolatzen dituzten beste talde batzuetan. XXI. mende hasieran, lanean jarraitzen da, bizitza publikoan emakumeek eta gizonen berdintasunean parte hartzea eragozten duten oztopoak gainditzeko. Hala ere, espazio pribatuan sexuagatiko segregazioari buruzko gai asko dago konpontzeke.

Espazio publikoaren eta espazio pribatuaren banaketari buruzko teoriak azaltzen du, hain zuzen ere, banaketa horrek sortu duela laneko sexu-bereizketa eta genero-desberdintasuna. Hala ere, gaur egun, gizonen espazio publikoa eta emakumeen espazio pribatuaren dikotomizazioa azalpen teoriko eskasa da, bi espazioen mugak duen anbigutasunagatik eta emakumeek eta gizonen espazioa erabiltzeko zehazten duten esanahi sinboliko batzuegatik. Errealitate horren adibide dira, esaterako, elkarte gastronomikoak. Etxeaz kanpoko espazio pribatua dira, baina bertan egiten den jarduerak irudi bat du gizartean eta horrek garrantzi publikoa ematen die elkarteei.

Publiko eta pribatuaren arteko banaketari buruzko aipatu adierazpenaren beste arazo bat da ondoriozta daitekeela espazio publiko batean izate hutsagatik emakumezkoen protagonismoa barne hartzen dela, baina horien presentzia, askotan, gizonen jarduerak ikustera eta horiek behatzera mugatzen da, kirol-saio edo jaialdi ugaitan izan ohi den bezala. Hala gertatzen da elkarte

gastronomiko batzuetan ere: emakumeak ez daude ekitaldi edo momentu garrantzitsuetan, ezta espazioan eta, beraz, gizartean ere. Ildo horretatik, Teresa del Vallek “*emakumeen presentziak- ausentziak*” hautematea gomendatzen du, horri esker “*espazio publikotik igarotzerakoan jarduten duten kultura-mekanismoak ezagutu daitezten*” (1997:87)

Arlo publikoaren eta pribatuaren segregazioak genero-rolen azalpenari eusten dio eta, horren arabera, sexuaren ezaugarri biologiko bati gizarte rol jakin bat ematen zaio. Horregatik, gizarteko arauak rolaren moldea egin eta gizarte jakin bateko emakumeen eta gizonen jarrera zuzena –eta estereotipatua– definitzen da. Hala ere, eremu politikoan eraginkorra bada ere, arrazonomendu hori ez da nahikoa botere, indarkeria eta desberdintasun materialaren loturak azaltzeko eta, gainera, ez da barne hartzen maskulinitasun edo femininitasunaren ebaluazio sinbolikoaren ondoriozko konplexutasuna (Connell, 1996:158; Gilmore, 1994:32).

Elkarte gastronomiko jakin batzuetan (arlu pribatuan) emakumeek gehiago parte hartzearen kontrako arrazoa da, bai gizarte-eremuan bai egunerokoan, batetik, leku batek eta funtzio batek pertsona bakoitzari rol jakin bat ematen diela eta horrek ez duela, inolaz ere, inolako eraginik parte-hartzean; eta bestetik, desberdintasunak ez duela gutxiagotasuna edo mendekotasuna esan nahi. Hala ere, gizartean gizonen eta emakumeen dituzten rolen bidezko balio batek bermatu beharko luke arrazoi hori, baina ez da halakorik gertatzen.

Rolen ohiko banaketa gizartearen ordena asimetriko eta hierarkizatuari dagokio eta banaketa horrek rolen naturalizazioa dakar; hau da, emakumeei debekatzen zaizkien espazioak gizonen okupatzea “normala” eta “naturala” dela onartzen da. Horren arrazoitzat jotzen da, berriz, beti hala izan dela eta gizonen eta emakumeen, oro har, eman zaizkien rola bati datorrela. Planteamendu horrexegatik, hain zuzen ere, kritikatu da rolen teoria, gizartean rol-banaketa hori naturala bihurtzen duelako eta desberdintasunak gertaera natural gisa justifikatzen dituelako, nahiz eta, berez, kultura-konstruktio bati dagokion (del Valle, 1997:36-38; Stolcke, 1993).

Aztergaiaren ildotik, egiaztatu da sexu-estereotipoen naturalizazioak proportzio sinbolikoak hartzen dituela, justizia- eta egia-kutsu bat lortzen duela eta genero-loturak ezartzen dituela malguta ez den gizarte honetan eta, bertan, gizonen espazioan parte hartu beharrik ez duen egitura egonkortzaile gisa aurkezten dela familia –amaren irudia buru duela–, funtsean, bere espazio eta botere-eremu propioak dituelako. Ikuspegi horretatik honela ikusten da gizartea: emakumeak indartsuak eta autoritarioak dira, familian ezarritako sistema mantentzen duten balio tradizionalak transmititzeko arduradunak dira eta heterosexualitatea defendatzen dute. Sistema horri ematen zaion balio positiboa naturalizazio-prozesutik dator, izan ere, aipatu prozesua oinarri, emakumearen rola –ugaltzailea eta zaintzailea– eta gizonarena –ekoizlea, babeslea eta protagonista publikoa– biologikoki zehaztuta agertzen baitira.

Emakume batzuk gizonen pribilegio-egoera onartzen dute, baina hori azaltzeko kontuan izan

behar da, desberdintasun soziala gertaera biologikoetan oinarritzen duten balioak transmitituz, desberdintasunak natural bihurtzen direla. Pierre Bourdieu-ek (1985:65) honela azaltzen du, mendekotasun-posizioa onartzeko, mendeko pertsonen duten mekanismoa: *“Botere orok du dimentsio sinboliko bat: mendeko pertsonen aldetik bat-egite moduko bat lortu behar du, kontzientzia argi baten erabaki boluntario batean oinarritzen ez dena, hau da, gizarteko pertsonen berehalako eta aurrez hausnartu gabeko mendekotasuna izan behar du”*.

### 1.1.2 Sexu-genero sistema

Ezarrita dagoen gizarte honetan, generoaren kontzeptuak gizonei eta emakumeei egokitutako jarreraren kontzeptualizazioari erantzuten dio (sexua, biologikoki ezarria). Hori da, hain zuzen ere, pertsonak femenino edo maskulino bihurtzen dituen (generoa, kulturalki ezarria). Kontzeptualizazio hori, berriz, giza gorputzaren ugaltzeko gaitasunaren ondorio da. Are gehiago, konstruktore horrek, balio edo ezaugarri gisa ulertzen dena, ez du zertan unibertsa izan, gizarte guztietan izan, ezta garai historikoetan zehar gizarte berean izan ere. Ildo horretatik, Carmen Díez-ek hala dio (1999:152-153): *“Ikuspegi horretatik, ar edo eme jaiotzearen arabera (desberdintasun biologikoa) emakume edo gizon izango dira (desberdintasun soziala) eta emakumezkoenak edo gizonezkoenak diren kanon batzuk oinarri hartuta jokatu beharko dute. Femeninitasuna eta maskulinitasuna testuinguru kultural batetik bestera aldatu egingo da, baita garai batetik besteetara ere”*.

Hala ere, generoa ez da emakume edo gizon izatea soilik; aldiz, emakumeen eta gizonen arteko harremanak ere barne hartu behar dira. *“Ez dugu sekula ulertuko emakumeen edo gizonen jarrera, plano berean kokatzen ez baditugu eta espazio sozio-politiko eta ekonomiko jakinetan bien arteko artikulazioa behatzen ez badugu”*. (Díez, 1999:153). Garrantzitsua da azpimarratzea genero-harremanak botere-harremanak direla eta, hain zuzen ere, harreman horiek direla –kontzeptu kultural eta harreman sozialengatik kritikatuak– bestelakotasunak gizarte-desberdintasun bihurtzen dituztenak. Genero-sistemak elkarrekin daude, lotura dinamikoan, ordena sozialarekin –eguneroko jarrera eta arauak sortutako “eguneroko errealitatearekin”– eta ordena sinbolikoarekin –mitoek, sinismenek eta balioek osatutakoarekin– (Díez, 1996). Beraz, ez da desberdintasun-prozesu bat, hierarkizazio-prozesua baizik, baliabide material eta sinbolikoak lortzeko aukera-desberdintasunaren ondorioz eta genero-desberdintasunaren konstrukzio eta naturalizazio konplexua oinarri, boterea izateko behar-beharrezkoa dena.

Baina generoa ez da gizartearen egitura jarduten duen desberdintasun-sistema bakarra; aldiz, beste hierarkizazio mota batzuekin lotzen da, adibidez, gizarte-klasearekin, jatorriarekin, etniarekin, azalaren kolorearekin eta sexu-orientazioarekin. Era berean, gizarte-harremanen egitura asimetrikoa hainbat mailatan antolatzen da (mikro-, erdi- eta makro-mailak), arlo desberdinetan (lan-mundukoak, boterekoak eta emozioetakoak, Connell-ek 1996an proposatu zuen bezala), eta erakunde publiko

nahiz pribatuen bidez legeztatzen da, baita erakunde formal nahiz informalen bidez ere.

Elkarte gastronomikoak, aztergai oraingoan, erdiko mailan egongo lirateke, mikro-mailaren –etxeko espazioa–, elkarteen eremuko bitarteko mailaren, eta makro-mailaren –botere politikoak eta erakundeetako botereak– arteko lotura gisa. Gauzak horrela, generoa dagoeneko ez da “emakumeen gauza” edo gizonen eta emakumeek betetzen dituzten rolen kontua. Hala, orain analisi-tresna garrantzitsu bat da, testuinguru kultural jakin baten eta egoera historiko espezifikoen dauden harreman-sistema konplexuak aztertzeko. Hala dio Virginia Maquieira-k (1998:85): *“generoari buruz, kategoria gisa, hitz egiten dugunean, analisi-tresna bati egiten diogu erreferentzia eta, tresna horri esker, hain zuzen ere, izaera sinbolikoko eta gizarte-egituraren izaerako datuak antola daitezke. Antolaketa oinarri, historikoki eta soziokulturalki ezartzen dira gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak eta, baita bestelakotasun horiek botere-harreman eta desberdintasun bihurtzeko prozesuak ere.*

### 1.1.3 Generoaren sozializazioa

Genero-kontzeptua gizartea antolatzeko sistema eraginkor baten gisa azaltzeaz gainera, azpimarratu behar da konstruktio hori bakarkako eta taldeko bizitzaren aspektu guztietan dagoela, gure bizitza pertsonalak zehazten duela eta nortasun femeninoan eta maskulinoan eragina duela sozializazio-prozesuaren bidez. Sozializazioa bakarkako eta taldeko prozesua da, leku eta une jakinetan sortzen da, bizitzan zehar garatzen eta erritu bihurtzen aisialdian, festetan eta ospakizunetan.

Baiezta daiteke EAEn, oro har mendebaldeko elkarteetan bezala, *“maskulinitasun hegemonikoan oinarritzen den genero-sistema”* buru dela (Díez, 1996). Hau da, orokorrean, emakumeak gizonetikiko desberdintasun-egoeran daude gure gizartean eta, bestelakotasun horren oinarrian –baliabide materialak eta boterea erabiltzeko aukera desberdinen ondorioz–, genero-desberdintasunaren egitura eta naturalizazio konplexua dago. Beraz, bereizi egin behar da genero-sisteman, maskulinitasun-eredu jakin baten baldintzapean, pertsonak nola sozializatzen diren (Messner, 1992; Brod & Kauffman, 1994; Gilmore, 1994; Connell, 1995 eta 2003). Maskulinitasuna sortzeko prozesuei buruzko hainbat ikerketaren arabera, etxeko mundutik aldentzea eta ezagutzak eta balioak transmititzeari uztea dira oinarritzko elementuak eta, beraz, gizonen munduan beharrezko egiten dira parranda maskulinoa eta “sarbidaden” errituak sozializatzerako garaian.

Era berean, maskulinitasuna eratzea genero-sistemen egitura-ardatza da gizartearen eremu askotan: botere politikoa, militarra edo poliziala erabiltzean, sistema ekonomiko eta juridikoan, garapen zientifikoan eta Elizan. Ildo horretatik, elkarte gastronomikoetan gizonen irudia nabarmena da, protagonista da, *“gizontasundun gizona da eszenatokiaren erdian dagoena”* esamoldearekin bat dator (Gilmore, 1994:46). Hala, Bourdieu-k ere (1985) adierazten du protagonismo publikoa etxean

emandako zaintzaz elikatzen dela eta, horri esker, gizonezkoak “jolastera” irteten direla. *“gizonek jolasteko erreserbatutako espazioan sortu eta burutzen da ohitura maskulinoa eta bertan jolasten dute, gizonen artean, lehiaketa-jolas serioetan, gizonezkoen jolasetan, muga gerra den jolasetan. Emakumezkoak, zuzenbidez edo egitez, jolas horietatik baztertu dira; emakumeek ikusle-rolan dihardute txokoan edo, Virginia Woolf-ek dioen bezala, ispilu zuriak dira, gizonari bere buruaren irudia islatzen diotenak... Eremu pribatura eramaten direnez, beraz, ordena publikotik at, ofizial den guztitik at, emakumeek ezin dute subjektu moduan parte hartu, lehenengo pertsonan alegia, maskulinitasuna baieztatu eta praktikatzan den jolasetan”.*

#### 1.1.4 Tradizioa, kultura eta aldaketa

Genero-sistema asimetrikoa da eta maskulinitasun-eredu hegemoniko baten inguruan eraikia dago. Gainera, sistema eusten duen egitura soziokulturala ez da egonkorra; besteak beste, gatazkaren, kontraesanen eta praktika alternatiboen bidez sortzen da. Hemen jorratzen ari garenari dagokionez, erritu bihurtutako praktika soziala da eta tradizio monolitiko eta kultura esentzialistaren kontzeptuak bermatzen du eta, geldiarazten duen indar batez, egituraren desberdintasun-egoeretan dauden aldaketa-proposamenen arabera ezartzen da.

Praktika kulturalen eta genero-sistemaren arteko lotura, kulturaren eta tradizioaren dinamikaren arabera dago. Sistema kulturalak etengabe ari dira negoziatzen eta berriz definitzen, aldatu egiten dira pertsonen, inguru soziokulturala eraikitzeko, aukeratzen dituzten ezaugarrien arabera –generoari dagozkion ideiak, arauak eta balioak barne– eta guztiak murgiltzen dira taldeen arteko harremanetan. Ikuspegi dinamiko hori oinarri, kultura ez da *a priori* ekintza sozialagatik existitzen; aldiz, islatzen eta baieztatzen edo zalantzan jartzen eta astintzen duten prozesuen bidez sortzen da gizarte-egitura.

Soilik gizonenarena den espazioa defendatzeko argudio argiena tradizioaren kontzeptu zehaztu bat da, historiari lotutako tradizioa, iragan egonkorren eta kulturaren eta tokian tokiko nortasunaren adierazle den iraganean errotzeko, praktika sozialari eusteko. Tradizioaren kontzeptu horrek hainbat alderdi ditu: batetik, denbora pasa ahala gehitzen zaion balioa; eta bestetik, belaunaldiz belaunaldi transmititzeko modua. Denboraren dimentsioa errepikapenean eta denboraren jarraipenean oinarritzen da eta gero eta garrantzi handiagoa izan ohi du, nolabait ere aspalditik iraun duen gertakaria delako. Transmititzearen aspektua garrantzitsua da, ez soilik denboran eusten delako, baizik eta arbasoen komunitatearekin loturak ezarri eta nortasun-loturak sortzen dituelako. Labur esanda, koherentzia eta jarraipen zentzua ematen dio.

Interpretazio hori Eric Hobsbawm-ek adierazitako ikuspegiarekin aurrez aurre dago. Historialariaren arabera, tradizioak, aldaezinak izan baino, asmatu egiten dira, iraganarekin dagoen lotura manipulatu, orainean dauden egoera berriei erantzuteko. Gizarteek aurrera egiten dute eta, horiekin batera, baita

ohiturak ere. Tradizioa ez da erlikia, bizirik dagoen zerbait da; ez da zertan errepikapen hutsean oinarritzen, izan ere, mantentzen bada, garatu egiten delako baita. Gizarte-eragile berdinek, euren kultura propioaren sortzaileek, tradizioak biziraun edo hil egiten diren erabakitzen dute: nobedadeak barneratzen dira, ideia berritzaileak sortu, eta horri esker, benetakoa denak bizirik jarraitzen du eta mardultasun guztiaz hunkitu, bai XXI. mendean, bai XVII. mendean. Tradizioa interpretatzeko modu hori bat dator kulturaren kontzeptualizazio dinamikoarekin, izan ere, kultura “*prozesu historiko eta ekonomikoekin elkarrekintzan sortzen baita eta eragile sozialek onartzen, negoziatzen eta berriz definitzen duten elementu baten gisa barne hartzen baita nortasuna, beste talde batzuekiko desberdintzen dituzten ezaugarriak hautatuz*” (Díez, 1999).

Tradizioak aldaketa ugari beregana baditzaie, aldatu eta galdu gabe, baieztatzen da kultura-adierazpen jakinetan emakumeak baztertzeko “tradizioaren” atzean zerbait gehiago ezkututzen dela, baina beste faktore batzuen oinarrian dago azalpena, eta zerkusua du gizon eta emakumeen arteko botere-banaketarekin eta gizonen pribilegioak galtzearen aurkako erresistentziarekin. Erresistentzia sakonago bat dago ordea, bilkura sozial batean aldaketa bat ez onartze hutsetik haratago doana, aspaldiko tradizio bat eguneratsetik haratago, erritu sakratu bat berritsetik haratago; horrek guztiak adierazten du uko egiten zaiola ezarritako genero-sistema aldatuko luketen aldaketei, finkatutako botere eta prestigioak emateari, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun handiagoa ahalbidetzeari.

Horregatik, Euskadiko Autonomia Erkidegoko elkarte gastronomikoen jarrera murriztaileak generoa ikusteko moduaren arabera azaltzen dira, nahiz eta gai kultural gisa aurkeztu. Ulertzeko, azalpen zabalagoa eman behar zaio emakumeak, herritarrek izanik, jasaten duten bazterkerari, eta dagokion ezinbesteko garrantzia eman behar zaio; beraz, ez da onartzen arazoari balioa kentzeko jokaera, ez da jai- eta aisialdi-munduan soilik geratzen den kontua.

Elkarte gastronomikoen, espazio pribatu gisa sortutakoek, bilera sozialak erritualizatuta eta instituzionalizatuta mantendu eta errealtatearen adierazpen sinbolikoak gordetzen dituzte. Elkarte gastronomiko tradizionalak eta “tradizioaren arabera” emakumeentzako murriztaileak diren jai-ekitaldiak –Irungo eta Hondarribiako Alardeak kasu (Gipuzkoan)– konparatuz gero, egiaztatzen da gizonen okupatzen eta gozatzen duten zentro sinbolikotik emakumeak baztertzeko direla (Bullen & Díez, 2002:6). Boterearekin lotura duten espazio sozial eta sinbolikoetan, gizonarentzako egokitutako errealtatea zalantzan jartzen dute ekitaldi horiek. Elkarte garrantzi soziala ez bada antzematen, afekzio-aspektua ez bada onartzen, tradizioa testuinguru politiko eta sozialetik baztertzeko bada, aldatu nahi ez izatearen seinale da. Estrategia hori jarrera erlatibista dutenek erabiltzen dute: botere-harremanak eta gizonen kontrol eta prestigioa izateko aukera pribilegiatua legezkotzat jotzeko erabiltzen da desberdintasun kulturalaren azalpena. Maquieira-ren hitzetan (1998:187): “*hain zuzen ere, kultura da, alegia, berezitasun kulturala babesteko eta salbatzeko goreneko ideari buruzko arrazoibidea, gaur egun bizi garen munduan emakumeen aldarrikapenak eta eskaerak desaktibatzen modurik onena*”.

## 1.2 Metodología

Epigrafe honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte gastronomikoen antropologia-analisiari buruz jardungo gdugu eta honako hauek deskribatuko dira: gizarte-antropologiaren aztergaia, azterketa honetarako ezarri den helburua eta landa-lanarekin eta informazioa jasotzeko tresnekin zerikusia duten xehetasunak.

### 1.2.1 Gizarte-antropologiaren aztergaia

Gizarte-antropologian, oro har, gizarte-antolaketari buruzko gaiak sakontzen dira, hau da, ohiturak, antolaketa politikoa eta ekonomikoa, familia senidetasuna eta egitura, genero-harremanak, sozializazioa, balioak, sinismenak, etab. Halaber, bizi sozialaren eta giza jarreraren atzean dagoen logikaren esanahiak, anbiguotasunak eta kontraesanak aztertzen dira, eta horretarako dimentsio sinbolikoen azterketa ere kontuan hartzen da.

Informazioa jasotzeko, batik bat, bakarkako eta taldekako elkarrizketa sakonak egin dira eta partehartzaileak behatu dira. Horrek esan nahi du ikertzaile-taldeak aztertu behar duen taldearekin harreman zuzenak eta gertukoak ezarri behar izan dituela. Elkarrizketei esker, pertsonen mintzaldiak gorde eta euren ekintzak behatu ahal izaten dira; horrela, hitza eta ekintza kontrastatu, hutsaltasunak edo kontraesanak identifikatu edo mintzaldian agertzen ez diren aspektuak ikus daitezke. Bi tresna osagarri dira, besteak beste, izan ere, behaketari esker mintzaldia hobeto ulertzen baita eta ingurua eta testuingurua gehiago ezagutzen baitira.

Datu kualitatiboek esker, aztergai-taldeko kideen ahotsak barne hartu ahal izan dira. Hitzek hitzekotasuna, metodologia etnografikoan, behar-beharrezkoa da eta haren helburua zera da, hitzekin beraiekin informatzaileen egoerak argitzea. Izaera irekiko elkarrizketen edukien aurrean, pertsonak aske adieraztea bilatzen eta ahalbidetzen da. Aspektu hori funtsezkoa da, izan ere, modu horretan, posible baita hasierako planteamenduetan kontuan hartu ez diren aspektu berriak sortzea.

### 1.2.2 Elkarte gastronomikoei buruzko azterketaren helburu nagusia

Lan honen helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte gastronomikoei gizartean zer nolako garrantzia eta eragina duten argitzea eta deskribatzea da. Horretarako, elkarte gastronomikoen parametroak aztertzen dira, hala nola, gizartean eta kulturaren duten dinamizazioa eta protagonismoa; elkarteetan eragin- eta botere-sareak sortzea eta irautea; hierarkizatutako genero-harremanak irautea, emakumeen kalterako; eta maskulinitasun-eredu jakin batez gozatzea. Hori guztia elkarte

gastronomikoetako pertsonen arteko harremanen barruan aztertzen da eta genero-ikuspegi batetik.

### 1.2.3 Elkarte gastronomikoen hautaketa

Informatzaileak hautatzeko ezarritako irizpideetan, kontuan izan dira elkarte gastronomikoen aniztasuna eta elkartekideak izatearen baldintza edo horiekin nolabaiteko harremana izatea, baita gaian aditu diren pertsonak izatea ere. Jarraian, elkarte gastronomikoak hautatzeko erabili diren hiru irizpideak azaltzen dira:


- 1) Elkartean emakumeak zenbateraino bazterten/onartzen diren. Berdintasunezko elkarteak –emakumeak eskubide osoko elkartekide direnak– eta elkarte murriztaileak –emakumeak eskubide osoko elkartekide gisa onartzen ez dituztenak– aukeratu dira.

Hala ere, aipatu azken elkarte mota horretan, lokaletarako sarrera mugatzeko hainbat modu daude: inongo unetan eta urteko inongo egunetan emakumeak onartzen ez diren elkarteak; emakumeak egoera batzuetan soilik sartzen uzten dituzten elkarteak, adibidez, sarrera murrizten zaie, urteko edo asteko ordu eta/egun batzuetan izan ezik, eta sarrera librea onartzen da, urteko edo asteko ordu eta/edo egun batzuetan izan ezik; eta azkenik, emakumeek sarrera librea duten elkarteak, sukaldera sartzeko baimena izan ezik.

- Herritar kopurua. Probintziako hiriburuetan eta probintzian bertan dauden elkarte gastronomikoak.
- Eta elkarte gastronomikoaren izaera. Kontuan izan dira izaera herrikoia dutenak –auzoko elkarteak, komunitatean errotuta eta/edo inplikazioa dutenak– eta izaera elitistagoa dutenak –sartzeko iragazi finagoak dituztenak; oro har elkarte zaharrenak eta murriztaileenak dira–.

Jarraian, elkarrizketatu diren pertsonak elkartekide diren edo elkarrekin nolabaiteko lotura duten elkarte gastronomikoak deskribatzen dira.

### 1. irudia, Elkarte gastronomikoen deskribapena (n=33)




Aipatu elkarteak hiri eta herri hauetan daude: Donostian, 24; Tolosan, 4; Bilbon, 1; eta Hernanin, Pasaian, Lasarte-Orian eta Ataunen, elkarte bana bakoitzean.

### 1.2.4 Landa-lana

Aztergaiari buruzko informazioa lortzeko, honako tresna hauek erabili dira: bakarkako eta taldekako elkarrizketak aukeratutako elkarte gastronomikoekin lotura, zuzena edo zeharkakoa, duten pertsoneri, baita pertsona adituei ere; parte-hartzearen behaketa; dokumentazio-lana; telefonoz egindako inkesta; eta kasuaren azterketa.

49 elkarrizketa egin dira, 27 bakarka eta 22 taldeka. 2. irudian elkarrizketatu zaien pertsonen informazioa jasotzen da.

### 2. irudia, Informatzaileak, elkarte motaren eta herritar kopuruaren arabera (n=49)




(\*) 6 pertsona hauek beste profil batekoak dira: 2 aditu daude, hemen lantzen ari garen gaiari buruz euren ikuspegi espezializatua ezagutzeko eta euren ikuspuntuak jasotako datuen analisian barne hartzeko (Rafael Aguirre, elkarte gastronomikoei buruzko hainbat liburu idatzi ditu, eta Teresa del Valle, UPV/EHU Gizarte Antropologian katedradun emeritua, genero-gaietan aditua); 2 udal-teknikari daude, bata gizona, bestea emakumea, baita parte-hartzearen behaketa egiteko aukeratutako udalerrietako (Tolosako eta Donostiako) ordezkari politiko 1 ere; eta azkenik, elkarte tolosarrei buruz izugarri dakien 1 (Tolosako elkarte gastronomikoei buruz duen ikuspegia emateko eta udalerrian duen rola azaltzeko).

Azterketan parte hartu duten pertsonen anonimatua bermatzeko, haien identifikazioa eta zein elkartetakoak diren esatea ekidin da. Pertsona horien ekarpenak 1.3. Emaitzak izeneko atalean daude, honela antolatuta: “berdintasunezko elkarteko kidea” eta “elkarte murriztaileko kidea”, bi kasuetan elkarte hiriburuan edo probintziako udalerrri batean dagoen desberdintzen da; “elkarte murriztaileko kidearen emaztea”, Donostian dauden elkarteak izanik ez da bereizketarik egiten; “bizi tolosarraren jakituna”; adituak euren izenez identifikatzen dira; “udal-ordezkari politikoa, Donostia”; eta, azkenik, “udal-teknikariak, Tolosa”.

Donostiako eta probintziako elkarteetako elkarrizketariak bereiztu egin dira, izan ere, ekarpen desberdinak baitaude, funtsean, emakumeak elkarte gastronomikoetan onartzeari dagokionez; hala, esan daiteke Donostiako elkarte murriztaileetako elkartekideek modu zorrotzagoan adierazten direla, udalerrietako elkartekideak baino. Halaber, murriztailea den Bilboko kluba bereizten da, laginean ingeles motako klubena kasu bakarra delako.

Jarraian, bakarkako eta taldekako elkarrizketetan parte hartu duten pertsonen banaketa agertzen da sexu-aldagaiaren arabera.

3. irudia, Elkarrizketatutako pertsonak (n=49)



Bakarkako elkarrizketaren gidoian, taldeko elkarrizketetarako egin behar izan diren aldaketak kontuan hartuz (ikus I. eranskina), hauek barne hartzen dira: elkarte gastronomikoei betetzen duten funtzioaren ikuspegi orokorra; deskribapena (historia, jarduerak, elkartekide motak, finantzazioa eta kudeaketa, etab.); elkartekideen irabaziak; elkartearen sortutako harreman-sareak; emakumeak onartzea eta/edo baztertzera; elkarrekin erakundeekin duten harremana; elkartearen arteko harremana; elkarte gastronomikoen etorkizuna, emakumeek eskubide osoz parte hartzeari dagokionez, etab.

Parte-hartzearen behaketaren ildotik, helburua da elkarrizketen interpretazio-testuingurua ematea eta, alde horretatik, funtsezkoak dira interpretazio-esparru aproposak ezagutzeko eta elkarrizketetan jasotako mintzairak eta hainbat testuingurutan behatutakoa kontrastatzeko. Horregatik, txostenean, ez dira behaketa-saio horiek zehatz-mehatz aztertzen. Hala ere, oso erabilgarriak izan dira, elkarrizketetan eta dokumentazio-lanean jasotako datuak eta informazioa interpretatzeko.

Hiru Lurralde Historikoetako udalerrietako elkarte gastronomikoetan, 20 parte-hartze behaketa egin dira (Donostian, Hernanin, Pasai San Pedron eta Ataunen, Gipuzkoan; Bilbon; eta Zaldudon, Araban), eta beste behaketa bat ere egin da Tolosan (Gipuzkoan), San Juan jaiaren ospakizunean, udalerriko herritarrek gogoz itxaroten duten ospakizuna baita (inauteriekin batera, noski). Ekitaldi hauetan jaso da parte-hartzearen behaketaren bidez lortutako informazioa:

- Ekainaren 21a, larunbata, koadrilen kale-agerraldia eta txupinazoa. Ekiataldiak: koadrila-bazkariak, Txinparta Elkarte Gastronomikoak antolatutako pintura-erakusketa eta Batasuna Elkarte Gastronomikoak antolatutako sagardo-txapelketa.
- Ekainaren 23a, astelehena. San Juan suaren aurretiko afaria Gure Txoko Elkarte Gastronomikoan eta San Juan suaren piztea.
- Ekainaren 24a, asteartea. Eskopetalarien kale-agerraldia, Gure Kaiola Elkarte Gastronomikoaren hamaiketako (Meza Nagusiaren bitartean) eta eskopetalarien beste kale-agerraldi bat elizkizunen ostean.

Dokumentazio-lanean, bibliografiak bilatu eta kontsultatu dira, elkarte gastronomikoei buruzko hainbat iturritatik. Interneten egindako bilaketa espezifikoen bidez, egunkari digitaletan argitaratutako berri ugari aztertu dira, eta elkarte gastronomikoei, gehienetan izaera murriztailedunek, parte hartu duten ekitaldi edo ospakizunei buruzkoak. Gainera, elkarte gastronomiko batzuen webguneetara sartu ahal izan da eta, horri esker, elkartearen jatorria, helburuak eta jarduerak gertuagotik ikusi dira; horrez gain, erakunde horien oroitzapenezko libururen bat irakurtzeko aukera ere izan da. Azkenik, Koldo Mitxelena Kulturunea (Donostia) Liburutegiko funts bibliografikoa eta erreserba-funtsa kontsultatu

da. Gai horiei buruzko hainbat ale erabili dira, batzuk elkarteek beraiek eskatuta egindakoak gainera (adibidez, elkartearen 50 urteurrena dela-eta) eta elkarte gastronomikoen lehen garai gorenei buruzko (XX. mendearen hasierakoak) askotariko egunkari-artikulu eta prentsa-oharrak kontsultatu dira.

Telefono bidez datuak jasotzeko, EAEko hiru Lurralde Historikoetako elkarte gastronomikoekin harremanetan jarri gara. 5 hilabetetan zehar jaso da informazio deskriptiboa, besteak beste, elkarte kopuruari, elkartekide kopuruari, emakume-elkartekideak onartzearekiko politikari eta fundazio-urteari buruzkoa, eta hainbat eta askotariko arazoak ere izan dira.

Hauek dira telefonoz egindako inkesta egitea zaildu duten arrazoi nagusiak: elkarte gastronomiko batzuek ez dute telefonorik, bereziki, landa-eremuetakoek; elkartearen erregistroa borondatezkoa denez, askotan ezin izan dira elkarteak identifikatu udal- eta lurralde-erregistroetan; interneten eskuragarri dauden datu-baseak zaharrak izan dira eta, ehuneko handi batean, datu okerrak ematen ziren; Udal gehienetan ez dakite udalerrian zein elkarte gastronomiko dauden, nola funtzionatzen duten edo horiekin harremanetan jartzeko moduak zeintzuk diren; eskura genituen telefono-zenbakiak, batzuetan, ez dira erabilgarriak izan elkarteekin harremanetan jartzeko, nahiz eta hainbat alditan ordu eta astegun desberdinetan deitu, eta ez dakigu zein den harremana ez lortzeko arrazoa (telefono-zenbaki okerra, elkarteak ez funtzionatzea, deitzean une eta leku hartan pertsona bat bera ere ez egotea, etab.); kasu askotan fundazio-urtea eta elkarkide kopurua soilik ezagutzen da, elkarteekin zuzenean harremanetan jartzeko aukerarik izan ez delako, eta beraz datu horiek udal-erakundeen edo interneteko bilaketan bidez lortu dira, baita gaiari buruz kontsultatutako bibliografiatik ere.

Aipatu zailtasunek adierazten dute elkarte gastronomikoetako eduki deskriptiboak batukariak erabiliz egin direla eta, kasu bakoitzean, joerei egiten dietela erreferentzia.

Azkenik, Donostiako Gaztelubide Elkarte Gastronomikoari buruzko *kasuaren azterketa* bat egin da (ikus II. eranskina); elkarte adierazgarri eta ospetsuenetarikoa izateaz gainera, gaur egun 75. urteurrena ospatzen ari da. Horregatik, elkarteko lehendakariarekin harremanetan jarri ginen elkarrizketa bat egiteko. Era berean, Gaztelubideri buruzko informazio historikoa bildu zen (Internetetik, Hemerotekatik eta Koldo Mitxelena Kulturunea Liburutegiko Erreserba Funtsetik).

### 1.3 Emaitzak

Atal honetan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko elkarte gastronomikoen antropologia-analisiaren emaitzak azaltzen dira. Hiru epigrafetan banatzen dira: lehenengoan, 1.3.1., elkarte gastronomikoen deskribapen orokor bat egiten da (jatorria, bilakaera, emakumeen parte-hartzea edo bazterketa, inguruarekiko konpromisoa, funtzionamendua eta elkarte gastronomiko motak); zailtasunak zailtasun, deskribapen hori batukariak oinarri egin da eta, kasu bakoitzean, joerei egiten zaie erreferentzia.

1.3.2. epigrafean, elkarte gastronomikoek gizartean duten eragina aztertu eta zer funtzio betetzen duten azaltzen da, bai komunitatearen dinamizazioan, bai nortasun kulturean, bai gizarte-sareen garapenean. Eta azkenik, hirugarren epigrafean, 1.3.3.an, ardatz nagusia emakumeak elkarte gastronomikoetan sartzeko dituzten mugak dira eta, ildo horretatik, bazterketa-mekanismoei, nortasun maskulinoari eta elkarten bilakaerari buruz lortu diren emaitzak azaltzen dira.

### 1.3.1 Elkarte gastronomikoen deskribapena

Jarraian, elkarte gastronomikoen ezaugarriak zerrendatzen dira: jatorria, bilakaera, emakumeen parte-hartzea edo bazterketa, inguruarekiko konpromisoa, funtzionamendua eta elkarte motak.


#### • **Jatorria**

Argitalpenen arabera, elkarte gastronomikoak XX. mendeko bigarren erdialdean sortu ziren Donostian, sagardotegi eta garai hartako tabernen ordeko aisialdirako espazio gisa (*“Las Sociedades Populares: Donostia 1870-2005”*, Aguirre, 2006). XIX. mende amaieran, Donostiako hiria, harresiak erori ostean, ekonomiaren eta gizartearen gailurrean zegoen eta, horri esker, herritarren aisialdirako interesa sustatu zen. Gauzak horrela, burgesia eta turismoa Kasinoan eta garai hartan sortutako kafe ugartan elkartzen zen; aisialdi herrikoia, berriz, sagardotegietan eta tabernetan. Hala ere, udalak ezarritako ordutegi-mugak zirela-eta, nolabait ere, elkarte herrikoiak deritzenak sortzen hasi ziren.

Elkarte gastronomikoak aisialdirako gune gisa eratu ziren. Bertan, kontsumitzeko beharrik izan gabe ere, ekonomikoagoak ziren eta ez zuten ordutegi-mugarik, sagardotegiek eta tabernek ez bezala. Baldintza horiek dira, hain zuzen ere, gaur egun elkarte gastronomikoek eskaintzen dituzten oinarrizko onuretako bat.

Aguirrek argitaratutako datuen arabera (2006), Euskadiko Autonomia Erkidegoan 1.415 elkarte gastronomiko daude eta, 4. irudian azaltzen den bezala, Lurralde Historiko batzuetan besteetan baino gehiago daude.

4. irudia, Elkarte gastronomikoen banaketa Lurralde Historikoen arabera (N=1.415)



Iturria: R. Aguirre, 2006

Gipuzkoako Lurralde Historikoan daude elkarte gastronomikoen erdiak baino gehiago (%51,7). Araban, elkarte gastronomiko gutxiago ezarri ziren (%15,5) eta Bizkaian, berriz, elkarte gastronomikoen herena dago (%32,8).

Jarraian, elkarte gastronomikoen historian eta jatorrian sakon murgildu gabe, aipatu elkarteek lortu duten garrantzi sozialari buruz arituko gara, baita Euskal Autonomia Erkidegoan elementu tradizionaltzat jo izanaz ere.

Bibliografian jasotako datuei esker, baieztatzen da lehenengo elkarte gastronomikoa, “La Fraternal” izenekoa, 1843an sortu zela helburu jakin batekin (elkartearen estatutuetan ezarrita dago): “jateko eta abesteko” espazioa izatea. Hau da, hasiera batean aisialdirako eta elkartekideak dibertitzeko leku gisa sortu zen, oro har.

Gaur egun arte iraun duten elkarte gastronomiko batzuek gizon langileen gremio-taldea biltzea izan zuten sortzeko arrazoi; hala da “La Unión Artesana” elkartearen kasua. Azken honen eratze-aktak dioten bezala, helburua zen “*artisaunen elkarte bat sortzea, kide izan nahi dutenak entretenitzeko eta horien aisialdirako espazio gisa*”. ([www.celso.net/txoko1/datossg1.htm](http://www.celso.net/txoko1/datossg1.htm)) (08-12-29an egin zen bisita).

Gremio-izaera izan arren, elkarteek “berdintasunezko” eta “demokratiko” izaera lortu zuten berehala, izan ere, ez baita kontuan hartzen pertsonen gizarte-maila eta elkartekide guztiek baitituzte eskubide

eta betebeharrak: *“elkarteen ohiko topikoa izaera demokratikoa da, hau da, elkarreetan edozein pertsona ibili daiteke, edozein dela ere bere gizarte-klasea edo lanbidea. Alde Zaharrea, eta batez ere lehengo garaietan, egia hutsa zen hura. Donostiako burgesiak sortutako Elkarreetan (Muelle-Ollagorria, Euskal Bilera, Ilunpe, Aitzakia, etab.) askotariko jendea izan ohi zen: artisauak, merkataritxikiak, arrantzaleak, portuko langileak, abokatuak edo medikuak. Logikoki, mahaietan elkartekideak taldeka ipintzen ziren, afinitate eta koadrilen arabera. Hala ere, “Elkarte Herrikoa” fenomeno erabakigarria izan zen gizarte donostiarra demokratizatu eta klase-mugak ezabatzeke” (<http://www.sociedadesgastronomicas.com/>) (08-12-29an egin zen bisita). Antzeko hitzekin deskribatzen ditu ezaugarriak parte-hartzaile batek:*

*Elkarreek ezaugarri bat izan badute, batez ere zaharrenek, batez ere Alde Zaharrea daudenek, elkarreetan zegoen gizarte-aniztasuna [da] (berdintasunezko elkarteko kidea, Donostia).*

Hasieran, aisialdirako jarduerak kide ziren gizonentzat ziren bakar-bakarrik, baina segituan zabaldu ziren kanpora, herritarrentzako horrelako jarduerarik ez baitzegoen. Modu horretan, Donostiako bizi sozialean leku bat aurkitu zuten eta, gaur egun, bizirik dirau aisialdirako gune eta elkartekideen arteko berdintasunezko harremanak izatearen hasierako izpiritu hark. Oro har, komunitatearekiko orientazioa jada ezaugarri nagusia ez bada ere, elkarte gastronomiko askok funtzio garrantzitsua betetzen dute herrietako festa-jardueretan.

Bizkaiko Lurralde Historikoan, elkarte gastronomikoen jatorria oso desberdina da; klub ingelesak antz handiagoa zuten (Llona, 1989), batez ere elkartekideak burgesak zirelako eta gizarte-klase horrek ez zuelako ia zerikusirik elkarte herriko donostiarrekin. Pixkanaka-pixkanaka, aipatu elkarreek hasierako ingeles kutsua galdu eta elkarte gastronomiko gipuzkoarren dinamikak eta ohiturak hartu dituzte. Gaur egun, haien funtzionamendua, arazoak eta zailtasunak Euskal Autonomia Erkidegoko beste elkarte gastronomikoen antzekoak dira.

Arabako Lurralde Historikoko elkarte gastronomikoak, berriz, berriagoak dira eta beste berezitasun batzuk dituzte. Lehenengo elkarte gastronomikoa 1934. urtean sortu zen eta “La Globa” izena eman zioten. Orokorrean, nabari da Vitoria-Gasteizko elkarte gastronomikoek gipuzkoarren ereduari jarraitzen dietela, baina, hala ere, probintzian daudenek –gutziz landa-eremutakoak eta probintzian zabalduak– ez dute halako ezaugarriarik. Elkarte guztiak funtsezkoak dira euren udalerriko gizarte-kohesiorako, eta aisialdirako jardueren muina dira. Zabalkunde-prozesuari dagokionez, 70. hamarkadan elkarte gastronomiko ugari sortu zen eta blusen koadrilekin lotura estua izan dute (Ildróquilis, 1994). Arabako herri eta koadrila askotan, elkarte gastronomikoak dira aisialdirako gune bakarrak eta, batik bat, komunitatearen baliabide gisa definitzen dira. Normalean, lokala ez

da elkartekideen jabetza, udal-organismo batena baizik, eta inguruko herritar guztientzat daude irekita. Mankomunitateetako “zentro sozial” deritzen horien antzekoak dira, herritarrei biltzeko leku bat eskaintzen baitiete, alegia, lagunekin eta familiarekin bazkariak egiteko lekua.

Telefonoz egindako inkestatik –5. irudian azaltzen da– bildutako informazioa oinarri, nabarmena da elkarte gastronomikoak XX. mendearen azken herenean hasi zirela ugaritzen; garai hartan, inkesta egin zaien elkarte gastronomikoen % 46 sortu zen (n=204).

5. irudia, Elkarte gastronomikoen sortze-urtea eta Lurralde Historikoa

Sortze-urtea	Araba (n=99)		Bizkaia (n=107)		Gipuzkoa (n=237)		Guztira (n=443)	
	n	%	n	%	n	%	n	%
1998tik aurrera	8	8,1	14	13,1	11	6,6	33	7,4
1975-1998 artean	61	61,6	58	54,2	85	35,9	204	46,0
1939-1974 artean	29	29,3	34	31,8	92	38,8	155	35,0
1939 baino lehenago	1	1,0	1	0,9	49	20,7	51	11,5

*Iturria: telefonoz egindako inkesta, 2008*

• **Bilakaera**

Elkarte gastronomikoak egotearen eta herritar kopuruaren arteko loturaren ildotik, 20.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan (“herri txikietan”) dago elkarte gastronomikoen erdia baino gehiago (% 55). Arrazoiak, agian, udalerrri txikietan aisialdirako guneak sortzeko beharrea datza, oro har, horretarako baliabide gutxiago izan ohi baita.

6. irudia, Elkarte gastronomikoak, herritar kopurua eta Lurralde Historikoa

Herri mota	Araba (n=220)		Bizkaia (n=464)		Gipuzkoa (n=731)		Guztira (n=1.415)	
	n	%	n	%	n	%	n	%
Hiriburua	104	47,3	117	25,2	120	16,4	341	24,1
Herri ertaina	16	7,3	114	24,6	165	22,6	295	20,8
Herri txikia	100	45,4	233	50,2	446	61,0	779	55,0

*Iturria: R. Aguirre, 2006*

Oro har, Lurralde Historikoetan, elkarte gastronomikoak 20.000 herritar baino gutxiagoko herrietan sortzeko joera dago (% 45,4, % 50,2 eta % 61, hurrenez hurren).

7. irudian azaltzen diren datuetatik bi aspektu garrantzitsu ondorioztatu dira: elkarte gastronomikoen herenak 20 eta 50 elkartekide bitartean du (% 33ak); eta hurrengo ehuneko altuenak (% 29,8) 50 eta 100 pertsona bitartean duten elkarte gastronomikoei egiten die erreferentzia.

7. irudia, Elkarte gastronomikoak, elkartekide kopurua eta Lurralde Historikoa

Elkartekide kopurua	Araba (n=105)		Bizkaia (n=113)		Gipuzkoa (n=218)		Guztira (n=436)	
	n	%	n	%	n	%	n	%
20 baino gutxiago	16	15,2	15	13,3	4	1,8	35	8,8
20-50 artean	69	65,7	47	41,6	28	12,8	144	33,0
50-100 artean	13	12,4	40	35,4	77	35,3	130	29,8
100-200 artean	6	5,7	9	8,0	76	34,9	91	20,9
200-500 artean	1	0,9	1	0,9	23	10,6	25	5,7
500 baino gehiago	-	-	1	0,9	10	4,6	11	2,5

*Iturria: telefonoz egindako inkesta, 2008*

Lurralde Historikoen arabera, Arabako elkarte gastronomiko gehienak (% 80,9) tamaina txikikoak dira (50 elkartekide baino gutxiagokoak), herritar gutxi dituzten udalerrri asko baitaude. Era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoan gehienek (% 77,0ak) 20 eta 100 elkartekide artean dute, eta Gipuzkoako elkarte gastronomiko gehienetan (% 70,2an), berriz, 50 eta 200 artean dago kopurua eta, gainera, 200 elkartekide baino gehiago duten elkarteen ehuneko nabarmena da (% 10,6).

• **Emakumeen parte-hartzea**

Gaztelubide elkarte gastronomikoaren (Donostian) 50. urteurrenaren oroitzapeneko argitalpenean, 1934. urteari buruzko aipu historikoa dakar, aipatu elkartearen inaugurazio-urtekoa. Aipuan elkarteek sortze-garaian zuten izaera azaltzen da; badirudi garai hartan gehiegizko lotsa eta sexuagatiko segregazio irmoa zegoela: *“Probintziako zein tokian tokiko autoritateei eskatzen diegu, arren, zaintza antolatu eta polizia ezartzeko, gure hondartzetan pertsona doilorrak egon ez daitezen, gizon eta emakumeen arteko banaketa tradizionala errespetatzeko airea hartzean, itsasoan bainatzean eta eguzkia hartzean, inork ez dezan hondartza-muga igaro etxebizitzara joaten denean. Inork ez du ahaztu behar ohituren diziplinak paganismoa eta basakeria atzean uzteko balio duela”* (Gipuzkoako

Aurrezki Kutxa, 1984:18).

Sexuagatiko segregazioa are banatzaileagoa bilakatu zen erregimen frankista ezarri zenean. Erregimenak, Eliza Katolikoaren laguntzarekin, gizarte-egitura patriarkala sustatu eta indartu zuen eta, hala, emakumeen rolean eragina izateaz gainera, emakumeak gizonen mende jarri ziren; egile batzuek esaten duten moduan –besteak beste Lourdes Benería-k (1977)– “*emakumeen etxekotze prozesua*” deritzona burutu zen. Prozesua bultzatzeko, hainbat neurri hartu ziren: lege-neurriak (Langileen Forua, 1938an onartua; horren bidez emakumeei soldatapeko lanak debekatzen zaizkie, eta, beraz, ekonomikoki euren senarren mende daude); hezkuntza-neurriak (sexu-banaketa izugarrian oinarritutako hezkuntza-sistema. Emakumeak “*etxeko bizitzarako, artisautzarako eta etxeko industrietarako*” hezten ziren (Folguera, 1998)); eta emakumeen aisialdiaren kontrol sozial bortitza, besteak beste.

Modu horretan, elkarte gastronomikoen jatorria garai hartako emakumeen bizitzetatik at dago. Kontsultatu zaien adituen arabera, onartzen zen aisialdi motak, edo emakumeentzako ontzat jotzen zenak, ez zuela tabernekinekin, sagardotegiekin eta elkarteekin zerikusirik eta, asko jota, hiriko kafeetan euren presentzia onartzen zela.

*“Elkartean, garai hartan sexu-banaketa zorrotza zegoenean, emakumeak rol bat zuen eta gizonak beste bat. Emakumea etxean gehiago sartzen zen eta gizona, lana amaitzean, kalera irten eta askok egiten zutena egiten zuen, alegia, txikiteoan ibili, beste lagunekin elkartu, ardo batzuk hartzera joan...”* (Rafael Aguirre).

Ikuspuntu horretatik, ez da harrizkoa emakumeei, hasieran behintzat, elkarteetara sartzeari debekatzea eta, gainera, ez zen azaldu ere egin behar elkarteetara sartzeko zuten debekua, inongo emakumerik ez baitzen sartzeari ausartuko.

*Ez, ez, emakumea ez da inoiz elkartera sartu. Eta ez da beharrezkoa izan “emakumea ez da sartuko” erregelamenduan idaztea. Ez zen ohikoa emakumea elkartera sartzeari. Hau da, alde horretatik ez zuten sartzeko baimenik. Tolosan, adibidez, emakumeak garai hartan zegoen kafetegi batera bakarrik joaten ziren, eta neskatxak eta ikasleak kafetegi horretara joaten ziren, piano bat zegoelako, nahiz eta ikasketarik ez izan, musikaz ez jakin, pianoa jotzen ez jakin, eta abar... Neskak joan zitezkeen lekua zen. Hau da, kafe-pianoak, Tolosan 20 edo 30. hamarkadan zeudenak. Mutiko koxkorra nintzeneko anekdotez gogoratzen naiz, bai. Emakumeak ez zuten tabernarako ohiturarik, elkartean ez zen begi onez ikusten emakumea taberna batera joatea (elkarte tolosarretan jakituna).*

Gremio-izaera zuten elkarte gastronomikoetan, emakumeak gremio horietatik kanpo gelditzen ziren; “gizonezko” langileak biltzen baitziren elkarteetan. Beste kasu batzuetan, eta garai hartan Donostiak zuen izaera turistiko nabarmena zela medio, elkarte herriko batzuk emakumeen sarrera-bettoa esanbidez jasotzen zuten; hori da “La Unión Artesana” elkartearen kasua. Hala dio bere 47. artikulua: *“Halaber, debekatuta dago emakumeak aretora sartzea, nahiz eta kanpotarrak izan”* (Aguirre 2006:19)

Gaur egun, sortu berri diren elkarte gastronomikoen, oro har, berdintasunezko izaera dute, gizonak eta emakumeak elkartekide izan daitezke baldintza berdinen pean. Era berean, elkarte gastronomiko murriztaileak gero eta gehiago ari dira arauak malgutzen, egoitzan emakumeen presentziari dagokionez. Bada, ohikoa da urteko egun guztietan eta eguneko edozein unetan sartu ahal izatea, betiere elkartekideren batekin badoaz eta sukaldera sartzen ez badira (sukaldeak gizonentzat izaten jarraitzen du, bai gizon-elkartekideak badira, bai elkartekide bati laguntzen ari zaion bisitariak badira). Modu honetan azaltzen du elkarriketatutako aditu batek:

*Auzo berri batean, Loiolako Erriberetan, edo beste batean, lehenengo taberna bat irekitzen da, gero egunkariak saltzeko postua, janari-denda eta, halako batean, bizilagunek elkarte bat sortzen dute, ala? Ba, orduan, elkarte berri guztietan, salbuespenik gabe, sexu-berdintasun absolutua dago, besterik ez genuen behar! Elkartekide izan daitezke. Baita emakumeak ere, batzuetan noski eta, batik bat nolabait ere ezker abertzalearen aldekoak direnetan, lehendakariak dira* (Rafael Aguirre).

8. irudian jasotako informazioa kontuan hartuz, argi ikus daiteke elkarte gastronomikoetan emakumeak baztertzeko joera badagoela. Izan ere, 323 elkarten % 58,5ak “ez du onartzen” emakume-elkartekiderik.

8. irudia, Elkarte gastronomikoak, emakume-elkartekideak “onartzea” eta “ez onartzea” eta Lurralde Historikoa

Emakume - elkartekideak onartzea	Araba (n=57)		Bizkaia (n=100)		Gipuzkoa (n=166)		Gutira (n=323)	
	n	%	n	%	n	%	n	%
Bai	23	40,4	21	21,0	90	54,2	134	41,5
Ez	34	59,6	79	79,0	76	45,8	189	58,5

*Iturria: telefonoz egindako inkesta, 2008*

Gipuzkoako Lurralde Historikoan, emakumeen sarrera mugatzen duten elkarte gastronomikoen ehunekoa altua bada ere (% 45,8), elkarte gehienetan (% 54,2) emakumeak eskubide osoko elkartekideak dira. Hala ere, Bizkaiko eta Arabako elkarte gastronomiko gehienek (% 79 eta % 56,6 hurrenez hurren) ez diete emakumeei elkartekide gisa parte hartzen uzten.

Jarraian, emakume-elkartekideen “onartzea” eta “ez onartzeari” buruzko datuak daude, elkarten sortze-urtea eta dagokien Lurralde Historikoa.

9. irudia, Sortze-urtea, emakume-elkartekideak “onartzea” eta “ez onartzea” eta Lurralde Historikoa

Sortze-urtea	1998< (n=27)		1974-1998 artean (n=147)		1939-1973 artean (n=104)		1939> (n=38)		Guztira (n=316)		
	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%	
Araba	BAI	4	14,8	15	10,2	4	3,8	-	-	23	43,4
	EZ	2	7,4	15	10,2	12	11,5	1	2,6	30	56,6
Bizkaia	BAI	5	18,5	12	8,2	4	3,8	-	-	21	21,0
	EZ	8	29,6	43	29,2	27	26,0	1	2,6	79	79,0
Gipuzkoa	BAI	8	29,6	40	27,2	30	28,8	9	23,7	87	53,4
	EZ	-	-	22	15,0	27	26,0	27	71,0	76	46,6
EAE	BAI	17	63,0	67	45,6	38	36,5	9	23,7	131	41,4
	EZ	10	37,0	80	54,4	66	63,5	29	76,3	185	58,5

*Iturria: telefonoz egindako inkesta, 2008*

Adierazitako datuetatik joera hauek daudela ondoriozta daiteke:

- Oro har, EAEko elkarte gastronomiko gehienek emakume-elkartekideak “onartzen ez” badituzte ere (% 58,5), azken hamarkadan izandako bilakaera positiboa da, izan ere, 1998. urtetik aurrera sortutako elkarten bi herenak (% 63) emakumeak elkartekide gisa onartzen baititu.

- Bizkaiko Lurralde Historikoan, aztertutako sortze-urteen lau aldietan, emakumeak “onartzen ez” diren ehunekoa handiagoa da nabarmen (% 79) “onartzen” dituztenena baino (% 21), 1998az gero sortzen diren elkarteak barne.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan, 1939 baino lehenago sortutako elkarten datuak kontuan izan gabe, beste sortze-urteetako hiru aldietan, emakumeak “onartzen” dituzten elkarten ehunekoa altuagoa da “onartzen ez” dituztenena baino (% 21). Gainera, 1998az gero sortu ziren 8 elkarteetan emakume-elkartekideak daude.
- Azkenik, Arabako Lurralde Historian, emakumeak “onartzen” eta “onartzen ez” dituztenen elkarte kopurua antzekoa da 1974 eta 1998 bitartean sortutakoen artean. Hala ere, emakume-elkartekideak “onartzen” dituzten elkarten ehunekoa, 1998az gero sortutakoak kontuan izanez, bikoiztu egiten da, emakumeen parte-hartzeari ukatzen dietenekiko.

Hurrengo irudian, emakume-elkartekideak “onartzen” eta “onartzen ez” dituzten elkarte gastronomikoei buruzko datuak ageri dira, herritar kopurua kontuan izanda.

10. irudia, elkarte gastronomikoak, populazio kopurua eta Lurralde Historikoa

Herritar kopurua	Hiriburua (n=121)		Herri ertaina (n=63)		Herri txikia (n=140)		Guztira (n=324)		
	n	%	n	%	n	%	n	%	
Araba	BAI	6	4,9	4	6,3	13	9,3	23	40,3
	EZ	31	25,6	-	-	3	2,1	34	59,6
Bizkaia	BAI	4	3,3	3	4,8	14	10,0	21	20,8
	EZ	16	13,2	29	46,0	35	25,0	80	79,2
Gipuzkoa	BAI	25	20,7	12	19,0	53	37,8	90	54,2
	EZ	39	32,2	15	23,8	22	15,7	76	45,8
EAE	BAI	35	28,9	19	30,1	80	57,1	134	41,3
	EZ	86	71,1	44	69,8	60	42,8	190	58,6

*Iturria: telefonoz egindako inkesta, 2008*

Oro har, telefono bidezko inkestetatik bildutako datuetan baieztatzen den joera da herri txikietan dauden elkarte gastronomiko gehienak emakume-elkartekideak “onartzen” dituztela (% 57,1). Hala ere, “ez onartzeko” joera handiagoa da probintziako hiriburuetakako elkarteetan (% 71,1) eta populazio ertaineko hirietakoetan (% 69,8). Bizkaiko Lurralde Historikoan, herritar kopurua alde batera utzita, emakume-elkartekideak “onartzen ez” dituzten elkarteak gehiago dira, nabarmen gainera, “onartzen” dituztenak baino (% 13,2, % 46 eta % 25 hurrenez hurren).

Elkarte gastronomikoen tamainari buruzko datuak (elkartekide kopurua), emakume-elkartekideak “onartzea” edo “ez onartzea” Lurralde Historikoaren arabera azaltzen dira 11. irudian.

11. irudia, Elkarte gastronomikoak, emakume-elkartekideak “onartzea” eta “ez onartzea”, emakume-elkartekideen kopurua eta Lurralde Historikoa (n=284)

Emakume-elkartekide kop.		20 > (n=23)		20-50 artean (n=97)		50-100 artean (n=98)		100-200 artean (n=71)		200-500 artean (n=17)		500< (n=8)	
		n	%	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%
Araba	BAI	5	21,7	9	9,3	5	5,1	4	5,6	-	-	-	-
	EZ	2	8,7	26	26,8	4	4,1	1	1,4	-	-	-	-
Bizkaia	BAI	6	26,1	5	5,1	6	6,1	3	4,2	-	-	-	-
	EZ	8	34,8	39	40,2	30	30,6	2	2,8	-	-	1	12,5
Gipuzkoa	BAI	1	4,3	10	10,3	27	27,5	29	40,8	8	47,0	7	87,5
	EZ	1	4,3	8	8,2	26	26,5	32	45,1	9	52,9	-	-
EAE	BAI	12	52,2	24	24,7	38	38,8	36	50,7	8	47,0	7	87,5
	EZ	11	47,8	73	75,2	60	61,2	35	49,3	9	52,9	1	12,5

*Iturria: telefonoz egindako inkesta, 2008*

Joera aipagarriena da 20-50 eta 50-100 elkartekide bitartean duten elkarte gastronomikoak direla gehienak, % 68,6, eta elkarte horiek dira, hain zuzen ere, emakume-elkartekideak “ez onartzearen” joera erakusten dutenak, % 75,2 eta % 61,2 hurrenez hurren.

• **Inguruarekiko konpromisoa**

Arestian aipatu bezala, elkarte gastronomikoen helburua gizon-elkartekideei aisialdirako eta dibertimendurako gune bat eskaintzea zen, aldi berean, gizartea nabarmen dinamizatuz, batez ere, erakundeek ez zituztelako horrelako jarduerak bermatzen.

*Lehen erakunde publikoek, Udalak, Diputazioek, ez zuten diru asko, eta kirol-jarduerak, eta kultura-jarduerak baita, erakunde pribatuen esku zeuden eta puntu horretan soziedadeek berealdiko paper garrantzitsua jokatzen zuten (Rafael Aguirre).*

Donostiako elkarte gastronomikoetan, herriko bizitzaren aisialdiko motore gisa “*Elkarte Herrikoa da hiriaren egiturarako elementu nagusia*” (Aguirre 2006:14). Hala ere, askotan, izpiritu parte-hartzaile hori pixkanaka indargabetu egiten da eta alde gastronomikoari gero eta garrantzi handiagoa ematen diote, komunitatearen kalterako (kultura, kirol edo aisialdiaren kontra). Elkarrizketatutako pertsona batzuk joera hori baieztatzen dute:

*Soziedade hau kirol-motiboengatik soilik sortu zen (...), mendia, eskubaloia, saskibaloia, traineruak (...), baina kirolaren alde hori guztia desagertzen doa, bai (elkarte murriztaileen elkarrizketataldeko gizona).*

Gauzak horrela, erakundeak bitziza soziala dinamizatzen hasi ziren heinean, elkarte gastronomikoak euren jarduerak prestatzeari ekin zioten batik bat; hala dio Aguirrek: “*Ziurtasun osoz baieztatzen dugu Elkarte Herrikoiek bete zutela administrazio publikoek garai batean utzitako hutsunea. Baliabide ekonomikoak lortu zituztenean eta, bereziki, zerbitzu-filosofia, Elkarte Herrikoiak elkartekideen aisialdira eta dibertimendura orientatu ziren, gastronomia oinarri. Baina, askotan, ezin da ahaztu beste jarduera batzuetan betetzen zuten funtzio osagarria*” (2006:13).

Gaur egun, komunitaterako egiten dituzten jarduerak urteko aldi jakin batzuetan besterik ez dira egiten: danborrada eta auzoko edo herriko festak antolatzen dituzte bereziki. Hala ere, bereizketa bat egin daiteke; batetik, elkartekideen aisialdiari (emakume-elkartekideena barne, kasuak kasu) garrantzi handiagoa ematen dieten elkarteak daude, agian elkarte zaharrenak dira horiek; eta bestetik, komunitatea dinamizatzeko bokazioa mantentzen dutenak.

### • **Funtzionamendua**

Edozein elkarte gastronomikoren oinarrizko ezaugarriak sukaldea eta edari-soto bat izatea da, elkartekideek libreki eta nahi adina erabiltzeko. Ohikoa da giltza izan eta ordutegirik ez izatea (betiere, bizilagunen arteko elkarbizitzaren oinarrizko arauak errespetatuz).

Hori guztia ohikoa dela esaten da, elkarte gastronomikoekin zerikusia duen gai orok bezala, ez baitago elkarte berdinek, ezta arau berdinek edo funtzionamendu berdinek ere. Adibidez, elkartekideek giltza bat izatea ohikoa izan arren, elkarte batzuetan ez da hala izaten, baina ezaugarri hori betetzen ez bada ere, elkarte gastronomikoa izaten jarraituko du. Gauzak horrela, jarraian landuko den aspektu bakoitzean hainbat salbuespen aurki daitezke; horregatik, elkarte gastronomikoen ezaugarri orokorrak azalduko dira, nahiz eta guzti-guztietan halakorik ez dagoela jakin.

Lokala elkartearen jabetza izaten da; horrenbestez, elkartekide izateko diru-kopuru bat eman ohi da eta elkartekide berria jabeak ere bihurtzen da.

Elkarte gastronomikoen barne-antolaketa Zuzendaritza Batzorde batek zuzentzen du. Hainbat modutan aukeratzen da Batzordea, ohikoena, berriz, zozketa bidez egitea da, boluntario gutxi izan ohi baita. Haren lana elkarteko kontuak eguneratuta mantentzea da, edari-sotoa berriz hornitzea eta arauak betetzea. Kargu ohikoenak hauek dira: lehendakaria, lehendakariordea, diru-zaintzailea eta idazkaria. Zuzendaritza Batzordea aukeratzeko eta elkartearen funtzionamenduari eragiten dion edozein gai erabakitzeko, Batzarrean bozkatu egiten da eta elkartekide bakoitzak boto bat emateko eskubidea du.

Elkarte gastronomikoak euren konstituzioan ezarritako estatutuek arautzen dituzte eta horietan sortze-helburuak eta oinarrizko arauak azaltzen dira, elkartekide guztiek onartu beharrekoak. Askotan, barne-erregelamendu bat ere izan ohi da, elkartearen eguneroko funtzionamendurako arauak, alegia.

Sukaldearen erabilerari dagokionez, ohikoena elkartekideek beraiek janaria prestatzeaz arduratzea da, baina elkarte gastronomiko batzuetan horretarako pertsona bat izaten dute edo bi modalitateak konbinatzen dituzte.

Elkarte gastronomiko ororen oinarria elkartekideen zintotasunarekiko konfiantza da guztiena den jabetza errespetatzerakoan; hala dio azterketan parte hartu duen batek:

*Jakin badakigu baten batzuk erabiltzen dugun gela dela, eta guztiek dugu besteek egiten dutenarekiko konfiantza: gela honen jabe bazara, ba, zaindu egiten duzu. Nire ustez hori da elkarte baten oinarri nagusia (berdintasunezko elkarteko gizon-kidea, Donostia).*

Horregatik, pertsona bakoitzaren esku dago kontsumitutakoa eta elkartean egoteagatik dauden gastu gehigarriak idaztea eta ordaintzea. Hori da, agian, funtzionamenduaren aldetik bisitariarentzat harrigarriena eta elkartekideak harroen sentiarazten dituen ezaugarria, elkartea dena delakoa dela ere, hurrengo azalpenetan ageri den bezala:

*Kontuak egiten ari zarela ikusten zaituzte, hori da gehien harritzen dituen eta ez dute sinisten. 'Ziur norbaitek botila ordaindu gabe alde egin duela' [esaten dute bisitariak]. Tira, baten batek bai, hori guztietan gertatzen da, leku guztietan gertatzen dira horrelakoak, baina jasotzen duten konfiantza-sentsazio hori eta... ez dute ulertzen... zalantza horrekin gelditzen dira. Nik jendea ekarri izan dut eta ez dut uste hori horrela dela sinisten dutenik. Eurentzako pentsaezina da (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

*Honek horrela funtzionatzen du jendearen konfiantzan oinarritzen delako, eta jendearen zintzotasunean (berdintasunezko elkarteko gizon-kidea, Donostia).*

Funtzionamenduaren beste aspektu bat elkartekide (gizon edo emakumeak) onartzearekin dago lotuta. Ohikoena elkartekide aurkeztu nahi denaren "aurkezpena" bi elkartekidek abalatzeta da. Iragarki- taulan elkarteko beste kideei hautagaiaren berri ematen zaie eta kontrako arrazoiak emateko epea pasa eta, arrazoizko denbora eta elkarte bakoitzaren funtzionamenduaren araberrako denbora igaro ostean, zuzenean onartzen da edo Batzordean edo Batzarrean bozkatu egiten da, baina botazio- sistema izugarri aldatzen da elkarte batetik bestera.

Elkarte gastronomikoen finantzazioa pribatua da, elkartekide bakoitzak hileru aurrez ezarritako diru-kopuru bat ematen du. Kuotaz gainera, kontsumitutakoa edo guztiek erabiltzen dituzten elementuengatik errekarquak (mahai-zapiak erabiltzeagatik, mahai-kide bakoitzarengatik, elkarteko edari-sotokoak ez diren edariak zabaltzeagatik, etab.) ordaindu egiten dira.

Askotan, elkarteak ez dira guztiz gastronomikoak; badira kirol-elkarteak, elkarte kulturalak, etab. Egiten dituzten jardueren arabera, diru-laguntza jakin batzuk jaso ditzakete, ekintzak kudeatzeko, antolatzeke eta burutzeko. Hau da, ez dituzte diru-laguntzak jasotzen elkarte gastronomikoak izateagatik, komunitatearentzako egiten dituzten jarduerengatik baizik.

### 1.3.2 Elkarte gastronomikoen eragina gizartean

Atal honetan, elkarte gastronomikoek gizartean eragina duten hiru eremu garrantzitsutan zer funtzio

betetzen duten azalduko da, hau da, komunitatearen dinamizazioan, nortasun kulturealean eta tokian tokikoan eta gizarte-sareen garapenean.

Orokorrean, elkarte gastronomikoen bizi kolektiboan parte hartzen dute elkarten barne-jardueren bidez eta/edo herritarrei, oro har, zuzentzen zaizkien bidez; modu horretan dinamizatzen baitute gizartea. Halaber, elkarteak bizi diren komunitateetarako esanahi garrantzitsua duten nortasun-elementuak sortzeko, mantentzeko eta birsortzeko jardueretan parte hartzen dute elkarte gastronomikoen; harremanetarako sare informalak eta formalak sortu eta mantentzen dituzte, loturak sor daitezkeen eta komunitate-sentimendu bat piztu dadin; baliabide bat dira eta arrakasta duen talde-kudeaketa eredu bat erakusten dute; eta irabaziak norberarentzat eta taldearentzat izan ohi dira.

#### • **Bizi kolektiboaren eta tokian tokikoaren dinamizazioa**

Elkarrizketatutako pertsonen elkartekideei eta kanpokoei zuzenduta antolatzen dituzten jardueren berri eman dute. Kanpokoentzako jarduerak tokian tokiko bizi eta bizi kolektiboa dinamizatzeko egiten dira eta modu desberdinean burutzen elkarten arabera. Hala ere, badirudi ekarpen hori ez dela kanpoan asko baloratzen, elkarrizketatutako udal-politikari batek adierazten duen bezala:

*Herri bizitzan ez daukate parte hartze ikaragarriak. O sea, gauzak antolatzen ez dira batere aktiboak, bat ere ez. (udal-ordezkarik politikoa, Donostia).*

Elkarte gastronomikoen funtzio garrantzitsua betetzen dute gizartearentzako diren ekitaldietan (adibidez, herriko festetan), bereziki populazio handiko herrietan egiten direnetan eta festan parte-hartze handia eta festa ezagunak badira, baina funtzioa elkarte batetik bestera aldatu egiten da.

Tolosan (Gipuzkoa), adibidez, elkarte gastronomikoen garrantzi nabarmena dute festetan, batik bat, Inauterietan eta San Juanetan, izan ere, Udalarekin elkarlanean, antolakuntzan aktiboki parte hartzen baitute. Hau da, askotariko ekitaldi eta jardueren antolaketan parte hartu eta horiek babesten dituzte, behaketetan eta egindako elkarrizketetan adierazten den moduan. Inplikazio hori elkarte tolosarren ezaugarrietako bat da eta zaila da festak ulertzea horien parte-hartzerik eta protagonismorik gabe.

*Tolosan, egia esan, soziedadeek, nolabait esateko, guztiaren % 60-80 antolatzen dute. Soziedade bakoitzak zerbait antolatzen du (...). la soziedade guztiek antolatzen dute zerbait. San Juanetan,*

*adibidez... baina guztietan, bai, bai... Haurren jaialdian, inauterietan, danborradan... gauza mordo daude (elkarte murriztaileko gizon-elkartekideak, probintzia)*

Elkarte horretako kideak ados daude baieztapenarekin, baita udal-teknikaria ere:

*Zeozer antolatzen duten soziedadeen kasuan, (antolatutako jarduerak) beti dira publikoarentzako eta herri osoarentzako. Imajinatzen dut elkarteen barruan ere gauzak izango direla, ez dakit, ba, mus-txapelketa bat edo horrelako zerbait datorkit burura. Baina, tira, orokorrean, elkarteen eta Udalaren artean harreman bat badago, elkartetik kanpora ere zabaldu den erakundea delako, eta auzoko festetan, edo herriko jaietan, edo inauterietan, edo elkarrean bertan egiten den edo testuingurutik kanpo dagoen ekitaldiren batean ipini behar da. Baina, orokorrean, publikoarentzat izaten dira jarduerak. Hori horrela da (udal-teknikaria, Tolosa).*

Zaila da laburtzea elkarre gastronomikoen herriko festetan parte hartzen duten jarduerak zerrendatzea. Elkarte tolosar bateko bi elkartekideek parte-hartzearen deskribapena eskaintzen digute:

*Gero, elkarte bezela inportantzia handia dauka inauteritan. Adibidez, ostegun gizenan, elkarte honetatik ateratzen da korporazioa, botatzen degu txupinazoa, egiten degu hasierako pregoia txaranga batekin eta gero ja Alde Zaharretik sartzen gea txarangakin eta atsalden zezeneta jun eta... Gero, ostiralen ere ateratzen degu txaranga. Larunbatean baita. Eta gero, ja astearten txaranga ofiziala, programan... Bueno, hiru egun hoitan; igande, astelehen eta asteartean ateatzen dian programako txaranga ofizialak. Baina bueno, bakoitzak badu bere eguna eta guk daukeu astearten. O sea que inauteritan 4 aldiz ateatzen degu txaranga, 4 eguneko protagonismoa daukeu. Eta gero, San Juanetan ere, San Juan egunean eskopetero konpainia bat ateratzen degu. Eta, badakizu? San Juanetan 13 konpainia ateratzen dia eta hoietako bat gurea da. Eta gero, igual hemen, Alde Zaharreko ekintzetan, orain irailean Alde Zaharreko festa bat egingo da. Iaz parte hartu genuen ebai joko bat prestatzen. Aurtengoan oaindik ez degu ezer hitz egin, baina suposatzen degu zeozer egingo degula. Eta gero, Aste Santuan ere bai, hemen egin zan arkumearen eguna. Eta hor parte hartu genuen kazueta erraldoi bat prestatzen. Eta holako gauzetan. - Bai, gauza popularretan, festetan... Hori da, zeozer dagonian eta laguntza edo partaidetza eskatzen badigute, ba normalean parte hartzen degu (elkarte murriztaileko gizon-kidea, probintzia).*

Ezaugarri berdinak dituzte Donostian elkarte gastronomikoek, Donostiako Danborrada egunean, elkarteen protagonismoari lotutako festan.

Hala ere, kasu desberdinak dira. Tolosan, elkarteek ekitaldiak eta jarduerak antolatzen aktiboki parte hartzen dute, eta Donostian, berriz, danborradak antolatu eta kaleak euren danborrez, barrilez eta txarangez girotzera mugatzen dira elkarte gastronomikoak. Festan duten protagonismoa oso garrantzitsua da, pertsona ugari parte hartu eta oso ospetsuak direlako:

*(Elkarteek) funtzio garrantzitsua betetzen dute danborradan. (...) une honetan ia 90 danborrada badaude, ba, 78 edo soziedade herrikoiek antolatzen dituzte (Rafael Aguirre).*

Hirigunean euren presentzia izateaz gainera, danbor-hotsak eramaten dituzte auzoetara, horrela, hiriko bazter guztietan, eta aldi berean, festa ospatu ahal izateko.

Elkarte donostiarrek funtzio garrantzitsua betetzen dute Kaldereroetan. Hala ere, beste festa batzuetan ez dute horrenbesteko protagonismorik, adibidez, Aste Nagusian edo Inauterietan, non jarduera jakin batean parte hartzen baitute, baina protagonismo gutxiagorekin (*Festara* izeneko errotoetako ekitaldian izan ezik; elkarte garrantzitsu batek antolatzen du).

Baina herriko jaiak ez dira beti ospetsuak edo tradizioz beterikoak, Donostiako danborrada edo Tolosako inauteriak bezala. Herri eta auzoetan ere festak antolatzen dira eta, kasu horietan, elkarte gastronomikoak festaren eragile eta parte-hartzaileak dira, bai antolakuntzan, bai garapenean, bai baliabideak, espazioak, bazkariak eta azpiegiturak eskaintzen dituztelako, besteak beste.

*Gero, herriko festetan, mus-txapelketa antolatzera apuntatzen direnentzat, toka-txapelketa eta suertatzen dena (berdintasunezko elkarteko elkarriketa-taldeko gizona).*

*Iritsi dira San Juanak eta esan bezala: "tira, zerbait egin beharko da ba". Eta hori egin genuen, bazkari herrikoia, haurrentzako jolasekin eta horrelakoak, eta oso ondo atera zen dena. 200 bat mahai-lagun edo bazeuden (berdintasunezko elkarteko emakume-elkartekidea, probintzia).*

*Ba, ez genuen guk antolatu, batzorde batek antolatzen du, baina beti eskatzen digute guri... Gero, bazkari bat egiten dute beti plazan. Eta, noski, bazkaria prestatzeko, ba, pare bat kazola edo presta diezazkiegun eskatzen digute, beraiek esandakoa. Akordatzen naiz, bai, pasa den urtean paella prestatzea tokatu zitzaigun. Ez dakit aurten zer egin den Dantzari Festan. Haragi gixatua patatekin eta hori guztia. Beraiek ekartzen dizute (berdintasunezko elkarteko gizon- eta*

emakume-elkartekideak, probintzia).

Elkarte gastronomikoak, batzuetan, dinamizazio kolektiboaren eragile nagusiak izan daitezke, festak berreskuratzen eta berpizten funtzio garrantzitsua betetzen baitute, festak lehen ez zeuden tokietan antolatuz, edo, auzo berrietan edo gizarte kohesio eskasa dutenetan, herriko festetan elkartzeko gune gisa bultzatuz. Gipuzkoako auzo batzuen adibideak ditugu, elkarte gastronomikoei festak bultzatu dituzten horiei buruzkoak:

*Ba (elkartek) beti hartu izan du parte inauterietan duela 2 urte arte. Baina, adibidez, San Juango sardina-jana egiten du, festak antolatzen ditu auzoan... Gero, gu auzo txikikoak garenez, ba, ez gara sentitzen ez hangoak ez hemengoak, horiek auzo handiak baitira eta diru asko ematen baitiete festak antolatzeko. Orduan, gure festa propioak egiten ditugu bizilagunen laguntzarekin; bakoitzak nahi duena ematen du. Eta horretaz aparte, Udalak zerbait emanez gero... Eta gero, soziedadean tortilla-txapelketa eta tarta-txapelketa egiten da. Jendeak boluntario egiten ditu tortillak eta gero ogitartekoan saltzen dira. Eta diru pixka bat lortzen dugu festetarako. Horri esker, ba, umeentzako puzgarriak daude, helduentzako dantzaldiak eta auzoa bildu egiten da batik bat (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, probintzia).*

Donostiako beste auzo batean, elkarte gastronomiko batek festa bat sortu zuen eta, egun, herrikoienetarikoa eta jendeak gehien parte hartzen duen festetako bat da; hala, elkarte gastronomikoaren lorpen handienetarikoa dela esan ohi da.

*Hau da, auzoko lekuak ziren, festa txikiak zituztenak, baina noski, gauza txikia izanik, leku desberdinetan, ba, indarra galtzen joaten ziren. Orduan, gure elkartea sortu zenean, festa guztiak batu nahi izan genituen, festa bakar bat egiteko, eta guztiok batera bat egiteko, baina fundamentuz. (...). Azkenean, ba, jada irailaren hasieran geunden eta ez zela festarik egingo, ez ginelako ados jartzen, eta programa ez zela egingo mezarik egiten ez bazen, eta orduan, esan genuen "festak egingo ditugu, por narices". Eta por narices ospatu ziren, erdarazko por narices-etik datoz Porrontxoak, eta hortik hasi ziren Porrontxoak. Orduan, festak ospatu genituen lehenengo urtean, dirua elkartetik, poltsikoetatik eta edonondik atereaz... eta horrela jaio ziren Porrontxoak, auzo guztiaren batasun tristerik gabe, baina tira... Gero, egia esan, oso ondo eraman dugu guztia aurrera eta atzo, adibidez, igandeko bazkaria izan genuen, bazkari herrikoia, eta lehenengo platera elkarte batek egitea lortu genuen, bigarrena beste batek eta postrea beste*

*batek; modu bat da. Gutxienez, nolabaiteko batasuna lortu dugu.*

*(...)*

*Tira, nire ustez Porrontxoak dira auzoan harroen sentiarazten gaituzten gauza, atzo, adibidez, gazteentzako jolas herrikoiak egin ziren, baina auzoko jendeak antolatutakoak.*

*(...)*

*Jende gehien erakartzen duten festak dira eta gainera batzarreko jendeak egiten ditu (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, Donostia).*

Elkarte gastronomiko donostiar batek ere, herriko festen bidez, euskal kultura sustatzen du eta hala hainbat festa antolatu: San Juanak, Santa Zezilia, Danborrada, Santa Ageda, Iñudeak, Euskal Dantza eguna, etab.

Elkarte gastronomikoen herriko jarduera kulturaletan parte hartzen dute, beste eragile batzuk egindakoetan edo zuzenean eurak antolatutakoetan; hona hemen batzuk: aste tematikoak, kirol lehiaketak, haurrentzako jarduerak, arte-erakusketak, txangoak, dastatzeak, afari eta bazkari herrikoiak, lehiaketak, dantzaldiak, kontzertuak, hitzaldiak, askotariko ikastaroak, txarangak, koruak, ongintzako jarduerak, etab. Elkarrizketatutako pertsonak hainbat jarduera aipatu dituzte; batzuk izaera zehatza dute eta beste batzuk aldian-aldian egiten dira, baina guztiek eskaintzen dituzte interes komunak elkartzeko guneak eta, beraz, harremanak sorrarazten dituzte, harreman-sareak barne. Jarduera horiek elkartekideei eta ez direnei zuzenduta daude (ekitaldiaren eta elkartearen arabera), baina guztiek, zalantzarik gabe, komunitatea dinamizatzeko balio dute.

Horrelako jarduerak, urteak aurrera joan ahala, izena eta ospea lortzen joan dira, baina badira txikiagoak diren beste batzuk eta jende-talde murriztuak mobilizatzen dituztenak ere; dena dela, auzoetan eta herrietan jarduera kultural eta/edo kirol jarduerak egotea bermatzen dute. Arestian aipatutako jarduerak batzean, emaitza ikaragarria da eta tematika eta irismena askotarikoa:

*Ba [gure elkarteak] uste dut auzoko ekitaldi kultural guztietan hartzen duela parte. Ez dira asko egiten, baina tira... Aparte, une honetan Aste Kulturala deritzoguna antolatzen ari da, baina Hilabete Kulturala beharko luke izan, urriaren 22an hasi eta azaroaren 22an amaitzen baitugu. Gaur, adibidez, 8etan hitzaldi bat dago, euskal curriculumari buruzkoa. Orduan, [gure elkarteak] ba, urtero egun hauetan, esan dizudan bezala, aste kulturala antolatzen du, berez hilabetea bada ere (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, Donostia).*

*Ba, elkarte bat gehiago da eta esan dezagun ekarpen txikia dela. Guk esaterako uste dugu txikia dela, urtean 5 edo 6 jarduera egiten dira. Aurten, adibidez, 'kantu-afari' bat egin dugu, afari bat Xabier Amurizarekin eta hitzaldiak egotea aurreikusten da kirolari, politikari eta gastronomiari buruzkoak; azkena dastatzea izango da, ziurrenik, ardo-dastatzea (berdintasunezko elkarteen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Beste kasu batzuetan, elkarteek urtero kirol-txapelketa herrikoiak egitea ere bermatzen dute, adibidez Haurren Krosa (azkenekoan, 500 haurrek baino gehiagok hartu zuten parte), duela 20 urtetik hona Tolosan egiten dena eta txikienentzako jarduera falta zela-eta sortua. Gaur egun, txapelketa antolatzen duten elkartekideek Tolosarako "legatua" dela diote ([www.diariovasco.com/prensa/20070123/tolosa/cross-cada-encanto\\_20070123.html](http://www.diariovasco.com/prensa/20070123/tolosa/cross-cada-encanto_20070123.html) (08-12-30ean egin zen bisita). Edo Larraxoko Txirrindularitza Itzulia, gazteentzako lehiaketa, 31 urtean zehar egin dena eta Gipuzkoako txapelketarako puntuagarria.

Beste jarduera batzuk, berriz, informagoak dira, interes edo behar jakin bat duten taldeentzako antolatzen baitira, eta elkarte lokal erabilgarri gisa erabiltzen dute.

*Hortxe izan gara estatistikarekin jo ta su. Guk antolatzen dugu, lagun bati esan, estatistikaz zekiena eta abar, eta hortxe biltzen ginen nik ez daki zenbat. Auskalo, baina elkartekide bakoitzak bere neurrian erabiltzen ditu, izan ere, dantzan ikasi, eta nik zer dakit, ba, edozein jarduera egiten da. Baina, tira, batzordeari ere esaten zaio "ba, lokala erabili behar dugu hau eta bestea egiteko" (...). Aste Santuan koadrila oportetara joatean, ba, noizbehinka biltzen gara erosketak egiteko, ez dakit zer ikusteko, zer jarduera egin erabakitzeko. Edo antzezlan bat egin behar duen taldea, adibidez. Ba hori, guztia egiten da (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, Donostia).*

Jarduera zehatzak ere antolatzen dira, besteak beste, mendi-irteerak edo inauterietako musika CDa grabatzea. Halaber, beste erakunde batzuk antolatutako ekitaldietan ere parte hartzen dute elkarteek, hala nola Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdian eta Abesbatzen Nazioarteko Lehiaketan, edo euren jarduera erakunde publikoak sustatutakoekin batzen da, adibidez Donostiako Zinemaldia edo Bilboko Herriaren 700 urteurrena.

*Ba, zine-astearekin hasten gara, pixka bat Zinemaldira batzeko. Eta areto berri bat egin dugu, gauza askotarako erabiltzeko, zeren etorri nahi duen edonorentzako filmak proiektatu behar*

*ditugu, ba, pixka bat Zinemaldiaren inguruan lan egiteko (berdintasunezko elkarten elkarrizketataldeko gizona).*

*Baina gure betebeharra (klubean) jarduera kulturalak, erakusketak, hitzaldiak batik bat antolatzea da eta parte hartu parte hartzen da. Egia esan, adibidez, Bilboko 700. urteurrena ospatu zenean, ba [klubak] parte hartu zuen afariak, erakusketak, hitzaldiak eta abar antolatuz. Askotan erakundeek elkarteko instalazioak aintzat hartzen dituzte (...) euren ekitaldiak antolatzeko (gizonen klubeko kidea, Bilbo).*

Elkarte gastronomiko batzuek ongintzako jarduerak burutzen dituzte, adibidez, arrantzale erretiratuei gabonsaria emateko diru-bilketa edo Olentzerorekin zaharren egoitzara abestera joatea. Hedabideetan oihartzuna duten beste jarduera batzuk ere badira, hala nola Tolosako babarrun-lehiaketaren inguruan egiten direnak edo Loiolako aste mikologikoa, besteak beste.

Ezin da ahaztu auzoen aldarrikapen-jardueretan egiten duten parte-hartzea, bai euskara eta euskal kultura sustatzeko, bai auzoa hobetzeko mobilizazioetan, besteak beste. Elkarte batzuk kontuan hartzeko moduko protagonismoa lortu dute izaera horretako jarduerak sustatzeagatik eta, beste batzuetan, bilerarako espazioa eskaintzeagatik.

Kontaktatu dugun elkarteetako bat adibide ona da euskara eta euskal kultura sustatzeko konpromisoari dagokionez. Jatorriak (Ikastola batean sortu zen) euren konpromisoa zehazten du, zalantzarik gabe, eta euren lanak garrantzi berezia du, izan ere, jendeak euskaraz ez dakien eta euskal kulturari lotutako beste elementu batzuen berri ez duen Donostiako auzo batean baitago elkarte.

Aipatu behar da, baita ere, gizarte-egoera ahuleko Donostiako auzo batean dauden bi elkarten lana. Gaur egun, herritarrek eztabaida irekia mantentzen dute Udalarekin, Hiri Antolamendurako Plan Nagusia dela-eta, Planean ezarritako aldaketek euren auzoaren kalterako izango direla uste baitute. Bi elkarteak aldarrikapen-jarduera horren eta herritarren zuzeneko parte-hartzearen elkargunea dira. Ildo horretatik, bizilagunak eta auzoa babesteko eta hobetzeko ahaleginak biltzeko funtzioa dute. Gainera, emakume-elkartekide batek dio aldarrikapenaren aspektuak euren elkartearen nortasuna adierazten duela.

*Gureak ez du ezaugarri bat... une honetan auzoaren aldeko borroka, obren kontuagatik, tira, une honetan...ia bada urte bete obren borroka dela identifikatzen gaituena (berdintasunezko elkarten elkarrizketataldeko emakumea).*

Donostiako auzo xume batean dagoen beste elkarte bat ere elkarte gastronomikoen aldarrikapenean eta konpromiso sozialean duten garrantzia adierazten duten adibide paradigmaticoa da. Berez, fundatzaileek auzoko bizia sustatzeko, hura hobetzearen alde borrokatzeko eta bizilagunen beharrak asetzeko zuten konpromisoagatik sortu zuten. Ildo horretatik, elkarte gastronomikoa, baliabide bat baino, helburu bat izan da, elkartzeko modu horri esker, antolatu eta lokal bat eta azpiegitura bat baitute auzorako hainbat jarduera egiteko. Gatazka politiko eta aldarrikapen-mugimenduen garaian sortu zen elkarte eta konpromiso politikoagatik eta auzoan eskaintzen duten parte-hartzeagatik da ezaguna eta adibide ona.

*Tira, nik, gureaz soilik hitz egin dezaket. Elkarte gastronomikoa da bai, baina... elkarte gastronomiko bezala sortu zen, baina egia esan kulturarako, aisialdirako, kirolerako da, funtsean hori da gure printzipioa. Beste elkarte batzuk gastronomia motibo nagusi duten bezala, gu motibo hargatik sortu ginen lehenbizi, eta bestea gastronomikoa zen, izan ere, elkarte 70eko hamarkada amaieran sortu zen, 80ko hamarkada hasieran. Eta, ba, kezka desberdinak genituen jende-sektore bat ginen eta biltzekotan geunden. Auzoko gizarte-baldintzengatik geunden kezkatuta, orduan... ba, bai hirigintza kontuagatik, kulturagatik... Orduan, une hartan ere sortu egin zen..., bizilagunen elkarte egiten saiatu ginen, (...) bestalde (...) zinekluba egiten saiatu zen. Gero, gainera, nire seme-alabak txikiak ziren eta haurtzaindegi bat egiten saiatu ginen, lokalak lortzeko borrokan genbiltzan beti eta beti borroka horrekin, ulertzen? Eta orduan, elkarte berez kezka sozialetarako sortu zen eta era berean ere ... izateko, guztia konpontzen saiatzeko. (...) izan ere, auzoa, une hartan langileen auzoa izateaz gainera, ba, Udalaren etxebizitzak zeuden, udal-etxebizitzak, ... maila horretakoak dira, (...) bai, auzoko maila zuten, bai. Orduan, haurtzaindegiaren borrokarako biltzen ginenean, desberdintasunak leuntzeko, ba, jateko zerbait ekartzen genuen, hau ta bestea, eta hori zen apur bat bileren alde gastronomikoa (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, Donostia).*

Larratxoko auzoan (Donostia), antzeko motibazioarekin, elkarte gastronomiko bat sortu zen eta hau zen haren helburua: “kezkek konpartitzea giza balioak sustatzeko, hala nola, asoziazionismoa, kultura, kirola, gastronomia”. Testu honetan, elkarte horrek auzoa dinamizatzeko duen bokazioa azpimarratzen da, biltzeko lekuak eta uneak eskaini baitituzte “lohiri” izateko eraiki zen auzoan. “*mundu guztiak daki, eta are gehiago bizilagunek, auzo hau lohiri izateko eraikia izan zela: bizilagunak lo egitera etortzen ziren lekua izango zen, bizi sozialik ia izan gabe, ez behintzat bizilagunekin eskaileran, igogailuan edo portalean topatu eta ohiko agurra egin eta elkar urruntzetik haratago, besterik gabe aldentuz, edo are okerrago, arazo komunei jaramonik ez egiteko auzoa izango zen. Baina amuak ez zuen Larratxoko*

*jendea erakarri, alderantziz, berehala ulertu zuten bilera konprometitu bat izango zela, gizalegeko auzo bizigarri, orekatu eta solidarioagoa lortzeko, harro sentitu gaitzkeen auzoa izateko. Bada... zuzeneko eragina besterik ez dugu, besteak beste, elkarteak, taldeak eta klubak sortzeko. Zalantzarik gabe, edozein elkartek izan du eta du Larratxoko bizian eragin positiboa. Hutsegite eta akatsekin, izan badaude eta; edo desadostasunak, izan badaude; baina hori bai, helburu argi eta sinesgarria dugu: larrantxotarren ongizatea eta aurrerapena. (...). Aurretik aipatutako motiboez eragin positiboa izan zuten elkarte bat sortzeko helburuan. Eredua ezarri dezakeen elkarte bat, bereziki elkartekideentzako eta orokorrean bizilagunentzako, euren kezkak konpartitzeko leku bat izateko, giza balioak sustatuz, hala nola asoziazionismoa, kultura, kirola, gastronomia... Labur, tren-makina bat izan nahi dugu, batera eta bestera mugitzeko zailtasunak izan beharko lituzkeen tren bati bultzatza egiteko gai dena, baina geltoki jakin bat duena, herritarren zoriontasuna” (Gonzalez, 2006:201).*

#### • **Nortasun-elementuak sortzea eta birsortzea**

Festetan, elkarte gastronomikoen komunitateak dinamizatzen dituzten eragile aktibo gisa parte hartzeaz gainera, herriko festetako beste aspektu batzuetan ere inplikatzeko dira. Festak, aisialdirako eta dibertimendurako espazio bat eskaintzeaz gainera, funtzio garrantzitsu bat betetzen dute: erritu-izaerako ekitaldiak egitea, aldi-aldi komunitate-sentimendua sortzeko eta eszenifikatzeko funtsezkoak. Festetako puntu gorenak dira, emozioz betetakoak, eta partaidetza eta nortasuna biziberritzeko helburua dute. Azkenik, komunitatea “benetako” bihurtzeko balio dute, eta Zygmunt Baumanek adierazten zuen moduan, komunitateak, komunitate izateko, “postulatu” egiten dira (Bauman, 1994).

Ospakizun guztietan, leku jakin batekoak izatearen loturak sortzen dira, balore kulturalak sustatu eta historia propioaz jabetu. Herriko festak, ez soilik errituetan baizik eta beragan, kolektibitatearen, historiaren eta ordena sozialaren adierazpena dira. Festetan elkarte gastronomikoen parte-hartzea nabaria da, izan ere, komunitatearentzat oso garrantzitsuak diren ekitaldiak pertsonifikatzen baitituzte elkarteek; gainera, protagonistak izaten dira eta oso ospetsuak diren ekitaldi garrantzitsuak babesten dituzte, tokian tokiko tradizioak eta nortasunak babestearekin lotura dutenak, taularatu eta biziagotu egiten direnak, bandera igoera, txupinazioa eta pregoia, esaterako.

Ekitaldietan izaten duten parte-hartze eta protagonismo horri esker, elkarte gastronomikoen goratu egiten dira; komunitaterako ekitaldiak garatzeko eta iraunarazteko balio duten bezala, komunitate-sentimenduan eta haren nortasun sentimenduan eragina dute baita ere. Emozioa duten eta kolektiboaren sentimenduen berpizten dituzten ekitaldiak dira, funtsean komunitatekoak izatearen sentimendua mantentzeko eta indartzeko eta euren existentzia berresteko.

Tradizio handia da elkarte gastronomikoen, festa-ekitaldien bidez, nortasun-elementuak sortzen eta birsortzean aktiboki parte hartzea, eta hala, gainera horiek mantentzen eta zaintzen laguntzen

dute. Horren adibide dira Tolosako inauteriak (XVII. mendea), elkarteek ekarpena funtsezkoa baita festa horien iraupena eta bizitasuna ulertzeko. Elkarteek nortasun tolosarrean errotutako tradizioa mantentzean eta bertan parte hartzean funtsezko lana egiten dute. Inauterietan duten protagonismoak erantzukizun hori onartzearekin harro dauden sentimendu bat sortzen du:

*Baino inauteriak iristen dianen, hemengo bazkide sentitzea, batez ere ostegun gizenan, oso potentea izaten da. (elkarte murriztaileko gizon-kidea, probintzia).*

Tolosan, elkarteetako bat haur tolosarrak festan parte har dezaten arduratzen da eta, horretarako, haurrentzako danborrada antolatzen du inauterietan, parte-hartze, komunitateko kide eta protagonismoaren sentimendua sustatuz.

Beste kasu batzuetan, elkarte gastronomikoak beraiek dira tradizio berria sortzen dutenak eta egun herritar guztiek konpartitzen duten tradizio horren sortzaile, Donostiako danborrada kasu. Aipatu festa, La Union Artesanak hasi eta Gaztelubidek zabaldu zuen; Donostiako ospakizun-egun garrantzitsuena da, jende gehien mugiarazten duen festa eta, gainera, donostiarrak gehien hunkiarazten dituena. Bandera igoeraren egunean, Konstituzio plazan, Donostiako martxa interpretatzeak sortzen duen zirrara ikus daiteke, une horretan bizi den emozioa sentitu, eta batzuetan malko batzuk ere isuri. Ez da harriztekoa, beraz, Gaztelubideko lehendakariak bandera igoera elkarteek ekarpen esanguratsua dela esatea.

*Ba, gure Elkarteak 75 urte bete ditu eta hori ari gara ospatzen. Ekarpenak? Elkarteak sortu zenetik 34 urtean zehar egin dugun bandera igoera (Gaztelubideko lehendakaria).*

Ospe- eta entzute-maila horietara iritsi gabe ere, egiaztatzen da auzoetan dauden elkarteak festak sustatzaile edo sortzaile izan direla. Jarduera horiei esker, sortu berriak diren auzoetan, komunitatea garatzen da, mugak eta nortasun-elementuak definitzen dira aipatzearekin soilik. Amara-Osinagan, Amara berriko auzo berri batean, Donostian, festei esker (auzoko elkarte batek antolatzen ditu), izenagatik –Amara Osinaga– zonalde bat identifikatzea lortu da eta gero eta ezagunagoa da bizilagunen artean, festak iragartzeko kartelak direla-eta.

Elkarte gastronomikoek ere komunitatearen nortasun eta bertako izatearen sentimendua biziarazten laguntzen dute, auzoarentzat espazio hori oinarritzat izanik.

*Nire ustez auzoan dugun biltzeko gunea oso garrantzitsua da, azkenean nirean egiten baita bizitza. Goikoan eta behekoan elkartzen gara eta ia igande guztietan auzo guztia bildu eta hizketan aritzen gara. Orduan, ba, biltzeko gunea da eta kulturala, bai kulturala ere bai, gurean Danborrada antolatzen delako, bazkariak, txangoak, mendi-irteerak... (berdintasunezko elkarten elkarrizketa-taldeko emakumea).*

#### • **Harreman-sare informalak sortzea eta gordetzea**

Elkarte gastronomikoen, halaber, harreman-sare informalak sortzean eta gordetzean funtzio soziala betetzen dute, kolektibo osoaren aldekoa dena eta komunitate-zentzua garatzen laguntzen duena. Elkarteek funtzio hori betetzean, horren balioa bakoitzaren ekarpenak batzean lortzen da. Horregatik, hain zuzen ere, daude hainbeste eta askotako arloak; horrek ematen die balioa, guztiek batera sozializatzeko espazioen sarea sortzen baitute eta, askotarikoak izaki, interes desberdineko pertsonen aukera baitute aproposa iruditzen zaien elkarteak aukeratzeko. Oro har, soziabilitatearen erreferente garrantzitsua dira elkarteak.

Gizon- eta emakume-elkartekideentzat loturak ezartzeko eta gordetzeko eta lagunekin eta familiartekoeekin biltzeko lekua dira elkarteak. Leku ireki eta erabilgarria, norbait aurkitu eta hitz egiteko, kartetan jolasteko eta zerbait jateko. Pertsona batzuek etxearen zabalgu gisa definitu dute; bigarren etxebizitza dela ere esan dute batzuk abegi ematen dien espazioa baita, lagunekin elkartzen dira bertan eta lasai-lasai jan eta edan dezakete, eta erreferentzia komunak ere badira. Elkarrizketatu diren ia pertsona guztiek elkarteak biltzeko gunea gisa definitu dute or ohar, uste baitute ezaugarri hori dela elkarten esentzia hoberen azaltzen duena.

*Euki txoko bat momentu baten nahi dezunean juteko lasai afaritxo bat egin nahi badezu edo hor egon... O igual, baldin badakizu hauek daudela hemen, ba etortzen zea, egoten zea, hizketan beraiekin. (Tener un txoko en el momento que quieras, para ir a cenar tranquilamente, hacer una cenita si quieres o estar ahí... O igual, si sabes que éstos están ahí, pues vienes, estás charlando con ellos) (elkarte murriztaileko gizon-kidea, probintzia).*

Elkarte gastronomikoetan lagun-taldeak sortzen dira, interes eta bizimodu komunek gidatuta; eta jende ugari ezagutzen du elkar, eta hargatik harreman onen sareak sortzen dituen eremua dira interes desberdinak dituzten pertsonentzat. Sare horietan sartzeko lekuak izan daitezke, lagun-talde bat aurkitzeko, jende berria ezagutzeko edo izaera askotako negoziotetan amai daitezkeen loturak ezartzeko (iturgin bat aurkitzea, eragin handiko pertsona bat, lana bilatzeko laguntza, profesionalen aholku eskuzabalak jasotzea, etab.).

*Niri lagundu dit, adibidez, ikastolan edo IGEN umeeekin ginela topatu genuen jendearekin eta, horrela, ba elkar ikusten jarraitzeko. Denbora luzean ez naiz haiekin egon eta noski, ba orain ikustean, haiekin egotean... “Joango gara soziedadera?” “Hitz egingo dugu han pixka batean?” (berdintasunezko elkarteko gizon-kidea, probintzia).*

*Orduan, nik pilo bat ezagutzen dut [jendea]. Guztiekin hitz egiten dut, guztiei esaten diet agur, guztiei... Eta nik uste baietz. Taldeak egin diren arren. Baina gutxienez, nik uste dut batzuk behintzat hemen ezagutu direla eta, etorri ahala, jende gehiago ezagutu dutela. Nire ustez J. eta P. eta besteak hemen egin dira bat eta ostiralero bazkaltzeko elkartzen dira. Eta lehen ez zuten elkar ezagutu ere egiten, ziur nago. Beno, agian bistaz bai, baina orain ostiralero gelditzen dira afaltzeko (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, probintzia).*

*Gu 60 elkartekide gara eta 60 pertonekin erlaziona zaitezke, zure bizitzaren zati bat haiekin konpartitu, edozein gauza dela ere, baina gauza da elkartean suen eta edari-sotoen ondoan gaudela (udal-teknikaria, Tolosa).*

Gehienetan, elkarteetan korrante politiko zehatzik ez dagoenez eta gizarte-maila desberdinetako pertsonak daudenez, iritzi eta bizimodu desberdinak dituzten pertsonen arteko lotura estuak sorrarazi daitezke, beraz, nahasketaren alde egin eta harreman-eredu klasistak apurtzen dira.

*Agian, elkarteetan aipagarriena da, askotariko jendea biltzen dela, gizarte-maila eta politika-iritzi desberdinetakoak, eta beti giro paregabea (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Loturak sortu eta gordetzeari dagokionez, elkarte gastronomikoak espazio aproposa dira pertsona-talde handiak biltzeko. Espazio horiek, askotan, jatetxeetara eta etxebizitzetara ez joateko aukera alternatiboa dira, hainbat ospakizunetarako (familia-bilketak, jaunartzeak, bataioak, etab.). Elkarteak ez da biltzeko lokala soilik, bilkura horiek egiteko modu ekonomikoa eta eroso ere badira.

*-Etxean jana ez prestatzea, askotan.*

*-Bai, ez garbitzea. Ze jana prestatu, hemen ere prestatzen da. Baina noski, gero harraskan uzten duzu eta kito.*

*-Eta ez duzu zenbaki bat etorri ahal izateko. Etxean agian hiru sar ditzakezu, baina hemen hamabi sar daitezke.*

*-Nire etxean ere antzekoa da, koinatuak eta anaiak eta denak hemen bizi direlako. Gu gara, neurri batean, biltzeko gunea. Nire etxea, zera...zen, eta halakoa da oraindik, baina orain argi dut, bai, 5 baino gehiago biltzen garenean, soziedadera zuzenean, eta ezer, hona etortzen gara, soziedadera, eta hori niretzako behintzat oso eroso da. Nik uste erosotasungatik dela batik bat. Eta hori batez ere, ospakizunetarako, haurren merendoletarako, bataioetarako, jaunartzeetarako, eta horrelakoak... horrelako gauzetarako. Erosoa da eta jatetxean jatea baino merkexeagoa da, beno askoz merkeagoa (berdintasunezko elkarteko gizona eta emakumea, probintzia).*

*Gure kasuan oso erraza da, familia handia ginen eta guztiok biltzeko leku bat behar genuen. Tira, oinarrizkoa, gure kasuan espazio hori zen. Nik nire esperientzia kontatu diezazuket: familia osoa biltzeko leku bat izan nahi genuen (berdintasunezko elkarten elkarrizketa-taldeko emakumea).*

Jatetxeetan ez bezala, elkarteetan giroa erlaxatuagoa da, pertsonak nahi duten bezala antolatzen dira, jana prestatzean edo festa egitean elkarrekin egoteko aukera sortuz, lanak konpartituz, abestuz, etorkizunerako planak eginez, etab.

*Eta beste gauza bat, jatetxeetan ordu jakin bat iritsi eta kalera botatzen zaituzte. Eta soziedadean nahi duzunean alde egiten duzu... (berdintasunezko elkarten elkarrizketa-taldeko gizona).*

*Adibidez gure kasuan, ez duzu etxez etxe joan behar. Ez zait ongi iruditzen. Orduan, elkartekotan gelditzen gara... "non gelditzen gara?" "Soziedadean". Orduan, ba erosketak egin eta buruko ordaintzen dugu, eta afaria egiten da. Orduan, inork ez du bere etxea zikintzen, ez da zertan jatetxera joan eta diru piloa ordaindu behar. Eta horrela, jendearekin egoteko modu bakarra da, lagunekin, eta larunbat arratsalde-gaua pasa dezakezu eta gustura egon zaitezke. Zerbait hartu nahi izanez gero, ba, hartu egiten duzu, inork ez zaitu behartzen (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, probintzia).*

*Jatetxe batean ez zaizu burura etortzen kantatzen hastea, ala? Bertan daudenak ez zaituzte ezagutzen, eta orduan, ba, pixka bat lotsatu egiten zara. Soziedade batean askoz ere lasaiago zaude eta oso modu desberdinean jokatzeko duzu. Bai horixe, askotariko arrazoiak daude, soziabilitatea, diru-kontuak, desinhibitzea eta hori guztia (Rafael Aguirre).*

Aspektu horiek guztiak ez dira hutsalak gizartean, antolaketa ez baitu isolamenduaren eta individualizazioaren alde egiten eta, harremanak izateko aukerak, pertsona askorentzat, familia eta lan-eremura zabaltzen baitira. Horrelako espazioak eratzea aberastasuna da eta balio handia du;

egokitasuna argi dago, elkarte gastronomiko eta txoko ugari baitaude gure inguruan, eta elkarte berriak ere geldi-geldi sortzen baitoaz.

• **Elkartea nortasun erreferentzialaren gune gisa**

Kontuan hartu beharreko elkarte gastronomikoen beste aspektu bat da, biltzeko leku kolektiboak direla eta ez dagoela merkataritza-bitartekotzarik, ez kontsumitzeko beharrik, edo kontsumitzen dena guztien irabazirako dela. Gaur egun, biltzeko gune gehienetan hainbat izaera eta dimentsioko interes ekonomikoen baldintzapean daude. Tabernak, dendak, diskotekak, merkataritzaguneak...; kalea ere erakusleihu bihurtu da, denden zabalkundea (bereziki hiriguneetan). Merkataritzaguneak sozializatzeko modu berrien adibide paradigmaticoa dira, familiak hara joatean dira, erosi beharrik ez dutenean ere, denbora pasatzeko; eta hala zentro horiek funtzio berri horretara egokitu eta baliabide berriak ipintzen joan dira, erabilera berrira egokitzeko. Kalea, berriz, bide publikoaren izaera galtzen doa, hitzaren zentzu hertsian, baita tokian tokiko ezaugarriak eta nortasunarenak ere, izan ere, egun munduko edozein hiritako hirigunea beste batzuen antzekoa da, komertzioak direla-eta (denda-kateak, jatetxe-kateak, banku-kate berdinak...). Kaleei idiosinkrasia propioa ematen dieten memoria kolektiboaren gordailuak desagertzen joan dira, merkataritza-interesei erantzuten ez dietelako edo aldatu egin direlako (adibidez, erakargarri turistikoak) eta, hala kaleak nortasuna galtzen doaz.

Ildo horretatik, biltzeko guneak gero eta gehiago daude, Marc Augé-k “ez-leku” deritzenaren ezaugarria biltzen dutenak: *“Leku bat nortasun-, lotura- edo historia-leku gisa defini badaiteke, nortasun- edo lotura- edo historia-espazio gisa definitu ez daitekeen espazioak ez-lekua definituko du”* (1993:82).

Herritarrentzako erreferentzia eta esanahirik gabeko espazioak dira, igarobideak, edonolako pertsonak jasotzeko, truka daitezkeen eta anonimoak diren lekuak; zaila da, beraz, erreferentzia pertsonal edo kolektibo jakinak topatzea. Leku horiek okupatzen dituztenen nortasunak ez du garrantzirik eta horien presentzia ez-lekua definitzen duen funtzioa betetzera mugatzen da: kontsumitzaileak, bidaiaria, bezeroa, etab. Ez-lekuetan pertsonen arteko harremanak espazioak ezarritako funtzioaren barnean zedarritzen dira (adibidez, dendari eta bezeroaren artekoa).

Elkarte gastronomikoak, berriz, “lekuak” dira, izan ere, bertan aurki baitaitezke erreferentziak, historia, esanahiak, sentimenduak, nortasuna, etab. Elkartekideek izen bat dute, harremanak izaten dituzte elkarrekin, helburu eta interes komunek batzen dituzte, elkarrekin ekiten dute, elkarrekin aldatu, etab. Gaur egungo gizartean balio bat da, gero eta “leku” gehiago desagertzen ari baita.

• **Baliabide kolektiboak sortzea eta kolektiboa kudeatzeko arrakastazko eredu baten ekarpenak**

Egindako elkarrizketa askotan aipatzen da, harro-harro, elkarte gastronomikoei kudeatzeko duten

eredua. Askotan, Euskadira etorri eta elkarte bat bisitatzen duten pertsoneri eragiten dien harriduraz ari dira, bereziki euren kudeaketan elkarrekiko konfiantzan oinarritzearen funtzionamenduaz harro. Badirudi Autonomia Erkidegoko pertsonen ideia estereotipatu eta idealizatu bat dela (bereziki zintzotasuna), baliabide kolektiboak auto-kudeatzeko eredu bat baino, txosten honen ikuspegitik, gakoa hor gordetzen bada ere. Dena dela, elkartekideentzat harro egoteko motibo bat da elkarten eredu eta filosofia hori.

*Elkarte gastronomikoez bi gauza dituzte, alde batetik nik uste dut kultura gastronomikoa sustatu dutela, (...) eta gainera, sozializatu egiten dute parte-hartzearen kontua dela-eta, elkar ondo ulertzea, sortzea... Elkarteetako administrazioa, gauzak eramatera ohitzea, errespetatzea, guztien kudeaketa... Ba, hori guztia, noski, antzeman egiten da, egia da etortzen diren guztiei harrigarria iruditzen zaiela eta ez daudela leku horietara ohituta (...). Bai, atentzioa ematen dio jendeari. Gainera, jaisten direnean eta botila guztiak ikusten dituztenean eta zuk guztia idazten duzula ikustean, ba hori da gehien harritzen dituen eta ez dute sinisten (...). Baina jasotzen duten konfiantza-sentsazio hori eta... ez dute ulertzen... zalantza horrekin gelditzen dira. Nik jendea ekarri izan dut eta ez dut uste hori horrela dela sinisten dutenik. Eurentzako pentsaezina da (elkarte murriztaileko elkarriketa-taldeko gizona).*

*Eta gero, hori bai, norbait kanpotik etortzen bada, baldin badauka familiar bat edo ezagun bat o lo que sea, esaten diozu: 'gaur afalduko degu soziedadak'. Eta holako jendeai, claro, holako soziedadeak kanpoan ez daude. Jo, ba alde batetik harrizta etortzen die dagoen giroarekin, montatuta nola dagoen, ze filosofia erabiltzen dan... (elkarte murriztaileko gizon-kidea, probintzia).*

Elkarriketetan, askotan, erreferentzia egiten zaio elkarten printzipio nagusia elkarrekiko konfiantza izatearen kontuari, eta ezaugarri hori da, hain zuzen ere, espazio bera konpartitzea posible egiten duena. Alabaina, elkarteek baliabide kolektiboak auto-kudeatzeko eredu eraginkorra eta onargarria dute; guztien ongiari buruzko azterketan Elinor Ostrom-ek (2000) deskribatzen zuen antzeko ereduan oinarritzen dira. Egilearen arabera, baliabideen kudeaketa kolektiboaren aurka dauden argumentuek pertsonak beti jarrera berekoi bat izaten dutela diote, eta, hala, interes kolektiboak baztertu egiten dira, “guztien tragedia” deritzen hori eragiten da, hau da, interes indibidualak ez du arrakastarik interes kolektiboan gainetik daudelako. Hala ere, Ostrom-ek beste ikuspegi bat ere azaltzen du; kolektiboa kudeatzeko baliabideak, dio, kudeatzeko eredu baliagarria eta beste aukera bat direla estatuko kudeaketa edo kudeaketa pribatuaren aldean; halaber, arrazoitzen du “guztien tragedia” interes indibidualen eta kolektiboaren arteko bateraezintasunak eragiten duen premisan oinarritzen dela.

Baliabide kolektiboak arrakastaz kudeatzeko kasu errealean analisisia oinarri, Ostrom-ek eredu horien faktoreak identifikatzen ditu eta, haren arabera, elkarte gastronomikoetan egiten den kudeaketarekin guztiz bat datoz. Ereduak ongi funtzionatuko duela bermatzeko, proiektuko parte-hartzaileen artean lotura-kontratuak ezarri behar dira eta hasierako akordioak derrigor bete. Horretarako, egitura bat izan behar da, hau da, kostuen eta onuren bidezko banaketa bermatzeko eta azken horiek pertsonen modu indibidualean aritzen zirenekoak baino gehiago izateko. Auto-finantzazioa ere beharrezkoa da, izan ere, baliabideak erabiltzeko eta horiez jabetzeko erabakiei buruz kontrol handiagoa izango baitute kideek. Eredu horrek kontrol- eta elkarrekiko gainbegiratze-mekanismoak ezartzea eskatzen du, elkarteek behar bezala funtzionatzeko eta elkartekide guztien onura kolektiboa eta indibiduala bermatzeko. *“Kontratua negoziatu zuten horien interes propioari esker, elkarri gainbegiratuak diote eta behatutako arau-hausteak zeintzuk diren jakingo da; hala, kontratua betearazi egingo da”* (2000:44-45).

Aipatu ezaugarriek elkarte gastronomikoetarako ere balio dute, izan ere, kolektiboak erabiltzeko baliabideak eta kudeatzeko eredu baliagarriak eta potentzialak direla adierazten baitute. Elkarriketatutako pertsonen azaldu dute elkarte bateko kide izateak onurak ematen dizkiela, bakarrik lortu ezin dituzten baliabideak lortzen dituztelako: espazio zabala, hornitua, beti erabilgarria, ongi gordea eta hornitua. Azpiegitura handiari esker, talde handiak bildu daitezke (lagunak edo familiar-tekoak), dirua aurreztu (jaketxe batean baino merkeago jaten da), lana aurreztu (etxean biltzean baino lan gutxiago dago, elkarrekin garbitzeko kontratatutako pertsonak egiten duelako), leku publikoetan baino lasaiago egon (abestu egin daiteke, nahi adina denbora geratu), etab. Horretarako, ordea, elkartekideek hitzartutako arauak errespetatu behar dituzte (erabilera- eta jarrera-arauak, estatutuetan jasotakoak), funtzionamendu ona bermatzen eta, beraz, elkartearen mantenua behar bezalakoa izatea ezartzen dutenak; ekarpen ekonomiko erregularra egin behar da; eta kudeaketan parte hartu (batzarretan parte hartu).

Elkarte gastronomikoen interes indibidualak eta kolektiboak batzea lortu dute, gaur egun, Baumanen argumentua oinarri, gizartean oso garrantzitsua den aspektua. Egilearen arabera, pribatizazioa eta zatiketa ezaugarri dituen gizartean bizi gara, non guztien interesak balioa galdu baitu, eta horrek alderdi negatiboa eragin du interes indibidualei dagokienez, *“begi-bistatik kentzen baditugu familiaren arteko lotura korapilatsu eta estuak (baita norberaren biziarena ere) eta espazio publikoetako bizitza, lehenengoak bestea zenbateraino zehazten duen ahaztuta, hori da, hain zuzen ere, gizakiaren kezken pribatizazioak duen kalte mingarriena, morala berriz aktibatuzko aukerak zauritzen dituena”* (1994:35). Era berean, indarrak batzean lortutako onurekiko mesfidantza ere bada, elkarrekin ekitean sortzen dena: *“Oro har, izpiritu berria eszeptikoa da elkarrekin jardun eta indarrak batzearen erabilera eta onura posibleekiko, eta uko egiten dio ideia honi: egin nahi duzun edozer gauzetarako, hobe da zure gaiez arduratzea eta zure argitasuna baliabide nagusi gisa erabiltzea”* (1994:22).

Azaldutako guztiarekin ez da esan nahi elkarte gastronomikoetan beste pertsonen baino goragoko estandar morala dutenak biltzen direnik, baina oso onuragarria da interes indibidualak eta komunak

konbinatzeko *jarduera* (baita elkarte gastronomikoetan, adierazten den eskala txikia bada ere). Zalantzarik gabe, eremu jakin batera mugatzen den jarduera da, baina arrazoi horrek ez du esan nahi konbinazio hori praktikan jartzeko espazioa ez denik, eta argi adierazten da, bai banakoentzat, bai kolektiboarentzat, eraginkorra eta ona dela.

Hainbat elkarrizketatan adierazi dira elkartekide gazteenekin dituzten arazoak. Argudiatzen dute gazteak ez daudela ohituta konpartitzen diren espazioetan erantzukizunak izatera, eta, dirudenez, ez omen dira konturatzen elkarrekiko eta guztien interesekiko errespetuak duen garrantziaz, guztion baliabide dena mantentzeko. Ildo horretatik, pertsona batzuk diote elkarrekin heziketa-funtzioa ere betetzen dutela, gazteei elkarrekiko errespetua eta erantzukizunaren baloreak transmititzen zaizkielako, eta kudeaketa kolektiboaren ereduaren nola parte hartu erakusten zaielako.

*Nire ustez elkarrekin jarduera sozialak sozializatu egiten du eta erakutsi eta gazteei hezi. Gainera hezteko ere balio du, elkarrekin zerbait badu auto-kudeaketa delako, diziplina zentzu hori (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Baumanen argumentuarekin jarraituz, jarduera honek herritar arduratsuak behar (eta sortzen) ditu: “elkarrekin elkartekideak zerbait zaindu eta guztien kontuak kudeatzeko lana egiteko konpromisoa hartzea behartzen dituzte, polisak bere garaian egin zuen bezala (modu horretan, elkarbizitzan justizia eta zuzentzea ereduak egon ahal izango dira); horrelako elkarte batean ez dira behar pertsona diziplinatuak edo sozialki eskaintzen diren zerbizuen gogobetia bilatzen duten kontsumitzaileak; aldiz, pertsona nekazariak behar dira, eta batzuetan setatiak, baina beti herritar arduratsuak direnak” (1994:36). Baumanek gizartearen “indartze morala” deritzonari elkarrekin egiten dioten ekarpenaren garrantzia puztu gabe, oinarrian azpimarratu behar diren xehetasunak dira, guztien ongiaren adibidea direlako.

#### • **Botere-sareak eta prestigio-iturriak**

Aurreko paragrafoetan erreferentzia egiten zaio, loturak, harremanak, egitura soziala eta baliabide kolektiboak sortzean, elkarte gastronomikoek betetzen duten funtzioari; bada, jarraian, faktore horien eraginak azaltzen dira, ondare ukazinen zirkulazioari lotuta (informazioa, ezagutza, harreman-sareak, prestigioa, etab.), eta nola horrek guztiak eragina duen sare jakin batzuk osatzen dituzten pertsonen, erakundeen edo instituzioen aldeko kapital soziala lortzerakoan.

Ildo horretatik, elkarte gastronomikoak sareen parte dira, batzuetan, botere-sareekin estu lotuta daude gainera. Hala, sareetan sortutako baliabideak, edo beste baliabide batzuk erabiltzeko bidea,

eremu mugatu batean soilik zabaltzen dira, eta, beraz, eremu pribilegiatuetan. Botere-sare horien mekanismoak ulertzeko hainbat kontzeptu aztertu behar dira berriz ere, hala nola, kapital soziala, sareak eta etnizitatea, behar-beharrezkoak baitira elkarte gastronomikoak botere-sare batzuetan nola barne hartzen diren ulertu eta interpretatzeko.

Kapital sozialak faktore ukaezinei egiten die erreferentzia: balioei, arauari, jarrerari, konfiantzari, sareei eta antzekoei; guztiak daude komunitatean eta guztien onurak lortzeko koordinazioa eta lankidetzaren errazten da horiei esker (Putnam, 1993). Edo, baliabide-multzoa izan daitezke edo harreman-sare egonkor bat izatearekin lotura duten ahalmenak, nolabait ere instituzionalizatutako harremanak, elkarrekiko konfiantzan eta errekonozimenduan oinarritutakoak (Bourdieu, 1986). Labur, ideia honek hau barne hartzen du: “dakizunaz eta duzunaz gainera, nor ezagutzen duzun ere garrantzitsua da”.

Are gehiago, kapital soziala pertsona-talde batek harreman-prozesuak sortzeko duen gaitasuna da; elkarrekiten duten enpresa-, gizarte- eta komunitate-sareak garatzean, kontuan izan behar da harremanek modu positiboan eragin behar dutela (Bourdieu, 1986:3). Kapital sozialaren kontzeptuak azpimarratzen ditu, batetik, parte hartzen duten harreman-sareen garrantzia eta, bestetik, horrek guztiak sor ditzakeen onurak, indibidualak eta kolektiboak. Ildo horretatik, gizartea garatzeko prozesuetan eragina izan dezakeen faktorea izan daiteke, modu positiboan edo negatiboan. Alderdiri positiboena da demokrazia indartzeko funtsezko faktorea izan daitekeela, garapena berdintasunean eta barneratze sozialarekin susta baitezake. Alderdi negatiboan, aldiz, esan behar da faktorea sare itxiak egoteari lotuta egon daitekeela, sareetara sar ezin dezaketenei onurak kentzen dizkieten multzo pribilegiatuei lotuta.

Puntu honetara iritsita, interesgarria da kapital sozial indibiduala eta komunitatearen kapital soziala bereiztea (Durstun, 2000:21). Biak pertsonen harremanetatik sortzen badira ere, lehenengoa “*pertsona batek, elkarrekikotasun lauso baten gisa, biltzen duen kreditua da, beste pertsona batzuei, beharrak bultzatuta, zuzenean edo zeharka, iraganean zerbitzuak edo faboreak egitea eskatzeagatik*”, eta bigarrenak, berriz, “*talde-kooperazioko erakundeak osatzen dituzten arauak eta egiturak barne hartzen ditu. Ez dago pertsonen arteko harreman diadikoetan, baizik eta sistema konplexuetan, kudeatzeko eta zigortzeko arau-egituretan*”.

Kapital soziala truke-harremanen ondorioa da, elkarrekiko konfiantzarena, lankidetzarena, elkarrekikotasunarena, maitasunarena, baina sozialtasunaren eta hiritar kontzientziaren ondorioa ere izan daiteke. Kontzeptu hori aplikatu egin daiteke, gizartearen kohesioan eta baliabide kolektiboak sortzean, elkarte gastronomikoek betetzen duten funtzioa aztertzerakoan. Hala ere, elkarte gastronomikoetan sortzen den kapital soziala eta balioa interesatzen zaigu, baina erlatiboki sare itxiak direlako eta elkartekideetara mugatzen direlako elkarrekin; beraz, talde itxi bati soilik dagokion balioa da edo, modu indibidualean, elkarte osatzen dutenei dagokiena.

Fukuyamaren arabera (1999), kapital soziala ondasun fisikoa da, baina “kanpo-eragin negatiboak”

sortzen ditu, “*giza komunitateen taldeko elkartasuna kanpoko beste talde batzueganako etsaitasunarekin ordaintzen baita askotan*”. Ildo horretatik, kapital soziala ez da beti gizartearen onurarako; aldiz, berdintasuna eta bazterketa sor dezake. Sortzen den desberdintasunak eta bazterketak izan dezaketen garrantzia, sare batean dagoen kapital sozialaren garrantziaren araberakoa izango da.

Kasu honetan, kapital soziala interesgarria suertatzen da, elkarte gastronomikoen eremuan jarduten duten sare formalen eta informalen emaitza delako. Elkartearen eraginkortasuna eta bermea, neurri handi batean, honi dagokio: “*baliabide gisa ulertzen den kapital soziala: banakoak parte hartzen duen gizarte-sare batean, pertsona bakoitzaren parte-hartzetik datorren elkarrekikotasun-aukerak*” (Barandiaran, 2006:2).

Elkarte gastronomiko batean parte hartzea bertako kapital soziala eskuratzea da, ezarritako harreman-sare batean barne hartzen delako. Dimentsio hori lantzeko, jarraian, aipatu elkarteek ezarritako harreman-sareak aztertuko dira, baita sare motak eta horietako bakoitzaren balioa ere.

Gizarte-sarea esaten zaio helburu komun baterako elkarrekiten duten pertsona-taldeari edo erakundeei eta, horretarako, loturak izan ohi dituzte, kasu honetan, elkartekideen eta erakundearen artean (elkarte gastronomikoak beraiek, erakundeak, korporazioak, etab.). Gizarte-sareak dinamikoak dira, horiek ezartzeko loturak sortzen dira, elikatu egiten dira, elkarri eusten diote, baina okerrera ere egiten dute, edo desagertu egiten dira. Gizarte-sareen oinarritzko funtzioetan hauek barne hartzen dira: adiskidetasuna, laguntza emozionala, gida edo aholkua, laguntza materiala eta zerbitzu-laguntza eta kontaktu edo informazio berria lortzea.

Sareen bidez parekotasun-, oreka-, hurbiltasun- eta berdintasun-harremanak ezartzen dira; sistema irekiak dira, bizidunak, etengabeko dinamikan daude; zentro ugari daude eta lotura ugari sortzen dituzte; eta komunitateek, helburu kolektibo bat betetzeko, ekiten dutenean agertzen dira sareak, elkarte gastronomikoen kasuan, adibidez, aisialdiaren eremuarekiko paraleloak diren beste jarduera batzuen eranskariak dira. Aldaketak eragiten dituzte, ezagutzak zabaltzen dituztelako, afektu berriak barne hartzen dituztelako, horiez elikatzen direlako eta elkarteak sortarazi zituzten interesak gainditzen dituztelako.

Arestian aipatu da elkarte gastronomikoetan elkartekide izatea onura bat dela, pertsonak harreman-sare zabal batean murgiltzen baitira. Sareak, gainera, hainbat arrazoigatik, talde edo erakunde baten barruan ezartzen dira, bai seme-alabak izateagatik, ezagutzagatik, testuinguruagatik, interesagatik edo eskatu izanagatik. Elkarteek kideen artean biltzea ahalbidetzen dute eta, horri esker, loturak eta taldeak sortzen dira:

*(Elkarte gastronomikoek) izugarrizko arrakasta dute, lehen esandako arrazoiez gainera, prezioak eta horrelako kontuak, ba, esango nuke, deskargu bat direla, eguneroko lanetik emozioak*

*deskargatzeko, soziedadera iritsi eta zure kideak ikustean, guztiei dagozkigun gauzez hitz egiten duzulako, izan ere, eta orain ere hala da, lagunarteko afinitateen arabera eta baita interes-kontzientzien arabera ere, ipintzen baitira mahaiaik soziedadeetan. Logikoki, zezentzalea dena zezenak gustuko dituenekin eseriko da, eman dezagun... futbol zale amorratua dena, ba, berdin, futbola gustatzen zaienekin eseriko da, eta horrela (Rafael Aguirre).*

Hala ere, ukaezinak diren onura batzuk ere sortzen dira, baina sarean parte hartzen dutenei soilik egiten diete mesede; hala adierazten da ekarpen honetan:

*Hau ezin dugu ahaztu: elkarte gastronomikoetan onura ukaezin ugari daude. Nik, hor ikusten dut. Informazioarekin zerikusia duten onura ukaezinak, lanari buruzko informazioa, aisialdiari buruzko informazioa..., eta etxean ez da horrelakorik izaten. Noski, zu edozein gauzari buruz informa zaitezke..., baina elkartean informazio zabala aurkitzen duzu, kontrastatzeko elementuak aurkitzen dituzu, elkarrizketa... Gainera, politikarekin zerikusia duen guztia... Han kontratuak sinatu dituzte, dena delakoari buruzko akordioetara iritsi da... Orain, krisiaren kontuarekin, ba, bertan beti izango den gaia da (Teresa del Valle).*

Gizarte-sare informalak garrantzitsuak dira elkarte gastronomikoen egunerokotasunerako, ez bakarrik hura osatzen edo bertan parte hartzen duten pertsonengatik, baizik eta botereari eta prestigioari dagokionez gizartean betetzen duten funtzio estrategikoagatik, jarraian azaltzen den moduan. Sareak, gainera, elkarteak sortzean, eta bitartean, funtsezko elementua dira.

Azpimarratu behar da behar sozialak ere garrantzitsuak direla, hala nola, onarpena, elkartekide izatearen ideia edo identitatea; sare informal horiek sustatzeko mekanismoak dira. Elkartekideen behar sozialak asebetetzeko eta, era berean, nortasun-zentzua sortzeko, elkarte gastronomikoek ematen dituzten aukera errealen arabera erantzuten dute pertsonak.

Gizarte-sare informalek –elkarte gastronomikoen barruan elkartzeko sortzen dira modu espontaneoan– funtzio garrantzitsuak betetzen dituzte, pertsonen elkarrekin sartu edo irauteko bultzarazten dien interesei lotuta baitaude; interes horiek sozializazioa, adiskidetasuna edo botere-eta/edo prestigio-eremu jakin batean sartzeari izan ohi dira.

Gauzak horrela, “sareak konfiantzan oinarritzen dira, eta zenbat eta konfiantza handiagoa izan, orduan eta truke gehiago eta sakonagoa izango da. Sare informalek elkarrekin ekiteko gaitasun handiagoa sortzen dute (familia artean, lagun artean, taldeen artean...)” (Korta, 2006:27). Batik bat kapital sinbolikoa, emozionala eta soziala indartzeko loturak sortzea errazten eta estimulatu dute, hau da, balioak, zenbait ezaugarri, ikuspegia, sentitzea eta egitea eta konpartitzeko eta harremanak izateko

gogoak sortzea. Modu naturalean eratzen dira, behartzen ez duten jarrera- eta emozio-ereduak jarraiki, hala nola, enpatia oinarri; eguneroko truke espontaneoaren ondorioz sortzen dira. Kontaktuaniztasunagatik garatzen diren loturak askotarikoak dira: elkartekideen artekoak, pertsonen eta elkarte gastronomikoaren artekoak, elkartearen eta erakundearen artekoak, elkartekideen eta teknikari eta politikoen artekoak, bisitariekin sortzen direnak, etab.

Informaltasuna parte-hartze sozialaren modu bat da eta, haren izaera espontaneo dela medio, harreman sinpleak sortzen dira erakundeekin edo hainbat eremutako eragin handiko pertsonekin. Elkarte gastronomikoetan adierazpen modu komuna bazkariak eta afariak egitea da, ordezkariak biltzeko.

*Udalarekin eltzeeen artean parte hartzen dugu eta etorri nahi duen edonorentzat irekia dago. Larunbata autoritateentzako eta beste elkarteetarako da (berdintasunezko elkarten elkarrizketataldeko gizona).*

*Horrelako bilera bat egin behar dugu P.rekin, uste dut Innobasque-eko lehendakaria dela, afari-elkarrizketa bat hemen egiteko. Batetik, guk antolatzen duguna bezalako jarduerak daude, pertsona ospetsu batzuk gonbidatzen ditugu hitzaldiak emateko, eta bestetik, erakundeak beraiek dira gure aretoak erreserbatzen dituztenak horrelako bilerak egiteko; adibidez, atzo "Mutileta"-ko foroa izan zen hemen, duela egun batzuk Merkataritza Ganbera Britainiarra egon zen, ondo gogoratzen badut behintzat, hiru hilabetez behin horrelako bilera bat antolatzen du, hamaiketako-hitzaldi bat, enpresa-, kultura- edo gizarte- edo zientzia-munduan ospetsu den norbaitekin. Eta, beno, nahiko ohikoak izaten dira horrelako bilerak, bai: ekimen pribatuak edo sozialak izan daitezke, elkartekideei eta elkartekideek gonbidatu nahi dituzten pertsoneri irekiak (gizonezkoen klubeko gizon-kidea, Bilbo).*

Gainera, elkarte gastronomikoetan egiten diren ekitaldietan ere ospe handiko pertsona ugari biltzen da bazkari edo afari bat egiteko eta, modu horretan, bilera horietara joaten direnen artean kontaktua errazten da:

*Beno, Francoren garaian, edozein ministro etortzen zen, abuztuaren 14ko ekitaldian buru izango zen bat. Orduan, Udalak gonbidatzen zintuen, gonbidapenak ordaintzen zituen eta horrela. Bertara joaten ziren, beti kanpo-arazoetako ministroa. Diplomatiako bazkariak egin izan dira. Hemen azkena izan dena Cortina Mauri izan da. Beno, gero Garaikoetxea. Gero, beranduago, Ardanza ere egon da, eta... Ibarretxe ere pare bat aldiz egon da (elkarte murriztaileen elkarrizketataldeko gizona).*

*Eta, noski, entzute garrantzitsua du, baina pixka bat, diot, Euskal Herritik kanpo ere. Egia esan, jendea etortzen da, adibidez, hizlariak etortzen dira hona, Granadatik eta Huescatik...*

- *Gainera, sukaldari handikiak etortzen dira (...).*

- *Orain Aragoitik eta Asturiastik bi sukaldari panpox etortzen dira baita ere.*

- *Eta Juan Mari Arzak eta horiek guztiak, nolabait ere beti izan dira gurekin parte hartzen, bai hitzalditxoetan edo zerbait egiten... (berdintasunezko elkarteko elkarrizketa-taldeko gizonak).*

Halaber, elkartekideen eta beste erakunde batzuetako pertsonen artean harremanak sendotzeko ere balio dute elkarteek, baita harreman horiek beste giro batean biltzeko, ohikoa denetik urrun.

*Lankidetzaren bada, adibidez, Bilbao metrópoli 30, Bilbao Ría 2000, beste erakunde pribatu batzuk eta pribatuak eta publikoak nahastuz, ba, askotan Klubaren instalazioak hartzen dituzte euren jarduerak egiteko, bilerak hitzaldiak, erakusketak. Azken batean, erakundeetako zuzendari asko [gure klubeko] elkartekide direnez, ba, erakundeei ere zabaltzen zaizkie elkartekide direlako. Alde horretatik..., ba, aldian-aldian horrelako bilerak izaten ditugu (gizonezkoen klubeko gizonkidea, Bilbo).*

Ongi mugatuta dauden horrelako sare informalak ere aurki daitezke, besteak beste, etxekotasunerako, laguntasunerako eta aisialdia betetzeko interes gehiago dutenak; gizartean ugari daude horrelakoak, hau da, gizarte-elkarrekintza sortzeko erakundeak, neurri batean, autosufizienteak direnak.

Bazkari eta ekitaldietatik at, gutxi gorabehera ofizialak edo ospe handiko pertsonak biltzen dituzten horietatik kanpo, elkarte gastronomikoen antzeko jendea ere biltzen dute, interes komunak izan eta elkarte jakin bateko kapital soziala zehazteko sareak sortzen dituztenak, alegia. Elkarte batzuk beste batzuetatik bereizten dira, batik bat, hura osatzen duten pertsonen dagokienez; horregatik, beraz, definitzen dira batzuk elitista gisa. Elkarrizketatu dugun pertsona honek, elkarte batzuen izaera elitista ukatzen badu ere, baieztatzen du elkarte bakoitzak jende mota jakin bat biltzen duela.

*Nire ustez elkarteak, printzipioz, ez dira elitistak, elkarteek ezaugarri bat badute, batez ere zaharrenek, batez ere Alde Zaharrean daudeneak, ba, elkarteetan zegoen gizarte-aniztasuna da. Orduan, gizarte-maila guztiak nahasten ziren, agian, lehenago, ba, errazagoa zen, zeren kontuan*

*izan behar da lehenago etxebizitzak ere gizarte-mailak zirela: behean diru gehien zutenak eta gora joan ahala gero eta txiroagoak ziren, eta azken solairuan, atezainak bizi ziren. Hau da, gizartean sekulako iraultza izan zen eta elkarteetan ere bai. Orduan, orain, ziur nago jende mota jakin bateko elkarte konpartituak daudela, baina nire ustez gizarte-mugimendura egokitzeke eboluzioa izan dutelako da (berdintasunezko elkarteko gizon-kidea, Donostia).*

Gero eta elitistagoa izan elkarteak, orduan eta balio gehiago izango dute eremu eta mailetan sortzen eta mantentzen diren sareek. Baina kasu guztietan, sareek balio bat izaten dute, horietan parte hartzen dutenei emateko.

*Baina arazoa ez da bakarrik soziedadean “x” gizarte-mailako pertsonak egotea, zeren agian erdi-mailako edo maila baxua duten jendea egon daiteke, baina garrantzitsuak diren trukeak sor ditzakete. Adibidez nire semea, igeltseroa da, eta lantxoren bat edo beste aurki dezake han. Hori garrantzitsua da, beste soziedade batean ere ingeniariaren seme-alabek ere hori lor baitezakete-eta (Teresa del Valle).*

Elkarteak nola osatu, halako pertsonak joango dira elkartera; lotura-sare bat sortuko da eta, horretarako interesik izanez gero, aktibatu egin daiteke. Beraz, eremu jakinetan kontaktuak sortzeko gaitasuna biderkatu egiten da.

*Tira, elkartekideak gonbitatuak eraman ditzake. Beraz, hori bai dela... Tradizioari jarraiki, zera, hark esan duen moduan: mediku batzuk etorri eta medikuak diren bi elkartekide daude, nola ez dituzte ba ekarriko (elkartera)? (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Interes pertsonalek eta laneko interesek ere balio dute. Mugez haraindi elkarrekin duten ospeari esker, leku erakargarriak dira bisitarientzat eta, beraz, baita leku bikaina ere modu informalean biltzeko, bazkari baten inguruan.

*Bai, baina partikularki, guk, adibidez, askotan erabiltzen dugu ordezkariak etortzen direnean edo katalanak etortzean edo elkarte bat zer den ez dakitenak datozenean. Bai, bai, hara eramaten*

*ditugu. Andaluziako jende asko dago, portugaldarrak... Guk jende askorekin izan ditugu harremanak, lanagatik. Hara eraman eta liluratuta geratzen dira (berdintasunezko elkarteko gizon-kidea, probintzia).*

Sare informaleen beste mota batek, besteak beste, instituzioekin, enpresekin eta erakundeekin ezartzen diren harremanak ditu oinarri. Kasu horretan, transmititzen den informazioaren balioa onura edo ondasun ukaezina da. Gauza bera gertatzen da emozio-faktoreekin, alegia, nahiak biltzeko, konplizitateak elkartzeko, akordioak sortzeko eta adostasunak errazteko direnekin (interesgarriak dira sare horiek formalizatu eta arautzeko helburua duten ekimenak; beste eremu batzuetan, esaterako, modu informalean eta espontaneoan sortzen baitira, adibidez, G + I : Donostia Innovation-en, ezagutzaren harreman-sisteman, 2010eko Plan Estrategikoan barne hartzen den horretan).

Azken batean, sare informalek boterea sortzen dute eta askotariko eta/edo aliantza estrategikoak sortzeko ekimenak indartzen eta sustatzen dituzte. Ildo horretatik, elkarte gastronomikoen biltzeko lekuaren funtzio bera betetzen dute, baina, kasu horietan, beste interes batzuek ezartzen dute espazioa, adibidez, negozioiek, enpresa-loturek, erakunde edo ospe handiko pertsonekin batera egindako jarduerak edo proiektuak, nazioarteko bilerek, etab.

*Nire ustez kontaktuak eta jendearen artean kontaktuak sortzea, ba, hori nahiko ohikoa dela. Gurean bai, bilerak izaten dira, askotan izaten dira enpresetara etortzen den talderen baten bilerak, jangelaren batean biltzen dira eta gero bazkaltzera geratzen dira. Hori ere askotan gertatzen da. Gainera, areto bat dugu, jangela bat da, baina ez da jangela moduan erabiltzen, orduan, ba, jendeak aprobetxatu egiten du. Orain gainera proiektagailu bat ipini dugu filmak botatzeko eta telebista ikusteko, beraz, ba, jende asko biltzen da bertan eta gero jatera jaisten dira (berdintasunezko elkarteko gizon-kidea, Donostia).*

*Tira, agian gaur egun bazkaltzeko ordua une aproposa da harremanak izateko, negozioak egiteko, etab., ezta? Orduan, alde horretatik, elkartekideek soziedadea baliabide aproposa dela uste dute, lan-bilerak egin ditzakete eta bezeroekin bazkariak, edo hornitzaileekin edo edonorekin eta euren den inguru batean egiten dituzte horrelakoak, eurak ere jabeak direlako (gizonezkoen klubeko gizon-kidea, Bilbo).*

*Nik gogoratzen dut, bai, duela bost edo sei urte, laneko bazkari bat egin nuela. (...) Mediterraneoko abokatu guztiak, Murtziakoak, Alacantekoak, Valenziakoak... ia Almeriara arte. Bazkari bat egin nuen eta, noski, kasu honetan abokatuak, ba, badute nolabaiteko zera... (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Botere soziala lortzeari dagokionez, eta tradiziodun zenbait elkartetara eta horien sareetara sartuz botere-taldeko kide izatearen balorazioari edo garrantziari dagokionez, esan behar da, oro har, topiko hori indargabetu egin dela, eta, askotan gainera, talde edo zirkulu horiek existitzen ez direla baieztatzen dela.

*Beno, ez dut uste elkarte honetan, ez. Ardoa ematen dizuten bodegetan edo ez bada... Guk, behintzat, beno, niretzako, ez da inolaz ere beste leku baterako zubia. Agian beste soziedade batzuk bai, ez dakit, izan ere, badira hau baino elkarte zaharragoak. Agian, beste mota bateko jendea joaten da, han jendearekin topa zaitezke, lagunak edo negozioak egin. Hemen ez dut uste (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, Donostia).*

*Gurean ez, oraintxe gainera hala ez dela esan dezaket (berdintasunezko elkarten elkarrizketa-taldeko emakumea).*

Kontuan izan behar da baieztapen horiek berdintasunezko elkarte xumeetako pertsonak egin dituztela eta elkarte mota horietan aspektu horrek ez duela garrantzi handirik. Hala ere, egia da sareak erabili egiten direla, bai gai pertsonaletarako (adibidez, lana bilatzeko, prestigio edo estatus bat izateko elkarte jakin batean egoteagatik) bai talderako (taldeko interesetarako edo elkarteetarako).

*Tira, jende asko ezagutzen duzu han, orduan beti egon zaitezke kontaktuan: 'a, ba zuk horretan egiten duzu lan, ba nik...'. Agian bai, 'deituko dizut'. Horrelakoak izango dira, bai.*

*Hainbeste jendekin izaten duzunez harremana, azkenean sortzen dira..., baina edonolakoak, baietz? 'itxaron, han ezagutu nuen bizilagun batek egiten du diabetikoen elkarteko aldizkaria eta ikusten denez inprimategi bat du'. Eta bai ba, azkenean horrelako negozioak sortzen dira (berdintasunezko elkarten elkarrizketa-taldeko emakumeak).*

Beste pertsona batzuek elkarte gastronomikoak kontaktuak dauden lekua direla onartzen dute, baina ez dute uste beste eremuen desberdinak direnik (lagun-taldea, taberna, etab.).

*Lagun-topaketan egiten dena baino gehiago ez, ezetz? Esan nahi dudana zera da, ez dakit ba, nik uste dut horrelako presioa egin nahi baduzu besteak baino egokiagoa dela, izan ere joera bat*

*dago... Tira, dudarik gabe lagun-talde bat baduzu, beti egingo duzu horren alde, esan dezagun, nik zer dakit, bat pila ezagutzen duzu, adiskidetasun handia duzu berarekin eta horrela, ba nik zer dakit, baten alde egingo duzu harreman normal batean bezala. Baina negozio-bilerak, normalean, ez dira soziedadeetan egiten, Juanito Kojua edo Nicolasaren toki pribatuetara joaten zara eta han egosten dira kontuak, baina ez soziedade batean, ez baitago intimitaterik. Baina horrek ez du aurrekoa kentzen, eh, adiskidetasun-harreman horretan elkartekide bati esan diezaiokezu 'aizak, nire mutikoa izugarri jatorrak duk eta ea sartzan duken tokiren batean', ezta? Baina hori han gertatzen da, taberna batean... (Rafael Aguirre).*

Hala ere, desberdintasun bat dago elkarte gastronomikoen eta beste eremuen artean; lehenengoan loturak estutzen dira eta bertatik sare zabal-zabalean sartzan.

Labur, elkarte gastronomikoetan sare informalek, batik bat, lankidetzat-loturen bidez funtzionatzen dute eta horietan kontaktu pertsonal zuzena ezartzen da aldizka eta askotan; elkarrekikotasuna ere sustatu egiten da beste onura ukaezin baten bidez –gastronomia, janaria–, beste balio erantsi baten gisa. Gainera, lurraldetasunak ere badu zerikusia, elkartekideek jatorrizko lurraldearekin lotura estuak dituztelako, nortasun propioa, loturak ezartzen dituen kideetasun-sentimendua. Era berean, elkarte gastronomikoetako sare informalek ere botere- eta prestigio-iturri dira, gizarteko hainbat mailatan jarduten duten eragileek (batzuk izugarrizko eragina dute) ahalbidetutako kontaktu zuzenari esker.

Sare informalek gizartean duten garrantziari dagokionez, esan behar da curriculum bano erabilgarriagoak direla, baita aztertutako eremuan ere. Ildo horretatik, elkarte gastronomiko askotan bi elkartekideren bermea nahikoa da interesa duen pertsona bat elkartekide izatera iristeko.

Elkarte gastronomikoetan, sare informalek, beraz, sozializatu egiten dituzte elkartekideak eta botere eta prestigio mota jakin bat eman. Arestian aipatu bezala, sareak helburu komun bat duten pertsona-talde batean ezarritako eta estututako harremanak dira, gizartean gertatzen den bezala; elkarte gastronomikoetan ere sare formalek nahiz informalek daude, hau da, elkartekideen eta instituzioen artekoak. Bi sare-motek elkarren beharra dute, harreman-egitura bat sortzeko. Elkartekideentzat ere, izugarrizko garrantzia dute, ikusi ahal izan dugun moduan.

Sare formaletan, horiek mantentzeko edo hobetzeko interesa atzematen da –baita interesa esplizitua ez denean ere–, izan ere, proiektuek (kulturalak, kirol-arlokoak edo gastronomikoak, zentzu hertsian) instituzioen laguntza behar baitute burutzeko, adibidez, Udalarena, Foru Aldundiarena edo beste erakunde ofizial batzuenak. Baina elkarte gastronomiko batzuetan ez da erakundeekin kontaktuak mantentzeko interes hori aipatzen, batetik, horiekiko ez dutelako konfiantzarik eta, hala, laguntza jakin batzuk ukatu egiten direlako edo, bestetik, aurrerago ikusiko dugun moduan, emakumeak

elkartean sartzen uzten ez direlako. Bi motibo horiek direla-eta, emakume batzuek ez dute erakundeekin harreman esturik eduki nahi.

Orokorrean, sare formalek bi aspektu dituzte: batetik, laguntza ekonomiko puntuala, diru-laguntza moduan, elkarteek antolatzen dituzten festetarako eta jardueretarako, eta, bestetik, elkarte gastronomikoekin batera egiten diren beste proiektu parte-hartzaile batzuk burutzea. Azken kasuan, erakundeekin izaten diren harreman formalek instituzionalizatutako egitura formaletan parte hartzeko balio dezakete eta, horri esker, elkarte gastronomikoek balio eta prestigio bat lortzen dute.

*Tratu bat dugu eta Udalarekin hitz egin nahiko genuke. Orain hemen museo bat dago, berritzen ari dira. Hemen inguruan esaten da elizbarrutiko museo bat egongo dela. Orduan, ba, ea parte har dezakegun modu batean edo bestean. Udalak museoetan dauden korridore horietako batean egoten utz diezaguke, eta guk ba museo batean, beno, liburutegian parte hartuko genuke batik bat, sukaldeko tresna batzuk eramango genituzke, elkartekideek ekartzen dituztenak, eta gero 1813ko traje eta armamentu erakusketa bat antolatu, izan ere, Gaztelu Egunerako batailoiak ateratzen ditugunean, ba, frontean zeuden erresistenteen uniformeak kopia egin genituen (berdintasunezko elkarteko gizon-kidea, Donostia).*

Erakundeekin izaten diren harreman formalak, askotan, elkarteek eskatzen eta haiengatik jasotzen dituzten diru-laguntzetara mugatzen dira, jarduera jakin batzuk egin ahal izateko. Hala ere, azpimarratu behar da beste mota bateko lankidetzak ere badirela, proiektu eta interes komunak biltzen dituztenak eta, batzuetan, estatusa eta prestigioa ematen dutenak.

*Beno, bi norabide ditu. Normalean, eurek ekin behar dute lehenbizi. Gu ere harremanak bizirik mantentzeko arduratzen gara eta ilusio bat izan dezaten eta bide aproposa egin dadin, eurak ere euren antolaketa planteatzera etortzeko, eta ate bat irekita dagoela ikus dezaten... Izan ere, administrazioaren interesa, baita ere, jende interesatua egotea da, komatxoaren artean, gauzak antolatzeko. Guri parte hartzeko eta kezkaren dinamika hori mantentzea komeni zaigu, erakundeak sortu eta edonolakoak antolatzeko eta bizi sozialari zentzu bat emateko (udal-teknikaria, Tolosa).*

Hala ere, erakundeekin dauden harreman formalak ez dira beti errazak izaten, eta horrek, batzuetan, nolabaiteko gatazkak sorrarazten ditu. Gatazka horien jatorria, agian, erakundeekin mantentzen den

komunikazioa aproposa ez delako da, eta alderantziz; hori izango litzateke sare formalak ezartzea lortzeko gakoa. Horren bidez, erreferentzia egin nahi zaie komunikatzeko kanal aproposenei eta eraginkorrenei. Agian, lehia horren kausa elkarte gastronomikoen jatorrian dago, izan ere, elkarteek bete baitituzte erakundeek utzitako hutsuneak, baina, askotan, erakundeek ez dituzte ekarpen horiek kontuan hartzen.

*Gainera, soziedadeen papera izugarri aldatu da: lehen erakunde publikoek, Udalak, Diputazioek, diru gutxi zuten eta kirol-jarduerak, eta jarduera kulturalak baita ere erakunde pribatuen esku zeuden eta puntu horretan soziedadeek paper garrantzitsua betetzen zuten eta, elkarteak, polikiroldegirik ez zegoenean ez ezer, ba, haiek mendizale talde bat zuten, edo saskibalo talde bat lehenengo mailan jolasten zuena, edo traineru bat. Hau da, ez zegoen beste aukerarik... Orain, Udalak kiroldegiak eraikitzen dizkizu, denetik egiten dizu, diru asko dago-eta. Baina lehenago, elkarteek betetzen zituzten administrazioak bete ezin zitzakeen hutsuneak. Orduan, ba, pixkanaka-pixkanaka..., ongintzako jarduerak, adibidez, [elkarte gastronomiko murriztaile batek], San Antonioko ospitale zaharrea hainbat areto zituen, diru ugari ematen zutenak, eta jarduerak egiten ziren, zezen-zekorketaren bat antolatzen zuten eta lortzen zen dirua harentzako izaten zen [ospitalerako]. Funtzio sozial bat betetzen zen, orain, ordea, Udalak diru gehiago duenez eta horrela, ba, hark betetzen du. Baina lehenago eurek egiten zuten (Rafael Aguirre).*

Elkarte gastronomikoen balio sozialarekiko dagon ikuspegia kontrajarria da. Gauzak horrela, elkarte batzuek balio hori errekonozitzea eskatzen badute ere, erakunde batzuk ez dirudi halakorik egiteko prest daudenik, edo hala uste dute behintzat elkartekide batzuk.

*Nire ustez arazo instituzional bat dago. Erakundeek elkarteak lagundu beharko lituzkete (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Egia esan, elkarte askok ez dute inongo kontakturik erakundeekin, zenbait pertsonak esandakoaren arabera.

*Ez dugu traturik Udalarekin, ez dugu inolako traturik Udalarekin. Nire ustez (elkarte) batek salbu, harreman funtzional bat izan dezakete edo ia, ez Udalarekin berarekin, CATaren bitartez baizik*

*(Kultur eta Turismo Ekinetxea), baina haiek kontatuko dizuete horri buruz zertxobait. Nik uste dute beste guztiek ez dutela erakundeekin jada harremanik (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

*Ez, ez, Udalarekin ez dugu batere harremanik. Eskutitz bat bidaltzen dizutenean soilik, esanez “hau falta zaizu, edo bestea falta zaizu”, baina ez dizute inoiz ezer ematen (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, probintzia).*

*Bai, niri gonbidapen-eskutitzak soilik bidaltzen dizkidate, zerbaiten aurkezpenerako “gonbidatuta zaude” (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Beste kasu batzuetan harremana gatazkatsua izaten da, ekitaldi jakin batzuetan protagonismoa izateko lehia dela-eta.

*Udalarekin harremanak? Ba, oso txarrak, txoznengatik. Beti borrokan, gainera badute..., beno, ni lehen tartean nintzen, baina urteek aurrera egiten dute eta orduan festak nahiko boikotatzen dituzte, jende gehien erakartzen duten festetakoak garelako eta gainera batzordean jendeak egiten dituen festak dira, bai? Orduan, ba, Udalari horrek erre egiten dio (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, Donostia).*

Beste elkarte gastronomiko batzuek, aldiz, erakundeekin harreman onak dituzte eta sare informaleen bidez agerian jartzen dituzte, baina baita sare formaleen bidez ere.

*Harremana ona da. Aurretik esan dugun bezala, batzuetan, erakundeek antolatzen dituzten eskaintza kultural eta sozialak areagotzen laguntzen dugu, beste batzuetan, ba, proposatzen dizkiguten jardueretan parte hartzen dugu eta, gero, laguntzen aldetik, ba, duela gutxi Diputazioak diru-laguntza bat eman digu adibidez, elkarteko ondare artistikoen katalogoa egiteko, luzean amestu dugun ametsa, azkenean, egia bihurtu da, eta elkarteko higiezinak, pintura, eskultura, material grafikoa etab. inbentariatzeko balio izan digu. Hori Diputazioaren diru-laguntzari esker egin da. Orain, antzeko argitalpen bat egin behar da, izaera kartografikokoa, Diputazioarekin lotuta baita ere, eta gainera Diputazioarekin “portulano” batzuk erakusteko aukera kudeatzen ari gara, ditugun etxebizitza zaharren mapak, metakrilatozko erakustoki garden batzuk edo dena*

*delakoak, etengabe erakutsi ahal izateko, eta hori ere Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan egingo da (gizonezkoen klubeko kidea, Bilbo).*

Klub horren kasuan, prestigio-onura elkarren artekoa da eta elkarri elikatzen diote, izan ere, klubak balio propioak baititu, erakundeari interesatuko litzaizkiokeenak. Egoitzan ekitaldiak egitean handitasuna eta adeitasuna lortzen dute elkarteek, egoeragatik, prestigioagatik eta ospeagatik; hala ageri da egoitzaren eta bertan egiten diren jarduera-moten deskribapenean.

*[Klubeko une garrantzitsua] ondare kulturalaren kalifikazioa izan zen, monumentu-kategoriarekin 2000. urtean (...). (Klubak) izugarritzko instalazioak ditu. Hamarkadetan zehar ospatu izan diren ekitaldiak ospatzen jarraitzen da (...). Areto pribatuak ditugu eta horietan hitzaldiak antolatzen ditugu, kontzertuak, laneko bilerak, familiarako bazkariak, enpresakoak, urtebetetzeak, kongresuak... hitz batez, aukera ugari dago. Gainera, elkartekideentzat zerbitzu iraunkor batzuk ere badaude, adibidez, ba, liburutegia. Liburutegia pribatua da, oso garrantzitsua. 35.000 liburu dago. Billar-aretoak ditugu, ajedrez-aretoak, tertuliarako, kartetan ibiltzeko. Sailak ere badira, eski-saila adibidez, neguko kirol-jarduerak antolatzen ditu. Ehiza-saila, bi barruti dituena (...). Orduan, beti, eta gainera espazio bat dugunez, normalean bi areto uzten ditugu erabilgarri: bata janaurrekorako, ordu erdi edo ordu bete edo ordu eta erdi iraun dezake, janaurrekoaren tamainaren arabera. Eta gero, beste aretoa bazkarirako. Gainera, esan bezala, aretoak bilerak egiteko erabiltzen ditugu eta jada ez daude ostalaritza-zerbitzuak tarteko; areto bat erabiltzen da jendearentzako lekuarekin, lehendakaritza bat aurkezpenetarako, hitzaldietarako, laneko bileretarako... Ikus-entzunezko materiala ere badugu, zerbitzu horiek osatzeko. Gero, lunch-zerbitzuak ere baditugu, koktela... (gizonezkoen klubeko gizon-kidea, Bilbo).*

Elkarte gastronomikoetan, batez ere elitistak direla onartzen dutenetan, askotan bazkari, afari eta harrera ofizialak egiten dira. Hori duten prestigioagatik da posible. Era berean, arrera horien bidez, elkarteak ospe handiko pertsonak biltzeko lekua izaki, haren prestigioa eta balio soziala areagotu egiten da.

Elkarteek erakundeekin zenbait harreman dituzte, baina lehenengoenak duten prestigioaren ondorio izateaz gainera, prestigioaren kausa ere badira harremanak. Elkarrizketatutako zenbait pertsonen estatus hori bereizten dute. Horrek adierazten du batzuk, eta ez beste batzuk, aukeratzen direla aipatu ospea duten ekitaldiak egiteko.

*Tolosan ez dago G.-k (elkarte donostiar bat) bezain besteko ospea duen soziedaderik, telebista guztietan ateratzen dena eta egunkari guztietan une jakin batean. Komunikabideek izugarri ematen diote G.-ri, alkatea bertara joaten delako gainera. Ez dakit ordea afarira Martín Berasategi joaten ote den (elkarte murriztaileko gizon-kidea, probintzia).*

*Bai, motel, Tolosan soziedade piloa daude eta alde zaharrekoek estatus handiagoa edo dute, edo prestigio handiagoa, 75 urte daramatzate-eta (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, probintzia).*

*Gertatzen dena tontakeria hutsa da, auzoko elkarrekin prestigio txikiagoa dute Donostiakoek edo Antiguakoek baino, eta diru askoz gehiago kobratzen dute gainera. Batzuetan eskandalua da esaten didatenean elkarrekin batzuk zenbat kobratzen duten. Baina Donosti erdian edo (hiri-inguruko) auzo batean bizitzea bezala da, ba harrokeria hori... (elkarte murriztaileko elkartekidearen emaztea, Donostia).*

Kapital sozialaren ideia sakontzean, nabarmena da elkarrekin horietan sareak ezartzen direla, parte-hartzaileen mesederako boterea ematen duten sareak: elkarrekin gastronomikoekin, erakundeekin eta elkartekideekin (gehienetan gizonezkoak izaten dira, berdintasunezko elkarrekin gastronomikoetan oraindik ere emakume gutxi direlako elkartekide). Hemen, kapital soziala onura ukaezinen trukean oinarritzen da, adibidez, eragin-sareen, informazioaren, kontaktuen eta prestigioaren trukean. Jarraian hautatutako zatietan, elkarrekin horietako elkartekideek estatusa irabazten dutela agertzen da, elkarrekin horietako pertsonak azaltzen dutenaren arabera. Bitxia bada era, kasu batzuetan, erreferentzia egiten zaien elkarrekin dira, hain zuzen ere, erakundeekin hemen jorratu dugun harreman mota hori dutenak edo zutenak.

*Ba nik, bitxikeri gisa, kontatuko dizuet gure elkarrekin 1920 inguruan sortu zela eta elkarrekin, nola esan, ezin zitekeen edonor sartu, dantza batzuekin eta ... Neska politenak aukeratzen zituzten eta, tira, esango dut ba, ezin zutela sartu eta beno, entzun dezakezun gauzarik elitistena da... (berdintasunezko elkarrekin elkarrekin-taldeko emakumea).*

Beste kasu batzuetan, lankidetzak xumeagoak dira eta beste interes batzuk dituzte tarteko; herrikoia direla esan daiteke eta ez da zertan prestigio-trukea izan. Tolosan, esaterako, festen antolaketa adibide ona da, lankidetzak erraza eta estua delako.

*Beno, gauzak antolatzen dituen jendea eta, Udala elkarteei eskua luzatzeko asmoarekin dago. Antolatzen dugun guztian, bai, laguntzen digu. Udalarekin feeling ona dugu (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, probintzia).*

Hala ere, festen kasuan ez da ahaztu behar, ezta ere, elkarte gastronomiko eta erakunde batzuek duten protagonismoa, bereziki, ekitaldi nagusietan, hala nola txupinazoan, pregoian, banderaren igoeran, etab. Kausa horietarako elkarte gastronomikoeak eta erakundeek une garrantzitsuak konpartitzen dituzte eta gizartean duten balorazioa indartzen dute.

Beste elkarte gastronomiko batzuetan, berriz, erakundeekin izandako harremanek aurrera egin dute denboran, baina ez dira gizartean izandako aldaketetara egokitu, ezta sentsibilitate eta kezka handiko gai jakin batzuetara ere, hala nola, ez dira emakumeak elkartean onartzeko gaien murgildu. Elkarte batzuetan ikus daiteke gero eta gutxiago bertaratzen direla politika-munduko eta erakundeetako pertsonak, izan ere, gero eta erakunde eta alderdi politiko gehiago adierazten dira publikoki emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren funtsezko printzipioaren alde. Hasi da, hala ere, egungo egoera lehengo garaietatik bereizten, politika-munduko eta erakundeetako izen handiko pertsonak elkarte gastronomikoetan biltzen zirenean, arestian aipatu bezala.

Erakundeetako ospe handiko gero eta pertsona gutxiago dago, bai testuinguru formaletan, bai testuinguru informaletan. Elkarte gastronomiko batzuk afari edo bazkari ofizialak egiteko leku gisa aukeratu ziren eta, gaur egun, hala izaten jarraitzen dute. Baina estamentuetan emakume gehiago dagoenez, aurrerapen hori zaila da bateragarri egiten emakumeei elkarte gastronomiko batzuetan sartzea debekatzen dieten arauekin. Gaur egun, horrelako muga asko malgutu egin dira, baina, horiek direla medio, duela gutxi ere gatazka eta haustura sortu dute elkarte batzuen eta erakundeen artean.

1987. urteko polemika izan zen ezaguna; Donostiako Udalak Pilar Miróri eman zion Urrezko Danborra eta, omendua izanik ere, ezin izan zuen afari ofizialera joan elkarte gastronomikoan ezin zuelako sartu. Tokiko egunkari batek honela adierazi zuen ezbeharrak: *“Pilar Miróri Urrezko Danborra eman ostean polemika sorrarazi zen. Omenduak ezin izan zuen autoritateekin afaldu Gaztelubiden. Galdera garai hartan Euskadiko Ezkerrako parlamentari Koro Garmendiak laburtu zuen DVk argitaratutako artikulu batean: «Zergatik ez du Pilar Mirók Gaztelubiden afaldu?».* Udalak Urrezko Danborra Alburquerqueko dukeari eta Pilar Miróri ematea erabaki zuen, garai hartan RTVEko zuzendari orokorra eta lehenago Zinematografia arduraduna. Tradizioak ezartzen zuenaren arabera, Urrezko Danborra jasotzen zutenek, autoritateekin batera, Gaztelubiden afaltzen zuten 19ko gauean. Baina elkarte horretan emakumeak ezin dira ordu jakin batean sartu. (...). Urte hartan, erakundeetako ordezkariak Gaztelubiden afaldu zuten –Ardanzak, Muruak eta Labayenek, orduan lehendakari, diputatu nagusia eta alkatea hurrenez hurren–, eta Pilar Mirók bitartean Arzac jatetxean afaldu zuen Pilar Larraina

*alkateordearekin, alkatearen emaztearekin, Diego Galanekin eta orduko zinegotzi Odon Elorzarekin” (Gurpegui, 2007).*

Bi urte geroago, Donostiako udal-korporazioak tradizioa haustea erabaki zuen eta Urrezko Danborraren afaria Maria Cristina hotelean egin zen. Beste egunkari batean ekimena honela azaldu zen: *“Donostiako alkatearen ekimenak, Donostiako festetan zeremonietako ohiturak errotik hautsi arren, garrantzi handiagoa lortu du, udal-korporazioko askoren presioen ondorioz gertatu ohi den bezala, batez ere emakumezko zinegotzi donostiarren aldetik, eta aurtengo Urrezko Danbor Gabriel Celayak horrelako tradizioei eustea onartzen ez duelako. ...Errituak ezartzen du San Sebastian gauean hiriko saririk garrantzitsuena eman zaion pertsonaia mahai-kidea izango dela Udaleko autoritate gorenarekin Gaztelubideko elkarteetan. Xabier Albisturrek, hala ere, polemika ukalezina baretzen saiatu behar izan du, eta azaldu du ez dituela aurrekariak ezarri nahi izan, eta Gabriel Celayarekin egingo litzatekeen kortesia faltari egin dio erreferentzia, jakin badaki-eta adineko poeta donostiarra ez dela bere emazte Anparixurengandik une bat bera ere banantzen” (Barbería, 1987).*

Baina pertsona ospetsuen presentzia ez da murriztu bazkari edo afariak beste leku batera eramanez direlako soilik; aldiz, kontuan izan behar da, baita ere, ez dutela emakumeei sarrera mugatzen dieten elkarteekin harremanik eduki nahi izan.

*Orain jada ez da autoritaterik etortzen, izugarritzko iskanbila sortu baitzen C.-rekin (Aldundiko kargu gorena). Batzar Nagusietan G.-ri (elkarte murriztaile bat) ohartarazi egin zioten emakumea diskriminatzeagatik. Eta orduan hark esan zuen norbait mintzen bazuen ba... eta ez zen gehiago joan.*

*Hori ez nekien nik, ez zen gehiago etorri?*

*Horixe. Eta S. ere ez (Aldundiko beste kargu goren bat).*

*Emakumearen diskriminazioa babesten zutelako.*

*Ez zuela Donostiako herria ordezkatzeko salatu zioten, elkarte batera joaten zelako eta elkarteak ba...*

*Ez zieten emakumeei bertan sartzen uzten?*

*Horixe. Eta orduan, handik bi urtera barazkien egunera gonbidatu nuen, bera eta emaztea, S. eta emaztea, eta beste bat... Eta argazkiak atera zituzten eta egunkariak zera azaldu zuen: G.-k (elkarte murriztaileak) ez ditu emakumeak diskriminatzen. Baina nahikoa izan dugu orain arte... eta orain ez dugu inor gonbidatzen. Pikutara! Arazoak besterik ez genituen (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizonak).*

Laburpen gisa, azpimarratu behar da elkarte gastronomikoetan hierarkiak lotuta daudela erakundeekin edo politika-munduko pertsonekin dituzten harremanen kalitatearekin, baita besteak beste kultura-, gastronomia- eta kirol-munduko ospetsuekin eta botere-sare informalekoak direnekin dituzten harremanen kalitatearekin ere.

Erakundeekin ezarritako harreman mota aldakorra da; sareak argiak izan daitezke, ahulak, edo solidoak, elkarte bakoitzak beharrak kudeatzeko eta negoziatzeko eta erakundeekin arautegi jakin batzuk onartzeko duen moduaren arabera.

Boterea mugatzeko ohiko modu bat estatusaren bidez egitea da. Egia esan, ezabatu ezin daitekeen tatuaje baten antzera dago estatusa gizartean; beraz, klaseak erregulatu eta markatzen ditu eta pertsonak eskala sozial eta ekonomiko batean ipintzen –finkatzen–. Ildo horretatik, eta boterearekin duen berezko loturaren inguruan, interesgarria da azaltzea nola jarduten duten estatusak gizartean.

Gizartean, bi estatus mota daude: batetik, *hartutako estatusa*, talentuak, ekintzak, ahaleginak, jarduerak eta lorpenak eskatzen dituena; eta bestetik, *esleitutako estatusa*, jendeak aukeratzeko gaitasunik ez duenean edo ia ez duenean, pertsonaren ezaugarri eta gaitasunak kontuan izan gabe lortzen baita. Esleitutako estatusa heredatu eta harekin jaiotzen da eta, beraz, okupatzen den mailak ez du beste aukera bat ematen; hori da emakumeen kasua, sexuak zehazten dielako euren estatusa. Interesgarria da azpimarratzea elkarte gastronomikoen esleitutako estatusari dagokionez duten funtzioaren garrantzia, izan ere, sexua baita elkarteetan parte hartu edo horietan sartzeko baldintza eta, horren ondorioz, baita botere soziala lortzeko edo gozatzeko baldintza ere (beste kasu batzuetan arraza izan daitekeen moduan).

Elkarte gastronomiko murriztaileetan, estatusak, bereziki esleitutakoak, behin eta berriz erabiltzen dira emakumeen bazterketa justifikatzeko, batzuetan modu erabakigarrian eta beste batzuetan, berriz, modu malguagoan, baina hala ere emakumeei ez diete sukaldaria sartzeko eta, beraz, elkartekideen “prestigiosko” espazioan ez dituzte onartzen.

Halaber, baztertzailak ez baina testuinguru-estatusak direnak daude; hura izaten dute, adibidez, elkarte gastronomiko bateko lehendakariak, zuzendaritza-batzordeko kideak eta enpresa bateko ingeniariak, besteak beste. Azpimarratu nahi duguna zera da: *gizarte-nortasunaren negoziazio-egoera*; izan ere, nortasun jakin bat hainbat testuingurutan erabiltzen baita eta beste bat, berriz, zeharo desberdina den beste testuinguru batean. Elkartekideek badakite zein jarrera izan testuinguru desberdinetan, testuinguru-estatusak ematen dien boterea inolaz ere galdu gabe. Hala ere, emakumeak testuinguru berean ez hautemateaz gainera (antzeko edo testuinguru-nortasun gehiago ere izan dituzte), euren rolak ikusezin bihurtu edo balioa galtzen dute: beste markatzaile baten ondorioz murrizten dira, sexuagatik alegia, eta horrek esleitutako estatusa ezartzen die, beste guztien gainetik.

Analisi honetan ezin dugu ahaztu elkarte gastronomikoen elementu konstruktibo eta ezaugarri bat:

gastronomiarekin duten lotura (izenak adierazten duen bezala). Aspektu horrek Euskadin taxu berezia du, izugarriko garrantzia baitu maila askotan (nortasun etnikoan, balio sozialean eta ekonomikoan, etab.) eta lotura garrantzitsua du elkarte gastronomikoekin, baita elkarte gastronomikoek emakumeak baztertzeko jarrerarekin eta gastronomiara egiten dituzten ekarpenen errekonozimendu-faltarekin ere.

Gastronomia, janarekin lotutako ezagutzen eta jardueren multzo gisa, arte bat da euskal sukaldaritzan, nortasun-elementua izaki. *Etnizitatea* talde etniko batekin identifikatzea, eta bertakoa sentitzea bezala ulertzen da; hau da, kideek dituzten antzekotasun kulturalengatik eta beste talde batzuekiko dituzten desberdintasunengatik bereizten den talde bateko kide gisa identifikatzea. Talde etniko batean hainbat elementu konpartitzen dira: sinismenak, balioak, azturak, ohiturak eta arauak, hizkuntza, erlijioa, historia, geografia, ahaidetasuna eta/edo arraza komunak.

*Nortasuna* nahiz *etnizitatea* funtsezko kontzeptuak dira elkarte gastronomikoen garrantzia eta errotzea ulertzeko, janariak oinarrizko papera betetzen baitu nortasun etnikoan: *“Historia sozial eta kultural bati (...) eusten dioten (...) balioak dira, nortasunari dagokionez, etengabe loratzen direnak, eta hortik ageri da janaren unibertsoa, esanahiez eta prozesuez betetako lurralde baten gisa, haren bidez gizarte bakoitzak bere ‘nortasuna’, ‘esanahiak’, ‘etnizitatea’ bizitzeko modua. Janariari esker, gizarteek, era berean, euren errealitate etnikoa bizitzen dute garaikidetasunaren eremuan, kulturaren aspektu oro bizi den bezala mundu garaikidean, globalean eta ekonomikoan eta, era berean, pluralitatea eta etnia-aniztasuna errespetatzen den munduan”* (Salazar, 2000:88). Gainera, *“jana eta jatea beti daude pertsonen bizitzan eta komunitate edo talde bateko nortasunari edo etnizitateari buruz egiten den hausnarketa ororekin lotuta”* (Ibíd.: 93).

Elikadura *“gizarteko berezko gertaera”* gisa aztertu izan da iraganean (Mauss), baina gaur egun ere gero eta interes gehiago duen gaia da. Kontuan izan behar da elikadura ez dela bizi-behar bat asetzeko jan-prozesu sinplea bakarrik. Orain, elikadura prozesu soziokultural gisa interesatzen zaigu, haren dimentsio sozialak eta kulturalak, *“elikagaiak direlako barne-hartzen diren (gorputzera sartzen dira literalki) kontsumo-onura bakarrak, eta banakoak eta gizarteak identifikatzeko prozesuetan funtzio berezia jokatzen dute”* (Muchnik, 2006).

Janaria elementu unibertzala da eta kultura guztietan dago. Gaia aztertu duten aditu eta ospetsuen postulatuei jarraiki, aitortu behar da janari gordina izatetik eltzekoa izatera aldatzeko prozesuak aintzat hartzen duela gizadiaren azalratzea edo etorrera. Gainera, sukaldaritzak gizakiak behar duen naturaren eta kulturaren arteko artikulazioa bermatzen du (Lévi-Strauss, 1970:427). Kontuan izan behar da *“elikagaiak historian zehar izan duten funtzioa oinarrizko behar fisiko bat asetzetik haratago doala. Janaren bidez ideologiak eta proiektu politikoak ezarri dira, genero-harreman jakin batzuk sortu eta nortasun etnikoak eta nazionalak eratu. Janariak gizarte-mugimenduak baretzeko eta sorrarazteko balio izan du, solidaritate-sentimenduak zabaltzeko edo populazio-taldeak menderatzeko eta baztertzeko. (...) janaria, gizartearekin, testuinguruarekin eta boterearekin dauden harremanak*

*aztertzeo begi-orde gisa*” (Camacho, Guarín, Van Ausdal, 2008:11-12).

Hortaz, jatea fenomeno soziala eta kulturala da (Contreras, 2005), izan ere, barnean hartzen baititu moduak, protokolo bat, etiketa bat, mahaiaren inguruko jarrerak, mahaikideak eta janaria bera. Elikatzea beharrezkoa da, baina gastronomia da elikatzea plazer- eta osotasun-iturri bihurtzen duena, “egiten jakitea” deritzona, tradizioari jarraiki belaunaldi belaunaldi transmititu dena, ukiezina den ondarearen zati bat. Eta gastronomiak, gainera, sukalde-gramatika du, arau zehatzekin, jakintzeekin, esperientziarekin eta sormen-dosi pixka batekin, besteak beste, elikagaiak, teknikak eta zerbitzatzeko moduak prestatzeko eta konbinatzeko.

Gainera, janariak zentzumen-osagai nabaria du, era berean, bost zentzumenak barne hartzen baititu; janarian nolabaiteko sentsualitatea ikusten duenik ere bada. Ez da harritzekoa, historian zehar, janariak emozio handiak mugiarazteko gaitasun argia izan duela esatea (Appadurai, 1981).

lido horretatik, gastronomia elementu eta ezaugarri identifikatzailea da, nortasun-zeinua, euskal *etnizitatean*. Jeremy Mac Clancy antropologoaren arabera “*nazionalismoaren hastapenetik, euskal gastronomia funtsezko elementua izan da euskal nortasuna sortzerakoan eta, gaur egun, buru-estimua elementua da euskaldun guztientzat, nazionalistak izan edo ez direnentzat*”. Halaber, baieztatzen du “*euskal sukaldaritzaren XIX. mendeko azken hamarkadetan eta XX. mendeko lehenengoetan sortutako produktua eta adierazpena izan zela, garai hartako sukaldari batzuei, kazetariei eta elite industrialari esker. Orduan izan zen jatetxe, hotel eta bainuetxeetako aldi gorena eta sozializatzeko modu berri bat sortu zen, euskaldunek euren sukaldaritzaren gozatzen zutela adierazten zuena*”. Aspektu horren inguruan, frantsesen kasua antzekoa da “*sukaldaritzaren, euren kulturaren, barnean hartzen delako eta elementu garrantzitsua delako. Hala, euskal sukaldaritzaren elementu kultural bat da; hori dela-eta, euskaldunek, eta ez soilik nazionalistek, nortasun propioa harro ager dezakete, politikarekin zerikusirik ere izan gabe*”. (Elkarrizketa Jeremy MacClancy-ri, antropologoa, Oxford Unibertsitateko katedratuna eta Eusko Ikaskuntzako ordezkaria Oxforden. Iturria: “Gastronomía Vasca”, Nafarroako Unibertsitate Publikoa [www.universia.es/html\\_estatico/portada/actualidad/noticia\\_actualidad/param/noticia/iicdf.html](http://www.universia.es/html_estatico/portada/actualidad/noticia_actualidad/param/noticia/iicdf.html)).

Gastronomiak propioa denaren harrotasuna pizten du. Baieztatu ohi da, neurri handi batean, Euskadin gastronomiari ematen zaion garrantzia herrialde bizilagunetik datorrela: Frantziatik alegia; bertan, gastronomia harrotasun nazionalaren parte da, nazioaren izaera osatzen duen balio bat, modu eta maila guztietan esportatzen den balioa.

Elkarte gastronomikoei dagokienez, Hilario Arbelaitzek “*uste du tradizioaz gainera, elkarte gastronomikoen ere funtzio garrantzitsua betetzen dutela gai honetan, nahiz eta, haren iritziaren gertutasunarekin ere baduen zerikusirik, Frantziaren gastronomia bikaina baitu eta euskaldunentzat ispilu gisakoa izan baita*”. (Deia, “Los vascos, amantes de la cocina, un tópico real”, 2006-03-26 [www.deia.com/es/imprensa/2006/03/26/bizkaia/gizartea/232913.php](http://www.deia.com/es/imprensa/2006/03/26/bizkaia/gizartea/232913.php)).

Aipatu iritziaren harian daude gastronomia-kritikari eta Club Deportivo de Vasconiak antolatutako Jardunaldi Gastronomikoen aurkezle Mikel Corcuerak egindako adierazpenak. Hala dio: *“Hemen askotan hitz egin ohi da goi-sukaldaritzaz, baina ezin da ahaztu elkarteak euskal sukaldaritzaren herrikoien parte direla. Elkarteetan sortu ziren dagoeneko errotuta dauden platerak, hala nola, kokotxak (Kainoietan sortu ziren) edo legatz-solomoa kokotxekin eta txirlekin. Oso sukaldaritzak garrantzitsuak da eta, gainera, sukaldari garrantzitsuak ere izan dira, adibidez, Luisito Elorza, Gaztelubidekoa, edo Fernando Tierno, Xamurra, Gaztelupekoa. (...). Eta azken aldian pintxo-lehiaketek eta goi-sukaldaritzak garrantzi handiagoa lortu dute elkarteetako gastronomiak baino. (...). Elkarten artean lehiaketa horiek [Jardunaldi Gastronomikoak] berreskuratzea haiek euskal gastronomian duten garrantzia aldarrikatzea litzateke, parte direlako etxeko sukaldaritzaren herrikoiekin eta arrantzaleenarekin batera, marmitakoa bezalako platerak kontuan hartuz”* (Noticias de Gipuzkoa, “Las sociedades han dejado cocineros y platos importantes de la cocina popular”, 6-11-2007 [www.noticiasdegipuzkoa.com/ediciones/2007/11/06/sociedad/gipuzkoa/d06gip12.796039.php](http://www.noticiasdegipuzkoa.com/ediciones/2007/11/06/sociedad/gipuzkoa/d06gip12.796039.php) (08-12-30ean kontsultatu zen).

Bi egun geroago, egunkari digital berak Jardunaldi Gastronomikoak azaldu zituen. Atentzioa ematen du jarraian azaltzen den artikulua, euskal gastronomian elkarte gastronomikoen garrantzi handia dutela dioelako: *“Club Deportivo Vasconiak, Jardunaldiei esker, herritar guztiei ateak zabaltu nahi dizkie eta elkarte donostiarretako sukaldariengana gehiago hurbildu, baita elkarte horiek euskal gastronomiaren historian barrena bete duten funtzioa aldarrikatu ere”*. (Noticias de Gipuzkoa, “Las sociedades han dejado cocineros y platos importantes de la cocina popular”, 2007-11-8 [www.noticiasdegipuzkoa.com/ediciones/2007/11/08/sociedad/gipuzkoa/d08gip10.799405.php](http://www.noticiasdegipuzkoa.com/ediciones/2007/11/08/sociedad/gipuzkoa/d08gip10.799405.php)).

Argi eta garbi dago jateak eta sukaldaritzak leku nagusia okupatzen dutela elkarte gastronomikoetan eta, gainera, beste kohesio-elementu bat ere gehitu behar da: konpartitzea, egunerokotasuna plazerraz ospatzea, edo jaia edo gertaera bereziak. Janaria ere aisialdi modu bat da, laguntasunezkoa. Lagunei janaria prestatzea eta eskaintzea, lan-harremanetako hainbat saretan ere, estrategia bat da loturak sustatzeko edo sortzeko, harremanak estutzeko edo tratuak ixteko, esan bezala.

Euskadin gastronomiak duen garrantzi izugarriari buruz ikuspegi zehatz bat ematen duen beste aspektu bat kulturaren, aisialdiaren eta dibertimenduaren munduko hainbat eremutan dago. Moda eta gastronomia desfileak adibidez, hala nola *“Cook and Fashion”*; sukaldariak eta diseinatzaileak elkarrekin lan egiten dute gastronomia ibiltokira eramateko Donostiako Miramar Jauregian, prestigio handi eta ukaezinezko espazioan. Nazio-mailako nahiz nazioarteko txapelketak daude, kongresuak, gustuaren nazioarteko aretoa (VII. edizioa egin da), Pintxoen Munduko II Azoka, goibilerak gastronomikoak, zinema eta gastronomiari buruzko jardunaldiak, etab.

Ildo horretatik, erreferentzia egin behar zaio “Euskaldun Unibertsala” sariari; Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Kutxak 2008an Juan Mari Arzak saritu zuten, sukaldari ospetsu eta izen handikoa. Sariari esker, Arzak osparean eta prestigioaren galerian sartu zen, izen handiko beste artista batzuekin batera, Jorge Oteiza edo Eduardo Chillida kasu, baita aurreko edizioetan saria jaso zuten zientzialarien, enpresarien edo kirolarien artean ere. Kanpoan Euskadi modu positiboan proiektatu

eta zabaldu duten pertsona edo elkarteak saritzen dira, euren lana eskertzeko.

Halaber, azpimarratu behar da Sukal Leku Fundazioa sortu zela euskal sukaldaritzaren nagusitasuna munduan defendatu eta sustatzeko. Fundazioan honako hauek parte hartzen dute: Eusko Jaurlearitzak, Gipuzkoako Aldundiak, Donostiako Udalak, Gastronomiaren Euskal Etxeak, Kofradia Gastronomikoen Federazioak, Euskal Gastronomi Akademiak eta ostalaritza-eskolak; Fundazioko lehendakaria Juan Mari Arzak da.

Gainera, esan behar da Bilboko Arte Ederren Museo ezagunak “*Arts and Cook*” izeneko ekimena burutu duela, non sukaldaritza arte-kategoriara guztiz igotzen baita. Ekitaldi horietara joaten eta gonbidatuta dauden pertsonak ospe handikoak direla argi dago, kulturaren, politikan, modan, zineman, literaturan, mundu akademikoan, etab.

Euskal gastronomiak aintzatespena du, ospea eta izen ona, nazioan eta nazioartean, izan ere, “Restaurant” izeneko gastronomia-aldizkari ospetsuak dioen bezala, hiru euskal sukaldari ospetsu eta euren jatetxeak munduko berrogeita hamar jatetxe onenen zerrendan daude, “tenplu gastronomiko” deritzen horien zerrendan.

Arestian aipatu bezala, gastronomiaren irismena eta, harekin batera, EAEko elkarte gastronomikoena, hain da handia ezen nortasun erreferente indartsua duten lekuak bihurtu baitira, eta gainera “burutzeko, prestatzeko eta janaria egiteko modu” bereziak izugarritzko esanahia aldarrikatzen du euskal *etnizitatean*. Bestalde, gastronomikoak munduan lortu duen prestigioa aprobetxatzen eta haren onurak ateratzen jakin dute elkarteek.

### 1.3.3 Elkarte gastronomikoetara sartzeko emakumeek dituzten mugak

Emaitzen azken atal honetan azalduko dira emakumeek elkarte gastronomikoetan eskubide osoko elkartekide izateko jasaten duten bazterketa justifikatzeko erabiltzen diren argudioak. Horretarako, emakumeen bazterketa defendatzen dutenen azalpenetan emakumeen adierazpenak eta estereotipoak aztertuko dira; nortasun maskulinoaren eraketa; tratu-berdintasunean emakumeak barneratzean emakume-nortasuna nola mehatxatzen den; sukaldaritzaren esanahi berria (ohiz emakumeena den espazioa gizonezkoena bihurtzeko prozesu gisa); eta elkarteek izan duten bilakaera, emakumeak eskubide berdinekin barne hartzeari dagokionez.

#### • *Adierazpenaren boterea eta bazterketa*

Elkarte gastronomikoek genero-harremanen eta emakumeen inguruko adierazpen ugari sortu dituzte. Adierazpen hitzarekin esan nahi da, esanahi jakin bat sortzeko, talde bateko kideek erabiltzen

duten hizkuntza-prozesua (Stuart Hall, 1981, 1996). Esanahi jakin bat zerbait edo norbaiti bereziki esleitzeko modua da. Esanahiak sortzeko modu horretatik interesgarria da emakumeei eta genero-harremanei buruzko azalpen horren zirkulazioa, izan ere, zabaldu eta batera eta bestera ibiltzen baitira adierazpenak sare informal eta formalen bidez elkarte gastronomikoetan.

Emakumeak izaki arraro eta arrotz gisa ulertu eta adierazten dira eta iraindu egiten dituzte adierazpen negatiboen bidez. Adierazpen negatiboak dira, baztertzailak eta diskriminatzaileak, emakumeari boterea kentzen diotenak, espazioak erabiltzeko eta horietara sartzeko eskubideari mugatuz, besteak beste.

Zerikusia du elkarte gastronomikoek, errekonozimenduaren bidez, botere moduko bat, *hegemonia* deritzona (Gramsci, 1977), lortzeko erabiltzen duten prozesuarekin, gizarte erreferenteak auto-arautzen dituenarekin. Hala ere, hegemonia ez da betirako, ezta gizarteko talde jakin batzuk ezarritako interes jakin eta eredu sinpleetara murrizten ere. Horren froga da elkarte gastronomiko murriztaileak garai berrietara egokitzen saiatzen direla, adibidez. Egokitze eta aldatzeko garai honetan, hobekuntzak sar daitezke, berdintasuneko gizarte-ereduak, integratzaileak eta parte-hartzaileak izateko.

Hizkera jakin batez adieraztean eta hura erabiltzean estereotipo batzuk sortzen eta zabaltzen dira eta, emakumeak baztertea eta diskriminatzea oinarri, murriztaileak direla esaten da, hala adierazten dute behintzat emakumeei esleitutako askotariko estereotipoek; elkarte gastronomiko murriztaileetako elkartekideek idatzitako aldizkarietan ere jasotzen da halakorik: emakumeak bazterten dira, maltzurak, agintzaileak, marmartiak direlako eta ez dakitelako sukaldean elkarlanean aritzen, ez direlako antolatze gai, etab.

Estereotipoen adierazpen-praktiketan nabarmen hautematen dira esentzialismoa, erredukzionismoa eta ezarritako efektuak. Estereotipo horiek sortu eta zabaltzearen ondorioz, pertsonak oinarrizko ezaugarri batzuk izatera murrizten dira, ezaugarri finkoak jatorrian eta izaeran. Horregatik, azpimarratu behar da estereotipoak bi helburutarako ezartzen direla: batetik, bestetasuna markatzeko, kasu honetan emakumeena, eta horien bazterketa justifikatzeko; eta bestetik, estereotipoak sortu eta zabaltzeko eta, horri esker, boterea ezartzeko, *hegemonia*, alegia.

Pertsona edo talde baten ezaugarri sinpleak, biziak, handiak, gogoangarriak, erraz errotu eta ezagutu daitezkeenak biltzen eta gordetzen dituzte estereotipoek, pertsonak esleitutako ezaugarri horietara guztietara soilik murrizteko, ezaugarri horiek puzteko eta sinplifikatzeko, eta denboran aldatzeko aukera bat bera ere izan gabe guztiz finkatzeko (Richard Dyer, 1977, 1986). Beraz, estereotipatzean desberdintasunak murriztu, funts egin, ezarri eta finkatzen dira. Estereotipazioak (des)integrazio-estrategia bat erabiltzen du: banatu egiten du, zatitu, markatu eta adierazi normala eta onargarria dena, ez-normala eta ez-onargarria den horretatik. Modu horretan bat ez datorren guztia baztertu edo kanporatzen da, ez da egokitzen edo desberdina da.

Estereotipoek, gainera, mugak eraikitzen dituzte eta mekanismo batzuek zaindu eta elikatzen dituzte, finko mantendu, itzulginguruak ez egon eta aldaezinak izan daitezten. Estereotipoaren beste berezitasun bat ixteko eta baztertzeko praktika da. Sinbolikoki mugak ezartzeko beste modu bat da, baita harena ez den guztia baztertzeko ere.

Bada, estereotipatzea ordena sozial eta sinbolikoa mantentzearen parte da. Muga batzuk eraikitzen ditu, muga sinbolikoak, hauen artean bereizketa egiteko: “normala” eta “desbideratua”, “normala” eta “patologikoa”, “onargarria” eta “onartezina”, lotura edo lotura ez dena edo “bestea” dena, ezaguna eta ezezaguna edo arrotza, “gu” eta “haiek”. Halaber, estereotipoak ezartzean, lotura afektiboa ematen da eta “gure” arteko ezagun guztiak biltzen ditu “alegiako komunitate” batean, eta era beran “haiek”, “besteak”, desberdinak direnak, “onartezinak” kanporatu; modu horretan, beste botere mota bat ezartzen da.

Mary Douglasek (2000) adierazten du “lekuz kanpo” dagoen guztia “kutsatuta” dagoela uste dela, ustelduta, arriskutsua eta tabua dela, hau da, debekatuta dagoela. Modu horretan uler daitezke emakumeen kasua, elkarte gastronomiko murriztaileetako elkartekide jakin batzuen jarreran, jardueretan eta azalpenetan. Botere-desberdintasuna dagoenean ere estereotipoak sortzeko joera izaten da. Kasu honetan, boterea, oro har, mendeko edo baztertutako taldearen aurka erabiltzen da.

Bien arteko aurkaritza horretan, “gu/haiek” kasuan, ez dago elkarbizitza baketsurik; aldiz indarkeriazko hierarkia ezartzen da, termino batek bestea gobernatzen duelako, edo harekiko nagusitasun argia izaten duelako (Derrida, 1976).

Hortaz, estereotipatzea botere/ezagutza mota bat da (Foucault, 1999), eredu bat jarraituz jendea sailkatzeko eta baztertuak “besteak” bezala definitzeko. Era berean, aspektu horrek hegemoniaren aldeko borroka adierazten du (Gramsci, 1977; Gruppo 1978); talde baten buru edo nagusi izatean oinarritzen den botere-modu bat bailitzan, agintean edo jabetzan izaten baita logikoa, naturala eta saihestezina dirudien adostasun osoa.

Boterea desberdintasun-harremanen baldintzapean erabiltzen da; ezagutza, adierazpena, ideiak, nagusitasun kulturala eta autoritatea inplikatu eta esan nahi du (Foucault, 1978; Gramsci, 1977). Hala ere, boterea ez da lortzen indarra eta hertsadurari esker soilik, izan ere, botereak erakarri, eskatu, eragin, konbentzitu, adostasuna irabazi eta aliantzak ere sorrarazten baititu. Talde eta pertsona menderatzaileak eta menderatuak barne hartzen ditu zirkuituan. Hitz egiteko modu berriak sortu eta birsortzen ditu, praktika eta instituzio berriak eratu, maila desberdinetan maniobratzen du: mikro-mailan (elkarte gastronomikoetan), maila ertainean (elkarte gastronomikoen eta haien gizarte-sareen artean) eta makro-mailan (nazioartean).

Estereotipoak pentsatzen denarekin lotuta daude eta hari egiten diote erreferentzia, “erreal”

moduan hautematen denari, adierazpen praktikek sortutako irudiari, eta horren ondorioz, ekintza bat estereotipoen arabera interpretatzen da, beste interpretazio batzuk baztertuz.

Jakina da, botereari dagokionez, adierazpenak funtsezko garrantzia duela elkarte gastronomikoen barruan, baita ere kanpora ateratzen den ideologia-eredu edo ideologia-egile (maskulinizataile) gisa.

Elkarte gastronomikoetako maskulinizazioa hierarkizatutako erregimenean adierazten da, kasu honetan genero-erregimenean, eta sukaldeko espazioa baztertzeko errituaren bidez sustatzen da. Beraz, sukaldearen espazio-muga eta muga sinbolikoa botere-mailaren bat berreskuratzeko modua dira, emakumeekiko sentitzen den ustezko mendekotasun-baldintza aprobetxatuz.

Bai taldeka edo bakarka elkarrizketatu direnek, bai elkarte murriztaileetako zein berdintasunezko elkarteetako kideek, elkarte gastronomikoetan emakumeen bazterketa edo mugari buruz argudioak ematean, argi azaldu dituzte Dolores Julianok identifikatzen dituen bi korronte: *“gizonezkoek emakumeei buruz mezuak igortzen dituztenean, bi korronte osagarri bereizten dira: batetik, emakumeak gaitz guztien jatorrian daudela esaten duena (...) eta, bestetik, emakumeak euren kabuz ekiteko gaitasunik ez dutela, gutxiago direla eta, beraz, babesa behar dutela esaten duena”* (2001:81).

Elkarte murriztaileetan, emakumeak sartzeko debekua mantentzearen aldeko argudioak entzuten dira. Justifikatzeko, diote, garai batean elkarteak gizonentzako aisialdirako leku “seguru” bat zirela –haragizko tentazioez kanpo– eta emakumeek hara joateko baimena ematen zirela, bazekitelako elkartearen ezkontza-bizitzatik at harremanak izateko arriskurik ez zegoela. Esaten da, nolabait ere, emakumeek eskertu egiten zutela gizonak elkartera joatea, “beste leku” batera joan ordez.

*Soziedadeen anekdota, jende nagusiak badaki emakumeek zergatik utzi zieten gizonei elkarteetara joaten eta elkartekide izaten. Diotenez, emakumeak azkarrak ziren, bazekiten euren senarrak elkartearen zeudela, ez zeudela beste toki batean, ez zeudela hortikan. Zelatan mantentzen zituzten senarrak, bazekiten han zeudela (berdintasunezko elkartearen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Horrelako argudioak emakume batzuen irudimenean ere murgildu dira eta, horren ondorioz, lasai egoteko arrazoiak dituztela onartzen dute, euren senarrak elkartearen daudelako eta ez beste emakume batekin. Beraz, zoriontsu sentitzen dira beste emakume batzuen aldean, izan badira-eta horrelako tokiak ez dituzten zonaldeak eta senarrak edonolako “tentazioen” amu izan daitezkeen espazioak. Gizonek argudiatzen dute, elkarte gastronomikoei esker, emakumeek gizonenganako kontrola dutela:

*Madrilgo mutil batek esan zidan: ‘a zer zortea duzuen euskal emakumeek, gizonak lagunekin afaltzera doala esaten duenean, badakizue elkartera joango dela’. Izan ere, Madrilen gizonak zera dio: ‘lagunekin noa’, baina inoiz ez dakizu lagunekin doan, amorantearekin doan edo putetxera doan. Eta egia da. Hemen badakizu soziedadea soziedadea dela (elkarte murriztaileko elkartekide baten emaztea, Donostia).*

Gainera, erreferentzia egiten zaio “kazola eramatea” izeneko ohiturari; hau da, emazteak prestatutako jana elkartera eramatea bertan jateko.

*Gainera, jana zuk etxetik eramaten zenuen, zu zindoazen kazolatxoarekin eta bertan berotzen zenuen, zeren, orain, elkarreetako sukaldari handiez hitz egiten da, baina normalean, gauza asko zeuden... Beti egon dira sukaldariak elkarreetan, beti egon da oso abila den norbait, baina bertaratzen zirenen % 90ak etxetik ekarritako kazolarekin surtara joan, berotu eta afaldu egiten zuen (berdintasunezko elkarreko gizon-kidea, Donostia).*

Hala ere, gaur egun horrelako egoerak ez dira inondik ere gertatzen, egiaztatu baita bikote-harremanak aldatu egin direla, gai horri dagokionez behintzat.

*Bai, hori aldatu egin da. Nik orain, jada nagusi naizela, emazteari esaten diot sestotxoa elkartera eramateko eta popatik hartzera bidaltzen nau. 30 urteko bikote bati ez zaio burutik ere pasatzen. Aldatu egin da (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Hala ere, elkarte gastronomikoen emakumei gizonenganako kontrola ematen dietela azaltzen duen argudioak askorentzat balio izan du arau zaharkituak azaltzeko, nahiz eta, batzuetan, elkartekideek argudioari zentzurik bilatzen ez dioten. Hara adibide bat: emakumeak daudenean, gutxieneko mahaikide kopuru bat izan behar da, hau da, bi gizonek bakarrik jan dezakete, baina gizon eta emakume batek bakarrik ez; beraz, senar-emazteak edo bikoteak ezin dira joan. Elkartekidea arau zentzugabe horretaz kexatzen denean, hau erantzuten diote elkartekide fundatzaileek:

*Ni tipo batekin joaten naiz, zurekin, eta elkarrekin jaten dugu. Aspaldian estatutu horiek egin*

*dituztenei galdetzen diet 'aizue, esplikatuko didazue?' Pixka bat ulertzeko, horrela utzi behar ote dugun edo ez, eta ikusi zer esaten didaten 'joe, bestela, bakoitzean putatxo batekin etorriko zara-eta' (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Horrelako argudioak genero-harremana ulertzeko modu jakin baten erantzuna dira, hau da, emakumearen estereotipoaren arabera ulertzen dira berez emakumeak, kontrolatzaileak bailiran, eta gizonak kontrol horretatik alde egiten du, sexu-gaiei dagokionez bereziki. Hori da Julianok adierazten zuen ildoak, alegia, emakumeak direla gaitz guztien jatorria. Ideia horrek gehiago orokortu ezin daitezkeen egoerak gogorarazten dizkigu; hau da, emakumeak balio moralen zaintzaile izaki, gizonei askatasuna mugatzen diete: *"gure gizarte europarrean, agian, antzeko mekanismoek funtzionatu dute, hori planteatzen du Manuel Delgadok Kataluniarako behinik behin; haren iritziz, gizonek zuten emakumeenganako irudia lotuta zegoen Elizak apaiz eta emakume-eliztarren elkarbizitzaren aurka ezartzen zuen zapalketarekin"* (2001:84).

Azaldutakoaren kontraesana badirudi ere, argudiatzen da elkarte gastronomikoak emakumeen kontroletik ihes egiteko baliabidea direla. Kasu horretan, delako euskal matriarkatuari aitzakia moduan balio dio gizonek gizonekin egoteko beharra azaltzerakoan, senarraren, familiaren eta etxeko betebeharretatik kanpo geratzeko. Hala ere, argudio horretan argi ikusten da logikoa dela emakumeak kontrolatzaile gisa definitzea. Elkartea, beraz, nolabait ere etxetik babesteko lekua bihurtzen da, leku eroso eta betebeharrak ahazteko, emakumeen aginduetatik alde egiteko, liskarrik gabeko tokia, begikotasuna eta, lanaren ostean, umore ona arnasten den espazioa:

*Lan egiten zuen jendearen babeslekua zen. Testuinguru horretan ez zegoen emakume bat bera ere. Eta bikain funtzionatzen zuen, izan ere, arraioa, zure lagunekin egon zintezkeen zure gauzez hitz egiten (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Gauzak horrela, gaur egun badirudi elkarte murriztaileetara joaten diren gizonek etxean duten boterea galdu dutela –beste batzuk diote, berriz, inoiz ez dutela izan– eta espazio horretan etxean ustez galdutako nagusitasuna berreskuratzen dutela.

*Ba, ongi pasatzera joaten zaren tokia eta emakumeetatik urruntzera, etxeko nagusia izateko (elkarte murriztaileko gizon-kidea, Donostia).*

Hipotesi horiek gizonak egin badituzte ere, interpreta daiteke etxean dituzten erantzukizun eta betebeharrak saihesten dituztela:

*Hala ere, etxeko erantzukizunak kontuan hartzen dituen beste ikuspegi batetik, ihes egitea izango litzateke, ez boteretik, baizik eta erantzukizun eta lanetatik (Teresa del Valle).*

Gainera, argudiatzen da emakumeak direla aisialdia mugatzen dutenak. Nolabait ere, badirudi egindako azalpen batzuetatik ondoriozta daitekeela emakumeek senarrei “baimena ematen” dietela haienzako denboratxo bat izateko, familiarik kanpo. Hala adierazten du probintziako elkarte murriztaileko elkartekide batek elkartean pasatzen duen denborari buruz galdetzean eta, berriz ere, emakumearen estereotipo kontrolatzailea eta askatasun mugatzailea aipatzen da:

*Emakumeek uzten digutena (elkarte murriztaileko gizon-kidea, probintzia).*

Gainera, kasu batzuetan aipatzen da senarrak elkartera joatean, emakumeek elkartea baliabide baten gisa interpretatzen dutela eurentzako denbora izatea ahalbidetzen dielako, hau da, onura bat ematen dietela uste dute, “askatasun une” bat:

*Badakizu soziedadera doazela, luze eta zabal hitz egiteko euren modua delako, irteteko eta lagunekin egoteko. Orduan, ba oso ongi iruditzen zait. Eta gainera, horren truke askatasuna ematen badidate...’zuk hau daukazu eta nik nirea dut’ (elkarte murriztaileko elkartekidearen emaztea).*

Egoera hori gure gizartean dagoen lan-banaketaren ondorioa da:

*Noski, uste dute logika bat duen argudioa dela, lan-banaketaren bereizketa zorrotzari dagokionez. Ni etxean egon izan banaiz beti, nire erreferenteak sortu ditut eta bat-batean nire espazioa inbaditzen badute... nik hala jokatu nukeela uste dut. Orduan, nire ustez beste logika batekin ere bat dator eta emakumeok garatu dugun jarduteko modu bat da. Baina, beno, nik kasu*

*honetan bereizketa bat egingo nuke. Kasu gehienetan ez da emakumeen aukera izaten, baizik eta nire ustez horrekin topatu gara. Beste batzuetan, agian, euren aukera izan da. Horregatik, ba, bereizitasun hori ezarriko nuke. Baina bai, badu logika bat. Hor emakumeek dute errua. Baina gertatzen dena zera da, emakumeen lanak eta aukerak testuinguruan aztertu behar direla. Noski, niri ere nire senarrak esaten badit: 'baina askoz hobe da zu etxean geratzea horretaz arduratzeko eta besteaz arduratzeko...', noski, nik ere onartu nuen. Eta, ba, hori da behintzat nik egin dudana. Beraz, beste aukera hartu duen horrek, ba, bat-batean guztia nahi du. Orduan, noski, nik leku hartara bidaltzen dut berriz (Teresa del Valle).*

Ildo horretatik, esan daiteke elkarte gastronomikoa atsedenaldirako lekua dela bientzat.

Julianok aipatutako bigarren korranteak, berriz, emakumeak gutxiago eta euren kasa jarduteko gai ez direla esaten du.

*Emakumeek soziedade bat nahi badute, emakumeen soziedadea egitea dute eta kitto (elkarte murriztaileko elkarrizketa-taldea).*

*Bai, saiatu izan dira emakumeak soziedade bat egiten, baina ez du funtzionatu, ez, ba pentsatzeko beste modu bat dutelako (Rafael Aguirre).*

Arestian aztertu dugun adierazpenaren gaiaren ildotik, hizkera jakin bat erabiltzearen garrantzia nabarmentzen da, emakumeen zenbait estereotipo sortu eta zabaltzen direlako haren bidez:

*Orain emakumeak edukazio hobea dute (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldea).*

Hain zuzen ere, estereotipoen adierazpen praktikan nabarmen agertzen dira esentzialismoa, erredukzionismoa eta ezarritako efektuak. Estereotipo-sortzaileen taldean bertan estereotipoak finkatzeaz gainera, estereotipatzen den taldearen artean ere erabiltzen dira. Finkatze hori emakume batzuen adierazpenetan ikus daiteke, izan ere, emakume batzuen iritziz, dirudienez, emakumeek ezin baitute gizonen moduan elkarte gastronomiko batean elkarrekin egon.

*Emakumeok desberdinak gara, oso desberdinak. (Gizonek) bereak eta bi esaten dizkiote elkarri, baina 30 urtez lagun izaten jarraitzen dute (...). A zer nolako liskarrak ikusi ditudan nik, ene! Eta zer iskanbilak! Baina berriz etortzen dira. Emakumeok, hasteko, ezingo genizkion elkarri bereak eta bi esan, zeren gizonen artean esaten dituztenak guk esango bagenu, ba, ez guke elkarrekin berriz hitz egingo (elkarte murriztaileko elkartekidearen emaztea, Donostia).*

Estereotipoa desintegratzeko estrategia gisa erabiltzen da, hau da, normala eta onargarria banatu eta ez-normala eta ez-onargarria den guztitik nabarmentzen da; modu horretan, bat ez datorren edo egokitzen ez den guztia baztertzen da, desberdina dena, eta kasu honetan emakumeen alderdi negatibo guztiak segregatu behar dira, ustez emakumeak gaitz guztien jatorri direlako, alegia. Horiek oinarri, argudiatzen da, emakumeen “izaera” dela-eta, ezin dutela emakumeen artean harremanik izan gatazkarik izan gabe, eta gizonen artean dagoen ustezko adiskidetasuna nabarmentzen da, haien ustez ezinezkoa emakumeen artean.

*Mesfidatiagoak dira emakumeak (berdintasunezko elkarten elkarrizketa-taldeko gizona).*

*Donostiako soziedade batean (...) emakume-elkartekideak daude, gonbidatu egin gintuzten (...). A zer liskarrak, ene... Emakume batzuk janaria prestatzen ari ziren. Gutxi ziren, baina... (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Modu horretan, estereotipoak mugak eraikitzen ditu gauzen ordena justifikatzeko. Emakume batzuen artean ere aurreiritziak berresten eta onartzen dituztenak daude; sektore batzuetan, hitz egiteko modu hori erabiltzen da, eta, gainera, batzuek diote, emakumea etxea antolatzen ohituta dagoenez, elkartean ere bere modua gailentzen saiatuko litzatekeela besteenen ginetik:

*Ez zait gaizki iruditzen (elkarreak gizonezkoentzat izatea) (...) Horrela hasi zen eta, gainera, uste dut, eta beste kontu batzuetan ere ikusten dut, emakumeok muturra sartuko bagenu, ba elkarrea pikutara joango litzatekeela (...). Eltze askotako burruntzaliak gara (elkarte murriztaileko elkartekidearen emaztea, Donostia).*

Hortxe ikusten da nola gailentzen den taldearen eraginkortasuna euren logika inposatzean, horretarako behar duten mendeko taldearen oniritzia lortuz. Julianoren arabera “*mailakatutako*

*gizarteak obediencia printzipioaren oinarrian sortzen dira. Boterea indarrez inposatu daiteke, baina autoritate bihurtzen da esanak betetzen direnean. Agintea bidegabe duten talde guztien ideala menderatuen onarpenarekin inposatzea da, nahiz eta pasiboki izan. (...). Lotura argi bat dago hierarkizatutako gizartearen sorreraren eta esanak betetzea justifikatzen duten mitoak egitearen artean” (2001:88).*

*Hala ere, aditu baten ekarpenetan adierazten denaren arabera, emakumeena soilik den elkarte gastronomikorik ez dago, agian, orain arte kontuan hartu ez diren faktoreengatik eta argudiatu den emakumeen ustezko gaitasunetik urrun dauden faktore batzuegatik.*

*Gauzak horrela, batzuen ustez horren guztiaren oinarrian emakumeen ezaugarri eta/edo gaitasunen estereotipoak daude; beste batzuk diote, berriz, emakumeentzat soilik diren lekuak sortzeko interes edo behar falta dagoela, ordura arte eurentzako ohikoak ez diren espazioetara sartu ez direlako. Horrek guztiak zerikusia izan dezake lan-mundua egituratzeko moduarekin eta emakumeak soldata-lanaren munduan sartzearekin, izan ere, “euren” erantzukizunak –etxeak– alde batera utzi baitituzte, nolabait ere:*

*Nire ustez horrek zerikusia du, nire ustez, lanaren kontua hemen egituratu den moduarekin. Eta gero, ba, emakumeak lan-mundura atera izanarekin, baina gure etxeko erantzukizunak liratekeenak ahaztu gabe. Orduan, ba, ez dugu sortu... Izan ere, nire ustez emakumeentzat, ba, gizonak espazio hau duten bezala, soziedade, ba, guretzat lanaren kontua izan da (Teresa del Valle).*

Ikuspegi horretatik, lan-mundua –emakumeentzat erlatiboki nahiko berria dena– espazio libratzaile bezala ikusten da; dirudenez, horrek gizonak motibarazten dituzten elkarte gastronomikoak bezalako lekuak sortzeko beharra erreprimitu egin du, lan-funtzio hori emakumeentzako espazio berri batengatik ordeztu zelako, etxeaz kanpoko lana bezala:

*(Lan-eremua) espazio askatzailea bezala izan da. Emakumeok beste jende batekin harremanak izan ditzakegun lekua da, eta ez dago eztabaidatu beharrik ere. Tira, orain agian sinplea iruditzen zaigu, baina emakumeak eremu publikora ateratzen hasi zirenean, ateratzen hasi ginenean, nire ustez ez dugu beste espazio batzuk sortzeko beharra, izan ere, eremu publikoa bera jada lorpen bat da. Eta harreman-eremu bat ere bada. Eta ezagutza- eta soziabilitate-eremua ere bai (Teresa del Valle).*

Gainera, ikuspuntu horretatik, elkarte gastronomikoen ez dirudite emakumeentzat aisialdirako eredu onargarria direnik, izan ere, gizon askorentzat, euren aisialdi-denboran janaria prestatzen badute ere, ez da egin ohi duten zerbait eta, beraz, berria da eurentzat, erakargarria eta plazerraz egiten dute, baina emakume askorentzat eguneroko lana errepikatzea izango litzateke eta, beraz, zaila da aisialdi esanahia izatea ekintza horrek.

*Emakumeak sortu ditugun beste espazioak ez dira biltzeko espazioak, ez ditugu klubak sortu, baina zergatik ez. Ez ditugu emakumeentzako soilik diren soziedadeak sortu, ez zaigu interesatu. Lehenengo, gizonen ereduak ez zigulako erakartzen. Niri ez dit batere erakartzen soziedadera joan eta jana prestatzen hastea. Nahiagoko nuke bidaiatzera joan, ez dakit nola esan (Teresa del Valle).*

Era berean, dirudenez emakumeek ez dute aitzakia interesgarririk aurkitzen elkarte gastronomikoetan.

*Eta baita ere, agian, ba ez gaudela (emakumeak) ados prestigioaren aitzakiarekin, hau da, prestigioa asebetetze-elementu gisa. Orduan, nire ustez gizonen berehala ikusten dute dimentsio publikoago bat, baina di-da batean eh (Teresa del Valle).*

Elkarrizketa batzuetan, hautematen da emakumeen presentziak elkarte gastronomikoen esentzia usteltzen duela. Noski, ez da inongo argudio esentzialistik erabiltzen (emakumeak izateagatik bakarrik); aldiz, emakumeak sartzen ez uztea euren izateko eragatik dela justifikatzen da, nahiz eta elkarte gastronomikoetan ezartzen diren giro eta harremanen ezaugarrien aurka doan eta ideia hori bateraezina izan. Egia esan, dirudenez hainbestekoa da izaera-desberdintasuna, ezen, begitazio apokaliptikoen arabera, emakumeak elkarte gastronomikoetara sartzen badira, elkarteak desagertu egingo direla esaten baitute.

*Soziedadeak galdu egin daitezke (elkarte murriztaileko gizon-kidea, Donostia).*

Interesgarria da aztertzea emakumeek sukaldea zapaltzeko duten debekuaren inguruan emandako argudioak, sukaldea izanik leku adierazgarriena eta janariaren transformazioaren “miraria” gertatzen

den tokia. Dirudienez, elkarteak euren esanahia galduko lukete emakumeak bertara sartzeagatik. Adibidez, boterea galtzarekin zerikusia duten beldurrak sortzen dira, izan ere, uste baitute emakumeak sukaldera sartzean, kontrola hartuko luketela.

*Eta erabili, emakumeak, bakarrik badaude, sukaldera sartzen hasten badira, bat eta bestea egiten hasten badira, jada soziedadea euren dela pentsatzen hasten dira. Emakumeak sukaldetan? Ezta pentsatu ere, ez, ez, sukaldetan ez.*

*Baina bakarrik daudenean sartzen dira?*

*Ez, ez, ez, zu bi emakumerekin joaten zara bazkarira eta lauok bakarrik zaudete, emakumea hor bakarrik dagoela ikusten hasten da... eta sukaldeta saltseatzen hasten da. Eta horrelakorik gurean ez, eh! Nik ezetz esaten dizut. Gutxi sartzen dira, baina sartzen direnek ez dute sukaldeta zapaltzen (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Sukaldeta elkarteko izpirituaren elkarrizketa-gotorlekua da eta emakumeak bertara sartzen badira, izpiritu hark bizioa hartuko luke, halaber, emakumeek, euren buruei esleitzen dioten "maltzurkeria", ustezko amorrak, liskarretarako joerak, "sanoa ez den" lehiakortasunak eta inbidiak direla medio, besteak beste, espazioa kutsatuko lukete.

*Gaiztoak direla ikusteko, esango dizut eltzeak izorratzen dizkiotela elkarri (elkarte mistoetan). Kristoren liskarrak, aizu, benetan (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Azaldutakoaren arabera, emakumeak sukaldeta sartzeko nolabaiteko erreparoa dago, elkarbizitzan izan ditzaketen zailtasunengatik, ustez elkarrekin bakean bizitzeko ez direlako gai.

*Sukaldetan hogeit egongo dira, hogeit gizon, eta guztiak ongi moldatzen gara, guztiak. Lau emakume badaude ordea... (berdintasunezko elkarten elkarrizketa-taldeko gizona).*

Elkarte gastronomikoetan emakumeak sartuz gero, gizon batzuk ez dira hain aske sentitzen beste elkartekideekin harremanak izaterakoan. Emakumeen presentziak "neurritz jokatu" beharra

sentiarazten die gizoni eta hitzak gehiago neurtu behar dituzte emakumeak ez mintzeko; hala ere, arestian aipatutako argudioen ildotik, ikusten da emakumeek erran-merran ibiltzeko duten joera ere justifikatzeko argudio bat dela.

*Han dauden emakume batzuk, hurrengo egunean ile-apaindegira joaten badira, herri guztiak jakiten ditu zurrumuruak (elkarte tolosarren aditua).*

Dirudienez, eragozpenak besterik ez lirateke egongo emakumeak elkartean sartuz gero: gizonek ezingo lukete berdin hitz egin, ezta berdin jokatu ere, azti ibili beharko lirateke emakumeak elkarren artean ez borrokatzeko, etab. Horretarako guztirako adibide zehatzak daude, emakume guztiak orokortzen dituztenak, emakumeak elkartera sartzean gatazkak sortu izanari buruzkoak eta adierazten dutenak halakorik ez litzatekeela gertatuko emakumeak sartuko ez balira.

*Baina emakumeak sekulakoak dira, (...) elkartekide bat emaztearekin sartu zen adibidez, haren koadrila eta haien emazteak, eta ondoko mahaian jaten ari zen elkartekide baten erraina sartu zen, (...) mulatoa edo erdi beltza, ez dakit zer izan zitekeen. Eta beno, ba, han zegoen beste mahaiko emakume batek, despistatuta sartzan ikusi zuenean, bere familia bilatzen bezala, eta esan zuen 'aizu, hemen ez ditugu emakume beltzak onartzen' (...). Nire ustez, matxista izanik, eta ez dakit agian batzuk arrazistak, niri ez zait burutik ere pasatzen elkartean ikusten dudan neska bati hori esatea eta emakume bat izan zen hori esan zuena, emakume bat. Eta esaten duzu, jo, kristorenak dira, (...). Xehetasun horiek ez dira gizonaenak (...). Ez dakit ez ote den hobe gauzak lehen zeuden bezala uztea, ze, agian, arrazoi bat zegoen horren atzean (elkarte murriztailen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Emakumeen ezaugarriak zehazteko eta horien bazterketa justifikatzeko estereotipatzen da edo estereotipoak erabiltzen dira. Hari beretik pentsatu beharko genuke estereotipoak estrategia moduan erabiltzen direla, eta ez emakumeak ulertzeko moduaren azalpen gisa.

*Nik ez dut uste gizon guztiek edo gizon askok berri-ontziak eta kontrolatzaileak garelako pentsatzen dutenik. Gertatzen dena da, ba, nik uste dudala estereotipo batzuk transmititu direla, baina nahi denerako bakarrik erabiltzen direla. Tira, nik agian ez dut uste helburua emakumeak kanpo uztea*

*denik. Helburua gizonak gustura egotea da. Eta orduan, gizonak nola gaude gustura? Gizonak, gu bakarrik, gustura gaude. Baina ikusten denez orain gauzak aldatu egin dira. Nola manten dezakegu hau? Ba, estereotipoetara joaz manten daiteke. Estereotipoek izugarritzko boterea dute ekonomizistak direlako. Estereotipoaren bidez zuk murrizten duzu. Beraz, ez duzu zertan argudiatu. Argi eta garbi. Izan ere, batzuetan nire burua ikusi eta galdetzen diot: baina nola demontre pentsa dezakete gizonak hori? Euren helburua ez da hori, euren helburua bestea da. Euren helburua lasai egotea da, nahi dutena egitea, han egotea. Baina besteek (emakumeek) sartu egin nahi dutenez... Gutxi gorabehera badakigu arrazoiren bat ezkututzen dela atzean (...). Ezin diote beste gauza bati eutsi, ez dutelako esperientziarik zera esateko: 'ez, emakumeak izan direnean, honek ekonomikoki ez du funtzionatu' guztiz kontrakoak izango litzatekeelako (Teresa del Valle).*

Estrategia hori ohikoa eta boteretsua da bazterketa-sistema bat mantentzeko, estereotipoek edozein analisi erabakitzen dutelako eta ezin direlako garaitu.

*Estereotipoek izugarritzko indarra dutelako. Noski, estereotipoek ez dute logikarik... logikagatik ezin da, baizik eta erabiltzen direnean duten botereagatik. Izan ere, garrantzitsua dela esaten duguna balio gabetzen dute, hau da, emakume guztiak berdina ez garela esaten denean: klase altukoak gauza bera egiten du baxukoarekin... Eta noski, estereotipoa da... Esaten duzu: ijitoa lapurra da. Eta kitto, tipo bikaina izan daiteke, ijito jatorra, baina... Ez, ijitoa lapurra da eta kitto. Hori da estereotipoaren indarra (Teresa del Valle).*

Elkarte gastronomikoetan emakumeen bazterketa defenditzen dutenek emandako adibideak oinarri, ondoriozta daiteke argudio horiek logika baten erantzuna direla; gainera, logika horren arabera, gizonak eta emakumeek orokortu daitezkeen ezaugarriak dituzte, beraz, ezaugarri estereotipatuak eta kontrakoak, eta emakumeen bazterketa justifikatuta dago, emakumeen izaerak elkarte gastronomikoen izpirituari modu diametralean aurka egiten diolako. Horrelako argudioek indarra dute, ez dagoelako aukerarik horrelakoak zalantzan jartzeko. Baina ez dira emakumeak soilik orokortzen; aldiz, inplizituki ulertzen da emakumeak definitzen dituzten ezaugarri horiek ez daudela gizonengan, eta are gehiago, gizonak diametralki kontrakoak diren ezaugarriak izango lituzketela, hots, adiskidetasuna, konfiantza, lankidetzarako eta konpartitzeko gaitasuna, diskrezioa, etab., elkarte gastronomikoen izpiritua edo filosofia azaltzen dutenak, hain zuzen ere.

#### • **Emakumeen bazterketaren arrazoia**

Jarraian, gizonak emakumeak baztertzeko defendatzeko eman dituzten azalpenak biltzen dira

hainbat argudiorekin. Argudioek hauek dituzte oinarrian: tradizioa, haurrak horrelako espazioetan egotea, elkarte gastronomikoen funtzionamendua arautzeko mekanismoak eta aldaketaren aurrean dagoen iritzi-aniztasuna. Gainera, bi hausnarketa ere biltzen dira, elkarteetara sartzeko dauden bi salbuespenei buruzkoak: emakumea, garbitzaile eta/edo sukaldari gisa.

Aipatutako arrazoi bat tradizioa da, “beti izan da horrela”. Argudio horren indarra, besteak beste, ez-kaltegarri eta ukaezin bezala hautematean datza, horregatik zalantzan jarri gabe ere onartu egiten da, baita emakumeek beraiek ere, honako adibide hauetan agertzen den bezala:

*Tradizioa direnez eta tradizioa horrela denez...* (elkarte murriztaileko elkartekidearen emaztea, Donostia).

*Ez dut aztertu. Azkenean, tradizio bat da* (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, Donostia).

*Hemen tradizio sutsu eta fidela dago, eta gauza guztietarako dago tradizio bat* (berdintasunezko elkartearen elkarriketa-taldeko gizona).

Tradizioa zalantzan jarri gabe ere hura onartzen bada adierazten da tradizioak zama bat duela eta hura aldatzeko erresistentzia egiten dela. Inertzia nabarmen horren aurrean, garrantzitsua da tradizioak pertsonentzako zer esanahi duen aztertzea, historikoa denari eman zaion balioarekin zerikusia duen esanahia, zaharra denari, arbasoena denari, eta ohitura, “bizi guztikoa”, denaren dimentsio emozionalarekin lotutako esanahia.

Kontuan izan behar da elkarte gastronomiko zaharrenak (gutxi gorabehera duela mende bat sortu ziren) sortu zirenean, ezin zitekeela pentsatu ere egin emakumeak bizi sozial publikoan parte hartu eta horren parte izan zitezkeela. Beraz, emakumeen bazterketa koherentea zen testuinguru historiko eta soziokultural hartan. Hala ere, elkarte batzuk demokrazia ezarri zenetik aurrera sortu dira, baina tradizioaren argudioari eutsi diote betoa mantentzeko eta, kasu hauetan, ez dago testuinguru soziokulturalarekin inolako koherentziarik. Horiek horrela, badakigu ez garela aldaketa-momentu bat bizitzen ari, balio zaharrekin eta berriekin batera. Beraz, hainbat eremutan, emakumeek jasaten duten bazterketa, neurri batean, ez da koherentea. Hala, esan daiteke bazterketa horrek anakronismo edo egungo ordena soziala adierazten dituela.

*Nire ustez bi gauzak dira. Izan ere, ordena soziala adierazten dute. Ea, ikerketen emaitzetan pentsatzen baduzu edo eguneroko bizitzan ikus daitekeenean, eta emakumeok aldi berean familiako bizian, lan-bizian eta bizi sozialean egoteko izan ditugun zailtasunetan. Gaur egungo*

*gaia da, gauza bera gertatzen zaie bulegoan lan egiten dutenei, ikasketa profesionala dutenei, gobernuan dagoen norbaiti. (...). Baina anakronismoa dira, gizarte bat izan beharko litzatekeen ikuspuntutik ikusten dugulako, eta bestalde gizarte horrek dena ematen du, berritzeko, aurreratzeko, etorkizunerako, beste mundurako. Orduan, nire ustez bi gauzak izan daitezke: anakronismoa eta ordena soziala. Izan ere, nik uste dut aldaketak egun batetik bestera dekretu bidez gertatzen ez direla adierazten dutela. Anakronismo bat dira, une honetan aztertu beharko genituzke gainera..., Alardeen kontuarekin lotu beharko genuke adibidez, gizon askok emakumeak lan egiteari aurka egiten dion kontuari... Hau da, nire ustez eremu ugaritan gertatzen diren anakronismoen adierazleekin lotu beharko genuke. (...). Anakronismoak eremu ugaritan daude. (...). Maila sozial ona, intelektuala, duen jendearen elkarrizketetan egiaztatu dut, astean behin edo bitan entzuten ditut horrelakoak gutxienez. Orduan, zuk esaten duzun hori da, baina nolatan gertatzen da ba hori? Ba anakronikoa da (...) hitz egiteko modu menderatzaileari dagokionez, beste guztia politikoki ez litzatekeelako zuzena izango. Baina praktiketan oraindik oso errotuta dago, baita balioak ere (Teresa del Valle).*

Tradizioa argudio gisa erabiltzen da, gauzak bere horretan mantentzen jarraitzeko eta zenbait praktiken inkoherentziak eragiten duen zalantza saihesteko; adibidez, emakumeak baztertzea berdintasunaren alde dagoen gizarte batean. Tradizioa, Historia edo Kultura zenbait praktika justifikatzeko aukera dira, izaera monolitikoa ematen zaielako, eta, horrela, sortutako eta birsortutako interpretazio baten ondorio izatea ezkutuan geratzen delako. Azterketa honetan, Eric Hobsbawm-ek definitzen duen “asmatutako tradizioa” kontzeptua ikertzea komeni zaigu, hau da: *“Asmatutako tradizioa, errepikapenaren bidez, jarrera balio eta arau batzuk ezartzeko praktika-multzoa da, normalean adierazi gabe ere azaltzen edo onartzen dena eta erritu edo sinbolo izaera duena; horrek guztiak, beraz, automatikoki iraganarekin lotuta jarraitzen dugula adierazten du. Egia esan, posible denean, praktika horiek normalean iragan historiko komenigarri batekin jarrai dadin saiatzen dira”* (2000).

Interesgarria da paragrafo horretan Hobsbawnek esandakoaren aspektu bat azpimarratzea: *“jarrera balio eta arau batzuk ezartzeko”* praktika-multzoa da, hau da, tradizioa ez dirudi helburu horretatik bereizten denik, aldaketak saihesteko argudio hori erabiltzen dutenek adierazten duten moduan; aldiz, praktikek tradizioak iraunarazteko balio dezakete. Baina galdera zera da, zein balio ari da transmititzen elkarte gastronomikoen tradizio baztertzalea? Hau da, ezin da onartu tradizioaren argudioa, ate itxi baten gisa, galderak egin ezin diren ideia izatea; aldiz, tradizioaren edukia da, hain zuzen ere, aztertu behar dena, eta, era berean, aldarrikatzen dituen balioak gure gizartean onargarriak diren edo ez erabaki behar dugu. Ildo horretatik, kontu handiz ekin behar da tradizioa bazterketa-egoera bat justifikatzeko erabiltzen denean, izan ere, *“tradizio kulturalak eta tradizioak (ber)asmatzea, askotan, emakumeen zapalketa legezkatzat jotzeko erabiltzen baita”* (Maquieira, 2006:75).

Tradizioa ulertzeko modu hori estu-estu dago lotuta kultura ulertzeko modu berezi batekin, tradizioa

kulturaren adierazpena baita. Tradizioaren ikuspegi estatiko hori kulturaren ikuspegi esentzialista bat dagoelako existitzen da, kultura *“unitate eta osotasun integratua”* baita ikuspuntu horren arabera (Maquieira, 2006:72). Hala ere, beste ikuspegi batzuetatik kultura modu zeharo desberdinean ulertzen da. Maquieiraren arabera: *“Kultura ez da datu esentzial eta a priori gizarte-ekintzako bezala ulertzen, baizik eta egitura baten moduan, non gizarte-eragileek bereizketa-ezaugarriak onartu, negoziatu, berriz definitu, eztabaidatu eta hautatzen baitituzte beste talde batzuetatik desberdintzeko. Horregatik, taldeen nortasuna aldatu egin daiteke eta elkarren arteko harremanen arabera; horiek oinarri, muga kulturalak finkatu edo desagertu egiten dira, taldeko kide izatearen ideia berriz definitzen den bitartean”* (2006:72).

Horiek horrela, tradizioak, adierazpen kultural gisa, ez dira aldaezinak; berez, moldakortasuna eta egokitzeko gaitasuna dira tradizioari denbora luze iraunarazten diotenak. Tradizioak asmatu izan diren modu berean, aldaketa berriak ere barne hartzen dituzte, aurrera jarraitu ahal izateko, hain zuzen ere. Tradizioan izaten diren aldaketak bat datoz hari eta inskribatuta dagoen kulturari lotutako ohituretan gertatzen diren aldaketekin. Hobsbawmen arabera: *“Tradizioa, zentzu honetan, ‘ohitura’ kontzeptutik argi eta garbi bereizi behar da (...). ‘Tradizioen’ helburua eta ezaugarria, baita asmatutakoena ere, aldaezinak izatea da. (...). ‘Ohiturak’, berriz, bi funtzio ditu, gizarte tradizionalen motorea eta gida izatea. Puntu zehatz bat arte ez dio berrikuntzari eta aldaketari uko egiten, nahiz eta argi eta garbi, aurrekarien baliokide edo berdin-berdina izan beharregatik, muga nabarmenak gainjartzen zaizkion (...). ‘Ohitura’ baten gainbeherak halabeharrez elkar lotuta duen ‘tradizioa’ aldatzen du”* (2002).

lido horretatik, garrantzitsua da kontuan izatea *“ezaugarri kulturalak ez direla sortzen, birsortzen eta aldatzen hutsean, botere-harremanak dauden eremuetan baizik”* (Rosseberry, 1991, Maquieirak aipatua 2006:72). Kasu honetan tradizioa zerk zehazten duen eta nola interpretatzen den aztertu behar da. Zalantzarik gabe, interpretazio mota hori egiteko eta ezartzeko, boterea izan behar da, izan ere, *“boteretik baitatuz desberdintasuna eta mendekotasuna sortzeko moduak eta botereak zehazten baitu zein zeinu eta sinbolo diren menderatzaile eta zein ez. Zergatik adosten dira praktika jakin batzuk eta beste batzuei, berriz, aurka egiten zaie?”* (Comas 1996:110, Maquieirak aipatua 2006:72).

Aproposa litzateke elkarteentzat jatorriaz hausnartzea, ohitura bat izan badelako (praktika bat): gizonak, aisialdian, bazkari eta edari artean biltzea (bai kofradiarekin bai lagunekin). Interesgarria izango litzateke ohitura horrek jarraitu duen prozesua aztertzea, kontuan izanda batzuek euskal kulturaren tradizio eta idiosinkrasia zeinu gisa ulertzen dutela. Agian, ideia hori euskal gizartearen eta kulturaren nortasun-ezaugarria bihurtu izanarekin dago lotuta, ohitura eta praktika jakin batzuen erritualizazioarekin, baita elkarte gastronomikoek, inskribatzen diren komunitatearen nortasuna mantentzean (festetako parte-hartzearen eta duten protagonismoaren bidez, adibidez), tradizioak eta errituak mantentzeko betetzen duten funtzioarekin.

Emakumeen bazterketaren ohitura dela uler daiteke, testuinguru historiko eta soziokultural zehatz

batetik heredatutako ohitura, elkarte gastronomiko jakin batzuk aldatu dutena. Baina, gaur egun, aldaketa hori ohiturak iraunarazteko berme-emailea izan daiteke, bazterketaren izaera anakronikoa gero eta nabarmenagoa egiten baita egunero. Berdintasunezko elkarteek lortu dute erakustea aldaketengatik eta testuinguru berrietara egokitzeagatik ez direla ohiturak desagertzen.

Gaur egun, gainera, zaila da berdintasuna elkarten ezaugarria dela ulertzea, baldin eta, horietako batzuk, emakumeen bazterketan oinarritzen jarraitzen badute. Hasieran, elkartekideen artean, gizarte-maila desberdinetakoak izan arren, berdintasunezko harremanak izateko leku gisa sortu ziren elkarteak. Horregatik, demokratikoak direla interpretatzen da, ezohiko gertaera, kontuan hartzen bada elkarteak zein garaitan sortu ziren.

Beraz, “berdintasuna” hitza elkarte gastronomikoen estandarte bat litzateke eta elkarte bereziak izango lirateke, herritar guztiei zabaldua zeudelako. Hala diote, behintzat, elkarte misto eta murriztaileetako kideek:

*Beno, tira, esan duzuna, irakasle asko dago, abokatuak, medikuak, elektrizistak, zurginak, etab. azken batean, guztiak dago, eta guztiok berdinak gara* (berdintasunezko elkarten elkarrizketataldeko emakumea).

*Guztiok berdinak. Hemen batzuk xentimo bat dute, beste batek bi eta besteak ez du sosik ere. Hemen jende asko hankaz gora jarri eta ez zaio patrikatik sosik erortzen, ez pentsa mundu guztiak dirua duenik. Hemen, guztietan bezala, berdin, berdin* (elkarte murriztaileko gizon-kidea, probintzia).

Berdintasun terminoa gaur egungo zentzu eguneratu batekin interpretatzen bada, paradoxa hutsa da terminoa elkarte gastronomikoetan aplikatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunari baitagokio.

Elkarte gastronomikoetan oso geldia ari da berdintasuna sartzen. 1978an, berdintasunezko elkarte gastronomikoak sortzen hasi ziren arren, makal-makal zabaldu dira. Genero-harremanak ulertzeko modua zalantzan jartzeagatik gertatzen da aldaketa. Aldaketarako erresistentzia arrazoitzeko, tradizioa edo kultura argudio gisa erabiltzea arriskutsua da, diskriminazio-praktikak justifikatu eta genero-hierarkia ezartzen duelako. Virginia Maqueiraren arabera: *“ildo horretatik, genero-hierarkia zalantzan jartzean harreman soziokulturalak ere zalantzan jartzen dira. Zalantzan jartzean ezin da atzera egin, kultura-desberdintasuna emakumeen eskubideek aurrera egitea oztopatzen duen argudio gisa adierazten denean”* (2006:72).

Elkarte murriztaileetako elkartekideek erabiltzen duten beste argudio bat da emakumeek modu

oso onean onartzen dutela, egun batez, eurei zerbitzatu ahal izate hori. Hala, egiaztatzen dute bazterketak emakumeei onurak ekartzen dizkiela.

*Ziurtatzen dizuet emakumeek izugarri preziatzen dutela, ze oso ondo pasatzen dute (...). Zuek sukaldera ez joatea eta gizonak 3 ordu lehenago han izatea eta horrela, hori ongi dago. Emakumeak beti izan du etxeko sukaldetan protagonismoa, ezta? Ba, gutxienez hara irteten zaretenean, lasai zaudete (Rafael Aguirre).*

Egoera hori emakume batzuek onartu egiten dute, ikusle hutsak izatearen papera ontzat hartzen dutelako, elkartearen erritu nagusia egiten denean, janaria prestatzean alegia, eta ez dute planteatzen, berez, euren bazterketa berresten dutela ikusle-plano batean ipintzen dituen arau bat onartzuz:

*Orduan, ni soziedade horretara joaten naiz, paretaren ondo-ondoan esertzen naiz, ez dut zipitzik esaten eta zerbitzatu egiten didate (elkarte murriztaileko elkartekidearen emaztea, Donostia).*

Hala, emakumeak lausengatuta sentitu beharko lirateke eta argi dago zenbait emakumerentzat elkartera joatea etxeko lanez aske izateko momentu bakarra dela, eta beraz ez zaie axola elkarteko sukaldera ezin sartu izatea. Euren elkartean guztiz parte hartu eta elkarte murriztaileetara noizbehinka joaten diren emakume batzuk hala onartzen dute:

*Bai, lana kentzen digute eta guztia eginda eman. Eta egunean zehar zera esaten duzu: 'hara noa guztia mahaian izango dut-eta'. Erregina baten moduan tratatzen zaituzte... Tira, pixka bat matxista dela iruditzen zait, bai. Baina bestalde, popatik hartzera joan daitezela! Lan egin nahi dutela? Ba, lan egin dezatela! Ni gustura joaten naiz (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, probintzia).*

Horrelako argudioek egoera berezia dela berresten dute (emakumeak ez dute jana prestatzen). Paperak aldatu egiten dira eta normalean zerbitzaria denari zerbitzatu egiten zaio eta alderantziz. Hala ere, rol-aldaketa argi horretan kontuan hartzeko moduko esanahi berriak sortzen dira, egoera ulertzeko behar-beharrezkoak. Emakumeen ohiz kanpoko presentzia eta jana egiten parte hartzeko

debekua ezin dira interpretatu prozesu eta espazio baten (elkarteko sukaldean) bazterketa bezala baino, testuinguru honetan errituez eta prestigioz jantzia. Modu horretan, emakumeak egun batez zerbitzatuak izatearen argudioan zehaztu behar da konparatu nahi den lanaren esanahia (jana prestatu eta zerbitzatea) modu erradikalean aldatzen dela espazioz aldatzean.

Elkartean, jana prestatzeak errekonozimendu bat dakar, baina ez da etxean prestatzen den bezalako jana, azkarra; aldiz, lasai eta ospakizun-jantziez dotore ipinita egiten da, gozatzeko helburuarekin eta gustuez gozatzeko, ez soilik gosea asetzeko. Teresa del Vallek baieztatzen duen moduan “*etxeko zati bat antzeko beste leku batean esparruratzeari bezala da, baina gizonak dute kasu horretan kontrola. Zer esparruratzeari? Jana egitea esparruratzeari da, horrek dakarren guztiarekin: prestaketa, lasai prestatzea jana, lagunen arteko txistea. Hartaz gozatzeari esparruratzeari da ohiz kanpoko zerbaiten gisa; ez da eguneroko jana, baizik eta zerbait berezia; ez da batzuetan azkar prestatzen den janari hori, aurrekontu finkoarekin eta askotan estuarekin, baizik eta lasai prestatutako janaria da eta laudorio ugari jasoa. Inork ez du esaten ‘hau ez dut gustuko’ edo ‘atzo ere gauza bera prestatu zenuen’ (1991).*

Era berean, esparru itxi bat erabiltzen da, etxeko espazioa bezalako; eta, gizonak euren sukaldara sartzen ez diren moduan (hori eurek hala nahi dutelako izan arren), emakumeek ezin dute elkarteetako sukaldara sartu. Emakumeen ohiz kanpoko presentziak euren bazterketa berresten du eta, gainera, errekonozimenduz eta prestigioz jantzen dute espazio debekatua, etxe barruko espazioaren kalterako (etxeko sukaldeak ez du elkartekoak duen balio bera).

*Bene-benetan beste (esanahi) bat duela, ez du zerikusirik. Denborak, nire ustez, paper bat jokatzen du... Izan ere, etxean emakumeek prestatzen dute jana eta kasu gehienetan denbora falta izaten da (...). Orduan, kasu gutxitan ikusten duzu prestaketa hori geldoa dela, kontrol gehiago dagoela ikusten da, antolaketa perfektua. Hala ere, elkartean beste erritmo batzuk daude. Gizonak beste erritmo bat dutela nabari da, zeren euren denbora batean joaten dira. Nire ustez, hemen, Soledad Murilloren norberaren denborari buruzko kontzeptua interesgarria izan daiteke. Hau da, etxean, emakumeek janaria prestatzea ez dago norberaren denbora barruan; denbora propioa, Murilloren arabera, identifikatzen eta bizitzen dugun hura da, egiten ditugun gauzak noiz egin aukeratu ditzakegun momentua. Orduan, jana prestatzea ez da aukera bat, betebeharra baizik. Gizonak bai. Gizonak elkartean duten denbora euren da. (...). Gainera, baita ere, gauza bat egiteko denbora bat hartzean, esan nahi da baita ere jarduerari balio bat ematen diozula. (...). Noski, gainera nik uste dut garrantzitsua dela jasotzen den feedback-a. Hau da, zerbait oparitzen diezula ikusten dute besteek. Hau da, besteek ez dute ikusten betebeharraren ondorioa dela. Nire ustez hori da garrantzitsuena, dohaina delako, dohainaren kontzeptua eta zuk hautematen duzun modua. Eta orduan, noski, gain-dimentsio bat hartzen du, nire ustez elkarrekotasuna sortzen duena. Eta nire ustez hor dago gakoa. (...). Orduan, ildo horretatik, nik ikusten dut norberaren denbora emateko eskuzabaltasunetik datorren ongia dela (Teresa del Valle).*

Gauzak horrela, emakumeak janaria prestatzetik baztertzean, hiru gauza ondoriozta ditzakegu: ohiz emakumeek egiten duten lana (jana prestatzea) berriz definitzen da; sortzen den elkarrekikotasunetik at daude, eta beraz, emakumeek ezin dute izan trukea egiten duten taldeko kide; tradizioz emakumeena den jakintza usurpatu egiten da.

Bada, ezagutza hori usurpatu egiten da eta aldatu aldi berean, etxeko testuinguruan ez duen balio bat ematen baitzaio. Del Valleren ustez “*elkartean esparruratzten dena etxean, modu berean, esparruratzten dena da, janaria prestatzea alegia, baina hemen erritu bihurtzen da eta isolatu egiten da prestigio-zeinu gisa indartzeko. Are gehiago, horretan guztian jakintza usurpatzen da*” (1991).

Elkarte gastronomikoetan emakumeen bazterketaren azalpenean, gainera, kontuan hartu behar da garrantzitsua dela espazio horretan umeak egotea, izan ere, presentzia horrek guztiei axola baitie. Elkarte murriztaileek nahiz berdintasunezkoek hainbat zailtasun daudela adierazten dute umeak daudenean.

*Adibidez, emakumeen kontuak (ez emakumeak izateagatik) gauza gehiago dakartza: umeak sartzen dira, eta ondoko mahaian ipurditxoa garbitzen hasten dira, eta azkenean, ba, esaten duzu emakumeen kontuak ez du arazo bat sortzen bakarrik, komatxoan artean, bost edo sei arazo baizik, eta orduan, ba, emakumerik ez balego ez legoke horrelakorik. Esaten duzu, arraioa! Ba, dagoen bezala utziko dugu (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Kasu batzuetan, arestian aipatutakoan bezala, elkarte gastronomiko murriztaileetan haurrak egotearekin dagoen gatazka uste da zuzenean dagoela lotuta emakumeak bertan egotearekin, une hori iritsi arte ez baitzuten halakorik planteatzen eta argudio aproposa da emakumeak baztertu behar izatea justifikatzeko.

Gai hori larria dela pentsatzen dute askok eta ez dute uste elkarteak aproposak direnik umeentzako.

- *Hori jada berealdikoa da. Haurrena arazo ikaragarria da.*
- *Umeak elkartera sartzen direnean arazo handia sorrarazten da.*
- *Nik umeak izan ditut eta mendira eramaten nituen. Soziedadea ez da haurrentzako tokia (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Gainera, kasu batzuetan, emakumeek eskakizunak egiteko eskubidea dutela uste dutenean (oihalak aldatzeko adibidez) beldurra hautematen da elkartekideen artean, edo zerbait egiteko atrebentzia dutenean, une horretan legez horrelakorik egin ezin badute ere; horrek guztiak elkartekideen artean nolabaiteko gatazka sorrarazten du.

*Zuk esan duzuna, haurra joaten denean, eta fardela aldatu behar zaienean eta hori. Horrekin hasten bada, esaten du 'joe' eta senarrari esango dio 'eta zergatik ez duzue ipintzen hemen umeei fardela aldatzeko mahai bat? eta zergatik ez duzue ipintzen hau ta bestea?'... Eta azkenean, emakumea sukaldara sartzen da pototxoa berotzeko eta esaten diozu 'aizu, zuk ezin duzu, senarra sar dadila!' eta hortxe tira-bira (elkarte murriztaileen elkarriketa-taldeko gizona).*

Beste batzuen ustez, berriz, elkarreetan haurrak sartzearen arazoa da pentsatzen dela elkarreek ezin dutela euren helburua bete.

- *Aisialdirako eta kideak dibertitzeko sortzen da elkarte bat. Baina ez da aisia edo dibertimendua ume piloia jasanezin dabiltzanean hortik.*
- *Guri gertatu zaigu, aste-egunetan, arratsaldeko 5etan iritsi, 6etan, eta elkartekide baten semearen urtebetetzea. 8-10 ume eramaten ditu edo 12 eta ezin duzu hitz ere egin (elkarte murriztaileen elkarriketa-taldeko gizona).*

Haurrak elkarte gastronomikoen helburuak ez betetzearekin lotzean, pentsarazi daiteke elkarte gastronomikoetan adingabekoen aurrean, nolabait ere, lotsa-jarrera jakin batzuk egon daitezkeela taldeen artean. Aurretik aipatutako "formak mantentzea" argudioari bira gehiago ematea bezala da, baina izugarri argitu dezake elkartekide batzuek elkartearen definitzeko duten modua.

*Andrea berehala, oso azkarra delako, paretaren kontra. Senarra kanpoko bankuan esertzen da eta haurra lardaskan zu izorratu arte. Ume nazkagarria egun guztia zu izorratzen ari da barruan dagoelako, zerrauts artean, lurrera botatzen da, jolasten... Bestea paretaren kontra dago eta erdian mahaia eta 'aizu, Jose Mari, hartzazu umea'. Eta Jose Mari edanda dago eta ume zikina, gainera, esparru itxi batean dagoelako nazkatuta... Eta elkartearen, ba, hutsaldu egiten da. (...). Ni naiz umeak (sartzea) erabat debekatzearen alde dagoena. Ez da gauza txarragorik ume batek*

*aitak eta amak neurrigabe nola edaten duten ikustea baino eta esparrua botilo bat bihurtzen dela ikustea baino (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Aipatu azalpenen aurrean hainbat hausnarketa egin daitezke; bata, gure kulturaren aisia eta alkohola nahasteko joera, baina hobe aztertu behar da, baita ere, bestea, gure testuinguruan haurtzaroari eta haren heziketari ematen zaion balioa, alegia.

Umeen eta elkarte gastronomikoetan horien presentziaren arazoari berriz eutsiz, berriro ikus daiteke elkarte murriztaileak nola identifikatzen duten arazo hori emakumeen sarrerarekin.

*Ni ados nago emakumeak sartzearekin, baina muga batzuk ezarri behar dira. Sakon-sakon aztertu behar da, elkarteetan umeak zein ordura arte sar daitezkeen eta (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Pentsatu behar da emakumeak umeekin identifikatzeko ideia hori aldatzen ari dela pixkanaka, gizonen ere haien zaintzan erantzukizun handiagoa dutelako.

Berdintasunezko elkarte gastronomikoetan ere haurren arazoa planteatzen da, baina beste ikuspegi batetik. Seme-alabei dagokienez, gurasoen duten erantzukizun faltarekin lotzen dute arazoa.

*Borrokan ibiltzen gara pixka bat, aitaxo eta amatxo behean gelditzen dira askaltzen eta umeak gora joaten dira jolastera, orduan gero bilera bat duzu eta pastela mahaian dago eta horrela (...) eta borrokan ibil behar duzu, ume hau... eta elkartekidearen bila joan behar duzu (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, Donostia).*

Kasu guztietan gatazkaren erantzukizuna gurasoena dela esaten da, ez direlako arduratzen seme-alaben jarreraz elkarte gastronomikoan, aisialdirako espazioa izaki, jarrera-arauak modu malguan hartzeko joera dagoelako eta horrek gatazkak sorrarazi ditzakeelako.

*Eta noski, arauak ezarri behar izan ziren umeen kontuaren inguruan. Umeek ez dute errua, gurasoek baizik (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, probintzia).*

*Horrek, eskubidea eman beharko luke aita hartu eta esateko 'aizu, kalera, zure semea ez zaintzeagatik'. Zeren, noski, umea mahai guztietan ibiltzen da (berdintasunezko elkarteko gizon-kidea, Donostia).*

Gainera, berdintasunezko elkarte batzuek defendatzen dute elkarreak ez direla adingabekoentzako lekua, ez daudelako hezita "geldirik egoteko".

*Elkarte gastronomiko gisa, bazkaltzera joaten zara, gauzak egitera zoaz, baina umeak ez daude hezita han geldirik egoteko, besteei gogaitu gabe egoteko, eta noski, ba ondoko mahaikoak gogaitzen hasten dira. Batik bat hori da arazoa, ondoko mahaikoak gogaitzen hasten direla. Eta noski, bitik bat, edo aita semearekin kalera joaten da, eta haurrak ez du joan nahi, edo hori horrela ezin da izan, izan ere, zu lasai egotera joaten zara, lagun batzuekin zoaz, han egon nahi duzu, lasai zaude hizketan eta haurra zugana etortzea, ba... (berdintasunezko elkarteko gizon-kidea, Donostia).*

Oro har, adingabeak elkarre gastronomikoetan egotean arazoak sortzen direla pentsatzen da, zarata egiten dutelako, ondoko mahaikoak gogaitu ditzaketelako, objektu handiak ekartzen dituztelako, etab.

*Baina egia da arazoak sortzen dituen egoera dela, zeren umeak bizikletekin eta horrelakoekin handik ibiltzea, ba... (berdintasunezko elkartearen elkarrizketa-taldeko gizona).*

*Umeen inguruan arazo gehiago izan zen tabakoarekin baino. Hau da, elkartearen umeen kontua arautzea, ba, gai konplexua da. Umeak, guztiok dakigu nolakoak diren: asko mugitzen dira, baloia dela, patinak direla, mahai azpian dela, hau botatzen dudala, mahaia margotzen dudala eta bestea... (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, probintzia).*

Haurren gaiarengatik, gatazka-puntu gisa, elkartekideen artean egon litezkeen tirabirenganako beldurra dago, elkartearen arnasten den bake eta lasaitasun giroa hautsi daitekeelako; argi eta

garbi nabarmentzen da elkarrizketetan, baita batzuek haurren presentziari dagokionez ezarri edo “frogarako aldian” dituzten irtenbide batzuetan ere.

*Duela urte batzuk, haiek (umeak soziedadean ez egotearen alde daudenek) lokal bat izateko, soziedadea banatu egin zen, umeak sartu ezin zitezkeen jangela bat hartu zuten. Lasai egon zitezten, telebistarekin eta guzti. Beno, esan nahi dut, zera... ba, jangela txikia deitzen diogu... Beno, ba, puntu batera iritsi ginen eta haiek (umeak soziedadean ez egotearen alde daudenek) (...) gela handira joaten ziren, erabiltzen ez zen jangelara eta umeak ezin ziren sartu (berdintasunezko elkartearen elkarrizketa-taldeko gizona).*

*Printzipioz ez dira haurrak onartzen. Nik uste dut nahiko normala dela, nahiz eta gu orainaldi esperimentalean izan, jangela batean, haurren bat edo beste sartzen da (berdintasunezko elkarteko gizon-kidea, Donostia).*

Gainera, elkarte batzuetan, adingabekoen sarrerari dagokionez mugarik ez izatean elkartekideak ere galdu izan dira.

*Ume asko dago hemen beti. Egia da bai ume asko dagoela. Gainera, badakit pertsona batek soziedadetik alde egin duela haurren kontua oso ondo ez zeramalako (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, probintzia).*

Hala ere, azpimarratu behar da berdintasunezko elkarte gastronomiko gehienek positiboki baloratzen dutela seme-alabekin joateko leku bat izatea eta hori da, hain zuzen ere, elkartekide izateko arrazoietakoa bat.

*Hori botatzen dugu pixka bat faltan, familiarekin biltzea soziedade antzeko batean, ez jatetxean edo halakoetan (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, probintzia).*

Paradoxa dirudi elkarte gastronomikoa biltzeko lekua bezala sortzea eta, hala ere, adingabekoen beto hori izatea askok (berdintasunezko elkarteetan –gutxiago– nahiz murriztaileetan gertatzen baita).

Elkarte murriztaileetan ez bezala, berdintasunezko elkarteetan ez da lotzen adingabekoen sarrera emakumeak elkartekide gisa onartzearekin. Elkarrizketa batean ere ez ziren horrelako loturak aipatu, baina beste mota bateko argudioak erabili ziren. Elkarte gastronomiko murriztaile batzuetan horri buruz ematen den argudioa genero-harremanak eta lan-banaketa ulertzeko moduaren arabera da, eta zaintza soilik emakumeen erantzukizuna dela adierazten da.

Elkarte gastronomiko batzuetan emakumeak sartzeari dagokienez, esan behar da kasu batzuetan estrategia sotilak eta elkartekideak ezagutzen ez dituztenak erabiltzen direla, kasu askotan ez dira horiez kontziente gainera. Hala ere, dirudienez sortzaileek egindako arauak oinarri, bazterketa horren erantzukizuna kanporatzeko joera dago, eta estatutuei eusten diete, euren gainetik dagoen eta eurek parte hartu ez dute zerbait bailiran.

Kasu askotan elkarte gastronomikoekin kontaktatu eta berdintasunezkoak ziren galdetzean, baietz erantzuten zuten, baina elkartean zenbait gizon- eta emakume-kide zeuden galdetzean, emakumerik ez zela argitzen zuten. Batzuetan, zioten, emakumeei elkartekide izatea ez zaiela interesatzen (hala pentsatzen zuten) eta beste kasu batzuetan, berriz, elkartekideak hautatzeko sistema zuzenean bazterketa-tresna bat izan ohi da.

Emakumeek eta gizonek uste dute emakumeak elkartekide ezin direla izan, baina errealitate horren inguruan, kasu bitxi bat: elkarte gastronomiko jakin batean, aspektu hori aldatzeko, estatutuak gainbegiratu zituztela adostu zuten eta konturatu ziren, berez, ez zela ezartzen inongo debekurik emakumeak elkartekide izateko.

*(Elkarte gastronomiko) askotan emakumeak sartu ahal izateko estatutuak aldatu nahi zirenean, ikusi da batzar bat egin behar zutela emakumeak sartzeari ez zutenen artean, izan ere, ez baitzegoen inongo debekurik, ohituragatik besterik ez zen, logikoa baitzen emakumeak ez sartzeari (berdintasuneko elkarteko gizon-kidea, Donostia).*

Elkarte gastronomikoetako hautatze-sistema guztiek baldintza bat dute: elkartekide berriaren abal-emaile kopuru bat izan behar da –normalean bi elkartekide– gerora eskakizuna onartzeko edo ez. Bozketa-prozesu horretan daude, oro har, bazterketa-estrategia gehien.

Elkarte batzuetan “bolen” sistema erabiltzen da; hau da, elkartekide bakoitzak (Batzarrekoak edo Batzordekoak) bola zuria sartzeko du zaku batean aldeko botoa bada eta beltza kontrakoak bada. Bola beltz bat izanez gero, pertsona eskatzaileari sarrera ukatzen zaio.

*Bat bakarrik nahikoa da ez onartzeko eta horrelako soziedadeak badaude oraindik. Guri galdetu digute 'aizu, eta soziedadean sartzeko eta, nola egiten duzue?' soziedadera etorri diren batzuk eta ukatuak izateko beldurrez, ez dira aurkeztu (berdintasunezko elkarteko gizon-kidea, Donostia).*

Ez da emakumeengan soilik eragina duen bazterketa-sistema, ukatua izateko beldurra gizonengan ere gertatzen baita, baina prozesu hori eraginkorra da emakumeak baztertzeko kasuan.

Beste elkarte batzuetan, ordea, elkartekide bat onartzeko (emakumea nahiz gizona), botoen gehiengoa lortu behar da eta, emakumeak gizonak baino gutxiago daudenez, emakumeek ia ez dute sartzeko aukerarik izaten. Egoera horrek dinamika bat sortzen du, feedbacka, eta emakumeen sarrera eragozten da.

*Elkartekide berrien onarpenari buruzko kapitulu bat dago eta hori soziedadearen barne-estatutuaren arabera egiten da. Orduan, kontu hori da elkartekideak sartzeko azkenean erabakigarria dena. Arautegi bat dago, ezarritako arau batzuk. Soziedadeko batzarrak esaten du nor den elkartekide, dagokion boto kopuru batekin eta, sar daitezkeen edo ez. Horrelako prozesu bat izan dugu, uste dut bi neska zirela aurkeztu zirenak, eta baldintza guztiak betetzen zituzten, hau da: argazkia aurkeztu zuten, elkartekide pare baten abala zuten edo dena delakoa. Eta beno, botazioa egiteko ordua iritsi eta inoiz... beti baztertu izan dira. Bozketa bat izan da... Barne-arautegi bat dago, eta noski, 50+1 atera zen (berdintasunezko elkartearen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Baztertzeko beste estrategia bat amabitxiaren eta ohorezko emakume-elkartekideen irudia da. Elkarte zaharretan amabitxiaren irudia aurkitu da, baina baita berriagoak diren beste elkarte batzuetan ere. Elkartearen hasieran sortzen lagundu zuten emakumeak dira eta hainbat baliabide zituzten horretarako: bilerak egiteko euren espazioak utzi zizkieten lokal bat izan baino lehenago (euren etxeetan edo negozioetako denda-ostean), elkarteko bandera egiten lagundu zuten, etab.

Kontsultatutako bibliografian, emakume baten lekukotza azaltzen da, non azaltzen baitu bere elkartearen hasieran elkartekide-fundatzailea zela, baina, gerora, eskubideak ezeztatu zitzaizkiola, beste emakume-elkartekideei bezala, eta guztiaren truke ohorezko emakume-elkartekidearen titulua eskaini ziotela. Hala azaltzen du interneten argitaratutako aldizkari batean ([www.euskalnet.net/cdl/47.html](http://www.euskalnet.net/cdl/47.html), [www.euskalnet.net/cdl/48.html](http://www.euskalnet.net/cdl/48.html), [www.euskalnet.net/cdl/49.html](http://www.euskalnet.net/cdl/49.html)):

*“Hasieran emakume-elkartekideak zeuden, zergatik?*

*Ba, dirua falta zelako, eta orduan elkartekide izatera gonbidatu ziguten. Ez zen dirua genuelako, baina bost xentimo genituenok elkartekide egin ginen. Ez dakit zenbat ordaintzen genuen, baina gogoan dut urte askotan izan ginela elkartekide. Berez, inoiz ez genuen harpidetza utzi.*

*Inoiz ez diozu elkartekide izateari utzi?*

*Esan dudan bezala, inoiz ez diot utzi. Urteak pasa ahala gertatu zen, ez ziguten kuota gehiagotan ordaintzen utzi eta ohorezko elkartekide izendatu gintuzten. A zer titulu puska, eh?! Gertatu zena zen soziedadea izugarri aldatu zela”.*

Hala, bazterketa-metodoa baieztatzen da eta berriz ere emakumeen aldeko eta onura gisa jantzen dute egoera, kuotak ordaintzen ez utziz eta ohorezko tratamendua emanez; halako kutsua ematen zaio behintzat aldizkariaren liburuaren sarreran: *“Esan behar da garai haien hasieran, Klubak gizon- eta emakume-elkartekideak zituela eta guztiek kopuru bera ordaintzen zutela. Hilean pezeta 1, helduek; bi erreal, adingabekoeak. 1931an, José Lopeteguik emakume-elkartekideak kuotak ordaintzeko betebeharretik baztertu eta Ohorezko Elkartekide izendatu zituen. Emakumeak, gero, jantziak josten zituzten, dirua lortzeko eta Gerra Zibilean frontean zeuden mutilentzako* ([www.euskalnet.net/cdl/urtebete.htm](http://www.euskalnet.net/cdl/urtebete.htm)).

Horrek adierazten du gertaera bitxia dela momentu jakin batean elkarte gastronomikoetatik emakumeak baztertu eta barne-erabakietan euren botoek izan zezaketen boterea ere kendu izana. Inongo momentutan ez zaio emakumeek jasandako bazterketaren fenomenoari aipurik egiten, egoera natural gisa bizi izan dela dirudi –arestian aipatutako eta hori jasan duen emakume baten aipuek kontrakoa pentsarazten duten arren–, eta hala ere, emakumeek elkarte gastronomikoen jardueretan parte hartzen jarraitzen zuten, uzten bazitzaie behintzat.

Berdintasunezko elkarte baten kasua ere aurkitu da; 1976an sortu zen eta, denborak aurrera egin ahala, ezaugarriak aldatuz joan zen, baina murriztaileetako berezitasunak hartuz (“tradizionala” da elkartean gaur egun dauden bi emakumeek erabili duten hitza).

*Lagun arteko pentsaera izan da gure artean, duela 15 urtera arte. Duela 15 urtetik hona jada soziedade tradizionalagoa bihurtu da. (...). Ez dute esaten, baina elkartekide batzuei badakigu izugarri gustatuko litzaiekeela gu aspalditik desagertu bagina, baina fundatzaileetako bat naizenez... (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, probintzia).*

Bada, ikus daiteke ez dela zertan tradizio handiko elkarte gastronomikoetan bilatu, horrelako bazterketa-mekanismoak aurkitzeko. Telefono bidezko inkestaren bidez, egiaztatu dugu Bizkaiko elkarte batean, 2005ean sortua, emakume-kideak ez izan arren, ohorezko emakume-kide bat dagoela, lokaleko jabea dena gainera.

Bada, “amabitxia”, “ohorezko kidea” edo elkarte gastronomiko murriztaileenetan emakumearen irudia errekonozitzeko erabiltzen den edozein izendapen ezizen hutsa besterik ez da, bazterketa disimulatzeko beste metodo bat. Metodo hori elkarteetan ezarrita geratzen da irudi horien urteko omenaldiari esker; normalean, soilik urteko egun jakin horri mugatzen zaio elkartekideek amabitxiarekiko duten elkarrekikotasuna.

*Amabitxiarekin bai, amabitxiarekin etor daiteke, hau da, soziedadean amabitxi ofiziala dugu, eta orduan amabitxia urtero bazkaltzera etortzen da (elkarte murriztaileen elkarriketa-taldeko gizona).*

Egoera hori Julianok izendapenen mezu tradizionaleri buruz deskribatzen duenarekin identifika daiteke; hau da, emakumeak kultu eta mirespen objektu bihurtzen dira, baina emakumeak izatean oinarritzen den balioa izateko aukera kendu eta ama-papera ematen zaie: “kontrakoa dirudien egoera batean, emakumeak kultu-objektu gisa errekonozitzen diren errituak daude. Baina horien bertsio ofizialean ez da emakumea aldarera igotzen dena, ama baizik, euren igoera semea magalean dutela, patriarkari men egitea balitz bezala” (2001:81).

Amabitxiak funtzio hori betetzen dute nolabait ere, hala nabarmentzen da elkarte gastronomikoetan hornitzaile eta gizonen babesle izateko funtzioa dutelako; hori dela-eta, ordena hierarkiko bat onartzen dute, babesten dituzten pertsoneri pribilegio batzuek emanez eta eurentzako pribilegioak ukatuz.

Elkarte gastronomiko murriztaile guztietan, emakumeen betorako salbuespen bat dago: “garbitzailearen” irudia eta, kasu batzuetan, “sukaldariarena”. Ez du enbarazurik sortzen emakume horiek elkarteko gela guztietara sartzeak; bitxia da nola galtzen den aurretik aipatutako beldur hori, alegia, emakumeak elkartearen euren etxearekin nahastea, eta ez die inolako gatazkarik sortzen elkarte gastronomiko murriztaileetako elkartekideei emakumeak sukaldaria sartzeko eta eurentzako janaria prestatzeko eta espazio guztiak garbitzeko. Elkarte gastronomiko bateko kronika jasotzen den testu honetan, adierazten da emakume garbitzaile eta sukaldariak arauaren salbuespena direla: “Araudiko arau eztabaida ezin honetatik at geratzen dira, logikoa den bezala, <<office>>aren arduraduna eta sukaldaritzaren zeregin neketsu eta konplexuen teknikaria, ordu jakinetan” (Ulía 1959:58).

Salbuespen hori guztiek ezagutzen eta onartzen dutela egiaztatu da, baina emakumeen artean nolabaiteko haserrea pizten du egoerak:

*Hori bai dela diskriminazioa. Nire senarraren soziedadean emakume-sukaldari bat dute, beraz, kontraesana da, ezta? Nik ezin dut sartu eta haiek emakume bat dute jana prestatzeko (elkarte murriztaileko elkartekide baten emaztea, Donostia).*

*Emakumeok ezin gaitezkeela sartu... ni horren guztiaren kontra nago, zeren ez dakit, nik uste dut emakumeak sukaldara sartu edo ez dakit zer ezin dutenean egin ba, uste dut garbitzaileei ez zaiela sarrera debekatzen inongo soziedadetan. Uste dut ia gehienetan garbitzailea emakumea dela. Orduan, ba... (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, Donostia).*

Beste kasu batzuetan, egoera absurduetara iritsi da, adibidez, berdintasunezko elkarteko emakume-kide bati gertatu zitzaiona: hasiera batean, inguruko beste elkarte murriztaileetako kideei laguntza eskatu zien antolaketa-sistema bat abian jartzeko; guztiek eman zioten baietza gustura, baina elkarte batek berak ere ez zion utzi behatzaile simple gisa sartzen euren egoitzara, eta noski, horrek nolabaiteko tratu-desberdintasuna sentiarazten du, emakume-garbitzailea inongo eragozpenik gabe sar daitezkeela kontuan hartzen bada.

*Ez dakizu zenbat arazo izan nituen. Gainera, auzoko soziedade batean (ez dut izena esango orain, lotsa eta guzti sentitzen dut-eta), ba, ezin nuen sartu soziedadea ikusteko, ezin nuen sartu, ez soziedadea ikustera, ez egiten zituzten oharrak nolakoak ziren ikustera. Baina ez zen nola funtzionatzen zuten ezkutatu nahi zutelako, ez, baizik eta emakumea nintzelako eta, azkenean, galdetu nien 'aizu, eta nork garbitzen dizkizue platerak?', 'a ba ez, hori desberdina da, harrikoa egitea etortzen da', 'joe, ba ni ikustera nator, ba, ez zait ongi iruditzen...' eta auskalo nola funtzionatzen duen soziedadeak, taberna batean bildu behar izan ginen eta oharrak ekartzen zizkidaten ikusteko (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, Donostia).*

Ustez elkarte gastronomikoetako esentzia euren presentziarekin soilik mehatxatzen duten emakumeak eta garbitzaileak bereizteko, aspektu hauek aztertu behar dira:

- Elkarte gastronomikoetara joan daitezkeen emakumeek (potentzialki izan arren) elkartekideren batekin harreman pertsonala dute, oro har, emazteak izan ohi dira; emakume-garbitzailea eta

sukaldaria betetzen duten funtzioagatik sartzen dira ordea.

- Oro har, azken horiek elkartean inor ez dagoenean sartzen dira, emakume-sukaldarien kasuan, ez dute mahaiko errituan parte hartzen; elkartekideen emazteak bazkari edo afari bat dagoenean sartzen dira eta beti norbaitekin.

- Garbitzaileak eta sukaldariak sukaldara sar daitezke, baina inoiz ere jana prestatzeak ematen duen prestigioaz edo jan on baten inguruan biltzen diren lagunez gozatzeko; emazteek janaz gozatsen dute, baina jana prestatzeak eta eskaintzeak dakarren truketik eta prestigioetik baztertzen zaie.

Bi irudien arteko kontrastea eta osagarritasuna ia absolutua da: batek duena, besteak ez du; batek ez duena, besteak du. Dena dela, garbitzailea (bereziki) eta sukaldaria gauez lan egiten duten ipotxen antzekoak dira, hurrengo goizerako lana dagoeneko eginda baitago. Anonimoak dira, ikusezinak, trukagarriak eta, era berean, eraginkorrek eta beharrezkoak. Etxekoandreairenean laburpen perfektua dira, bertsio tradizionalen, euren funtzioa inolako eragozpenik gabe betetzen baitute.

*Emakumeak garbitzeko bakarrik sar zitezkeen, baina bestela ezin ziren ezertarako sartu, beraz, emakume garbitzailea ez da ezer (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, Donostia).*

Garbiketa-lanak egiten dituzten eta sukaldari diren emakumeak, dirudienek, ez dira mehatxu bat, izan ere, euren presentzia eta funtzioa kontrolatuta eta mugatuta baitago, mehatxu diren “indar femenino” guztiak neutralizatzen dira, euren nortasuna eta presentzia murriztuz. Nolabait ere, eta elkarrizketa horri jarraiki, jada ez dira ezer.

Azkenean, kontuan izanda gure inguruaren aurrerapen soziala eta elkarte gastronomikoen, hasieran zirenetik orain diren arte, bizitako aldaketa, hainbat iritzi aurki daitezke, guztiz baztertzen dutenak edo etsita onartzen dutenak, adibidez.

Elkartekide batzuk emakumeen presentzia onartzen dute, baina nolabaiteko etsipenarekin, saihestezina den zerbaiten moduan, egun gizartean emakumeek gehiago parte hartzen dutela aitzakiatzat hartuz, edo bikote-harremanak aldatzearen ondorio moduan; elkartekide gazteak, askotan, barneratzen ari diren aldaketa da.

*Baina soziedadeak, orokorrean, aldatzen ari dira, ez dagoelako beste aukerarik eta harremanak aldatzen ari direlako. Belaunaldi berriak, gure atzetik datozenak, horiek izango dira gauzak aldatuko dituztenak. Lor dezaketenean, gu atzean geratzen garenean, adibidez, soziedadeen*

*pausoak kontrolatzeari edo markatzeari uzten diogunean, haiek arauak eskuetan dituztela etorriko dira eta pin pan pun, eta 10 urtetan edo 15 urtetan hau jada...* (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).

Beste kasu batzuetan gizonak inbadituta sentitzen dira, ez dute gustuko emakumeekin espazioak konpartitzea, ez behintzat gizarteak ezarritako egoera dela protestatu edo adierazi gabe, euren nahietatik at dauden motiboengatik jasaten duten egoera.

*Eta orain, ba konstituzioarekin, ba, egoera poltsikoan sartu behar izan dugu. Orduan, ez zitzaigun planteatzea baino beste aukerarik geratzen... (emakumeak estatutu berrietan sartzea). Egia esan, legeak esaten du emakumeak sartu egin behar direla, ezin direla baztertu (berdintasunezko elkarteen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Era berean, emakumeen bazterketari buruzko edozein erantzukizun errefusatzen da, adieraziz “horrela izan dela beti”, “ez direla beraiek egoera hau sortu dutenak” (egoerak irauraraz dezan parte hartzen ari badira ere), ez dituzte euren ekintzen diskriminazio-ondorioak onartzen eta, estatutuak aldatu dituztenez, emakumeen bazterketa esplizitua kenduz, pentsa dezakete diskriminazioaren arazoa konpondu dutela, nahiz eta praktika murriztaileak mantendu.

- *Soziedade matxista ginen.*

-*Beno, edo antzeko zerbait. Inoiz ez delako emakumea diskriminatu. Gainera, bai, emakumee sartzten utzi zaie (berdintasunezko elkarteen elkarrizketa-taldeko gizonak).*

#### • **Nortasun maskulinoa eta elkarte gastronomikoak**

Zalantzarik gabe, gizonen elkarte gastronomikoetan gehien harritzen duena da gizonen artean egoteko beharra, eurentzako soilik den espazio bat izatea edo emakumeen presentzia kontrolatuta eta araututa den lekua izatea. Ulertu da aipatutako behar horren arrazoiak ulertzea garrantzitsua dela; elkarrizketetan parte hartu duten gizonek adierazi dute hori.

Horregatik landu dira paragrafo honetan maskulinitasunaren eta feminitatearen definizioari buruzko

gaiak; elkarte gastronomikoaren zentzua, gizonena soilik den espazio baten gisa eta berdinen taldearekin eta emakumeen presentziarik ez duen taldearekin identifikatzeko behararekin lotutako espazio gisa; genero-nortasun bat (gizona izatea) banatzeko zentzua, hierarkizatutako beste baten (emakumea izatea) aurrean; eta elkarte gastronomiko murriztaileen garrantzia, nortasun-praktiken leku gisa.

Maskulinitasuna eta feminitatea termino konplexuak dira eta gizonei eta emakumeei ezartzen zaizkien ezaugarrien multzoa dira. Gizarte guztiek ez dute mota horretako erregistrorik, termino baten eta bestearen artean lotura polarizatu bat onartu behar baita. Horrek esan nahi du gizonak eta emakumeak ezaugarri polarizatuak dituztela. Bada, maskulinitasuna existitzeko feminitatearekin kontrastean egon behar du (Connell, 1995). Era berean, maskulinoa dena eta femeninoa dena eta, beraz, emakumeak eta gizonak direna definitzeko moduak, kultura bat beste batengatik desberdintzen du.

Izaera esentzialista bat defendatzen duten jarrerak daude eta femeninoa eta maskulinoa dena jatorrizko esentziarekin eta biologikoa denarekin zerikusia duten esentziekin lotzen dituzte. Puntu honetan, hala ere, definizio horiek izaera soziokultural bat dutela onartzen duen ikuspegi bat dago oinarrian. Ildo horretatik, jarrera hori maskulinitasunaren edo feminitatearen izaera esentziala baztertzeko egile askoren antzekoa da, bereziki, gizona eta emakumea definitzeko dagokionez. Michael Kimmel-en hitzetan: *“gizontasuna ez da, ez estatikoa, ez denboraz kanpokoa, historikoa da; ez da barne-esentzia baten adierazpena, gizartean sortutakoa baizik; ez da gure osagarri biologikoetatik kontzientziara igotzen; kulturen sortzen da. Gizontasunak gauza desberdinak esan nahi ditu garai desberdinetan pertsona desberdinentzako”* (1997:47).

Maskulinitasuna ikertzen aditu direnen artean adostasun nabarmena dago maskulinitasuna beti pluralean esan behar izateari dagokionez, ez dagoelako bakarra bat. Hari beretik Connellek baieztatu du *“ez dagoela gizon-entitatearen adierazpenak gizarte guztietan orokortzen dituen gizon-entitatearik. Terminoaren bidez (maskulinitasuna) izendatzen diren gauzak, logikoki, ezin dira euren artean neurtu”* (1995:43).

Baina aldaera hori gizartean arteko desberdintasunez haratago doa. Egilearen arabera hainbat eredu daude gizarte batean eta gizon baten barruan askotariko eta kontraesanezko aspektuak daude, eredu monolitiko eta koherente bati erantzuten ez dioten aspektuak; beraz, ez da erraza sinplifikatzea (Connell, 1995).

Aniztasun hori kontuan izanez, Connellek maskulinitasun hegemonikoa kontzeptua sortzen du, momentu jakin batean beste modu batzuekiko kulturalki goresten den maskulinitasun modua identifikatzeko. Honela definitzen du: *“patriarkatuaren legezkotasunaren arazoa berez onartzean sortzen den genero-praktika, (...) gizonen menderatzaile jarrerak eta emakumeen menderatu jarrerak bermatzen du”*. Ez da *“izaera mota finkoa, betikoa eta leku guztietan berdina. Genero-harremanak*

*ezarritako eredu batean, maskulinitasunak duen posizio hegemonikoa da, batez ere*". Horrekin ez da esan nahi "*maskulinitasun hegemonikoa nabarmenen daramatenek pertsona boteretsuenak direnik. Ereduak izan daitezke, filmetako aktoreak bezala, edo fantasia irudien moduan, zinemako pertsonaiak bezala*" (1995:77). Eredu horiek, askotan, lortuezinak dira gizon hilkor gehienentzat.

Maskulinitasun hegemonikora atxikitze eta hura zalantzan jartzeko hainbat maila daude, beraz, ulertzekoa da gizon mota asko daudela (norberaren barruko kontraesanak barne). Era berean, maskulinitasun hegemonikoa kontzeptuari esker, gizonen menderatzaile posizioa iraunarazten eta bermatzen duen praktika-multzoa ulertu eta identifika dezakegu. Gainera, ezaugarri du botere-estamentuekin duen lotura, "*hegemonia ezartzeko aukera izango da, baldin eta ideal kulturalaren eta erakundeen, taldearen edo banakoen boterearen artean elkarrekikotasunik badago. Hala, enpresa-munduko, mundu militarreko eta gobernuko maila altuenek maskulinitasun erakustaldi korporatibo sinesgarri samarra ematen dute (...). Autoritatearen baliabidea (beti arrakastatsua), zuzeneko indarkeria baino gehiago, hegemoniaren marka da (nahiz eta indarkeria askotan autoritatean egon edo hura eusten duen)*" (Connell, 1995:77).

Kontzeptu horiek berriro aztertze interes dago, elkarte gastronomikoetako kasua aztertze esparrua direlako, izan ere, horietan genero-loturen eredu bat iraunarazteko balio duten praktikak egiten baitira, gizona izatearen definizioari dagozkionak eta, neurri handi batean, maskulinitasun hegemonikora atxikitzen direnak eta, beraz, sexu-harreman hierarkikoak eta desberdinak ez dituztenak zalantzan jartzen dira. Hauek dira maskulinitasunaren ezaugarri nagusi batzuk, bereziki maskulinitasun hegemonikoarenak:

- Maskulinoa denak eta femeninoa denak lotura-izaera bat dute (Connell 1995, Kaufman 1994, Kimmel 1997, Badinter 1993, Gilmore 1994, Godelier 1986), nahiz eta maskulinoa denaren definizioan alderdi negatiboa nagusi izan; hau da, gizon bat gizon definitzen da hark EZ dituelako emakumeek eta baliokide sinbolikoak direla pentsatzen duten horiek (haurrak eta homosexualak) identifikatzen dituzten ezaugarri jakin batzuk.

- Nortasun maskulinoak sortzeko eta mantentzeko funtzio garrantzitsua betetzen dute botereak edo menderatzeak. Boterea, ustez gizonen daukaten hori, zalantzan jartzen denean euren genero-nortasuna ere dudan jartzen da (eta alderantziz). Kaufman irmo ageri da ideia horren aurrean eta "*gizona izatean boterea izaten dela*" baieztatzen du (1994:145). Baina horrek ez du esan nahi, ezta gutxiago ere, gizon guztiek boterea dutenik edo pribilegio-egoerez gozatzen dutenik; aitzitik, atxikita duten eredu boterea duen gizon bati dagokiona da. Don Conway-Long irakasleak hala dio "*maskulinitasuna, bere horretan, menderatzearen performance bat bihurtzen da*" (1994:71).

- Maskulinitasunak berdinen taldea behar du berresteko, baita beste gizon batzuen onarpena ere (Kimmel, 1997). Ildo horretatik, interesgarria da "zinpetutako taldearen" kontzeptua berriz aztertzea. Celia Amorósek gizonen, berdinen talde gisa, emakumeen aldean duten jokatzeko moduari

aplikatzen dio kontzeptua, adierazteko taldea bera “*kide guztien nortasuna, interesak eta helburuak mantentzeko sine qua non baldintza gisa hautematen dela*” (Amorós 1990:49).

Elkarte gastronomikoen zentzuari dagokionez, gizonen espazio gisa eta berdinen taldearekin eta, era berean, emakumeen presentziarik ez duen taldearekin identifikatzeko behararekin lotuta, elkarteak ez dira gizon-taldearen salbuespenezko adibidea. Ikerketa etnografikoek horrelako taldeak hainbat kulturetan daudela diote, bai izaera iraunkorrarekin edo esporadikoarekin, izaera formal edo informalararekin, edo izaera inklusibo (gizon guztiak) edo baztertzailarekin (gizon batzuk bakarrik). Historian zehar ere hainbat adibide ikusi da.

Arestian aipatu dugun bezala, “gizona izateak” (gizon gisa errekonozitzeak) ezeztapen bat dakar: emakumea (bezalakoa) ez izatea edo bere edozein baliokide sinboliko (bezalakoa), haurra edo homosexuala, emakumeen edo mundu femeninoaren ezaugarriak dituzte-eta. Horretarako, lehenik eta behin, femeninoa dena bereizi behar da (sinbolikoa kasu batzuetan, eta/edo erreala, beste batzuetan). Testuinguru sozialaren, kulturalaren edo historikoaren arabera egiten da: sarbide-erritu baten bidez, gazteak gizon bihurtzen diren erritua (askotan erresistentzia eta indar proben bidez); jarduera jakin batzuei ekinez, gizonenak direla esaten diren jarduerak eta emakumeetatik bereizten dituztenak (lan jakin batzuk, arrisku-jarduerak eta/edo jarduera gogorak, jarrera jakin batzuk, etab.); gizon-talde jakin batean sartuz (kasu hauetan sarbide-erritua egon daiteke edo ez); edozein jarduera egitea eta “feminizatzaile” izan daitekeen edozein jarrera hartzea errefusatzuz, etab.

Teresa del Valleren planteamenduei jarraiki, espazioa beste baliabide bat da: “*espazioa mugatu egiten da, hierarkizatu, baloratu, aldatu. Horretarako erabiltzen diren jarrerak eta baliabideek giza jardueretan dute eragina, eta kasu askotan banatzeko, hierarkizatzeko, barnean hartzeko edo baztertzeko balio dute*” (1991:6). Zentzu horretan, espazioa ohiko baliabidea da, gizonen eta emakumeen munduen arteko muga ezartzeko balio duena, mundu horiek hierarkizatzeko eta gizonak barne hartzeko emakumeak baztertuz.

Horretarako ez dago zertan espazioa erabili, izan ere, bereizketa, femeninoa denetik bereiztea bereziki, modu askotan egin baitaiteke: gorputz-adierazpenaz, trebetasun batzuk lortuz, arriskura hurbilduz, indarra eta beldur-gabezia erakusten duen edozein jarduera eginez, etab. Espazioak, nolana ere, ezohiko gaitasuna du mugak modu literalean argi eta garbi mugatzeko, baina gaitasun hori gizartean gutxien onartzen diren praktiketatik bereiz daiteke; egungo gizarte garaikidean, espazioak indar handiko baliabidea izaten jarraitzen du eta soilik maskulinitasunaren gotorlekuak mantentzeko balio du oraindik ere.

Bereizketa, aztertzen ari garenari dagokionez, funtsezkoa da, emakumeen arrastorik gabeko eremu hori sortzeko beharra dagoelako. Elkarte gastronomikoen jatorria kontuan izanez gero, logikoa da pentsatzea elkarteak talde berdinetan ezarritako harremanetan oinarritzen zirela eta emakumeen mundutik bereiztea nahi zutela.

*Orduan, nora demontre joango lirateke ba (gizonak)? Ba, Txapelaundira, Martutenera. Noski, bizi guztiko koadrila biltzen zen leku bakarrera, zeren bestela egun guztia edaten zeuden eta eguerdian hamalau ardo hartzen zenituen eta hamazazpi beltz gauean, kristoren mozkorrak, aizu. Lan egiten zuen jendearen babeslekua zen. Testuinguru horretan ez zegoen emakumerik. Eta bikain funtzionatzen zuen, izan ere, arraioa, zure lagunekin egon zintezkeen zure gauzetaz hitz egiten (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

*Eta tradizionalak elkarte gastronomikoak dira, esaten zuten garai batean horretarako erabiltzen zutela, etxeko-andretik aldentzeko (berdintasunezko elkarteen elkarrizketa-taldeko gizona).*

*Bazeon garai batean, urte asko, nik uste ordun egunero jende asko ibiliko zala. Eta nik uste det ordun gizonak askoz gehio alde egiten zutela etxetik soziedaden egoteko (elkarte murriztaileko gizon-kidea, probintzia).*

*Soziedade gastronomikoak beti izan dira nolabait gizonezkoen rekreazio gune bat. (Las sociedades gastronómicas siempre han sido, de algún modo, un lugar de recreo para los hombres) (udal ordezkari politikoa, Donostia).*

Elkartekide batzuen ustez, emakumeen mundutik banatzeak elkarte gastronomikoetan mantentzen den funtzio bat izaten jarraitzen du eta elkarte "emakumeetatik urruntzeko" lekua dela onartzen dute. Emakumeak espazio publikoak okupatzen joan diren heinean (eta beraz leku horiek "feminizatzen"), gizonentzat soilik diren lekuak murrizten ari dira. Koherentea da, elkarte gastronomikoetan emakumeak sartzen hasi direnez, gizon batzuk inbadituta sentitzea, espazio horren esentziaren amaiera dela pentsatzea. Egoera horretan, interpretatzen dutenaren arabera, euren nortasuna arriskuan jartzen da:

- *Lehen esan behar nizuena, Herreran bi soziedade daude, lehen gizonezkoentzat ziren bakarrik eta orain biak mistoak dira, duela 10 urtetik edo 12.*
- *Baina mistoak direla esatean, zer esan nahi duzu, emakumeak ere elkartekide direla?*
- *Elkartekideak eta sukaldean sartzen direla.*
- *Hori guztiaren amaiera izango da. Hori horrela da. Gaiaz gehiago azaltzen badut, matxista naizela esango dute, beraz ez dut hitz egin nahi.*
- *Berezko soziedadeak izateari utziko diote.*

- *Ez dira soziedade bat, izpiritua ez da hori.*
- *Beste gauza bat bilakatuko da.*
- *Nik ukatu egingo dut eta hil egingo naiz, zorionez, baina ziurrenik emakumeak soziedadeetako elkartekide izango dira.*
- *Eta emakume lehendakariak egongo dira (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizonak).*
- *Tira, horretan emakumeak beti du paper garrantzitsuagoa; eskubide gehiago ditu eta edozein egunetan sukaldara sartzen utziko zaio. Orduan, soziedadea ez da soziedadea izango, zeren gu poteatzera joango gara eta zuek (emakumeak) janaria prestatuko duzue (elkarte murriztaileko gizon-kidea, Donostia).*

Ekarpen horietan erresistentzia-jarrera nabarmentzen da, elkarrean emakumeen posizioari dagokionez egon litezkeen aldaketa saihestezinen aurrean. Ildo horretatik, elkarte gastronomiko murriztaileak aldaketa horiekiko erresistentzia-bastioia izango lirateke, gizon askorengan aldaketa horiek sorrarazten duten erreakzioarekin lotutakoa.

*Eta oso interesgarria da baita ere, izan ere, liburu hura gogorarazten dit, ez dakit Faludirena den, Backlash (Faludi, 1991), hortxe daukat. 80eko hamarkadan idatzitako liburua da eta egilea iparramerikarra da, emakume soziologo bat. Eta orduan hark, aztertzen duena da nola momentu haietan emakumeak eskubideak konkistatzen joan diren, emantzipazio-prozesuak izan direla, orduan egileak gizonen atzera joan nahi bat izan dela ikusten du, nolabait esateko. Eta horrek beti gogorarazten dit, Backlash izeneko fenomeno.*

*Baina soziedadeetan, baita ere, aldaketak gertatzen diren heinean, ba, erresistentzia bezalako elementuak egon daitezke. Eta gainera, nik uste dut ulertu daitezkeela zergatik dagoen zuk diozun erresistentzia hori. Jende askok ikusten duelako bestea, orain arteko bazerketa, normal bezala. Baina nik uste dut erresistentzia horren lekuak ere izan daitezkeela, nahiz eta horiek bezala formulatu ez. Orduan, aldaketek aurrera jarraituko dute, elkarrean emakumeak barne hartzen joango dira, baina badira oraindik maskulinoa denaren kontzentrazio-gotorleku horiek, baina prestigio eta botere bezala (Teresa del Valle).*

Egia esan, askok euren jarrera erresistentzia moduan adierazten dute argi eta garbi:

- *Oso arazo zaila da eta nik uste dut soziedade gehienak ez gaudela prest horri aurre egiteko.*
- *Begira, duela 30 urte baino lehenago, M. lehendakaria zenean, lehen ere emakumeak bazkaltzera sartzen ziren arratsaldeko 6ak edo 7ak arte. Nik uzten diet, ez dituzu seietan puntuan bota behar. Eta orain, urketariak danborradan. Eta orain sekulako proiektua dute gainera..., hurrengo batzar orokorrerako talde garrantzitsu bat dago jada, 20 edo 30 elkartekideko talde bat nahi dute, emakumeek egun jakin batzuetan soziedadean afaltzea nahi dutenak. Ez dakit ba. Batzar Orokorra subiranoa da eta haiek erabaki dezatela.* (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizonak).

Elkarte murriztaileetako elkartekideek badakite zalantzan jartzen den espazio bat mantentzen ari direla, izan ere, emakumeak beste hainbatetan barne hartzen joan dira, nahiz eta, gainera, gizonen eta emakumeen tratu-berdintasunaren printzipioekin zuzenean talka egin espazio horiek. Gainera, jarrera anibalentea adierazten dute, bazterketarekin jarraitzea egokia den edo ez dudan jartzen dute eta ez daude bazterketaren alde. Hori nabarmentzen da batzarretan, elkartekide batzuek eremu desberdinetan emakumeek parte hartzea proposatzen dute (azken ekarpenean ikusten den bezala), batik bat mugak mutur-muturrekoak badira.

*Zuk uste duzu normala dela gutxienez sei gizon joan behar izatea emakume bat sartu ahal izateko?* (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).

Elkarte gastronomikoetan dauden jarrera horiek aldaketa-zeinu gisa uler daitezke, nahiz eta guztiz bat ez etorri berdintasunezko elkarte batean lortu nahi dituzten aukerekin.

*Agian, pentsatu behar da soziedadeetan gertatzen ari dena gizarteko sektore zabalenetan gertatzen ari diren aldaketen erantzuna dela. Orduan, batzuk, esan dezagun, aurretik doaz, dagoeneko soziedade mistoak egiten dituzte; beste batzuk, emakumeak sartzen uzten hasi dira, beste batzuk, ba agian... Eta gero burugogorrek daude. Beno, aldaketetan pentsatzerakoan baita ere, burugogorren kontu hori Berdintasunaren Legearen kontra doa, baina agian, besteak tarteko pausoak izan daitezke* (Teresa del Valle).

Genero-harremanetan gizartean izandako aldaketek elkarte gastronomikoak bultzatu dituzte pixkanaka aldaketak barne hartzera eta, horri esker, emakumeak gero eta aukera gehiago dute

horietara sartzeko. Elkarte batzuetan elkartekide izan daitezke, baina beste batzuetan estrategiak erabili dituzte eta mugatuta eta araututa dute emakumeek sarrera, egunak, orduegiak, baldintzak eta espazio-mugak ezarri baitituzte elkarteetan. Datei dagokienez, permisibitate-maila desberdinak daude, besteak beste, emakumeak urtean behin soilik sartzten uzten dituztenak eta astean behin gizonentzako egun bat erreserbatzen dutenak.

*Gurea tipikoa den bakarra da ikusten dudanagatik. Gurean, ez ditugu emakumeak inoiz sartzten uzten, 20an sartzten dira bakarrik, 00:00etatik, 19an ez, 20an 00:00etan zabaltzen da atea eta egun horretan sartzten uzten zaie, baina soilik dantzaldia dagoelako, parranda pixka bat, baina ez dute ez afaltzen, ez gosaltzen ez ezer. Niri hori oso ongi iruditzen zait (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

*G.-n uste dut Santo Tomas egunean bakarrik sartzten direla (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

*Soziedadean, nirean, emakumeak ezin dira sartu, 3 egunetan izan ezik, eta zoritxarrez batean hurrekin sar daitezke, mundu guztiak egiten du gizonak bakarrik egoteko leku baten alde. Nahiz eta egun batzuetan bakarrik izan, gure gauzez eta hitz egiteko eta partidatxo bat botatzeko (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Kasu batzuetan, emakumeak ordu jakin bat arte sar daitezke, baina horrek egoera ez-erosoak sortzen ditu baita ere, berdintasunezko elkarteko emakume-kide honi gertatzen zaion moduan; elkarte batera gonbidatu zuten, emakumeak arratsaldeko seiak arte soilik egon daitezkeen batera:

*Bai, guk joan egin behar genuen, eta senar-emazte piloak geunden jaten hurrekin eta seiak laurden gutxiagotan guztiok presaka. Joe, beldurra eta guzti ematen zuen! 'Gu hemendik botatzen hasi behar dute, goazen edo...?' Okerragoa da oraindik, gogorra da. (...). Noski, gizon gaixoak ez zuen ezer esaten, baina nik ikusten nuen esanez 'ai ama! nola esango diet alde egiteko?' Eta guztiok alde egin genuen, tipoak gonbidatu zigunez, ba joan egin ginen. Baina okerragoa da oraindik, enbarazua sortzen du, niri behintzat oso bortitza iruditu zitzaidan (berdintasunezko elkartean elkarrizketa-taldeko emakumea).*

Beste batzuk permisiboagoak dira, baina esanahi berezi bat izaten jarraitzen dute ezartzen dituzten

mugek, batez ere emakumeak sartu ezin daitezkeen egunean zer gertatzen den aztertzen denean, adibidez “elkartekidearen egunean” edo “gizonaren egunean”.

*Gauzak ikusteko modu baten azken gotorlekua da: egun batean adibidez, elkartekidearen egunean, estatistika bat egin genuen eta elkartekide bat elkartekide ez diren bost lagunekin joan zen, orduan ez da elkartekidearen eguna, gizonaren eguna da. Egundorretan ez zaie emakumeei sartzen uzten; ez esan elkartekidearen eguna denik, hitz egin dezagun argi, gizonaren eguna da; ez dute emakumerik nahi egundorretan, gurean gizonaren eguna da, bai, eta hala deitu behar zaio. Gauzak argi eta garbi esan behar dira, orduan hor ezkutuko eztabaida bat dago (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Bai emakumeak elkartetara sar daitezkeen egunak, bai espazio espezifikoak, sukaldea kasu, mugekin murrizten dira, arestian aipatutako ekarpenetan ikus daitezkeen moduan. Elkarrizketatutako emakume batzuek elkarre askok arau hori aplikatzeko duten modu zorrotza aipatzen dute.

*Ni duela gutxi Altzako soziedade batera joan nintzen, baina ez nekien ezin zela sartu, ezta emakume-elkartekide izan ere. Ni, sukaldea berria zenez, a zer inozentea naizen, sartu egin nintzen sukaldera ikusteko. Bota egin ninduten! Han zegoen tontolapiko batek, ez zegoelako jenderik, bera bakarrik zegoen. Eta nire elkartekide zen nire lagunak, sukaldea berria zenez, esan zidan ‘begira etorri, etorri ikustera, begira ze polita geratu den’, ‘huy, ba bai’ eta horrela. Eta tipoa etorri zen eta esan zidan ‘aizu, zer dabil hemen emakume bat? ezin du hemen egon’.*

*Nire anaiarenean, bueno!, ezta ere. Guztiz debekatuta, zapaldu ere ez (berdintasunezko elkartearen elkarrizketa-taldeko emakumeak).*

Sukaldea ia beti emakumeentzako leku debekatua izan arren, beste muga batzuk ere izaten dira, prestigiozko klub bilbotarrekoa adibidez; klubean hitzartuta dago emakumeak zein tokitan sar daitezkeen eta zein toki dituzten debekatuta.

*Orduan, hari beretik, emakumeekin, momentuz estatutuek diote (elkartekideak) gizonak direla, elkartekideek hala nahi dutelako eta gertatzen dena da emakumeak, elkartekideen emazteak eta alargunak, hau da, elkartekidea hiltzen bada eta pertsona hori elkartekidea bazen, haren emaztea,*

*bizi guztirako, elkartekide gisa errekonozitzen da, elkartekidearen emaztea errekonozitzen den moduan, eta klubaren zerbitzuen, ba, ehuneko bat esatearren, zerbitzuen % 80 erabil dezakete: jatetxea erabil dezakete, areto pribatuak, taberna ingelesa, karten aretoa... Zerbitzu horiek erabil ditzakete eta ez dute inolako kuotarik ordaintzen, baina gaur egun ezin dute elkartekide izan, momentu honetan ez (gizonen klubeko elkartekidea, Bilbo).*

Bereziki adierazgarria da sukaldean sartzeko edo hura zapaltzeko debekua, kontuan hartzen bada jarduera garrantzitsuena eta elkarteen nortasuna gehien adierazten duen espazioa dela. Era berean, interesgarria da emakumeak errazen identifikatu daitezkeen espazioa izatea, hain zuzen ere, debekatua dagoena. Gogoeta egiten da hemen sukaldearen esanahi berriari buruz; gizonen espazioa izatearen ideia, emakumeak sartuz gero, zalantzan jartzen baita, baita ere etxeko sukaldearen (emakumearena) eta elkarteenaren (gizonarena) arteko funtsezko banaketa.

Espazio-denbora muga horiekin ez da adierazten gizonen elkarreak espazio *guztiz* anakronikoak direnik; aitzitik, zalantzan jartzen den ordena sozial baten adierazpena dira, gaur egun dagoena eta sexuen hierarkizazio bat ezaugarri duena. Ez da kasualitate hutsa gatazka espazioen inguruan sortzea; berez, tratu-berdintasunaren oinarriko eskubidearen berdintasun erreal eta eragin korrekarako prozesuak gainditu behar dituen erronka da emakumeak oraindik sartu ezin daitezkeen espazio eta/eremuetan egotea. Hori botere sozial eta ekonomikoaren eremuetan aplikatzeaz gainera (politikan, enpresan, etab. –“kristalezko sabaia” deritzona gainditzeko–), maila sinbolikoan ere ezar daiteke.

Emakumeak sukaldara sartzearen aurkako erresistentzia uler daiteke emakumeak elkarre gastronomikoetan espazio berriak okupatzearen aurkako erresistentzia bezala.

*Aldaketaren erritmoak eta aldaketarekiko erresistentziaren adibideak bezala dira, nolabait esateko. Noski, unibertsitatean zaudenean ere ikusten duzu lanpostu bat lortzeko zango trabak jartzen dizkizutela edo katedra edo titularitatea edo dena delakoa lortzeko, berdin. Agian, ez duzu hain argi ikusten hori, baina han gertatzen ari denaren antzekoa da. Orduan, nik uste dut gertatzen ari dena emakumeak antzeko espazioak okupatzen joatearen aurkako itzulginguruak eta erresistentzia direla... ez gizon edo emakume izatean oinarrituta, baizik eta gaitasun eta prestakuntzan oinarritu beharko litzateke (Teresa del Valle).*

Beste kasu batzuetan, elkarre gastronomiko batzuek emakumeen parte-hartzeari dagokionez inposatzen dituzten mugek eragina izaten dute ekitaldi sinbolikoetan, adibidez, San Sebastian eguneko bandera igoeran, danborradetan edo festetako beste jarduera batzuetan. Aurreko

ataletan ikusi dugu zer nolako garrantzia duten elkarte gastronomikoek komunitatearentzako hain garrantzitsuak diren horrelako ekitaldietan. Ildo horretatik, txosten honetan adierazten da emakumeek elkarteetan parte hartzeko duten muga ez dela behin gertatutako kontua, eta ondorioak ez dira falta, balio sozial handiko eremuan izaera maskulinoari eusten baitzaio eta garrantzi sozialeko eta prestigiozko ekintzetatik emakumeak urrun mantentzen baitira.

Nahiz eta danborradetan emakumeen parte-hartzea normalizatuta izan, gatazkak sortzen dira, adibidez, danborradetan, emakumeak barne hartzen direlako. Gaur egun, lehendakari batzuek dimisioa aurkeztu dute, batzarrak danborradan emakumeak sartzea onartu duelako.

*Hor gatazka bat izan da, hain zuzen ere, ni etorri naiz lehendakari berriari ezin izan diodalako abisatu, baina ni noski, nik esan nuen, danborrada mistoa bada dimisioa aurkeztuko dut, eta dimititu egin dut eta kargua utzi berri dut nolabait esateko (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

*Guk, danborradari buruz, eskerrak Jaunari, oraindik inork ez du ezer esan eta gizonetzkoena bakarrik izaten jarraitzen du, K.-n oraindik zera gara... Horregatik esaten dizut jende gaztea izan dela. Beno, kantinerak izan ezik, joer bai. Bai, gaur oraindik K elkarteak gizonena izaten jarraitzen du. Gurean ere bozketa egin zen duela hiru bat urte emakumeen kontuagatik..., danborradarako, bai, eta galdu egin zuten.*

*Ba, begira, zortea izan zenuten (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizonak).*

Azpimarratu behar da Gaztelubide elkarte gastronomikoak hasiera bateko danborradaren tradizioa alde batera utzi duela, lehen Alde Zaharreko gizon eta emakumeak ziren protagonistak, baina orain gizonetzkoena da bakarrik. Prentsa-artikulu honetan hala deskribatzen da festaren jatorria: “Ez dago argi zein den festaren jatorria. Gehien zabaldu den bertsioak dio modu espontaneoan sortu zela, koxkeroen ekimenari esker. Diotenez, 1836. urteko San Sebastian egunaren bezperan –armada karlistak plaza blokeatuta zuenean– San Vicenteko iturri publikoan okinak, arrain-saltzaileak, urketariak, etxeoandreak eta langileak orokorrean bilduta zeudenean, gaupasero eta parranderoekin batera, modu espontaneoan laneko lanabesekin egindako barril inprobisatuekin burla eginez, goizero bezala Urgulleko gazteluaren harresira joaten ziren guardien erreleboak imitatzen hasi ziren”. (El Mundo, 08-01-14; [www.noticiasdegipuzkoa.com/ediciones/2008/01/14/vecinos/donostia-auzoak/d14don26.883172.php](http://www.noticiasdegipuzkoa.com/ediciones/2008/01/14/vecinos/donostia-auzoak/d14don26.883172.php) (08-12-30ean egin zen bisita).

Emakumeak momentu garrantzitsuetan eta sinbolikoetan baztertzea, hala nola bandera igoeran edo jaitsieran, era berean, ekitaldi horietan gizon-izaerak inplikatzeko eta mantentzen duen protagonismotik

emakumeak at uzteko modua da. Hala, galdetu dezakegu ea euren presentziak ekitaldia hutsaltzen duen eta ea ekitaldiak duen esanahia gizonak egiten badute soilik mantentzeko.

Hurrengo galdera hau litzateke: esanahi aldaketa zer da, ekitaldiari dagokiona edo boterezko eta prestigiozko elementuak behar dituen nortasun maskulinoari dagokiona, emakumeek nortasun hori ez hutsaltzeko? Elkarte bateko lehendakari ohi eta emakume-elkartekidea denak emandako deskribapena oso argia da; bere auzoan bandera igoeran baztertua nola izan zen azaltzen du:

*Danborrada atera zenean, ba soziedade batek bandera igo eta beste batek jaitsi egiten zuen eta guri tokatzen zitzaigun eta esan genuen, ba, soziedade bat ginenez hori egin nahi genuela. Orduan, egin genuen urte batean, ba logikoa dena, gutxi gorabehera akordio batera iritsi ginen, bat igo egin zen, besteak bandera igo, baina bien artean zen beti, bai? Orduan, kasu triste bat gertatu zen, bigarren edo hirugarren urtean gutxi gorabehera, ba, lehendakari aukeratu ninduten, orduan, San Sebastian gauean ikurrina igotzera joan nintzen, baina ezin izan nuen igo ez zidatelako utzi (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, Donostia).*

Baina emakumeak ere adierazten dituzten festa eta errituetatik baztertzeak esan nahi duenaren interpretazio argi bat izateko, kontuan izan behar da festek ordena soziala eszenaratzeko funtzioa dutela, baita festen alderdirik iraultzaileenean ere, adibidez inauterietan edo rolak trukatzeko direnean. Revelen ustez “*sexu-rolen trukea zera da, gizarteak nola funtzionatzen duen publikoki adierazteko baliabidea, egia kolektiboa adierazteko, baina alderantziz azalduz*” (1984, Julianok esana 2001:111).

Hari beretik, emakumeen bazterketa ez da gizarte-protagonismo jakin batetik urruntzeko modua soilik, gauzen ordena legeztatze modua ere bada, ekitaldi horietan, eta beraz ordena sozialean, emakumeek mendeko posizio bat okupatzen dutela legeztatze modua. Emakumeen agerraldiak mugatuta daude, murriztuta eta kontrolatuta, garai batean danborrada donostiarretan gertatzen zen bezala, eta gaur egun ere nolabait ere horrek horrela jarraitzen du, ez duelako emakumeen protagonismoa gizonen dutenaren baliokidea izaten jarraitzen. Ildo horretatik, eta kontuan izanda danborra, alarde eta desfile askotan agertzen den kantineraren irudia, ikus daiteke emakumearen papera, murriztuta egotez gainera, guttiz pasiboa dela eta jarduera-aukera txiki-txikia dutela emakumeek. Julioanok dioenez, “*emakumeari eskatzen zaion jarrera hau da: arauak obeditzea eta indibidualki eta modu pasiboan miresten-objektu gisa eskaintzea, beste jarduera oro desegokiak liratekeen (...) eremu batean*” (2001:118).

Halaber, emakumeek danborrak jotzeari dagokionez jasotzen duten ezeztapenak gogorarazten du

instrumentu eta tresna jakin batzuetara hurbiltzeari eta horiekin kontaktuan izateari talde askok izaten duten tabua, kontuan izanda tresna horiek gizonei kontrolatzeko pribilegioak ematen dizkietela, ekoizpen-baliabideetarako onurak, prestigiozko baliabide sinbolikoetarako onurak eta, emakumeak ukituz gero, araztu egin behar direla (Herdt 1981).

Bitxia da, baita ere, askok erresistentzia jarrera izatea, gizonen gotorleku baten aurka aurrez-aurreko eraso gisa ulertzen dutenaren aurrean. Berez, askotan hitz egiten dute emakumeen eta gizonen arteko botere-lehiari buruz, tarta batean batzuek eta besteek zati bat eramatea bezala, baina gerra-ospila balitz bezala ia, edo posizioak galtzen ariko balira bezala.

*- Baina, ikus dezagun, soziedade honetan botere-organo guztiak, administrazio-kontseiluko emakume-lehendakariak, emakume-ministroak... Baina toki guztietan daude-eta! Nik zera esaten diet nire neskalagunei: 'hor zaudete prestatuago zaudetelako, ikastun hobeak zaretelako... botere-organo guztietara iristen ari zarete'. 40 edo 50 urteren barruan hau (elkarte gastronomikoak) pikutara joango da.*

*- Gu ez gara haserretuko klausurako komentuetara sartzen uzten ez gaituztelako.*

*- Gainera, leku pribatua da. Jabeak...*

*- Nire aitonak esaten zuen, eta bizi guztian gogoratuko dut, Amezketan, bere belaunetan esertzen nintzenean (seme nagusia naizelako eta horrelako gauzak izugarri mantentzen dira), zera esaten zidan: 'mundua amaitu egingo da boterea duten emakumeak lurrian daudenean eta gizonak, kikilduta, zuhaitzetan'. Ni enborrean jada banago, zeren kikilduta behintzat banago (elkarte murriztaileen elkarriketa-taldeko gizona).*

*- Zure etxean ez zara nagusia ala?*

*- Ez etxean, ez emakume bat dagoen inongo etxetan (elkarte murriztaileko gizon-kidea, Donostia).*

Banaketaren zentzuari dagokionez, adierazi behar da genero-nortasun bat (gizona izatea) ez dela ezartzen beste baten (emakumea izatea) gainetik, harreman simetrikoa duten bi poloen antzera; aldiz, nortasun horrek posizio bat du hierarkizatutako gizarte batean, non maskulinoa denari femeninoa den horretatik beste balorazio bat eman ohi baitzaio, non gizona izateak pribilegio eta prestigio gehiago ematen baitu.

Femeninoa denaren devaluazio horrek are gehiago inposatzen du gizonen espazioak emakumeekin duen lotura oro desagerrarazteko beharra, horiek ere devaluatu egiten dituelako. Elkarrizketatutako gizon batzuen ekarpenetan, kezka hauteman da emakumeak elkarteetan sartzeak eragiten dituen ondorio kaltegarrien aurrean; horretarako ezaugarri negatiboak ezarri dizkiete emakumeei, orokortze iraingarriak erabiliz, eta horrek kezka adierazten du gizartean ezagutzen diren eta maskulinoa denari lotuta dauden baloreak ustez galdu daitezkeelako.

lido horretatik hau da egin beharreko galdera: zer galtzen da emakumeek elkarte gastronomikoetan edo protagonista diren ekitaldi publikoetan parte hartzen dutenean? Espazio eta ekitaldien esentzian zer aldatzen den galdetzeaz gainera, jakin behar da ea zer aldatzen den maskulinitasuna, feminitatea eta sexuen arteko harremana definitzean. Aspektu horiek guztiak, zalantzarik gabe, elkarri lotuta daude.

Azaldu da gizona izatea botere- eta prestigio-harremanak izateagatik definitzen dela, eta maskulinoa dena femeninoa denari kontra eginez sortzen dela; horretarako, emakumeak banatu eta bereizi egin behar dira. Adierazgarria da tradizioz emakumeenak ziren ezagutza-eremuak gizonenak hartzean gertatu dena: lehen pribilegio eta balio sozialik ez zuten ezagutzak (hain zuzen ere emakumeenak direlako) prestigio-iturri bihurtu dira, eta balio ekonomiko handia dute gainera. Ohiko adibideak hauek dira: joskintza, ile-apainketa eta, nola ez, sukaldaritza, egun moda, estilismoa eta gastronomia bihurtu dena.

Baina, ezagutza batek nola lortzen du prestigioa, ezagutzak berez gizonenak direlako edo ezagutzak prestigioa lortzeko modu batez erabiltzen dituztelako? Hari beretik, Teresa del Valleko ekoizpen-mekanismoen kontrolaren garrantzia azpimarratzen du.

*Nik uste dut bigarrenaren alde egingo nukeela. (...). Aldaketa horiek egiteko gai diren emakumeak ditugu. Niri iruditzen zait, ba, beno, agian, ekoizpen-mekanismoen kontrola den horretan kokatu behar garela. Gizonak luze izan dira guztiaren buru, gu baino askoz gehiago, (...) emakumeek beste hasiera-puntu bat izan dugulako. Orduan, nik uste dut ohitura gehiago izan dutela aldaketa horiek prozesu emankorretan egiten (...). Baina hori hala izan zen ekoizpen-sistema horiek ere kontrolatzen zituztelako (Teresa del Valle).*

Janaria prestatzeari dagokionez, emakumeek eta gizonenak testuinguru desberdinetan egiten dutenez, ekintzak berak esanahi desberdinak izango ditu baterako eta besterako. Hemen jakintza baten esanahi berria interesatzen zaigu. Janariak eta prestakuntzak esanahi hori izateko, etxeko janaria, emakumeek egiten duten eguneroko jana, ulertzeko modua beste era batean ulertu behar da. Hori gertatzen da, adibidez, egun seinalatuetan gizon batzuek janaria prestatzen dutenean

bazkari berezietarako, eta elkarterako. Elkarreak gai dira ohiz emakumeena den jarduera bat, janaria prestatzea adibidez, guztiz gizonena egiteko, eta horretarako balioa eta esanahia aldatzen zaio jarduerari. Espazioan batetik bestera aldatzea nahikoa da esanahi berria izateko, baina baita praktika bera aldatuz eta ezaugarriak gehituz ere gizonezkoena dela esateko (denbora gehiago prestakuntzan, arreta gehiago, produktu bereziak eta kalitate handiagokoak, mahaikide zorrotzentzako prestatutako janaria, jabetxeetako antzeko sukalde batean prestatua –hau da, profesionala–, etab.) Datu bitxi gisa, esan behar da elkarte murriztaileetako gizon batzuk kexu direla emakumeak ez dakitelako elkartean janaria prestatzen, izan ere, etxean eta elkartean prestatzea desberdina baita, beste trebetasun batzuk behar dira. Berez, aldaketa eta esanahi berri hori dela-eta, “janaria prestatzea” ez da emakumeen jarduera (beraz iraingarria) gisa ulertzen; aitzitik, guztiz kontrakoa da. Hori da distantzia ezartzeko beste modu bat.

*Tontakeri bat esan behar dut, baina uste dut euskal sukaldarien tradizioa sortzen dela... agian, tontakeria da, baina nik Juan Marirekin (Arzak) honela esaten nuen: Gipuzkoan janaria gizonen prestatzea, soziedadean izan garenez, ez zen gaizki ikusia, ongi ikusia zen. Zeren etxean prestatzen zenuen janaria, beno, soziedadean, eta egunen batean etxean prestatzen zenuen janaria, jaunartzeetarako eta, garai hartan etxean ospatzen baitziren, ez genuelako xentimorik. Beraz, gizonak janaria prestatzea ontzat hartzen zen. Azti, oso ongi ikusia zen, baina adibidez Amezketan prestatzen bazenuen janaria, marikoia zinen. Ez zegoelako soziedaderik. Agian ergelkeria hutsa da, baina Cordoban tipo batek ere ez zuen jana prestatzen bere bizi guztian. Zerikusia izango du, ezta? Ba, bai, nolabaiteko zerikusia du. Segun. Juan Mariren etxean, Arzak zegoenean: ‘nire semeak sukaldari izan behar du’. Eta inori ez zitzaion bururatu pentsatzea: ‘Juan Mari marikoia da’. Orduan, hori guztia kontuan izan behar da, edo? (elkate murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Hori posible da, aldaketa eta erritu jakin batzuen bidez, janaria prestatzeari esanahi berria eman zaiolako, emakumeenak edo feminizatzaileak uler zitezkeen elementuak urrunarazi direlako. Bada, janaria prestatzeko modu berria maskulinitasunarekin bat etortzeaz gainera, nortasun maskulinoa birsortzean baliozko elementu bat izatera irits daiteke, baita naturalizazio objektu bat ere. Hau da, gizonen trebetasun “naturala” dela ulertzea irits gaitezke. Agian, elkarte gastronomikoak, batik batik bat gizonezkoenak, ez lirakeke existituko bereizketa eta distantzia hori egongo ez balitz.

*- Bai, ni ados egongo nintzateke horrekin. Bai, logika bat duela iruditzen zait. Bai, izan ere gainera, hor ikasi eta erritu bihurtu da eta balio hori hor eman zaio, zeren bestela ez zuen halakorik izango*

*soziedadeengatik izango ez balitz.*

*- Gizonei eskuragarri egiten zaien beste balio bat ematen zaio. Ezta?*

*- Noski. Merkatuan gizonena ere baden jakintza baten gisa ezartzen da. Eta orain imajinatu, orain jada naturalizatzen ari da, ikusiko duzu. Orain interesgarria izango da ikustea zein momentutan ageri den jada elementu naturalizatzaile gisa (Teresa del Valle).*

Emakumeen presentzia hutsa espazioen eta ekitaldien ezaugarri den esentziaren galbide gisa interpretatzen da. Deigarria da elkarte gastronomiko batzuetan dagoen debeku zorrotz-zorrotz hori, emakumeek sukaldea “zapaldu” ahal izateari eta izaera publikoko ekitaldi sinbolikoetan parte hartzeko duten posizioari dagokionez. Aurretik esan bezala, kultura askoren tabuetan pentsarazten du; emakumeek gizonen etxera sartu edo hurbiltzeko debekua dute, gizonen erritu-espazioetara sartu edo instrumentu eta tresna batzuk jo edo ukitzeko, kasu askotan, horrelakorik gertatzean arazketa-errituak egin behar baitira.

Zalantzarik gabe, elkarteak, sukaldeak edo erritu-izaerako ekitaldi publiko batzuek, aipatu gizonen espazioekin, ezaugarri batzuk konpartitzen dituztela dirudi. Emakumeak tartean izateak elkartearen izaera hutsaltzen du eta, horren ondorioz, baita emakumeen eta gizonen, femeninoa denaren eta maskulinoa denaren arteko banaketa egiten duten mekanismoena ere; horiek direla medio, nortasun maskulino desberdina sortzeko balio duten funtsezko baliabideak ahuldu egiten dira. Arrazoi horrexegatik baita ere, prestigioa eta boterearekin duen lotura galtzen da, eta hori dela-eta, maskulinoa denarekin lotura lausoa bihurtzen. Emakumeak barne hartzeak elkarte gastronomikoak etxe bihurtzea eragiten du eta, beraz, lehengoaren esanahi guztiak galtzen dira, etxeko espazio femeninoarekiko baliokidea den espazioa bihurtzen baita, desberdintasuna desagertzen baita.

*Ba, (emakumeak baleude) etxean egotea bezala izango litzateke. Zuk etxean bizimodu bat baduzu, soziedadera joaten zarenean bizimodu bera izango zenuke, zeren, emakumeak janaria prestatu ahal izango balu, agindu, ez dakit zera egin ahal badu... egin egingo du eta. Etxean ez, etxean emakumeak dioena egiten da, soziedadean gizonak dioena (elkarte murriztaileko gizon-kidea, Donostia).*

Puntu honetan interesgarria izango litzateke Amorósen ideia aztertzea: berdinen espazioa eta emakume berdinen espazioaren arteko desberdintasuna; horri esker ulertuko dugu espazio maskulino horietara emakumeak barne hartzeak zein punturaino hutsaldu ditzakeen espazioak.

Berdinen espazioa botereari dago lotuta, itunak ezartzen diren lekua baita. Amorósen hitzetan (1994) “boterea potentzia gisa, ekiteko eta bermatzeko gaitasun gisa, berdinen taldeetan egiten diren itunen bidez sortzen da”. Itun horiek bereiz daitezkeen pertsonen artean egiten dira, euren artean banatzeko zerbait dutenen artean, elkarrekikotasun loturak ezartzen dituztenen artean; indibiduo autonomoak dira, espezifikoak, ezaugarri pertsonalak dituztenak eta euren artean berdin gisa errekonozitzen direnak. Pertsona horiek berdinen espazioa osatzen dute. Emakume berdin-berdinen espazioa, berriz, desberdinu ez diren pertsonak osatzen dute, “anomia eta itzulgarritasuna” dutenak ezaugarri; hau da, ez dituzte arauak eta euren osagarriak euren artean truka ditzakete, ez dute nortasun bereizirik, ez boteririk, trukatzeko ezer ez dute eta, beraz, elkarrekikotasun-gaitasunik ere ez.

Amorósen ustetan, bereizketa hori espazio publikoaren eta pribatuaren banaketatik dator, lehengoa berdinen artean biltzeko tokia izaki eta bigarrena, berriz, emakume berdin-berdinena. Espazio publikoak errekonozimendu bat du eta nortasunak ezartzen dira bertan; hortaz, baldintza bat litzateke indibidualizaziorako. Halaber, espazio horretan jarduerak ebaluatu egin daitezke, konparatu, egiaztatu eta, beraz, baloratu. Hala ere, espazio pribatuan ez dago “*elkarren artean banatzeko funtsezko ezer, botereari dagokionez, prestigioari dagokionez, edo errekonozimenduari dagokionez*” (Amorós, 2001:26). Desberdintasunak definitzeko parametririk ez dagoenez, ez dago bereizteko aukerarik eta, beraz, ezta indibidualizaziorako biderik ere.

Hari beretik, elkarriketatu askok etxeari etengabe egiten dizkioten erreferentziak garrantzitsuak dira; etxea emakumeen lekua omen da eta, horretatik bereizteko, elkarteak definitzean hori izaten dute oinarri. Jasotako azken ekarpenean, esplizituki nabarmentzen da bi espazioak parekatzeak sortzen duen kezka: elkartea eta etxea, alegia; desberdintasunaren amaiera izango bailitzateke, baita elkartearen nortasunaren amaiera ere, etxearekin konparatzean eta kontrajartzean sortzen delako nortasuna.

Bada, elkartea eta etxea parekatzean edo desberdintzean, era berean, gizonak eta emakumeak parekatzen edo desberdintzen ari gara. Bereizketa hori bereziki da garrantzitsua, kontuan hartzen bada sukaldeak esanahi bat baino gehiago izan dezakeela. Hau da, ez da horrelako gogorik eta zorrotasunik izango jatorria zalantzan jartzen ez den eremuetan eta ez dago kontaktu-punturik, muga lausorik, bi eremuen artean identifikazioaren bat sor baitaiteke. Tradizioaren arabera femeninoa den jakintza eta eremua izaki, beharrezkoa da, beste kasu batzuetan, mugak argi uztea, alde bateko eta besteko esanahia argi eta garbi mugatuta egoteko eta maskulinoa dena emakumeen elementuen presentziaz zikinduta ez geratzeko. Beraz, bitxia da hain zuzen ere sukaldea izatea zorrotz-zorrotz mugatzen dena, kontuan izaten badugu eltzetza, suak, tresnak, emakumeen kontaktutik urruntzen direla.

Indar handiko dimentsio sinboliko oso bat dago hemen, eremu jakin batzuetan aldaketa eta

emakumeen barne-hartze normalizatua oztopatzen duena. Maila sinboliko hori aldatzen ez den bitartean, zaila izango da paradigma-aldaketa onartzea.

*Hau guztia ikusten joateko gai ez garen bitartean, zaila izango da baita ere hainbat mailatan gertatuko diren aldaketak ulertzea, eta dekretu bidez egindako aldaketak ez ditu zertan gauzak berez aldatu. Honek guztiak erreferente garrantzitsu gisa jada funtzionatzen ez duenean iritsiko da unea aldaketak jada ezartzeko moduan nahiko sakonak direla esateko (Teresa del Valle).*

Elkarte gastronomikoen beste ezaugarri bat dute, aztertzea interesgarria dena eta nortasun maskulinoan garrantzia duena. Elkarte horiek zenbait praktika egiteko espazio bat dira, nortasun maskulinoa birsortu eta mantentzeko. Aspektu hori funtsezkoa da, kontuan izanda genero-nortasunaren oinarria, neurri handi batean, nortasun femeninora edo maskulinora etengabe eta modu errepikakorrean adskribatzeko praktika batzuk behin eta berriz egitean datzala (Connell 1995; Butler 2006).

Elkarte gastronomikoetan zenbat balio goratu egiten dira; euskal elkarteetan gizon izatearen ezaugarriak direla ulertzen diren praktika batzuen bidez eszenifikatzen dira balio horiek. Horretarako, gai horri buruzko analisi bat egin beharko litzateke, baina ikerketa honetan ez dago nahikoa leerro. Hala ere, ez da zaila horietako ezaugarri batzuk identifikatzea, euskaldun izateari lotuta baitaude asko eta asko, nahiz eta generikoen moduan (emakume eta gizonei aplikagarriak) ulertzeko zailtasun batzuk izan; praktikan, gainera maskulinoa denari gehiago lotzen zaizkio. Egindako elkarrizketetan, balio horiek adierazten dira, bai horiek zuzenean aipatuz (eta elkarte gastronomikoen ezaugarri bezala ulertzen direnak), bai kontraste bidez bereziki, eta elkarrizketatutako batzuen arabera, emakumeen ezaugarriak direnekin desberdinduz.

Ezaugarri eta balio horiek, era berean, euskaldunenak eta elkarte gastronomikoetakoak direla uste da, eta azken horiek lehenengoaren laburpena direla. Ildo horretatik, elkarte gastronomikoak ezaugarri eta balio horiek sortzen diren eszenatoki gisa uler daitezke, zentzurik hertsienean, izan ere, espazio autonomo eta desberdindu batean adierazten baitira, euren arauak zuzentzen duten espazioa eta, beraz, ordena ideala birsortzea posible den espazioa.

Hari beretik, Ramirezek koadrilen inguruan egiten duen analisia (beti gizonezkoenak) elkarte gastronomikoetara aplikatu daiteke, bereziki kontuan hartzen bada egileak azken horiek “lehenengoan antolaketa-zehaztasuna” direla uste duela: “*inguru horretan (koadrilan) komunitatearen balio eta pauso ugari bizitzen dira, hala nola: ‘maskulinoa denaren’ eremu jakin batzuetatik emakumea banantzea; taldekoa dena harreman-eredu gisa ulertzea; adiskidetasuna elkarren arteko betebeharren sistema*

*gisa; kalea espazio sozial publiko nagusi gisa, baina anonimoa ez dena, koadrilek euren idiosinkrasia berezia praktikatu eta inprimatu baitezakete komunitate-espazio oso zehatz batzuetan; festa taldearen funtsezko adierazpen gisa; herri-kirolak nortasun-ezaugarri gisa, etab., etab. (...) koadrilak, beraren eta antolaketa-zehaztasun guztien bidez (peñak, elkarteak, etab.), pertsonaren tokiko barne-hartzea errazten du, eta hortaz nortasun propioa sortzen du, eta horren ondorioz, pertsona hori modu pribilegiatuan biziko da bere komunitatearen inguruan” (1984:218).*

“Izaera nazionalaren” eta maskulinitasuna izan daitekeenaren arteko lotura hainbat testuingurutan aztertu da (Guttman, 1997); bada, nazio baten nortasun-ezaugarri jakin batzuk estuki lotuta agertzen dira “gizona izatea” ezartzen duen gizarte batean ezartzen denarekin. Ildo horretatik, bi kategoria identifikatu dira, euskaldun eta gizona izatea definitzen dituzten ezaugarri batzuekin.

Alde batetik, berdintzasuna deritzonari erreferentzia egiten diotenak daude. Hemen izango lirateke euskal gizartearen ezaugarri propioak, elkarte gastronomikoetakoak eta, neurri handi batean, batik bat gizonenak direla ulertzen direnak; elkarte gastronomiko murriztaileetako elkartekideek esandakoaren arabera, hauek izango lirateke: adiskidetasuna, senidetasuna, elkarte berdintasun-izaera, taldearen balioa, hurkoarenganako konfiantza eta zintzotasuna. Eta bestetik, elkarte gastronomikoak eta gizonak, bizi onarekin lotutako guztia, mahaiaren plazerra, gourmeta, parranda, etab.

Berdintasunazetasuna deritzonari dagokionez, hainbat aipu egin dira elkarrizketetan. Elkarte funtzionamenduaz hitz egiterakoan, adibidez zintzotasuna eta hurkoarenganako konfiantza balioak azpimarratzen dira.

*Zein dira soziedade herrikoi baten ezaugarriak? Ba, lehenik, giltza bat izatea. Titular guztiek, elkartekide guztiek giltza bat dute soziedadera sartzeko, eguneko edo gaueko edozein unetan sartzeko, (...). Bigarrena edari-sotora sartzeko aukera izango litzateke, norberaren zintzotasuna baino kontrol gehiagorik gabe, hau da, zu hara joaten zara, nahi duzuna hartu eta edaten duzu, ez bakarrik edariak, baita olio ere adibidez, ez dakit, ba, kopak, funtsezko elementuak, gatza eta horrelakoak, eta gero orritxoak bete, dirua gutunazal batean sartu eta zera batean sartzen duzu... Eta beno ba, normalean ez dago desfaserik, jendeak nolabaiteko zintzotasunez jokatzeko du hemen eta, beno, hori harrigarria da hona iristen zarenean (...). Harritu egiten du, asko, batik bat atzerritar batekin zatozenean, (...), zeren izugarri harritzen ditu horrek, konfiantza horrek, bai? Britainiar irletan izan bazara, edo Alemanian eta horrela, ba, pub batean jartzen zara eta garagardoa honela jartzen dizute eta eskua horrela, ezta? Ildo horretatik, ez da hemengo tabernetan bezala ordaintzen, amaieran ordaintzen duzu eta hori. Orduan, asko harritzen dituzte horrelako jarrerek (Rafael Aguirre).*

Era berean, taldearena denaren eta erantzukizunaren garrantzia beste ezaugarri baten moduan azpimarratu behar da. Baita ere adierazi behar dira elkartekideen arteko berdintasuna, senidetasuna, “familia baten gisakoa” izatea.

- *Guztiok soziedadean biltzen gara eta ideia kultural, erlijiosoak, politikoak eta abar daude, eta estatutuetan guztiz debekatzen da ika-mikan ibiltzea, guretan behintzat bai, edo politikaz edo erlijioaz hitz egitea.*
- *Gurean ere bai.*
- *Beraz, guztiz debekatuta dago politikaz hitz egitea eta jendeak behar bezala onartzen du, inoiz ez duzu iskanbilarik ikusiko, bat horia, bestea berdea, bestea urdina, baina hil arte lagunak izango dira, baina lagunak. Inoiz ez dute politikaz hitz egingo eta batzuk besteen guztiz kontra daude.*
- *Han zaudela transmititzen den zerbait da eta azkenean soziedadean familia bat sortzen duzu, bakoitza bere... 100, 200, 140 badira ere, baina azkenean, familia bat da, erlijioa edo dena delako beste dilema batzuetan sartu beharrik gabe elkar ulertzen duen familia. Eta horrek poz-pezik sentiarazten zaitu soziedadean eta esaten duzu ‘joe, hemen, taberna batera joan eta liskarrak besterik ez daude’. Han ez: giro ona arnasten da (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizonak).*

Eskuzabaltasuna elkartearen mugetatik haraindi doa, elkarri laguntza ematen baitiote beharrezkoa denean.

- *Baina soziedade batek beste bati zerbait eskatzen dionean, zerbait ukatuko litzaioke? Norbaitek norbaiti zerbait ukatuko lioke? Nik zer dakit, eltzak, materialak...*
- *Nik xehetasun bat dut anekdota moduan. Duela jada urte batzuk, C. elkarreak, uste dut behintzat C.-koak zirela, obra batzuk eta egin zituzten: ‘aizu, utziko diguzue...?’ ‘Hartu, giltza, giltza, giltza eta barrura, obrak dituzuen bitartean’.*
- *A.-koek ere lanak egin dituzte eta...*
- *Gainera, gehiago kontsumitzen zuten... ba, barrura. Dagoeneko bazuten euren soziedade-*

*kultura, ba, barrura.*

- *Eta edozein ekitaldi egiteko laguntza eskatzea, ba modu batean edo bestean jende gehiago behar dutenean edo horrelako gauzak... Inork ez dio soziedade batean beste bati ezetzik emango. (...)*
- *Nik uste dut berdin gertatzen dela ikusten ez dituzun lagunekin, baina benetakoak diren horiekin eta ikustean, ba, moldatu egiten zara (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizonak).*

Horiek ez dira, edo ez lukete izan behar, gizonaren ezaugarriak soilik. Hala ere, gizon batzuen ekarpenen ildotik, suma daiteke ez direla emakumeak definitzeko ezaugarriak, baizik eta guztiz kontrakoak. Txosten honetan azaldu da, elkartekide batzuek emakumeek parte ez hartzeko emandako argudioetan, ez direla balio horiek konpartitzen. Argi eta garbi dago emakumeak elkartean sartzean elkarrekin ez direla elkarrekin izango argudiatzen dutenean: emakumeak gaizki-esaleak direlako, eskuzabaltasun gutxiko izaera dutelako (eltzeak hausten dizkiote elkarri), berdintasun gutxiko izaera dutelako (ez dute gustuko koloreko pertsonak sartzea), arazoak sortzen dituztelako (gatatzak eragiten dituzte), eta izaera traidorea eta berri-ontzia dutelako (batean eta bestean kontaktatzen dute elkartean entzuten dutena), baita “elkarte-kultura” ez dutelako ere, hau da, bereiziki balio horiek ez dituztelako barne hartzen. Horri buruz hitz egiten da elkarrizketa batean; emakumeak, gaur egun, gazteek baino “gaitasun” gehiago dutela elkarteetan egoteko esan arren, behin eta berriz adierazi da horretarako gai ez direla.

*Nik hori uste dut (gazteekin dagoen arazoa), serioagoa da emakumeekin duguna baino, bai, izan ere, emakumeek heziketa gehiago dute eta gazteek, ba... Gertatzen dena da ni optimista naizela, zera, nik uste dut soziedadearen jardura sozialek sozializatu eta irakatsi eta hezi egiten dutela gazteria, hezi ere egiten du bai (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Illo horretatik, gizonen arabera, berdintzaletasun deritzen ezaugarri horiek, gizonen halako idiosinkrasiarenak dirudite eta, beraz, emakumeen kontrakoak dira. Elkarte gastronomikoak funtsezko nortasun-elementu batzuk (euskalduna eta gizona) birsortzen dituzten leku bihurtzen dira.

*Beno, nortasun maskulinoa..., izan ere, nik uste dut hemen, ezagutzak, jarduerak erritu egiten direla esaten duzunean, ba, nik uste dut erritu bihurtzen direla, gero, erreferente gisa erabiltzeko, baita prestigio-elementu gisa... adibidez, jatortasuna. Jatortasuna balio bat da, bai. Orduan,*

*hori da... Edo adibidez zuk esaten zenuena: hitza, zintzotasuna, adiskidetasuna, laguntasuna, kooperatibismoa... Bai, bai, bai, hemen oso oso garrantzitsuak dira nortasun-elementu gisa. Gainera, interesgarria da, zeren, noski, berriz sortu daitekeen nortasuna da, horretarako jarraitu beharreko urratsak dituzulako. Ez da berdin esaten dizutenean: beno, ba, trebetasuna, esan nahi dut, trebetasun zientifikoa. Baina hemen... laguntasuna: horretarako urratsak dituzu umetxoa zarenetik, berriz sor dezakezu. Hurkoarekiko leialtasuna, zintzotasuna... Urratsak dituzu. Gordinagoa izan zaitezke, baina urratsak dituzu, ez da zugandik urrun dagoen zerbait. Orduan, nik uste dut baietz, garrantzitsua dela. Eskolatzea bezala da, sozializazioa da. Horiek egiteko elementu gisa, esango nuke nortasun maskulinoaren elementu propioak direla sozializatu ahal izateko. Zeren, gauza bat da teoria gisa ikustea eta, bestea, praktikan ikustea (Teresa del Valle).*

Elkarte gastronomikoaren eta gizona izatea (eta euskalduna) praktikan jartzearen arteko lotura ere gehiago zehazten da bizizalearen profilararekin, gourmetarenarekin, mahai onaren zalearenarekin, eta horrek, jada, bizi onaren, sukaldaritzaren onaren, ardo onen aditu egiten ditu, besteak beste. Onddo onak dastatzeko lekua da, arrain berezia, txuleta on bat, angulak (kasu gutxitan). Emaitzari buruzko iritzia ematen da, sukaldaria laudorior josten da, arretaz egindako platerak ematen duen plazerra adierazten da. Ohiko elkartekidearen ezaugarriak, hain zuzen ere, trebetasun eta praktika horiek dira, eta zaila da horien artean imajinatzea begetarianoren bat, abstemioren bat edo janariaren plazeraz gozaten ez duenen bat.

Hori guztia gastronomia guztiaren muina izatearekin dago lotuta, jarduera hori sublimea bihurtzen dutelako, ia artistikoa, sukaldariak eta mahaikideak gozarazi egiten dute, batzuk janari apartak prestatuz eta besteak euren ahosabaia emanez. Elkarte bakoitzean, elkartekide bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera egingo dira horrelakoak, baina, hala ere, funtsezko elementua da gastronomia.

Sukaldari onez gainera, elkarteak bizizale onak ere sortzen ditu. Hori ere euskaldunei lotzen zaien irudia da. Gogora ekartzen dira txikiteroak, jan-edanak, janariaren inguruko planak, lagunekin parrandak, etab. Alderdi negatiboagoan daude beti tabernetan edo elkartean daudenak, hiri-kondairak sortzen dituztenak noizean behin.

*Esaten zen hori, senarrari alkondarak (soziedadera) eramaten zizkiotela eta, bi egun zeramatzalako (etxean sartu gabe) (elkarte murriztaileko gizon-kidea, probintzia).*

Aspektu hori “Vaya semanita” bezalako programetan modu estereotipatuan eta umorez beteta

islatzen da, lagun-taldea familiaren eta bikotearen gainetik dagoela, alegia. Ez genuke barrerik egingo interpretatutako egoerak ez balira egoera errealean handitzeak izango. Gizon horien antzezte-irudia izan arren, erreferentzia egiten zaio lagun-taldearen idealizazioari; elkarrizketatu askoren hitzetan ere hautematen da horrelakorik, euren emazteei buruzko mespretxuzko hitzak erabiltzean, kontrolatzaileak direla leporatzean eta lagunekin denbora gehiago egon ahal izateko duten askatasuna mugatzen dutela adieraztean, hain zuzen ere.

*Soziedadeak aurrera egin du, orain ez gara lehen bezala beti zurrutean ari, jada ez gaude gizonok bakarrik hainbeste denbora, jada ez ditugu hainbeste tontakeria esaten, zeren orain emazteak hartu eta esaten dizu: 'aizu, ze demontre ari zara egiten?'* (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).

Bizizalearen ezaugarri horiek argi eta garbi bereizten dira berez emakumeenak diren ezaugarrietatik. Ildo horretatik, elkarteak ez lirateke bat etorriko emakumeen bizimoduarekin, ez dutelako hainbeste edaten, pertsonekin tratatzen, ateratzen, etab.

*Bai, emakumeak saiatu izan dira noizbait soziedaderen bat antolatzen Eibarren, baina ez du funtzionatu, ez, zeren beste pentsatzeko modu bat behar da. Alkohola neurritz kontsumitzen duzue, guk baino askoz gutxiago, zuen zorionerako noski eta... egia da taldean duzuen jarrera oso desberdina dela eta nik uste dut emakumeak, bakartu digresioa, baina askoz ere kultuagoak zaretela. Adibidez, hitzaldi batera joaten zara eta % 80 emakumeak dira, Principera (zinemara) joaten zara, ni bizpahiru aldiz joaten naiz astean, eta emakume-taldeak, han daudenak kontatzen dituzu eta, ba, beti lau zpabost emakume-talde daude, 4-5 pertsonakoak. Imajinatzen duzu lau zpabost gizon batera zinemara joaten, edo hitzaldi batera edo? Beste interes batzuk dituzue. Gizona, ba, futbolera joaten da gehiago, Alde Zaharrera eta txikiteoan ibiltzen da, emakumeak baino sarriago. Beste zera..., bi mundu desberdin dira eta zuek uste dut sanoena hartu duzuela (Rafael Aguirre).*

Egiazta daiteke elkartearen pertsona batzuek ardoa (edo alkohola) ez kontsumitzeak elkartekide batzuei enbarazu egiten diela, alkohola ez edatea idatzita ez dagoen arauren baten kontrakoa balitz bezala.

- *Duela gutxi, soziedadera etorri ginen afaltzera, hona, eta mutiko eta neska bat zeuden kolakao bat edaten. Bikote bat soziedadera kolakao bat edateko? Hemen kopa bat hartzen da edo... baina kolakoa, mesedez. Zur eta lur gelditu nintzen, izututa.*
- *Nik uste dut iradokizun batean ikusi nuela iturriko ura ateratzeko pitxarrak falta zirela. Kaben dio! Baina hona ardoa edatera etortzen da eta!*
- *Gastua egiteko. Iturriko ura edan nahi duzuenean, edalontzi bat hartu (...).*
- *Hemen helduek ardoa bakarrik edaten dugu (elkarte murriztaileko gizon-kideak, probintzia).*

Berez, elkarrizketa-talde batean sortu zen eztabaidetako batean, emakumeen kontsumo-mailari buruz hitz egin zen, eta ustez gutxiago kontsumitze hori emakumeak baztertzeko argudio gisa erabili zen (arrazoi horrek bazterketa justifikatzen ez badu ere). Beraz, kontsumitzearen ustearen aldeko argudioa da, ez elkartera irekitzeari dagokionez esan nahi dezakeenagatik, baizik eta diru-sarrerara gehiago emango luketelako.

- *Ba A.-n emakumeak sartzen direnetik, duela denbora dezente sartu ziren, bizi guztian, ba, diru-kutxa handiak lortu dituzte, nahiko genituzke guk ere horrelakoak! Eta hori emakumeengatik ere bada, eh?!.*
- *Ez dut uste. C.-n urte ugari daramatzagu emakumeak sartzen uzten, urteko 365 egunak, eguneko edozein ordutan eta gutxi kontsumitzen dute.*
- *Ba, nik esango dizut bazkaltzera errazago joango direla emaztearekin, emaztea gabe baino, koadrila askotan gertatzen da hori, batik bat gazteen artean.*
- *Bi bikote joaten bazarete jatera, bi emakume eta bi gizon, emakumeek ura edango dute, ez ordaintzeagatik ez dute argia ere ordaintzen.*
- *M.(-n), lehen ez ziren ostiraletan sartzen, orain bai eta kristoren diru pila biltzen dute. Orain, hori ezin da ukatu eta ikuspuntu egoistatik begiratu behar da, zu baino gehiago dira. Zu ez zara emakumeengatik bakarrik ari, ez, ez, nik guztia hartzen dut kontuan, baina bestela, ba, bestela ere ez daude diru-sarrerak, beraz...*
- *Emakumeek ez dute dirua ematen, K.-n jada bada denbora bat sartzen hasi zirenetik eta ez dute dirua ematen, barkatu esateagatik, baina arazoa da ezin dela funtzionamendua idealizatu (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizonak).*

Dena dela, emakumeak, emazteak, familia ez dira bizizalearen munduan barne hartzen, bai oztopoa direlako, bai ez dituztelako bizizalea identifikatzeko ezaugarriak; hau da, ez dituzte elkarte gastronomiko bateko elkartekidearengandik espero dituzten ezaugarriak.

Emakumeak ere oztopo bat dira bizizale onek elkarteaz gozatzeko orduan, emakumeak ustez kontrolatzaileak eta inhibitzaileak direlako gizonarentzat eta ez lieketelako utziko ezaugarri horiek dituzten jarrerak izaten; bestalde euren maskulinitasunaz ekiteko baliabideetako bat galduko lukete.

- **Elkarte gastronomikoen bilakaera**

1.3.3. ataleko azken epigrafe honetan, elkarte gastronomikoen, emakumeen parte-hartzeari dagokionez, izan duten bilakaerari buruzko ezaugarriak azalduko dira, aldatzen joan diren neurriak, elkarte murriztaileen eta berdintasunezkoen arteko desberdintasunak eta etorkizunerako ikuspegiak.

Elkarte gastronomikoen bilakaerari buruz esan behar da, duela urte gutxi, egunkarietan honako azalpen hauek bezalakoak irakurtzen zirela, elkarte gastronomiko murriztaileenetako batzuetan telefonorik ez egotea azaltzean: *“elkartean telefono bat izaten bada, emazteak behar bezala hezi ez dituztenek, egun osoan izango lukete emaztea telefonoan, edozein ordutan elkarte gastronomikoan; eta hori ulertzeko modukoa da, elkarteetan emakumeen presentzia fisikoa baino okerragoa da”* (Busca, 1975). Edo gizonek ere euren etxeetan noizean behin afaltzeko beharrari buruz: *“eta bazen, bai, gustuko ez nuen zerbait, izan ere, pertsona batzuk harro sentitzen ziren urte guztian zehar etxera afaltzera joaten ez zirelako: eguberri-egunean soilik joaten ziren afaltzera. Etxea kezkatzeko modu batean gutxiesten da. Ez dago zalantzarik, batzuetan badu xarma, batik bat sukaldari ona den emazte batekin ezkontzen denarentzat”* (Egineko eranskina, 1981).

Kontuan hartuz egungo gizartean horrelako azalpenek sortuko lituzketen erreakzioak, ezin da ukatu, emakumeak gizartean duten posizioaren eta genero-harremanen bilakaeraren ondorioz, aldaketa garrantzitsuak gertatu ez direnik, oraindik prozesuan badaude ere.

*Gainera, lehen ere esan dugu bikote gazteez hitz egitean, harremana ez dela berdina. Gu gure emazteekin, ba, zeharo desberdina da. Hogeita hamar urteko bikote batek ez du zerikusirik nirearekin* (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).

Emakumeek ere bizi publikoan guztiz nahi dute parte hartu, beraz, oro har, ez dute onartzen espazioak

eurei ukatzea; horren froga dira Gipuzkoan harremanetan ipini garen elkarte guztiak, 1998az gero, berdintasunezkoak:

*Elkarte berri guztietan, salbuespenik gabe, sexu-berdintasun absolutua dago. Besterik ez genuen behar! Emakumeak elkartekide izan daitezke, eta emakumeak gainera, batzuetan noski eta, batik bat nolabait ere ezker abertzalearen aldekoak direnetan, ba lehendakariak dira, edo? (Rafael Aguirre).*

Joera orokorra izan arren, Bizkaian beste panorama bat dago, duela 10 urte sortu ziren elkarteetatik (1998-2007 urteen bitartean sortutako 17ren datuak bildu dira) 9 berdintasunezkoak direla diote eta 8 murriztaileak. Murriztaileetan barne hartzen baditugu berdintasunezkoak direla esan baina ez direnak (ez dituztelako emakume-elkartekideak edo bat bakarrik dutelako), egiaztatu da 17tik 6 bakarrik direla berdintasunezkoak (% 35). Hala ere, Gipuzkoaren eta Arabaren kasuetan, duela gutxi sortutako elkarte gastronomiko gehienak berdintasunezkoak dira.

Bizkaiko berezitasun hori alde batera utzita, azken sortu diren elkarteak berdintasunezko espazioak izatea da joera eta, emakumeak eskubidezko elkartekide izateko, estatutuak aldatzen dituzten elkarte gastronomiko murriztaileen kopurua handitu egin da:

*Zergatik aldatzen dira? Nahitaez aldatu behar direlako. Orain ez da kasualitateagatik aldatzen, ez. Ni ez nago ados aldatzeagatik aldatzearekin, horrela besterik gabe, (...) baina soziedadeak orokorrean aldatzen ari dira, ezin delako beste modu batean izan eta harremanak aldatzen ari dira... (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Gainera, horri buruz, egiaztatzen da belaunaldien erreleboen eragina eta efektua dutela egoeran; izan ere, kasu askotan elkartekide gazteak sartzean planteatzen baita aldatzeko behar hori. Batzuetan aldaketa hori nolabaiteko inpotentziaz hautematen dute –elkartekide zaharrenek–, eurak eraikitakoa behera etorriko balitz bezala. Aldaketarekiko erresistentzien artean, adibide bat: elkarte gastronomiko murriztaile bateko elkartekide honek, zuzendaritzako kideak, batzarrean danborradan parte-hartze mistoa onartu behar zenean, dimisioa aurkeztu zuen:

*Guk aurten belaunaldien arteko gatazka izan dugu, ba, zeren... guk danborrada 30 eta piko urtetatik dugu, esan dezagun gure soziedadea gizonena dela eta danborrada ere gizonena zen, orduan danborrada mistoa izan zedin eskatzen hasi ziren (...). Ba hori, mundu guztiak nahi zuen danborrada mistoa, bozkatu egin zuten, ba, danborrada mistoa lortu zuten (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Murrizpen gehien dituzten elkarte gastronomikoetan, gainera, arautegia gizartearen errealitatera egokitzeko beharra atzematen ari da, eta ez da, hala ere, gatazka gisa nabarmendu.

*Orain bada nolabaiteko gatazka, ze, pertsona batzuek uste dute emakumeak sartzean, ba, soziedadeetan orain dugun giroa, ba, pixkatxo bat aldatu egingo dela eta beste batzuk diote 'kontxo! Nik nire emaztearekin atera nahi dut eta askoz gusturago izango nintzateke jatetxe batera baino soziedadera etortzen banaiz afaltzera'. Orain ez gara diru kontuez, orain sortzen ari den beste gatazka bat da, izan ere, ekonomiak orain mundu guztiari egiten dio min, eta beno, hor dago, gatazka nabarmena, ez du horrenbeste indarrik oraindik, zeren ez dago ezta ere izugarritzko talde bat odoletan, baina existitzen da, bai, hor dago kontua (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Modu berean, garai bateko momentuen nostalgia hautematen da; horregatik, batzuek diote, erdi serio erdi brometan, edozein egunetan emakumeak oraindik ere debekatzen dituzten elkarte bateko kide egingo direla.

*Ni edozein egunetan (emakumeak, urtean bi jai-egunetan izan ezik, debekatzen dituen elkarte murriztaile batean) elkartekide izan nadin eskatuko dut, zeren oso emakume gutxi jasaten dut (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Dena dela, bizi publikoaren eremu guztietan, baita elkarte gastronomikoetan ere, emakumeen barne-hartzearen prozesua, dirudienez, ezin da gelditu.

*Joera ezin da gelditu eta horrela doan bihurtu bat da, igotzen eta igotzen doa, gelditu gabe. Nik uste dut baietz, gure semeak, kide direnean, gure alabak ere eskubide osoz elkartekide izango direla (Rafael Aguirre).*

Elkarte murriztaile gehienak estatutuak eta barne-arauak aldatzen joan dira, gizarte-aldaketari eta tratu-berdintasunaren eta sexu-arrazoiengatik diskriminazio ezaren inguruan indarrean dagoen araudiari egokitzeko.

*Gurea klasikoetakoa da, eta bai, izan da bilakaera bat hasieran emakumeak soziedadera sartu ezin zutenetik hona, Santo Tomas egunean sar zitezkeen... barkatu, San Sebastian egunean eta San Inazio bezperan. Beno, bilakaera bat egon da emakumeak sartzeko permisibitateari dagokionez. Ezkutuan bezala hasi zen, zuzendaritzari hala ere baimena eskatzen zitzaion: ‘aizu, bihar emaztearekin joango naizela bazkaltzera’. Ba, hori guztia zabaldu egin da, baimenik eskatzen ez den une honetara iritsi arte. Eta jendeak, emakumeak, lagun gisa sartzten joan dira, sukaldera sartzeko edo horrelako eskubiderik gabe, elkartekide ez den edonor bezala. Hau da, hor esertzen dira, jan egiten dute eta kitto. Eta kitto (berdintasunezko elkartearen elkarriketa-taldeko gizona).*

Emakumeak pixkanaka-pixkanaka hasi dira elkarte gastronomikoetan parte hartzen; hasieran, guztiz debekatua zuten sarrera, gero, egun jakin batzuetan joan zitezkeen (urtarrilaren 19an, abuztuaren 15ean, abenduaren 21ean...) eta orain, pixkanaka-pixkanaka, muga horiek zabaltzen ari dira. Elkarte gastronomiko batzuk fase horretan gelditu dira eta gehienek egunero emakumeak sartzeko onartzen dute, baina ordu batzuetan soilik dute sartzeko baimena (adibidez, arratsaldeko 6etatik aurrera), edo egun jakin batzuetan (astean behin, hilean behin, etab.).

Rafael Aguirrek adierazten duen moduan, esan daiteke emakumeak elkarte gastronomikoetan barne hartzeak prozesu bera jarraitu duela, nahiz eta bilakaera ez den guztietan eman: *“lehenengo pausoa bi egun jakinen bezperan emakumeak onartzea zen: San Sebastian eta Abuztuko Ama Birjinaren bezperan. Tolerantzia zabaldu egin zen, gero, eguerdira arte uzten zitzaien eta, horren ondoren, emakumeak baztertzea salbuespena zen, asteko ordu edo egun batzuetara mugatzen baitzen lehen. Baina hori orokorrean esaten dugu, izan ere, Elkarte bakoitzaren kasua desberdina da (...) Kasu batzuetan, dispensa –edo aurrerapenak– prozesu luze baten ondorioz lortu da, Elkartearen Batzordeetako aktek erakusten duten moduan. Proposamen bat, hainbat urtetan ezeztatua izan arren, azkenean onartu egin da. Laster iritsiko da aurreratua den bat” (Aguirre 2006:19-20).*

Elkarte murriztaileetako elkartekide batzuk oraindik ere aho zabalik geratzen dira emakumeak sukaldera sartzeko ideiarekin eta bistan da, ekarpen batzuetan, berdintasunezko elkarteenganako nolabaiteko mesprezua, eta “merendero” gisa izendatzen dituzte.

- *Ez dira soziedade bat, hori ez da izpiritua.*

- *Beste gauza bat bihurtuko dira (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizonak).*

Dena dela, aldaketa horiek beharrezkoak direla pentsatzen da, onartzen dute elkartekideek arazo gehiago izango lituzketela emakumeei elkarera sartzan debekatzen bazaie, biak, gizonak eta emakumeak, gaur egun lan egiten dutelako eta, beraz, biek dutelako aisialdirako denbora baten beharra.

*Orain ikusten dugu senar-emazte gazteen artean, ba, normalean, biek egiten dutela lan, zortea badute behintzat. Orduan, zer gertatzen da? Ba, emaztea ez bada etortzen, ba, askotan elkartekideen erdiak ere ez liratekeela afaltzera etorriko. Eta niri hori logikoa iruditzen zait, zeren senar-emazteek biek lan egiten badute, ba, berez zamak ere partekatu behar dituzte, gainera, gauza atseginak ere konpartitu behar dira. Normala izango litzateke emakumeek ezin balute etorri haiek (gizonak) ere ez etortzea (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Elkarte murriztaileetan aldatuz joan diren aspektuen artean, erresistentzia gehien jasan duena sukaldearen betoa da; sukaldearen kontua emakumeen bazterketaren azken bastioia dela esan daiteke.

Halaber, interesgarria da “uste osoaz” baino “beharrez” ezarri dituzten berdintasunezko elkarten kasua. Elkarte horiek presionatuta sentitu dira euren estatutuetatik emakumeen betoa kentzeko, baina berez ez dute uste emakumeek leku bat dutenik elkarte gastronomikoetan eta, gainera, horietako askotan ez dago emakume elkartekiderik.

*Arazo jakin batzuk, bai, izan ditugu, izan ere, ez dugu emakumerik, ez dago inongo emakumerik. Baina kontua, batik bat, ba, emakumea baztertua zegoela zen. Gero, legalak diren arazo batzuk izan dira, Konstituzioan, ba, esaten delako sexu-kontuengatik eta, inor ezin dela bazertu. Ondo*

*da ba. Egoera hori onartu behar izan da. Noski, inposatu den lege-araudia da (berdintasunezko elkarteen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Behin eta berriz esan da neurri legegileek edo arauemaileek gizarte-gatazka, ez dagoen tokian, sorrarazten dutela. Donostian, elkarte gastronomikoen sorlekuan, elkarte funtzio sozial adierazgarriena herriko zaindariaren jaietan egiten den danborrada izaki, duela gutxi tentsio-egoera bizi izan zen diru-laguntzen udal-arau berria zela-eta, izan ere, mistoak ez ziren danborradei diru-laguntza ezeztatuko baitzitzaie; hau da, mistoak dira euren artean 12 urketari gutxienez dituzten danborradak.

Neurriak askotariko zurrumuruak eragin zituen eta komunikabide guztiek haren berri eman zuten. Berria argitaratu zen egunean, Diario Vasco egunkariaren edizio digitalean 260 iritzi kontatu ziren, bai aldekoak bai kontrakoak eta, beraz, argi nabarmentzen da estalitako gatazkaren dimentsio izugarria, gertaera jakin batzuetan soilik gertatzen baitira horrelakoak; aipatu arauak esaterako, zalantzan jar ditzake elkarte gastronomiko murriztaileen barne-dinamikak. Gainera, iritzi batzuen arabera, defendatzen da “guztia modu naturalean joango dela aldatzen, horrelako neurri zehatzak ez direla behar, gatazka soziala besterik ez bailukete sortuko han, ustez, halakorik ez dagoen edozein tokitan”.

*Baina ni, momentu hauetan, agian oso kontserbatzaile bihurtzen ari naiz, baina gauza gogor-gogorak, eta egia esan proportzioan jende gutxi jasango ditu eraginak, ba, ez dute pena merezi. Zeren, nik uste dut lortu den horretan modu negatiboan eragiten dutela, besterik ez. Orduan, zera sortzen du bakarrik, egunkarietako titularrak, jende gutxi batzuen arteko liskarrak, eta orduan gain-dimentsio bat hartzen du guztiak. (...). Nik uste dut gauzak euren kabuz lortuko direla. Hau da, nire ustez gero, anakronismoaz esaten genuen hori, ikusi egingo da. Eta gainera, gizarteak gero eta dimentsio europarra goa, berritzaileagoa duen heinean... (Teresa del Valle).*

*Baina ez da gutxiago, gizartean bizi den bilakaerarekin, nola ez dira ba emakumeak joango... Ezin da horrela izan, ez dakit gauzak, orain dauden bezala edo hemendik hamar urtera, emakumeak sar ezin daitezkeen soziedaderik egongo den. Hori niri ere iruditzen zait ba... Nik nahiago dut sartzen ez badira, baina anakronikoa eta guzti iruditzen zait. Gainera, lehen ere esan dugu bikote gazteez hitz egitean, harremana ez dela berdina (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizona).*

Emakumeenganako betoa pixkanaka malgutzen joan diren elkarte murriztaileetan nabarmentzen da aldaketa elkartearen maila ekonomikoa goian mantentzeko beharragatik justifikatzen dutela

nolabait ere, eta horretarako emakumeei ateak zabaltzea irtenbide bat litzateke, “garrantzi gutxiko gaitza”, emakumerik gabe elkarte mantentzeko, kolokan egon ordez (nahiko ohikoa da emakumeak sartzeko debekua kendu edo malgutu duten elkarte gastronomikoetako elkartekideek erabaki hori modu horretan justifikatzea, beto maila altuagoa duten beste elkarte batzuen aurrean).

*Gurean, adibidez, ostiraletan, (emakumeak) sartu ezin daitezkeenean, hamar daude soziedadean. Lehenago, gazteak ginenean, koadrilak joaten ginen. Orain bat azido urikoarekin egongo da, besteak gibela ez dakit nola... orduan ostiralak pikutara joan dira, ostiraletan ez da inor joaten, zortzi edo hamar bat joaten dira. (Beste elkarte murriztaile) batean, ostiraletan sartu ezin zen batean, orain emakumeak sartu egiten dira eta jesukristoren diru pilo irabazten dute (elkate murriztaileen elkarriketa-taldeko gizona).*

Elkate batzuek emakumeak elkartera sartzegatik diru-sarrerak handituko ez direla pentsatzen duten arren, “emakumeek dirurik ez dutelako ematen”, eztabaida bat sortzen da elkate gastronomiko murriztaileetako kideen artean, emakumeak sartzeari esker lor daitezkeen irabazi ekonomiko buri. Batzuen ustez elkarteko diru-kutxa handitzen bada ere, beste batzuen ustez ez da hala, emakumeek ez baitute alkoholik kontsumitzen eta hori delako elkarteko irabazirik handiena.

*Guk esan dezakegu dugun esperientzia soziedadearen salbazioa izan dela, ez dakit salbazioa bezain beste den, agian gehiegikeria bat esan dut, baina diru-sarrera handitzen dela esatea, ba, beno... Eta ba, nik behintzat ez dut ikusten guztiek ura edaten dutenik, whisky koparen bat edango ote dute ba, motel. Kasu jakin batzuk egon daitezke, zuek adibidez, zeren beste kontzeptu bat duzue eta agian kalte egingo dizue (elkate murriztaileen elkarriketa-taldeko gizona).*

Dena dela, azpimarratu behar da eztabaidaren muina irabazi ekonomikoak direla eta, beraz, elkateen bideragarritasuna eta jarraipena bermatzeko emakumeak, aukera bat diren edo ez eztabaidatzen ari dira.

Duela gutxi sortutako elkate gastronomikoen artean, murriztaileekiko hainbat desberdintasun daude: berdintasunezko elkate gastronomikoak normalizatzen hasi dira eta duela gutxi sortutako murriztaileek, berriz, dinamika irekiagoa dute.

“Auzoko” elkarteak auzoekin batera sortzen dira. Normalean, zonalde horietan, bikoteetako bi

pertsonak etxetik kanpo egiten dute lan eta aisialdirako uneak konpartitzeko joera dute; beraz, elkarte askotan emakumeenganako betoari ezin zaio eutsi. Berdintasunezko elkarteetan, hasiera hasieratik, elkartekideen izpiritua desberdina da: familia beste modu batean, modu inklusiboagoan, ulertzen duten pertsonak dira, alegia, familiaren batasuneko kide guztiek aisialdi-uneak konpartitzen dituzte.

*Ni Nafarroako herri batekoa naiz, Goizuetakoa, eta han soziedade bat dugu. Gure familia askotan biltzen da jateko, askaltzeko eta horrela. Orduan, jada badira bost urte hemen bizi naizela, eta hori botatzen genuen pixka bat faltan, zera, familian soziedade antzekoren batean biltzea. Ez jatetxerik ez ezer. Orduan, esan nuen: 'ba agian, polita izango litzateke'. Hau urbanizazio berria da (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, probintzia).*

Auzo batzuetan dagoeneko bazen elkarteren bat, baina kasu horietan berdintasunezko beste bat sortu da, aurrez zeudenen planteamenduekin ados ez zeudelako.

*Zeren auzoan beste bi soziedade zeuden (...) eta horiek, auzoarentzat soziedade itxiak ziren, gastronomikoak eta gizonentzako soilik (berdintasunezko elkarteko emakume kidea, Donostia).*

*Behekoan emakumeak ezin zitezkeenez sartu, ba, soziedadea sortu zen eta gizonak pentsatzen zuen ez zela bidezkoa eta gizon batzuen artean goikoa zabaldu zuten, emakumeak sartu ahal izateko (berdintasunezko elkartearen elkarriketa-taldeko emakumea).*

Horiek sortzeko arrazoia da elkarte gastronomiko murriztaileek, biltzeko eta zabaltzeko lekuak izaki, ez dutela behar bat asetzen, hau da, ez dira gizonentzako nahiz emakumeentzako espazio komunak.

*Batasunaren lotura, ja ez dira bakarrik gizonak, baizik eta orain ja emakumeekin baita ere dago lotura, egunero soziedade gero eta gehiago erabiltzen da horregatik (berdintasunezko elkartearen elkarriketa-taldeko gizona).*

Kasu batzuetan funtzio gastronomikoa ez da lehentasuna, izan ere, komunitatearen onerako proiektu komunak burutu ahal izateko biltzen baitira, baina gastronomiaren gehigarria interesgarria da jendeak parte hartzeko.

*Elkarte gastronomiko gisa sortu zen, baina berez kultura, aisialdia, kirola ere barne hartzen ditu, hori da berez printzipioa, beste soziedade batzuen motibo nagusia gastronomia den bezala, guretzat beste zentzu batekin sortu zen lehenik eta behin (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, Donostia).*

*Eta orduan elkarte kulturala egitea pentsatu zen. Eta ba, elkarte kultural gisa, ikusi zen beharrezkoa zela baita ere gastronomikoa izatea. Eta orduan jarri zen dirua. Beno, nahi zuen elkartekide bakoitzak diru bat ipini zuen eta hala elkarte sortu zen, gastronomikoa egin zen. Eta batik bat, elkarte gastronomikoa bakarrik da hemen zera egiten duena... (dirua ematen duena). Elkarte gastronomikoari esker mantendu ahal izan da, hipoteka ordaintzen da (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, Donostia).*

Eskualde-etxeetan edo etxe erregionaletan ere elkarte gastronomiko bat barne hartzeko ohitura zabaldua dago gainera. Eskualde-etxeak berdintasunezkoak izan ohi dira eta gazteak jarduera kulturaletara erakartzeko balio dute.

*Eskualde-etxe bat gara. Gertatzen dena da, hortik esan den moduan, ba mundu guztiak duela sukaldea eta egongela bat, eta nire ustez oso ongi dago hori. Eta gainera, jarduera bat gehiago bezala, soziedade gastronomikoa da. Baina hori ez da funtzioa. Esan dezagun, nahi izanez gero, jendea erakartzeko modua dela, batik bat jende gaztea erakartzeko (berdintasunezko elkarten elkarrizketa-taldeko gizona).*

Gauzak horrela, ikus daiteke berdintasunezko elkarte gastronomikoen sozializatzeko funtzioa betetzen dutela, elkarte gastronomiko orok bezala, baina modu inklusiboan egiten dute eta egungo gizarteko errealtateari egokituta. Eta elkarteek etorkizunerako dituzten ikuspegiak askotarikoak dira, baita emakumeen funtzioari buruzko ikuspuntuak ere. Bada, pertsona batzuen ustez emakumeen presentzia normalizatu egingo da.

*Tira, normalizatu egin beharko litzateke, nik horrela pentsatzen dut, ni idealista bat naiz, baina nire ustez konpondu egin behar da (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, Donostia).*

Horri dagokionez, adierazgarria da barne-hartze normalizatua utopia kutsuaz ikustea (“ni idealista naiz, konpondu egin behar da”), izan ere, horren bidez azaltzen baita arazoaren benetako garrantzia, nahiz eta batzuen iritiz esku-hartzea beharrezkoa ez izan, guztia “modu naturalean” bilakatuko delako.

Jarrera “etsiak” ere badira, emakumeen sarrera saihestu ezin den zerbaiten gisa sentitzen dutenak, bereziki, emakumeen eta gizonen berdintasuna indarrean dagoen legedian esplizituki azaltzen delako.

*Nire ustez azkenean sartu egingo dira, toki guztietan bezala. Gainera orain, berdintasun-legeekin eta, emakumerik ez bada ez dago diru-laguntzarik (elkarte murriztaileko gizon-kidea, Donostia).*

Batzuek, berriz, pentsatzen dute zaila dela emakumeek eskubide osoko elkartekide izateko baldintza lortzea.

- *Eta nire ustez jarraitu egingo dute. Emakumeak barne hartuko dira, sarrerari dagokionez diot. Ez dut uste hala ere elkartekide izango direnik.*
- *Ba nire ustez bai. Barkatu moztea, baina pertsona bat elkartekide bada, beste edozein elkartekideren eskubide berdina du, arra edo emea izan berdin da.*
- *Baina esan dut zaila izango dela (elkarte murriztaileen elkarrizketa-taldeko gizonak).*

Iritzi horien aurrean, emakume batzuek uste dute gizartea geldiegi ari dela aldatzen eta oraindik bide luzea dagoela egiteke.

*Une honetan oraindik mistoak izateko borrokan aritzea, ba, triste samarra da. Bizi guztia horren alde borrokatzen, eta oraindik horrela egotea, ba, triste samarra iruditzen zait (berdintasunezko*

elkarteko emakume-kidea, Donostia).

Illo horretatik, emakumeak subjektu onargarri gisa errekonozitzeak bidea zabalduko dio emakumeen barne-hartzeari, ukaezinak diren onurak trukatzeko.

*Hor, nik uste dut agian barne-hartzea beste bide batzuetatik etorriko dela. (...). Gizonen pertzepzioari dagokionez, nik uste dut gizonen pertzepzioak dioela emakumeak etxeko eremutik kanpo ez direla garrantzitsuak. Hau da, ama, hau eta beste direla pentsatzen dute. Ez dituzte berdinak kontsideratzen, ezagutzak eta ondasunak dituztelako, ukaezinak bezalakoak edo elkarren artean truka ditzaketen ondasunak bezalakoak. Orduan, nik uste dut batik bat emakumeek ezagutzak eskaintzen ditugulako iritsiko dela hori, esperientziak eskaintzen ditugulako, harremanak eskaintzen digulako, sareak eskaintzen ditugulako, nik hura eta bestea ezagutzen ditudalako eta. Orduan, noski, ni han egotea nahiko dute (Teresa del Valle).*

Noski, pertsona batzuek apustua egiten dute berdintasuna etorkizun hurbilean lortuko denaren alde. Eta beste batzuen iritziz, berriz, elkarte gastronomikoa bere horretan mantentzea da garrantzitsua, eta horretarako emakumeen sarrera behar-beharrezkoa izango da, elkartearen jarraipena bermatu nahi bada.

*Nik, nire ustez, etorkizuna emakumeekin da (elkarte murriztaileen gizon-kidea, probintzia).*

- Dena dela, guztiak gutxi gorabehera orain arte bezala funtzionatuko balu... Lehen izugarritzko lanak egin behar zituzten sartzeko, baina elkarte gutxiago daudenean eta arazoren bat dagoenean... Soziedadeak mantendu egin behar dira eta azkenean emakumeak arduratuko dira guztiaz.
- Ba, Tolosako eta Donostiako soziedade gehienetan eta, jende heldu ugari dago (elkarte murriztaileko gizon-kideak, probintzia).

Elkarte gastronomikoen irudia mantentzeari dagokionez, askotariko iritzia daude baita ere:

*Pixka bat hilda dago, geldituta, pixka bat geldituta dago* (berdintasunezko elkarteko emakume-kidea, probintzia).

*Elkartekide emakumeak sartuko diren? Ziur aski bai. Soziedadera joateko mugimenduak jarraitzen badu behintzat bai* (elkarte murriztaileko gizon-kidea, probintzia).

Eta gazteek aisialdia orain beste era batera pasatzen dutenez, aldaketa hori mehatxu bat da ereduak jarraitu ahal izateko:

- *(Elkarte gastronomikoen etorkizuna) Latza. Ez dute sinkronizatzen (gazteek). Gero ez dakit zer pasatuko den, baina nik ez dut ikusten... Baina tira, soziedade askotan.*
- *Gero, gazteek lokalak hartzeko ohitura hartu dute.*
- *Lokal batera sartzen dira eta nahi dutena egiten dute. Telebista jartzen dute eta euren zera... beste ikuspuntu bat da. Soziedadean, agian hitz egitera etortzen zara, eta edozer gauza hartzen duzu. Baina noski, haiek han sartzen dira eta... Eta hemen arauak daude, soziedadeetan arauak ditugu. (...). Ez dute gauza batzuk egitera behartuta egon nahi* (elkarte murriztaileko gizon-kidea, probintzia).

Ohar positibo batekin amaitzeko, pertsona askoren ustez Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte gastronomiko askok osasun ona dute eta, froga gisa, adierazten dute elkarteak sortzen jarraitzen dela, ez soilik gure inguruan, baita Estatuko hainbat lekutan ere.

*Horretaz aparte, soziedadeek izan dezaketen etorkizunari buruz esaten nuena, ba, diru-laguntzak eta horrelakoak aparte, nik uste dut etorkizun segurua bat dutela. Nik uste dut hemen jendeak harreman-puntuak behar dituela, biltzeko. Gero eta gehiago daude eta, ene, zabaldu dira ba! Lehenago, hemengo gauza zen bakarrik. Eta orain, esango dut, pilo bat daude joaten zaren herrira joaten zarela ere* (berdintasunezko elkartearen elkarrizketa-taldeko gizona).



DEFENTSORIA

## 2. Elkarte Gastronomikoen Zuzenbide-Esparrua, Elkartzeko Eskubidea eta Haren Muga: Tratu-Berdintasuna

Tratu-berdintasunaren, sexu-arrazoiengatiko diskriminaziorik ezaren eta elkartzeko eskubidearen alorrean elkarte gastronomikoak erregulatzen dituen esparru juridikoari buruzkoa da analisi hau, nazioarteko erregulazioari, erkidego-ondareari, konstituzio-arauari eta erkidego-arauari jarraiki.

Analisi hau burutzeko 37 elkarte gastronomikoetan elkartzeko estatutuak eskuratu dira eta, horiek irakurri ondoren, esan daiteke kezkatzekoa dela hirugarrenen oinarritzko eskubideen urratzea, batik bat emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunari dagokionez. Ez dira lortu beste dokumentu garrantzitsu batzuk, hala nola, elkartekideen zerrenda, barne-erregimenaren araudia eta batzar nagusietako aktak, ezta Zuzendari Batzordeko kideen izenak eta aktak ere.

Berrikuspen hau hiru ataletan aurkeztuko da: lehen atalean, funtsezko bi eskubideren gaineko hainbat alderdiri heltzen zaie, elkartzeko eskubideari eta emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunerako eskubideari, hain zuzen ere; bigarren atalean, berriz, elkartzeko eskubidearen babespean sortutako elkarte gastronomikoek emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunerako eskubidea gordetzea edo ez betetzea deskribatzen da, eta baita auzitegiek –batik bat, Auzitegi Gorenak– horiei nola heltzen dien ere; azkenik, hirugarren atalean berdintasuna bermatzeko eta emakumeen aurkako diskriminaziozko tratua erazteko legeek erakunde publikoei exijitzen dieten jokabide proaktiboa zerrendatzen da.

## 2.1 Elkartzeko eskubidea eta eskubide horren muga: tratu-berdintasuna

Azpiatal honetan pertsonak elkartzeko duten eskubidea babesten duen lege-araudia –nazioartekoa, Europako Erkidegokoa, Espainiako estatukoa eta Euskal Autonomia Erkidegokoa– eta eskubide horren mugak adierazten dira; besteen eskubide eta askatasunak baliatzeak finkatzen ditu muga horiek, zehazki, emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunerako eskubideak.

Ondoren, nazioartean, Europako Erkidegoan, Espainiako estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan elkartzeko eskubideari buruz dagoen arauen laburpena erakutsiko da 12. irudian.

12. irudia, Elkartzeko eskubideari buruzko araudia

<b>Nazioartekoa</b>	Giza Eskubideen Adierazpen Unibertuala  Nazio Batuen Erakundearen 183. Batzar Nagusian (1848ko abenduaren 10ekoa) hartua eta aldarrikatua.	PEskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna, 1966ko abenduaren 19koa.  1977ko apirilaren 13ko Berrespen Tresna (1977ko apirilaren 30eko BOE, 103. zk.).		
<b>Europakoa</b>	Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena, 1950ekoa.	Europako Erkidegoko 1987ko martxoaren 13ko Ebazpena, irabazi-asmorik gabeko elkarteei buruzkoa.  (Europako Erkidegoen Egunkari Ofiziala, 1987ko apirilaren 13koa, C 99/205 zk.).		
<b>Estatukoa</b>	Espainiako Konstituzioa, 1978koa.  (1978ko abenduaren 29ko BOE, 311.1 zk.).	Elkartzeko Eskubidea Arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa.  (2002ko martxoaren 26ko BOE, 73. zk.).		
<b>EAEkoa</b>	Euskadiko Autonomia Estatutua.  1979ko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa (1979ko abenduaren 22ko BOE, 306. zk.).	7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa.  (2007ko uztailaren 12ko EHAA, 134. zk.).	Ekainaren 29ko 145/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Errolda Nagusiaren Erregelamendua onartzen duena.  (2008ko abuztuaren 27ko EHAA, 162. zk.).	Uztailaren 29ko 146/2008 Dekretua, Onura Publikoko Elkarteei eta beren Babesletzari buruzko Erregelamendua onartzen duena.  (2008ko abuztuaren 27ko EHAA, 162. zk.).

Giza Eskubidea den aldetik, elkarteak eratzera koan zein gauzatzera koan –kasu honetan elkarte gastronomikoak– baliatzen den Elkartzeko Eskubidea, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 20.1 artikuluan aitortutako eskubideetako bat dugu; honela dago aitortua adierazitako artikuluan: *“Pertsona orok du modu baketsuan eta askatasunez biltzeko eta elkartzeko eskubidea.”* Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunaren 22.1 artikuluko 1. idatz-zatian ere antzeko moduan dago jasota eskubide hori: *“Pertsona orok du beste pertsona batzuekin askatasunez elkartzeko eskubidea bere interesak defendatzeko, eta baita sindikatuak sortzeko eta horietako kide egitekoa ere,”* eta baita Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenaren 11.1 artikuluan ere: *“Pertsona orok ditu modu baketsuan biltzeko askatasuna eta elkartzeko askatasuna, eta baita bere interesak defendatzeko beste pertsonekin batera sindikatuak sortzeko eta horietako kide egitekoa ere.”*

Alabaina, adierazitako nazioarteko tresnetan, Elkartzeko Eskubideak ez du balio absoluturik. Horietan guztietan aurreikusten da eskubide hori baliatzeko edozein murrizketaren legezkotasuna; izan ere, murrizketa horiek lege baten bitartez ezar daitezke gizarte demokratikoetan, besteen eskubide eta askatasunak babesteko beharrezko neurri gisa, besteak beste. Honako hauek ditugu neurri horietako zenbaitzuk:

- Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako 1950eko Hitzarmenaren 11. artikuluan 2. paragrafoak arautzen duenez, *“Eskubide horiek baliatzeko aukerak gehienez ere izango dituen murriztapenak gizarte demokratiko batean, betiere legeak aurreikusita, honako hauek bermatzeko beharrezkoak diren neurriak izango dira: nazio-segurtasuna, segurtasun publikoa, ordenaren, osasunaren zein moral publikoaren babesa, eta besteen eskubideen eta askatasunen babesa. Artikulu honek ez du debekatzen indar armatuetako, poliziako edo Estatuko Administrazioiko kideek eskubide horiek baliatzeko legezko murrizketak ezartzea.”*
- Eta Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko 1966ko abenduaren 19ko Nazioarteko Itunaren 22.2 artikuluan ezartzen denez: *“Eskubide hori baliatzeko aukera legeak aurreikusten dituen eta gizarte demokratiko batean beharrezkotzat jotzen diren murrizketen eraginpean egongo da soilik, betiere murrizketa horiek nazioko segurtasunaren, segurtasun publikoaren edo ordena publikoaren intereserako badira, edota osasun edo moral publikoa edo besteen eskubide eta askatasunak babesteko balio badute. Artikulu honek ez du eragotziko indar armatuek eta poliziak eskubide hori baliatzeko aukerari legezko murrizketak ezartzea.”*

Lehen adierazitako Nazioarteko Akordioek arautzen dituzten aipatutako elkartze-aurreikuspen horiekin funtsean bat etorritik, Elkartzeko Eskubidea Espainiako Estatuko eta Euskal Autonomia

Erkidegoko araudian jasotzen da, eta araudi hori elkarte gastronomikoei aplikatu behar zaie. Izan ere, aztertutako elkarte gastronomikoei beren egitekoak batez ere Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzen dituztenez, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak zuzentzen ditu elkarte horiek (aztergai dugun gaiaren eskumena eskusiboki Euskal Autonomia Erkidegokoa da, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.13 artikulua arabera), estatu-mailako beste araudiren bat aplikatu ahal izango zaiela alde batera utzi gabe. Ondoren aztertuko dira aipatutako bi erregulazio horiek.

• **Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa**

Elkartzeko Eskubidea Espainiako 1978ko Konstituzioaren 22. artikulua 1. paragrafoan dago aitortuta. Berezitasun gisa, artikulua horrek ez du jasotzen elkartzeko eskubidearen definizio edo kontzepturik. Horren ordean, konstituzio-arau horrek honako hau baino ez du adierazten:

- Delitu gisa tipifikatuta dauden helburuak dituzten edo horrelako baliabideak erabiltzen dituzten elkarteak lege kontrakoak direla aitortzen du (2. idatz-zatia).
- Publizitate-eragin soiletarako, haren babespean sortutako Elkarten Erregistroan erregistratzea beharrezkoa dela ezartzen du (3. idatz-zatia).
- Elkarteak desgaitzeko edo elkarte horien jarduerak eteteko bide bakarra ebazpen judizial arrazoitua ematea izango dela bermatzen du (4. idatz-zatia).
- Azkenik, isilpeko elkarteak eta elkarte paramilitarrak debekatzen ditu (5. idatz-zatia).

Konstituzio-mandatu hori adierazitako nazioarteko akordioekin ere bat dator, eta 1/2002 Lege Organikoan jasotzen da.

Araudi organikoaren arabera, elkarteak eratzeko eta horien antolamendua eta funtzionamendua ezartzeko, Konstituzioaren, adierazitako 1/2002 Lege Organikoaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren esparruan xedatutakoa bete beharko da.

Horren ildotik, elkarteak eratzeari dagokionez, elkarten sustatzaileek egokitzen hartutako legezko edozein xedapen eta baldintza elkartearen eratze-estatutuaren finkatzeko askatasuna dutela aitortzen du 1/2002 Lege Organikoak.

Hala ere, nazioarteko dokumentuak eta Espainiako Konstituzioa kontuan hartuz, legeak eta elkartearen printzipio antolatzaileak errespetatu beharrak askatasun hori leuntzen du.

Horrela, konstituzio-arauari jarraiki, 1/2002 Lege Organikoaren 2.7 artikuluan hainbat aldiz adierazten denez, *“delitu gisa tipifikatutako helburuak dituzten edo horrelako baliabideak erabiltzen dituzten elkarteak”* legez kontrakoak dira. Era berean, elkartearen Estatutuek jaso behar dituzten muturrak zehaztean –Lege horren 7. artikulua d) letran, mutur horien artean *“elkartean sartzeko eta baja hartzeko baldintzak eta modalitateak, elkartekideen zehapena eta banaketa eta hala badagokio, elkartekide motak”* azpimarratzen dira– adierazitako 7. artikulua horrek honako hau adierazten du esanbidez: *“Estatutuen edukia ezin da ordenamendu juridikoaren aurkakoa izan”* (7. artikulua, 2. eta 3. paragrafoak).

Elkartekide-kondizioa eskualdatzeari dagokionez, 1/2002 Lege Organikoak honako hau ezartzen du: *“Elkartekide-kondizioa ezin da heriotzagatik edota dohainik eskualdatu, Estatutueta bestelakorik xedatzen ez bada”* (20. artikulua). Kasu honetan, Lege horrek dohaintzen eta oinordetzako eskualdatzeen erregimena askatasunez zehazteko aukera onartzen die elkartekideei. Halere, aurreko arauen zentzuari jarraiki, estatutu-arauak indarreko legediaren arabera erabaki behar dira.

Orobat, Elkarteak erregistratzeari dagokionez, administrazioaren jarduerak *“fundazio-aktak eta Estatutuek izan behar dituzten baldintzak betetzen direla egiaztatzeko”* ardura izan behar duela ezartzen da 1/2002 Lege Organikoaren 30. artikuluan. Hau da, akta eta Estatutuak indarreko legediaren arabera direla egiaztatzea.

Azkenik, Elkarteak sortzeari eta Elkarteen funtzionamenduari dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu behar den arau-esparruaren zati da 1/2002 Lege Organikoa, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearekin batera.

• **7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa.**

Lege horren 4. artikuluan aitortzen da pertsona guztiek dutela askatasunez elkartzeko eskubidea, dituzten legezko helburuak lortzeko. Hala eta guztiz ere, 4.4 artikuluan zehazten denez, *“elkarrekin eratzeko eta horien antolamendua eta funtzionamendua ezartzeko, Konstituzioan, Elkartzeko Eskubidea Arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan, Elkarteei buruzko Lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan xedatutakoa bete behar da”*; horretaz gain, artikulua horren 9. paragrafoan autoantolaketa-askatasuna ematen da: *“Legeetan esanbidez aurreikusita ez dagoen eta elkarrekin askatasunez garatzea edota askatasunez funtzionatzea eta autoantolatzea oztokatzen duen edozein esku-hartzetik kanpo geratuko dira euskal botere publikoak.”*

7/2007 Legeak, autoantolaketa-askatasunaren muga gisa legeak errespetatu beharra hizpatzean,

ordenamendu juridikoaren urratetaren ondorio juridikoak finkatzen ditu, honako hau adieraziz:

- “Elkartzeko oinarrizko eskubidearen edozein alderdi urratzen duten itun, estatutu-xedapen eta erabaki guztiak” deusezak izango dira zuzenbide osoz (4. artikulua 5. paragrafoa).
- Honako hauek legez kontrakoak dira: “delitu gisa tipifikatuta dauden xedeak bilatzen edo delitu gisa tipifikatuta dauden bitartekoak erabiltzen dituzten elkarteak legez kontrakoak dira” (4. artikulua, 6. paragrafoa).

Era berean, adierazitako 7/2007 Legearen 9. artikuluan, “estatutuen edukia ezin da ordenamendu juridikoaren aurkakoa izan” oinarrizko irizpidea abiapuntutzat hartuz, Estatutuek izan behar dituzten muturrak zehazten ditu; mutur horiek honako hauek dira, besteak beste:

- Elkartekideak onartzeko baldintzak eta prozedura, eta hala badagokio, horien modalitateak<sup>1</sup> 24. (2) artikulua jarraitzen duenez, “elkarte batean sartzeko, estatutuetan ezartzen den organo eskudunak aurretik onartu egin behar du sartzeko hori.”
- Eta elkartearen funtzionamendu demokratikoa bermatuko duten irizpideak.

Halaber, elkartekide-kondizioa eskualdatzeari dagokionez, 7/2007 Legearen 25. artikuluko 3. paragrafoak adierazten duenez, “ezin da eskualdatu, salbu eta estatutuetan kontrakoa aurreikusten bada.” Hala eta guztiz ere, 1/2002 Lege Organikoan hizpatutako erregulazioak bezala, aurreikuspen horrek ezin izango du indarreko ordenamendu juridikoa urratu.

Bestalde, ikuspegi zibiletik, 7/2007 Lege horren barruan, 18. artikulua ordezkaritza- eta gobernu-organoen erantzukizuna honela ezartzen du:

1. “Gobernu- eta ordezkaritza-organotako kide edo titularrek, bai eta elkartearen izenean eta haren ordezkaritza jarduten diren pertsona guztiak ere, elkartearen, elkartekideen eta hirugarrenen aurrean erantzun behar dute, eragin dituzten kalteengatik eta dolo, erru edo axolagabekeriazko egiteek ekarritako zorreatatik.”
2. “Aurreko paragrafoan aipatzen diren pertsonak, eta paragrafo horretan zehazten diren kasuetan, erantzukizun zibil eta administratiboa izango dute beren eginkizunak betetzerakoan izandako egite

---

1. “Lege horren VII. Kapituluan (elkartekideak) bildutako arauak elkartearen funtzionamendu demokratikoa bermatzen duten gutxieneko irizpideak direnez, estatutuetan garatu eta modulatu ahal izango dira, elkartekideen nahiaren arabera.”

*eta ez-egiteengatik, bai eta hartu dituzten erabakiengatik ere –pertsone bakarreko organoa izanez gero–, edo aldeko botoa eman dieten erabakiengatik ere –kide anitzeko gobernu-organorik egonez gero–. Horretaz guztiaz gainera, erantzukizun penalik izatea ere gerta liteke.”*

Eta azkenik, honako hau jasotzen du:

*3. “Aurreko bi paragrafoetan adierazitako kasuetan, erantzukizuna ezin bazaio egotzi paragrafo horietan zehazten diren pertsonetako inori, pertsona horiek guztiek erantzukizun solidarioa izango dute, salbu eta egiazta badezakete ez zutela egintza horiek onetsi eta betearazterakoan parte hartu edo egintza horien aurka zeudela argi utzi bazuten.”*

Laburbilduz, indarreko araudi osoa aplikatuz, banakoek askatasunez elkartzeko eta elkarteak sortzeko eskubidea badute ere, kasu honetan, hots, elkarte gastronomikoen kasuan, eskubide hori absolutua ez dela esan daiteke. Adierazitako zuzenbideko oinarri horietan ondorioztatzen denez, elkarteak sortu eta autoantolatzerakoan, konstituzioaren, lege organikoen eta indarreko ordenamenduaren esparrua errespetatu beharko da, eta bereziki, aztergai dugun gaiaren ildo beretik, berdintasunerako eta sexu-arrazoiengatik diskriminaziorik ezerako eskubidea errespetatuz, ondoren adierazten den bezala:

• ***Elkartzeko Eskubidearen muga: emakumeen eta gizonen tratu-berdintasuna***

Ondoren, emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa arautzen duen nazioarteko, Europako Erkidegoko, Espainiako estatuko, EAeko eta tokian tokiko araudiaren laburpena erakutsiko dugu 13. irudian:

13. irudia, Emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunerako eskubideari buruzko araudia

<b>Nazioartekoa</b>	Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko 1979ko Hitzarmena (CEDAW).  (Batzar Nagusia, 34/180, 34 ebazpena; Batzar Nagusiko Dokumentu Ofizialak (46. zk.), 193. or., NBE A/34/46 Dokumentua, indarrean hastea, 1981eko irailaren 3a).			
<b>Europakoa</b>	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituna (bertsio finkatua).  (2008ko maiatzaren 9ko Egunkari ofiziala, C 115. zk.).	Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutuna.  (2007/C 303/01).	Giza Eskubideak eta Oinarriko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena. <sup>2</sup>	Tokian Tokiko Bizitzan Emakumeek eta Gizonek Berdintasuna izan dezaten lortzeko Europako Eskutitza (CCRE-CEMR), 2006.
<b>Estatukoa</b>	Espainiako Konstituzioa, 1978koa.  (1978ko abenduaren 29ko BOE, 311.1 zk.).	Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna bermatzeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.  (2007ko martxoaren 23ko BOE, 71 zk., 12611. or.).	1995ko Zigor Kodea	
<b>EAEkoa</b>	Euskadiko Autonomia Estatutua.  1979ko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa (1979ko abenduaren 22ko BOE, 306. zk.).	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.  (2005eko martxoaren 2ko EHAA, 42. zk.).		
<b>Tokian tokikoa</b>	Tokian Tokiko Bizitzan Emakumeek eta Gizonek Berdintasuna izan dezaten lortzeko Eskutitza (CCRE-CEMR), 2006.			

2. Erroman egin zen Hitzarmen hori 1950eko azaroaren 4an, 1979ko irailaren 26ko Berresteko Tresna (1979ko urriaren 10eko BOE, 243. zk.). 11. Protokoloari jarraiki berrikusia, eta 1. eta 6. Protokoloen bitartez onartua. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Idazkaritza. 2003ko iraila.

Emakumeen eta gizonen tratu-berdintasuna eta sexu-arrazoiengatiko diskriminaziorik eza Espainiak sinatutako Nazioarteko Hitzarmenetan eta erkidego-araudi konplexu batean ospetsu bihurtutako printzipio juridiko unibertsala dugu, eta baita elkartzeko eskubidearekin batera irauteaz gain elkartze-itunaren edukia mugatuko duen funtsezko eskubideetako bat ere.

Horrela, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenaren 14. artikulua honako hau jasotzen du: *“Hitzarmen honetan aintzatesten diren eskubide eta askatasunak gauzatu ahal izango direla ziurtatu beharko da, inolako bereizketarik egin gabe, bereziki sexuagatik, arrazagatik, koloreagatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik, iritzi politikoagatik, bestelako iritziengatik, jatorri nazional edo sozialagatik, gutxiengo nazional bateko kidea izateagatik, aberastasunagatik, jaiotzagatik zein beste edozein baldintzagatik.”*

Nazioarteko eta Europako Erkidegoko lege-esparruan zehar ibilbide labur bat eginez gero, horietan guztietan bi alderdi puntualki buruzko ardazte bat atzeman dezakegu: “Diskriminazio” terminoa argitzea eta Hitzarmena sinatu zuten Estatuaren aburuz, diskriminazio hori behin betiko erauzteko hartzea komeni diren “jokabide-ereduak” zerrendatzea.

“Diskriminazio” terminoari dagokionez, emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko 1979ko Hitzarmenaren (CEDAW) 1. artikuluan modu harmonizatuan deskribatzen da kontzeptu hori. Zehazki, honako hau jasotzen du: *“sexuan oinarritutako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro hartuko da «emakumeen aurkako diskriminaziotzat», baldin eta, esfera politikoan, ekonomikoan, sozialean, kulturean, zibilean edo beste edozein esferatan, emakumeek giza eskubideak eta funtsezko askatasunak baliatzea edo gauzatzea edo horiek guztiak emakumeei onartzea murriztu edo ezabatzeko helburua edo ondorioa badute, emakumeen egoera zibila edozein izanik ere eta gizonen eta emakumeen berdintasuna oinarritzat hartuta.”*

Emakumeen aurkako diskriminazioa erauzteko gauzatzen duten egitekoaren barruan, adierazitako Hitzarmen hori sinatu duten Estatuak hainbat konpromiso hartu dituzte, eta horien artean, aztergai dugun kasurako interes berezikoak dira erakunde pribatuei eta erabilerei buruzkoak, hots, honako hauen gaineko konpromisoak: *“e) Edozein pertsona, erakunde edota enpresak emakumeen aurka gauzatutako diskriminazioa deuseztatzeko behar diren neurri guztiak hartzea”* eta *“f) emakumeen aurkako diskriminazioa dakarten legeak, erregelamenduak, erabilerak eta praktikak aldatzeko edo indargabetezko egokiak diren neurri guztiak hartzea, baita lege-izaerakoak ere”* (CEDAW, 2. artikulua).

Illo horretatik, esfera sozial, ekonomiko eta kulturala Estatu horien lehentasunezko ekintza-helburutzat hartzen dira. Adierazitako esparruetan, Estatuak honako hauek hartzeko konpromisoa hartu dute: *“emakumearen erabateko garapena eta aurrerabidea ziurtatzeko neurri guztiak hartuko dituzte, baita lege-izaerakoak ere, giza eskubideak eta funtsezko askatasunak gizonen baldintza berdinetan baliatu eta erabili ahal izango dituela bermatzeko helburuarekin”* (3. artikulua).

CEDAW hitzarmenaren 5., 7. eta 13. artikuluetan jasotako neurri egoki horien artean, Hitzarmena sinatu duten Estaturen betebehartzat hartzen da sexu-arrazoiengatiko jokabide diskriminatzaileko eredu soziokulturalak eta ohiturazko praktikak aldatzea. Artikulu horien arabera:

*“Estatu Kideek honako hauetarako neurri egokiak hartuko dituzte: a) Gizonen eta emakumeen jarrerako eredu soziokulturalak aldatzeko, hori guztia sexuetako baten gehiagotasunaren edo gutxiagotasunaren ideian edo gizonen eta emakumeen funtzio estereotipatueta oinarrituta dauden aurreiritziak eta ohiturazko eta beste edozein motatako praktikak ezabatzea lortzeko” (5. artikulua).*

*“Estatu kideek herrialdeko bizitza politikoan eta publikoan emakumearen aurkako diskriminazioa ezabatzeko neurri egoki guztiak hartuko dituzte, eta bereziki, emakumeei bermatuko diete, gizonekin baldintza berdinetan, honako honetarako eskubidea: c) Herrialdearen bizitza publiko eta politikoan lan egiten duten gobernuz kanpoko erakunde eta elkarteetan parte hartzekoa” (7. artikulua).*

*“Estatu Kideek neurri egokiak hartuko dituzte emakumearen aurkako diskriminazioa bizitza ekonomiko eta sozialeko bestelako esferetatik ezabatzeko, eta baita emakumeen eta gizonen berdintasun-baldintzetan eskubide berberak bermatzeko ere, zehazki: c) aisialdi-jardueretan, kirolean eta kultura-bizitzaren alderdi guztietan parte hartzekoa (13. artikulua).”*

Europar Batasuneko funtsezko egiteko gisa, gizonen eta emakumeen berdintasuna modu berean finkatzen da. Horren ildotik, Estatu kideek ezinbestean bete behar dituen Europako Erkidegoko araudiak berdintasunerako eta sexu-arrazoiengatiko diskriminaziorik ezerako eskubidea finkatzen du, sexu-arrazoiengatiko diskriminazioa erazteari bideratutako genero-politikak, politika zehatzak, tokian tokiko politikak eta eskualde-politikak sustatuz.

#### *Diskriminazioa erazteko genero-politikak*

Gauzatzen dituen ekintza guztietan, gizonen eta emakumeen berdintasunik eza deuseztatzeko eta horien berdintasuna sustatzeko helburua du Europar Batasunak (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren bertsio finkatua, 8. artikulua, antzinako 3. artikuluko 2. idatzatua, EEI). Ildo horretatik, sexu-arrazoiengatiko diskriminazio ororen aurkako borroka “*Batasunaren politiken eta ekintzen definizioan eta egikaritzean*” dagoen helburua da (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 10. artikulua), arraza, jatorri etniko, erlijio, sinesmen, ezintasun,

adin edota sexu-orientazioagatiko edozein motako diskriminazioak eraztearekin batera.

Alde horretatik, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 19.1 artikulua bertsio finkatuak (antzinako EElaren 13. artikulua) honako hau aitortzen du: *“Itunetako gainerako xedapenak alde batera utzi gabe, eta Itun horien bitartez Batasunari esleitutako eskumenen mugen barruan, sexua, arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo sinismenak, ezintasuna, adina edo sexu-orientazioa arrazoi dituen diskriminazio ororen kontra borrokatzeko egokiak diren ekintza guztiak gauzatu dituzten Kontseiluak aho batez, legegintza-prozedura berezi bati jarraiki eta Europako Parlamentuaren alde aurreko onespeneraren ondoren.”*

#### *Erazte-politika zehatzak*

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Eskutitzak, diskriminaziorik ezerako genero-aitorpen batekin batera (Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Eskutitza, “diskriminaziorik ezari” buruzko 21. artikulua) honako hau hizpatzen du: *“1. “Debekatuta dago diskriminazio oro, eta bereziki hauek: sexua, arraza, kolorea, jatorri etniko zein sozialak, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa zein sinismenak, iritzi politikoak zein beste edozein iritzi, gutxiengo nazional batekoa izatea, ondarea, jaiotza, ezintasuna, adina nahiz sexu-orientazioa direla-eta egindako diskriminazioak”, eta Batasunaren barruko funtsezko eskubide gisa finkatzen du diskriminaziorik eza eta emakumeen eta gizonen berdintasuna; horretaz gain, batik bat sektore espezifiko batzuetan ardatzen du bere jardura, besteak beste, enpleguan, lanean eta lansarrietan.*

Horrela, aipatutako Eskutitz horren 23. artikulua, “emakumeen eta gizonen berdintasunari” dagokionez, honako hau aitortzen du: *“Emakumeen eta gizonen berdintasuna eremu guztietan bermatu behar da, baita enpleguari, lanari eta lansariari dagokienez ere. Berdintasun-printzipioak ez du eragozten ordezkari gutxi duen sexu-orientazioaren abantaila zehatzak dakartzaten neurriak hartzea edo hartutako neurriak eustea.”*

Horri dagokionez, tratu-berdintasunari buruzko politikaren barruan, honako hauek eman dira: batetik, 2002/73/EE Zuzentaraua, enplegua lortzeari, prestakuntzari eta sustapen profesionalei eta lan-baldintzei dagokienez, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzko Kontseiluaren 76/207/EEE Zuzentaraua aldatzen duena (2002ko abenduaren 5eko EEO, L269/15) eta bestetik, abenduaren 13ko 2004/113/EE Zuzentaraua, ondasunak eta zerbitzuak eta horien hornidura lortzean gizonen eta emakumeen tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeko dena (2004ko abenduaren 23ko EEO, L373/37).

#### *Erazteko tokian tokiko politikak eta eskualde-politikak*

Era berean, tokian tokiko eta eskualdeko esparruaren barruan, Tokian Tokiko Bizitzan Emakumeek

eta Gizonek Berdintasuna izan dezaten lortzeko Europako 2006ko Eskutitzak (CCRE-CEMR) arreta berezia merezi du. Eskutitz horren bitartez emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioari buruzko jarrera publikoa sinatzeko eta hartzeko eta printzipio horretan definitutako konpromisoak bakoitzaren lurraldean aplikatzeko eskatzen zaie Europako toki- eta eskualde-gobernuei. Hori sinatu zuten udalerrien artean, Bilbo edota Donostia ditugu, besteak beste.

Nazioarteko eta Europar Batasuneko testuinguru horren barruan, estatu-mailako eta erkidego-mailako hainbat lege eman dira emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, Espainiako 1978ko Konstituzioaren (EK) 9.<sup>3</sup> eta 14.<sup>4</sup> artikuluetan finkatutako konstituzio-postulatuei jarraiki; horrek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte-esparrua hartzen du eraginpean, eta zehazki, elkarte gastronomikoak.

#### • Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna bermatzeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa

Gizartea demokratikoagoa, bidezkoagoa eta solidarioagoa izan dadin lortzeko, 3/2007 Lege Organikoa eman zen. *“Emakumeak eta gizonak berdinarak dira giza duintasunean eta berdinarak eskubideetan eta betebeharretan”* konstituzio-printzipioa errepikatu ondoren, eskubide hori benetako bihurtzeko helburua finkatu zuen, *“bereziki emakumearen diskriminazioa ezabatuz, haren zirkunstantzia edo izaera edozein izanik ere, bizitzako edozein eremutan, eta bereziki alor politikoan, zibilean, lanean, ekonomian, eta gizarte- eta kultura-arloan”* (1. artikulua).

Ondorio horietarako, aipatutako Legeak Botere Publikoen jardun-printzipioak ezartzen ditu, pertsona fisiko eta juridikoen (publiko zein pribatu) eskubide eta betebeharrak arautzen ditu, eta sektore publiko eta pribatuan sexu-arrazoiengatiko edozein motako diskriminazioa deuseztatzea eta zuzentzea bideratutako neurriak aurreikusten ditu. 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak Espainian dagoen edo Espainian lan egiten duen pertsona fisiko edo juridiko orori aplikatu behar zaizkio, horien nazionalitatea, bizilekua edo bizitokia edozein delarik ere (2. artikulua).

3/2007 Lege Organikoak ezarritako arauak jarraiki, emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunari buruzko printzipioak esan nahi du sexu-arrazoiengatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminaziorik ezin dela izan. Lege horren ondorioetarako, sexu-arrazoiengatiko zuzeneko diskriminazioa honela definitzen da: *“antzeko egoeran dagoen beste pertsona batekin alderatuz, pertsona bat bere sexuagatik hain mesedegarria ez den moduan tratatzen denean, tratatu denean edo trata daitekeenean sortzen den egoera”* (6.1 artikulua).

Era berean, adierazitako Legean honela deskribatzen da sexu-arrazoiengatiko zeharkako diskriminazioa: *“itxuraz neutroa den jarrera, irizpide edo praktika batez sexu bateko pertsonak beste sexuko pertsonetikiko desabantailan jartzen dituen egoera, salbu eta jarrera, irizpide edo praktika horiek helburu legítimo bat kontuan hartuta egiazta badaitezke, eta helburu hori lortzeko baliabideak beharrezkoak eta egokiak badira”* (6.2 artikulua).

3. EKren 9.2 artikuluan, botere publikoetarako mandatu –betebehar– bat ezartzen da, honako eduki honekin: “Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezken; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere.”

4. EKren 14. artikulua tratu-berdintasunerako eskubidea adierazten du: “Espainiarrak legearen arabera berdinarak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.”

Nolanahi ere, 3/2007 Lege Organikoaren edukari jarraiki, honako hau diskriminatzailetzat hartuko da: *“sexu-arrazoiengatik zuzenean edo zeharka diskriminatzeko agindu oro”* (6.3 artikulua). Ildo beretik, *“sexu-arrazoiengatik diskriminazioa diren edo eragiten duten egintzek erantzukizuna sorraraziko dute, benetakoak, eraginkorrak eta pairatutako kaltearekiko proportzionalak izango diren kalte-ordainketen edo kalte-ordainen sistema baten bitartez, baita, hala badagokio, jokabide diskriminatzaileak gertatzea prebenituko duen disuasiozko zehapen-sistema eraginkor baten bitartez ere”* (10. artikulua).

Era beran, adierazitako Legeak, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean eta horien horniduran tratu-berdintasuna baliatzeari buruzko Erkidegoko 2004/113/EE Zuzentaraua transkribatuz, honako hau hizpatzen da 69. artikuluan: 1) *“Sektore publikoan edo pribatuan jendearentzat ondasunak edo zerbitzuak hornitzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek, horiek bizitza pribatuko eta familiako eremutik kanpo eskaintzerakoan, beren jardueretan eta dagozkien transakzioetan nahitaez emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa bete beharko dute, sexu-arrazoiengatik zuzeneko edo zeharkako diskriminazioak saihestuz”; 2) “Aurreko idatz-zatian aurreikusitakoak ez du eraginpean hartuko kontratazio-askatasuna, ezta pertsonak beste alderdi kontratatzailea aukeratzeko duen eskubidea ere, betiere aukera hori beste pertsonaren sexuak mugatzen ez badu”, eta 3) *“Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa gorabehera, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean, tratu-berdintasunak onargarriak izango dira, betiere legezko xederen batek justifikatzen badute eta xede hori lortzeko baliabideak egokiak eta beharrezkoak badira .”**

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte gastronomikoen jardun-esparruan finkatuta dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea –Autonomia Estatutuaren 9. artikuluari jarraiki emana– ere aplikagarria izango da<sup>5</sup>.

#### • **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea**

4/2005 Legearen helburua da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, eta zenbait neurri ere arautzen ditu. Neurri horien xedea da emakumeek eta gizonek bizitzaren arlo guztietan aukera eta tratu berdinak izan ditzaten bultzatzea eta bermatzea, eta, bereziki, emakumeen autonomia sustatzea eta gizartean, ekonomian zein politikan duten posizioa sendotzea.

1. artikuluaaren arabera, horren guztiaren helburua honako hau da: *“berdintasunezko gizartea lortzea dela, non pertsona oro libre izango den, hala eremu publikoan nola pribatuan, bere gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko, ohiko rolek sexuaren arabera ezartzen dituzten mugak izan gabe; gizarte bat non berdín aintzat hartu, baloratu eta bultzatuko diren emakumeek eta gizonek dituzten portaera, jomuga eta beharrikanak.”*

5. Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9. artikulua. 1. *“Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren funtsezko eskubideak eta betebeharrak Konstituzioan ezarrita daudenak dira.”* 2. *“Euskal botere publikoek, beren eskumenen esparruan, d) Gizakien eta giza taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen baldintzak eragitera eta oztupoak desagerraraztera bideratutako neurri oro hartuko dute.”*

Horrela, partaidetza soziopolitikoaren alorrean, aipatutako Legearen 23. artikuluan honako hau xedatzen da: *“Euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organotako eta organo kolegiatueta kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoen artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.”*

Elkarte eta erakundeei aplikatu beharrekoa den eredu horri jarraiki, 24. artikulua honako hau ezartzen du:

1. *“Euskal herri-administrazioek sustatu behar dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadila profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakunde zuzendaritzako organoetan. Horretarako, gehitu edo egokitu ahal izango dituzte elkarte eta erakundeei adierazitako helburua betetzearen arabera dagozkien diru-laguntzak.*

Elkartze-araudiarekiko koherentziari eutsiz, 4/2005 Legearen 24. artikuluko 2. idatz-zatian berdintasunari dagokionez aipatzen denez, sexu-arrazoiengatik diskriminatzen duten elkarte eta erakunde guztiak laguntzen eta diru-laguntzen erregimenetik kanpo geratuko dira; horrelako elkarte eta erakundeak txosten honen hiru garren atalean aztertuko dira.

2. *“Euskal herri-administrazioek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.”*

Azkenik, eta lehen adierazitako legeen aplikazioa alde batera utzi gabe, ezinbestean adierazi behar da indarreko Zigor Kodea ere ez dagoela sexu-arrazoiengatik diskriminazio-jarrerengatik zehapenak ezartzetik kanpo.

• **1995eko Zigor Kodea<sup>6</sup>**

Sexu-arrazoiengatik diskriminazioa delitu-portaera gisa tipifikatuta dagoen portaera da, eta erakundeak zein pertsonak hartzen ditu eraginpean indarreko kode Zibilean. Horrela, 515. artikulua

---

6. Azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa (1995, 3170 Lege Bilduma Kronologikoa– 1996, 777 Lege Bilduma Kronologikoa).

5. paragrafoak honako hau hizpatzen du: *“Zigortzekoak dira zilegiak ez diren elkarteak eta halakotzat hartzen dira: pertsona, talde edo elkarten aurkako bereizkeria, (...) sustatzen dutenak, (...) sexu (...) aren zioz.”*

Ikuspegi horretatik, elkarteak, erakunde publikoak diren aldetik, ez dira sexu-arrazoiengatiko diskriminazioari lotutako erantzukizunetatik kanpo geratzen. Zigor Kodearen 515. artikulua 1., 3.-6. zenbakietan jasotako legez kontrako elkarteetarako zigor-esparruan, 517. artikulua honako zigor hauek ezartzen ditu: *“Elkateen eratzaileria, zuzendari eta buruei bi urtetik lau urteko espetxealdi-zigorra eta hamabi hilabetetik hogeita lau hilabetera bitarteko isuna, bai eta enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna berezia ere, sei urtetik hamabi urtera bitartekoa”*; eta *“Jardunean dauden kideei urtebetetik hiru urtera bitarteko espetxealdi-zigorra, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau hilabetera bitarteko isuna ere.”*

Era berean, 510. artikulua ere diskriminazio-ekintzen kontrakoa da; horrela, urtebetetik hiru urtera bitarteko espetxe-zigorra eta sei hilabetetik hamabi hilabetera bitarteko isuna jartzen zaie honako hauei: *“norbaitzuek talde edo elkateen aurkako bereizkeria, gorrotoa edo indarkeria eragiten badute arrazakeria nahiz zio antisemitengatik, edota talde nahiz elkarte horietako kideen ideologia, erlijio nahiz sinesmen, familia-egoera, etnia, arraza, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, gaixotasun edo elbarritasunarengatik.”*

Adierazitakoa kontuan hartuz, eta indarreko araudia aztertu ondoren, elkarte gastronomikoetako elkartekideek sinatu duten elkarte-ituna, elkarte sortzerakoan zein elkarteak dirauen bitartean, elkartei aplikatzekoak diren xedapenen eraginpean nahiz berdintasunari eta sexu-arrazoiengatiko diskriminaziorik ezari buruzko xedapenen eraginpean egongo da; herritarrek, herri-administrazio nazionalak eta autonomikoak bete behar dituzte xedapen horiek ezinbestean.

## **2.2 Emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa eta elkarte gastronomikoak**

Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte gastronomikoek ezaugarri espezifiko jakin batzuk dituzte: dinamizatzaileak izateaz gain, gizarte- eta kultura-mailan protagonismoa dute, eragin- eta botere-sareak sortu eta iraunarazteko tokiak dira, eta harreman- eta ospe-iturrietarako sarbide izan daitezke, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak egindako ikerlan antropologikoak (ikerlan hori aurki argitaratuko dela aurreikusten da) adierazten duen bezala.

Epigrafe hau publikoki kontsulta daitekeen dokumentazio bakarra aztertzean oinarritzen da: hainbat elkarte gastronomikoren Estatutuak, hain zuzen ere. Horiek aztertuz ikus daitekeenez, espresuki mistoak izaten jarraitzen duten elkarte gastronomikoen kasuan izan ezik (elkate horietako elkartekideak emakumeak nahiz gizonezkoak dira), bi elkarte mota daude, sexu-arrazoiengatiko balizko diskriminazioaren arabera. Hurbilketa hori kontuan hartuz, emakumeek

elkarte gastronomikoetan parte hartzearen mugak *“lagun-talde batetik kanpo geratzea baino askoz ere dimentsio handiagoko zerbait dakar.”* Emakumeak gizarte-bizitzatik eta botere-antolamendutik baztertzea dago horrelako elkarteen azpian; izan ere, elkarte gastronomikoetan baztertze horrek presentzia handia du.

• **Elkarte gastronomikoak eta sexu-arrazoiengatiko zuzeneko diskriminazioa**

Horrelako elkarteen kasuan, derrigorrean gizon izatea jasotzen dute Estatutuek elkartean onartua izateko edo/eta elkartekide-kondizioa *“inter vivos”/“mortis causa”* deritzona eskualdatzeko ezinbesteko baldintza gisa. Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Nagusian erregistratuta dauden egungo hainbat Elkarteren Estatutuen adibide ugari eskainiko dira; elkarte horien kasuan, sexu-arrazoiengatiko baztertzeak hainbat esparrutan du eragina: elkartekide gisa onartua izatea, elkartekide-kondizioa *“mortis causa”* eskualdatzea, eta baita lokaletan egoteko mugari dagokionez ere.

1) ATOTXA-ERREKA (AÑORGA TXIKI) Elkartearen Estatutuak (1988ko Legeari egokitutako 1974ko Estatutuak):

- Onarpenari eta elkartekideei buruz (20. artikulua): *“Pertsona guztiak izan daitezke Elkartekide, GIZONEZKOAK.”*
- Elkartekideen eskubideei buruz (21. artikulua): *“Honako honetarako eskubidea du elkartekide orok: Elkartearen lokal eta zerbitzuak behar bezala erabiltzekoa, oro har zehaztutako baldintzetan. Elkartekide ez diren GIZONEZKOEKIN joateko aukera izango dute Elkartekideek. Emakume eta haurren sarbidea Barne Erregimeneko Erregelamenduan arautuko da.”*
- Elkartekide-kondizioa eskualdatzeari buruz (23. artikulua): *“Elkartekide-kondizioa honako arrazoi eta kausa hauengatik galduko da: Heriotza. Kasu horretan, hildakoaren ondorengo zuzen batek, gizonezkoa bada, eskuratutako eskubide ekonomikoak eta Elkartekide-tokia erreklamatu ahal izango ditu Elkartekidearen heriotzaren hurrengo sei hilabeteetan.”*

2) EUSKAL BILLERA ELKARTEAREN Estatutuak eta Erregelamendua (1928koa, 1988ko Legeari egokitua):

- Onarpenari eta elkartekideei buruz (27. artikulua): *“Elkartekide izan nahi duten eta honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak izango dute Elkartekide izateko aukera: ... adin nagusikoa, GIZONEZKOA ....”*

- Barne Erregimeneko Erregelamendua (6. artikulua): *“Elkartekideren batekin badaude, emakumeek elkarteren lokalean egoteko aukera izango dute asteko edozein egunetan, bazkarietan parte hartzeko, betiere talde bakoitzeko sei mahaikide badaude gutxienez, 14:00etatik 18:30era bitartean, Elkarteren Estatutuen Lehen Xedapen Orokorrean ezarritakoa alde batera utzi gabe, horri dagokionez Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenaren arabera.”*

### 3) SANTIAGOMENDI ELKARTEAREN Estatutuak (1988):

- Onarpenari eta elkartekideei buruz [28. (2) artikulua]: *“18 urtetik gorako GIZONEZKO guztiek izango dute Elkartekide izateko aukera hala nahi badute, Batzar Nagusiak une bakoitzean ezarritako gehieneko kopurua gainditu gabe; horri dagokionez, ezin izango da inor ere baztertu adina, egoera zibila, sinesmen politikoak edo erlijio-sinesmenak direla-eta.”*
- Eskualdatzeari buruz [28. (3) artikulua]: *“Elkartekideren bat hiltzen bada, haren alarguntsak hildakoaren semea edota suhia proposatu ahal izango du Zuzendaritza Batzordean, haren tokia har dezan, heriotzaren hurrengo hiru hilabeteko denboraldian. Zuzendaritza Batzordeak proposamena onartzen badu, hautatutako pertsonak elkartekide-kondizioa eskuratuko du. Egindako proposamena onartzen ez bada, edo alarguntsak inolako proposamenik egiten ez badu, Batzar Nagusiak hizpatutako zenbatekoa itzuliko zaio, itxaronzerrendako lehen elkartekidegaiak bere partaidetza sinatu ondoren.” “Proposatutako elkartekidegaia hemezortzi urte baino gazteagoa bada, adin-nagusitasunera iristen denean hildako elkartekidea ordezkatu du, betiere igarotako denborari dagozkion kuotak ordaintzen baditu, hots, heriotza gertatu zenetik adin-nagusitasuna bete arteko denboraldiari dagozkionak. Denboraldi horretan, alarguntsak hildakoaren ahaideren bat proposatu ahal izango du, ahaide hori adin-nagusia bada, etorkizunean elkartekide izango den adingabeari dagozkion eskubideak aldi baterako gauza ditzan eta haren lekua har dezan.”*

Ondoren, sexu-arrazoiengatik murrizketak edo/eta debekuak jasotzen dituzten Estatutuak dituzten elkarte gastronomikoen zerrenda bat erakutsiko dugu:

14. irudia, Elkartek gastronomiko murriztaileak

ELKARTEAREN ESTATUTUAK	URTEA	HELBURUAK	ONARPENA			BESTE BATZUK	OINERDETZA		BESTE BATZUK	
			Giz.	Giz./Em.	Elk.		Giz.	Giz./Em.		
<b>Aizpe</b>	1991	Gastronomia Kulturala	●			2 Abal	●			
<b>Amaiak Bat</b>	1915 1988ko Legera egokitua	Entretanimendua			●	2 Abal	●		2 Abal	
<b>Atotxa- Erreka</b>	1974 1988ko Legera egokitua	Soziala Artistikoa Gastronomia Kulturala Entretanimendua	●			2 Abal	●			Gizonezkoak sar daiteke soilik
<b>Bertsolari</b>	1979 1988ko Legera egokitua	Kulturala Entretanimendua Animazioa	●			2 Abal				
<b>Bidebieta</b>	1979 1988ko Legera egokitua	Aisialdia Jolasak Kulturala Entretanimendua			●	2 Abal	●		2 Abal	
<b>Donostigain</b>	1966 1988ko Legera egokitua	Aisialdia Jolasak	●			2 Abal				
<b>Euskal Bilera</b>	1928 1988ko Legera egokitua	Jolasak Kulturala Gastronomia	●			2 Abal				Araudiaren 6. artikulua
<b>Gaztelubide</b>	- 1983	Jolasak Entretanimendua			●	2 Abal	●		2 Abal	
<b>Istingorra</b>	1965 1988ko Legera egokitua	Gastronomia Jolasak	●			2 Abal	●		2 Abal	
<b>Itxas -Gain</b>	1988ko Legera egokitua	Ongintzako Kulturala			●	2 Abal	●		2 Abal	
<b>Kañoyetan</b>	1900... 1988ko Legera egokitua	Gastronomia Jaiak eta herri jarduerak	●			2 Abal	●		2 Abal	
<b>Kondarrak</b>	1945 1988ko Legera egokitua	Jolasak Kulturala	●			2 Abal				
<b>Lagun Artea</b>	1985	Entretanimendua			●	2 Abal	●		2 Abal	
<b>Leosiñeta</b>	1981 1988ko Legera egokitua	Entretanimendua Kulturala Jolasak	●			2 Abal				
<b>Ollagorra</b>	1940 1988ko Legera egokitua	Gastronomia Kulturala Entretanimendua	●			2 Abal				
<b>Santiagomendi elkartea</b>	>1988	Soziala Ongintzako Artistikoa Gastronomia Kulturala Entretanimendua	●			2 Abal	●			28.(3) artikulua Alarguntsak semea edo suhia proposatzen du
<b>Unión Artesana</b>	- 1988ko Legera egokitua	Jolasak Kulturala Gastronomia	●			2 Abal				
<b>Ur-Zaleak</b>	1935 1988ko Legera egokitua	Aisialdia Jolasak Kulturala Entretanimendua Gastronomia	●			2 Abal				
<b>Yoko Garbi</b>	- 1988ko Legera egokitua	Entretanimendua	●			2 Abal	●			

• **Elkarte gastronomikoak eta sexu-arrazoiengatiko zeharkako diskriminazio posiblea**

Kasu honetako elkarten Estatutuek ez dute esanbidez jasotzen gizonak eta emakumeak elkartekide gisa onartzea. Horri dagokionez, ez da ezer ere zehazten, eta elkartekide gisa sartzeko hainbat baldintza formal ezartzen dituzte; baldintza horiek neutroak badirudite ere, sexu-arrazoiengatiko diskriminazioko tresna erreal izan daitezke. Esate baterako: 2 elkartekidek abalaturako eskabidea; hamabost egunetan eskabidea azaltzea, eta hamabost eguneko denboraldi horri zortzi egun gehiago gehitzea, Zuzendaritza Batzordeak bere kabuz edota elkartekideen bitartez aholkua izateko helburuarekin, eskatzailea onartzea egokia dela ziurtatu arte, edota hori ekidingo duten eragozpenbideak finkatzea, Batzar nagusiaren aurrean gora jotzeko aukerarekin. *De facto*, horrelako elkarte gastronomikoek emakumeen sarbidea hainbat bidetatik galarazten dute:

- 2 elkartekideren abalak lortzea ezinezkoa da

Elkarte gastronomikoen elkartekideek ez dituzte emakumeen hautagaitzak abalatzeko, emakumeak elkarten inguruetik baztertzeak eragin mesedegarria duela uste baitute, edota abala ematen duten elkartekideek emakumeak laguntzeagatik geroko errepresaliarik jasotzeko, eta horren eraginez, elkartetik kanporatuak izateko beldurra eduki ohi baitute.

- Ezinezkoa da, Zuzendaritza Batzordeen erabakiak direla-eta
- Ezinezkoa da, Batzar Nagusietako erabakiak direla-eta

Azkenik, sexu-arrazoiengatiko murrizketa posibleak dituzten eta/edo horrelako murrizketa edo debekurik ez duten elkarte gastronomikoak biltzen dituen zorizko zerrenda bat dugu 15. irudian.

15. irudia, Mistoak eta ustez murriztaileak diren elkarteak

ELKARTEAREN ESTATUTUAK	URTEA	HELBURUAK	ONARPENA			BESTE BATZUK	OINERDETZA		BESTE BATZUK
			Giz.	Giz./Em	Elk.		Giz.	Giz./Em	
<b>Altzaiarra</b>	>1985	Entretanimendua			●	2 Abal			
<b>Antxeta</b>	1947 1988ko Legea egokitua	Entretanimendua Jolasak			●	2 Abal			
<b>Antiguotarrak</b>	1981 1988ko Legea egokitua	Kulturala			●	2 Abal			
<b>Centro Burgalés Castellano Leonés</b>	1951 1988ko Legea egokitua	Kulturala		●		2 Abal			
<b>Donostiberri Elkartea</b>	1985	Entretanimendua		●					
<b>Euskalgaroa</b>	1977 1988ko Legea egokitua	Entretanimendua Kulturala Jolasak		●		2 Abal			
<b>Herrera</b>	1947 1988ko Legea egokitua	Entretanimendua		●		2 Abal			
<b>Intaurra</b>	1996	Entretanimendua		●		2 Abal			
<b>Kresala</b>	- 1964ko Legea egokitua	Jolasak Kulturala			●				
<b>Loiolatarra</b>	1985	Entretanimendua			●				
<b>Urtoki</b>	1967 1988ko Legea egokitua			●		2 Abal		●	2 Abal
<b>Umore Ona</b>	1908 1988ko Legea	Ongintzazkoa Kulturala			●				

Alabaina, horrelako elkarteetan, hots, estatutu-isiltasuna nagusi den elkarte gastronomikoetan egon litekeen eta benetan dagoen sexu-arrazoiengatiko diskriminazioa balioesteko, ezinbesteko baldintza da honako tresna hauetarako sarbidea izatea:

- Elkartekide-liburua, emakumeek elkartean benetan duten presentzia egiaztatzeko.
- Zuzendaritza Batzordearen Aktak/Batzar Nagusietako Aktak, ahal bada, gertatu diren ukapen guztiak edota hartu diren erabakiak egiaztatzeko, eta horiek jakinda, emakumeen sarbideari buruz elkarreak duen iritzia egiaztatzeko.
- Barne Erregimeneko Erregelamenduak, estatu-esparrutik kanpo arautzen diren sexu-arrazoiengatik elkartera eta/edo elkarrearen zati fisikoetara sartzeko murrizketarik ote dagoen egiaztatzeko.

Lehen adierazitakoaren laburpen gisa, bi elkarte gastronomiko mota horietan, tratu-berdintasunaren eta sexu-arrazoiengatik diskriminaziorik ezaren printzipioa betetzen ez dela begien bistakoa da batzuen kasuan, eta beharbada ohiko praktika da beste batzuen kasuan. Bi bazterketa-egoera horiek, aurreko epigrafeetan adierazi dugun bezala, Espainiako Konstituzioa, 3/2007 Lege Organikoa eta 4/2005 Legea urratuko lituzkete; orobat, zenbait jokabide eta adierazpen Zigor Kodean aurreikusitako moten barruan koka daitezke, Auzitegi Gorenaren eta Konstituzio Auzitegiaren ebazpenetan adierazten den bezala.

#### • **Auzitegiak eta elkartze-itun diskriminatzailea**

Konstituzio Auzitegiak finkatutako doktrinaren arabera, kasu honetan ez dagokio elkarte gastronomikoetan dagoen elkartze-ituna kontratu zibilarekin identifikatzea, elkartzeko eskubidea «funtsezko askatasun-eskubidea denez gero, askoz ere dimentsio eta irismen handiagoa baitu, eta “eskubide zibil” soilizat ezin baita hartu» [Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 5/1996, urtarrilaren 16koa (Konstituzio Auzitegiaren Ebazpena, 1996, 5)]. Konstituzio-eraikuntza osoaren euskarri den pertsonaren duintasunari zuzenean lotuta dago elkartzeko eskubidea. Giza soziabilitatearen adierazpen gisa, elkartzeko eskubideak egiteko erabakigarria du, eta egungo gizartearen ezaugarri diren askatasun pertsonalaren eta pluraltasun politiko, sozial eta kulturalaren zerbitzura dago.

Konstituzio Auzitegiaren doktrina errepikatuaren arabera, elkartzeko eskubidetik nabarmentzen da gizarte baten pluraltasun politikoa ordenamendu juridikoaren balio goren gisa (Espainiako konstituzioaren 1.1 artikulua). Elkartegintzaren ikuspegi pluralak nagusi izan behar du, gizarte-taldeek pertsonen duintasunaren alde, pertsonen nortasunaren alde, pertsonen nortasunari datxezkion funtsezko eskubideen alde eta ordena juridikoa eta bake soziala tolerantziaren eta solidaritatearen oinarrian finkatzearen alde lan egin dezaten.

Ildo horri eutsiz, Auzitegi Gorenaren 1997ko uztailaren 18ko epaiak (1997, 6086 JB) aitortzen duenez,

Espainiako Konstituzioaren 22. artikuluan ezarritako elkartzeko eskubidearen edukia honako puntu hauetan zehazten da:

- Partikularrek elkarteak sortzeko edota dagoeneko badauden elkarteei atxikitzeko duten eskubidea; botere publikoek ezin dute ekimen hori oztopatu edo elkarteen sorreran esku hartu [honako AGE hauek: 1979ko uztailaren 3koa (1979, 3182 JB), 1980ko ekainaren 3koa (1980, 3028 JB), 1981eko azaroaren 4koa (1981, 4729 JB), eta 1982ko martxoaren 2koa (1982, 1657 JB)].
- Sortutako elkarteek beren jarduerak gauzatzeko duten eskubidea.
- Gizabanakoak elkarteen barruan duten eskubidea; horrek bi eduki ditu: batetik, elkarte bateko elkartekide izateko eskubidea dakar, eta bestetik, ezin da inor ere ezein elkarteko kide izatera behartu, kasu jakin batzuetan elkartzeko debekua alde batera utzi gabe.

Zentzu hertsian, elkartzeko eskubidea honela defini daiteke: beste pertsona batzuekin gutxieneko egonkortasuna duten harremanak sortzeko pertsona batek duen ahalmena; harreman horien oinarria pertsona horiek alde aurretik finkatutako legezko helburuak lortzeko nahian dago, eta horretarako, elkartzeko pertsona guztiak lankidetzan aritzen dira, jarduera jakin batzuk gauzatu, eta funtzionamendurako barne-arau jakin batzuen eraginpean jarri. Izan ere, elkartzeko eskubideari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak horixe adierazi du ekainaren 14an emandako 104/1999 Epaian (1999, 104 JB); epai horren 2. oinarrian herritarrek elkartzeko duten eskubidea aditzera ematen da lehenik eta behin: *“Elkartzeko eskubidearen konstituzio-aitorpenak, beraz, herritarrek elkarteak sortzeko eta elkarte horietan parte hartzeko duten eskubidearen berrespena –eta beraz, bermea– dakar.”*

Hala eta guztiz ere, elkartzeko eskubidea aitortu ondoren, Konstituzio Auzitegiak [AGEak: 70/1982 (1982, 70 KAZB), 39/1986 (1986, 39 KAZB), 127/1989 (1989, 127 KAZB), 30/1992 (1992, 30 KAZB) eta 134/1994 (1994, 134 KAZB); AGEak: 11/1981 (1981, 11 KAZB), 2/1982 (1982, 2 KAZB), 91/1983 (1983, 91 KAZB), 22/1984 (1984, 22 KAZB), 110/1984 (1984, 110 KAZB), 77/1985 (1985, 77 KAZB), 159/1986 (1986, 159 KAZB), 120/1990 (1990, 120 KAZB), 181/1990 (1990, 181 KAZB) eta 143/1994 (1994, 143 KAZB)] elkarteen jardueraren muga bakar bat ezartzen du: Konstituzioa eta Legea errespetatzea, hain zuzen ere.

Beraz, Konstituzio Auzitegiak gogorarazten digun bezala [uztailaren 4ko 231/1991 KAA (RTC 1991, 231 AUTO)], elkartzeko eskubidea ez da eskubide absolutu bat, horren orde, «funtsezko eskubide

*guztiak bezala, zenbait mugaren eraginpean dago, eta muga horietako zenbaitzuk elkartekideek dituzten bermeek finkatzen dituzte; hala eta guztiz ere, hori ez da elkartearen borondatezko muinarekin bateraezina.»*

Elkartzeko askatasuna honela haztatzen du Auzitegiak: *“Elkartzeko eskubidearen erdiko alderdia, beraz, muga horien zabaltasun eta irekitasunean kokatuko da, eta muga horien arabera zehaztuko dira eskubidearen benetakotasuna eta eskubide hori baliatzeari datxekion askatasunaren irismena. Horregatik guztiagatik, Konstituzioan funtsezko eskubide gisako kalifikazioa duen elkartzeko askatasunak, halako kalifikazioa duen aldetik, alde aurreko babes handiagoa du, eta ez ondorengo babes handiagoa, ez da absolutua eta mota bereko gainerako eskubideen eta gainerako pertsonen eskubideen mugakide da; Zigor Kodea du azken muga, eta horren arabera, delitu gisa tipifikatuta dauden helburuak dituzten edota horrelako baliabideak erabiltzen dituzten elkarteak legez kontrakoak izango dira, hasieran aipatutako konstituzio-arauaren bigarren paragrafoak ohartarazten duen bezala.”*

Legezketasun-printzipioa askatasunez elkartzearen oinarrizko jardun-esparrua da. Auzitegia Gorenak honako hau adierazten du: *“Alabaina, eskubide horren barruko lehen muga legezketasun-printzipioak finkatzen du, eta horri jarraiki, elkartearen Estatutuak, autonomia-ahalgoaren baliatze gisa, Konstituziora egokitu behar dira, eta baita eskubide horren oinarrizko edukia errespetatuz hura garatzen edo arautzen duten Legeei ere.”*

Elkartearen organoen edozein jardun, elkarte mota horretan tipikoa edo ohikoa bada eta elkartearen helburuak lortzera bideratzen bada, Konstituzioaren barruan eta Legea betez izango da legezkoa soilik, eta era berean, kasu horretan baino ez du babestuko ordenamendu juridikoak jardun hori. Izan ere, ildo horretan bertan eman zituzten Auzitegi Gorenak eta Konstituzio Auzitegiak beren ebazpenak, Comunidad de Pescadores de El Palmar (Valentzia) erakundeari dagokionez<sup>7</sup>.

Kasu honetan, Valenciako Comunidad de pescadores de El Palmar Erakundeak, «Comú de Peixcadors de la Ciutat de Valencia» zeritzonaren ondorengo gisa, ez zuen Erakundean emakumerik sartzeari nahi, eta horren argudio gisa 1238an Jaime I.a Erregeak Valenciako Erreinaua sortu zuen garaiko ohiturazko arau bati heltzen zion. Auzi-kasu horretan, Konstituzio Auzitegiaren irailaren 20ko 254/2001 Autoak honako ebazpen hau eman zuen: *“Elkartzeko eskubideak elkarte pribatuek beren kabuz antolatzeko duten ahalgoa dakar, zalantzarik gabe, eta ahalgo hori, printzipioz, botere publikoaren esku-hartzetik libre dago; hala eta guztiz ere, beharrezkoa da zehaztea ahalgo hori baliatzeak inolaz ere ezin duela ekarri hirugarrenen oinarrizko eskubideen murriztapenik.”*

Maila txikiagoko beste zenbait auzitegi aurkako epaiak eman dituztela alde batera utzi gabe<sup>8</sup>, Auzitegi Gorenaren eta Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia-doktrina oso zehatza da; horrela, elkarte-autonomia bat defendatzeak elkartearen helburu sozialak ez betetzea badakar, ezin da horrelako aldarrikapenik egin, eta ezta egitekoaren independentzia aldarrikatu ere, horren bitartez mandatu judizialak betetzen ez badira eta ordenamendu juridikoa hausten bada. Autoantolamendu-

7. Konstituzio Auzitegia (Lehen Sala). Irailaren 20ko 254/2001 zenbakiko Autoa. (KAZB\2001\254 AUTO); Auzitegi Gorenaren (Zigor-artoko Sala). Txostengilea: Ignacio Sierra Gil de la Cuesta; Otsailaren 8ko Epaiak: 93/2001 zk. 2001\544 JB.

8. Elkarte kultural eta gastronomikoetan elkartekide gisa sartzean gertatutako zeharkako diskriminazioko zenbait kasutan, maila txikiagoko auzitegi batzuek ez dute aintzat hartu sexu-arrazoiengatik diskriminatuak ez izateko emakumeek duten eskubidea, eta horren argudio gisa, erabaki diskriminatzaileak hartzean elkarrekin Batzar Nagusiek duten subiranotasunari heldu diote. Ikus, Gipuzkoako Probintzia Auzitegia (3. sekzioa). Uztailaren 19ko 232/2006 Epaiak; Txostengilea: Iñigo Suárez Odriozola (JUR\2007\100629), ARRALDE TXIKI KULTUR KIROI. ETA AISIALDIRAKO ELKARTEAREN kasua, Azpeitiko 2. zenbakiko Lehen Auzialdiko Epaitegiaren urtarrilaren 16ko 4/2006 epaiak aintzat hartuz (AC\2006\116).

askatasunaren baliatzea funtsezko eskubideak errespetatzearekin bateragarri egin behar da<sup>9</sup>.

Elkarteen inguruneak errespetatu beharreko oinarriko eskubide horien barruan, berdintasunerako eta sexu-arrazoiengatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminaziorik ezerako eskubidea dugu<sup>10</sup>. Jurisprudenziako doktrina horrekin batera, sexu-arrazoiengatiko berdintasunik eza erazteko jokabide proaktiboa izateko ardura eman zaie erakunde publikoei.

## 2.3 Erakunde publikoak eta elkarte gastronomikoen emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea

Elkarte gastronomikoen sexu-arrazoiengatiko diskriminazioa dela-eta eragindako arazoaren aurrean, erakunde publikoek ezin dute ezer ere egin gabe egon, legeak agintzen baitie esku hartzeko. Euskal agintaritzak publikoaren kasuan, lehen aipatutako 4/2005 Legearen daude xedatuta gai horren gainean dituzten betebeharrak eta erantzukizun zehatzak; horrela, ezinbestekoak dira honako betebeharrak hauek:

### • Diskriminazio-egoerak ikertzea eta detektatzea

Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumena, 4/2005 Legearen 5. artikuluari jarraiki, honako egiteko hauek zehazten da, besteak beste: *“Sexuaren ziozko bereizkeria-egoerak ikertu eta antzematea, eta egoera horiek erroten kartzeko neurriak hartzea”* eta *“Zehatzeko ahala egikaritzea.”*

Era berean, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, bakoitzari dagokion lurralde historikoen esparruan, foru-administrazioek ere honako egiteko hauek dituzte, besteak beste: *“Bakoitzaren lurralde-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek erroten kartzeko neurriak hartzea”* eta *“Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakiokkeen beste edozein eginkizun betetzea.”*

Eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokienez, modu indibidualean edota kide diren edota sortzen dituzten mankomunitateen bitartez, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan honako egiteko hauek dituzte: *“Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea”, “Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera”, “Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek erroten kartzeko neurriak hartzea”,* eta *“Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakiokkeen beste edozein eginkizun betetzea.”*

Horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako

9. AGEak: 218/1988 (RTC 1988, 218), 244/1991 (RTC 1991, 244), 185/1993 (RTC 1993, 185) eta 56/1995 (RTC 1995, 56), guztiengatik.

10. Hori adierazi zuten boto partikularrean Luis Manglano Sada, Edilberto Narbón Laínez eta Fernando Nieto Martín magistratuek (Salvador Belmont Mora, José Martínez Arenas, Francisco Hervás Vercher, Amalia Basanta Rodríguez eta Rosario Vidal Mas atxiki zaizkie), 2000ko maiatzaren 22ko Epaiari (Administrazioarekiko Auzien Salako Ebazpen Judiziala\2000) dagokionez –Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan egindako osoko bilkuran emandako epaia, 790/2000 zk.–, “acuerdo de Ayuntamiento relativo a sorteo de «redolins» para campaña de pesca” zeritzon kasuan (arrantza-kanpainarako «redolins» deritzenen zozketari buruzko Udal Erabakia). Sexu-arrazoiengatik diskriminatuak ez izateko emakumeek duten eskubidea “obiter dicta” gisa errepikatzen da behin eta berriaz Auzitegi Gorenak emandako hainbat epaitan (Administrazioarekiko Auzitegiaren Sala, 7. sekzioa); txostengilea: Manuel Goded Miranda; 2003ko ekainaren 5eko Epaiak, JB\2003\4123.

Defentsa Erakundea ezarri zen; tratu-berdintasunaren eta sektore pribatuan gertatzen diren sexu-arrazoiengatiko diskriminazio-egoeren aurrean herritarrak defendatzearen printzipioaren betearazpena zaintzen du organo independente horrek, eta 4/2005 Legearen 64. artikulua arabera, bere egitekoak gauzatzean, honako hauek dagozkio: *“Ikerketak egitea, ofizioz nahiz alderen batek eskatuta. Ikerketon helburua sektore pribatuan gerta daitezkeen sexuaren ziozko zuzeneko edo zeharkako bereizkeria-egoerak argitzea izango da”, “emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, bereizkeriaren aurkako arauak zenbateraino betetzen diren aztertu eta ebaluatzea”, eta “bereizkeriaren aurkako legeria eta jurisprudentzia aztertzea, eta lege berriak egitea eta legeria aldatzeko proposamenak aurkeztea.”*

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak jardura hori gauzatu du sektore horretan, eta elkarte gastronomikoei dagokionez, bere iritzia emateko aukera izan du. Horren ildo beretik, 2007ko ekainaren 26an defendatzaileak emandako Gomendioa dugu, Puentelarrako “Txoko Eder” jolaserako elkarte gastronomikoaren espedientean (ikus 2007ko ekainaren 26ko Q/11/2006) eta 2007ko abenduaren 17an defendatzaileak emandako Ebazpena, Guri Zer elkarteari buruzkoa (ikus 2007ko abenduaren 17ko D/30/2007).

#### • **Zuzeneko eta zeharkako diru-laguntzak**

Elkarteei eta erakundeei aplikatzekoak diren esparru soziopolitikoan eta kultura-jardueren esparruan, berdintasunari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek egin beharreko honako jardun hauek hizpatzen dira 4/2005 Legearen 24. eta 25. artikuluetan:

##### *Diru-laguntzen kontrola*

Herri-administrazioek honako hauetarako ahalgoa dute: *“...sustatu behar dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadila profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakunde zuzendaritzako organoetan. Horretarako, gehitu edo egokitu ahal izango dituzte elkarte eta erakundeei adierazitako helburua betetzearen arabera dagozkien diru-laguntzak”, eta baita diru-laguntza horiek ukatu ere. “Euskal herri-administrazioek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.”*

##### *Pizgarien kontrola*

Beste tresna bat ere badago, pizgari ekonomikoena, hain zuzen ere: *“Lege honetan aipatzen diren helburuak lortzeko asmoz eratutako elkarteak bultzatuko dituzte euskal herri-administrazioek.”*

### *Onura publikoaren aitortpena*

Herri-administrazioek emakumeen eta gizonen tratu-berdintasuna berma dezakete irabazi-asmorik gabeko erakundeen onura publikoa aitortuz: *“Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea helburu duten zerbitzuak eskaintzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeak onura publikokotzat deklaratu ahal izango dira, erakunde bakoitzaren forma juridikoari dagokion legedia berezian ezarritakoari jarraiki.”*

### *Toki publikoak lagatzea*

Kultura-jardueren esparruan (25. artikulua), herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan: *“beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduera guztietan.”*

Azkenik, 4/2005 Legearen 25. artikuluko paragrafoan esanbidezko debeku-klausula bat ezartzen da: *“Debekatu egiten da emakumeek gizonetikiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan.”* Horri dagokionez, eta adierazitako Lege hori baino lehenago, Auzitegi Gorenak epai bat eman zuen 2002ko irailaren 19an; horretan, Irungo Alarde Tradizionalaren kasuan sexu-arrazoiengatiko diskriminazioa zegoela adierazi zuen<sup>11</sup>.

### • **Kargu publikoen partaidetza**

4/2005 Legearen 25. artikulua, diru-laguntzez gain, ordezkari publikoen partaidetza ere hartzen du eraginpean: *“Kultura-jardueraren batean –hor sartuta jai kutsukoak, artistikoak, kirolekoak, eta euskararen normalkuntzaren arlokoak– sexuaren ziozko bereizkeria egiten bada, euskal herri-administrazioek ezin izango diote jarduera horri inolako laguntzarik eman, edo administrazio horien ordezkariak ezin izango dute jarduerotan administrazioaren ordezkari gisa parte hartu.”*

11. AGE, 2002ko irailaren 19koa; txostengilea: Nicolás Maraundi Guillén (rec. 2241/1998) (10603/2003 Legea). Hala eta guztiz ere, epai horrek, Eusko Legebiltzarreko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen –jendaurreko ikuskizunak eta jolas iharduerak arautzekoa– arabera (Lege Bilduma Kronologikoa 1995, 3546 eta Eusko Legebiltzarrearen Legea 1995, 367) emakumeen aurkako diskriminaziorik ezaren aldekoa zen; bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan (Lehen Sekzioa; txostengilea: Roberto Saiz Fernandez) epai eman zen 2002ko ekainaren 21ean (JUR 2002\241659); Irungo alkatetzak 2001eko ekainaren 26an emandako Ebazpenaren aurka kendutako errekurtsioa gaitzetsi zuen epai horrek; adierazitako Ebazpenaren bitartez, foru-milizien oroitzapenezko ikuskizun baten ospakizuna baimentzen zen (San Martzialeko Alarde Tradizionala). Auzitegi Gorenak berretsitako epai; txostengilea: Nicolás Maurandi Guillén; horren bitartez adierazten da 2008ko maiatzaren 28ko Epaiaren bitartez (JUR\2008\222533) kostuen ezarpenarekin aurkeztutako kasazio-errekurtsioa bidezkoa ez dela. Oinarri berbera izan zuen honako honek: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Sala, 1. Sekzioa; txostengilea: Enrique Torres y López de la Calle; 2002ko irailaren 10eko Epai; rec. 1771/2001 (1629/2003 Legea); (JUR 2002, 263425). Hondarribiko Alarde Tradizionala ospatzeko baimena eman zuen Erabakiaren (2001eko irailaren 5koa, Irungo alkatearena) aurkako errekurtsioa gaitzetsi zuen Epai horrek. Joana Mugarrietakoa Elkarteak aurre egindako eta Auzitegi Gorenak (administrazioarekiko auzietako hirugarren sala; txostengilea: Pablo Lucas Murillo de la Cueva) berretsitako epai (2007\1278 JB), 2007ko urtarrilaren 15koa.

Horren ildotik, Arartekoaren abenduaren 11ko 1116/2008 ebazpena irmoa da; Laudioko zaindariaren jaietan “Roke Denaren Anaidiak” egin ohi duen ermandade-bazkarian emakumeen berdintasunezko partaidetzari buruzko jarduna erabakitzen da ebazpen horren bitartez<sup>12</sup> (ikus [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_1555\\_3.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_1555_3.pdf)).

#### • **Inskripzioak kontrolatzea eta ukatzea**

Azkenik, lehen aipatutako ekainaren 22ko 7/2007 Legearen (Euskadiko Elkarteei buruzkoa) 37. artikulua Elkarteen Erroldarako portaera-jarraibide bat igortzen du. Hain zuzen ere, erakunde horrek elkarteei buruzko indarreko legedia zaintzeko egitekoa duela kontuan hartuz, indarreko ordenamendua urratzen duten Estatutuak dituzten elkarteei inskripzioa ukatzeko eskumena izan beharko luke; kasu honetan, urraketa horiek sexu-arrazoiengatiko diskriminazio ezerako eskubidean gertatuko lirateke. Horren ildotik, adierazitako 7/2007 Legeak honako hau hizpatzen du erregistroari dagokionez: *“Elkartzeko eskubideak berekin dakar eskumena duen elkarte-erregistroan inskribatzeko eskubidea, eta indarrean dagoen legedian ezarritako betekizunak betetzen ez direnean bakarrik uka daiteke.”*

Testuinguru horren barruan, ondoren zerrendatuko diren Dekretuak atera dira:

- Ekainaren 29ko 145/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Errolda Nagusiaren Erregelamendua onartzen duena. Gai honi dagozkion ondorioetarako, Erroldari emandako egitekoen artean honako hau da aipagarria: *“Erroldan sartu beharrekoak diren egintzak kalifikatzea, inskribatzea eta egiaztatzea”* (3.1 artikulua). Erroldak du Elkarteak inskripzioan aurkeztutako eratze-aktan eta Estatutuetan indarreko legedia betetzen dela begiratzeko ardura.
- Eta uztailaren 29ko 146/2008 Dekretua, Onura Publikoko Elkarteei eta beren Babesletzari buruzko Erregelamendua onartzen duena. Arau-esparru zehatz horretan elkarteen jarduerari jarraipena egiteari dagokionez Babesletzak dituen egitekoak daude zehaztuta. Egiteko horien artean, Babesletzak seinale jakin batzuk egiaztatzen edo ondorioztatzen ditunean, jakinarazpen-txostena irekitzeko eginkizuna duela adierazten da: indarreko ordenamendu juridikoaren edo elkartearen estatutuen bitartez ezarritako betebeharrak ez betetzea [21.2 artikuluko e) idatz-zatia].

12. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak Laudioko –Araba– Roke Deunaren Anaidiak antolatutako Ermandade Bazkariaren erregulazioari buruzko Irizpena eman zuen: bazkarian sartzeari eta ohitura eta usadioen estatutu-erregulazioa Barne Erregelamenduan. [www.euskadi.defentsoria.net/](http://www.euskadi.defentsoria.net/)





DEFENTSORIA

## 3. Ondorioak eta Proposamenak

## 3.1 Ondorioak

### 1) *Elkarte gastronomikoak dinamizatzailerik garrantzitsuak dira eta gizartean eta kulturaren protagonistak*

- Elkartek gastronomikoek funtzio garrantzitsua dute inguru soziala dinamizatzean, festak antolatuz eta horietan parte hartuz, aisialdirako jarduerak kolektiboak eta aldarrikapen-jarduerak eginez. Modu horretan inguruaren kohesioa erraztu eta komunitatekoa izatearen sentimendua sorrarazten dute.
- Ekitaldi publikoetan (adibidez, festetan, oroitzapenezko ekitaldietan, etab) duten protagonismoari esker, askotan, oso garrantzitsuak diren nortasun-elementuak ematen dituzte elkarrekin eta, beraz, eurak nortasun erreferente ere bihurtzen dira.
- Elkartek gastronomikoak euskal *ethos*aren parte direla pentsatzen da eta euskal kulturaren ikonotzat jo daitezkeela. Gainera, bertan euskal nortasuna islatzen da, bai barruan, bai parte hartzen duten ekitaldi publikoetan, jailetan eta errituetan.
- Elkartek gastronomikoak nazioartean ezagunak dira eta, horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoaren irudi jakin bat esportatzen dute, maskulinotatu eta emakumeak baztertzen dituen irudiarekin lotuta. Ildo horretatik, emakumeen bazterketak oso irudi negatiboa ematen die, bai elkartek gastronomikoei, bai Autonomia Erkidegoari.
- Autonomia Erkidego honetan oso errotuta dauden eredu bat izateaz gainera, guztiz onartzen diren gizarte-nortasun sortzaileen elkarrekin dira.
- Zalantzarik gabe, dinamizatzeko eta nortasun erreferente izateko funtzioak ez datoz inondik ere bat berdintasunezko elkarrekin edo murriztaileekin, izan ere, bigarrenak bazterketa-eredu batean oinarritzen dira, emakumeak lekurik ez duten ereduak. Emakumeak baztertzen badira, sozializatzeko sareetatik ere urrunarazten dira, baita antolatzen dituzten eta/edo protagonista diren ekitaldietan parte-hartzetik eta protagonismotik ere.
- Elkartek gastronomiko guztiak, ordea, baliabide kolektibo bat arrakastaz nola kudeatzen den erakusteko adibide ona dira. Hari beretik, elkartek murriztaileek kudeaketa kolektiboaren esperientzia horietatik emakumeen parte-hartzea oztopatzen dute eta, beraz, horiei esker lortzen dituzten irabaziak debekatzen dizkiete.

### 2) *Elkarte gastronomikoak eragin- eta botere-sareak sortzen eta iraunarazten dituzten lekuak dira*

- Elkartek gastronomikoek kapital soziala eta sareak sortzen dituzte, formalak nahiz informalak. Sare horietatik ondasun ukaezinak zabaltzen dira sareko parte direnen artean.

- Elkarre gastronomikoetan bi sare informal mota daude: bata, besteak beste, familiarrekotasun, adiskidetasun eta aisialdi denboraren okupazio-maila handiagoez jarduten du eta kapital soziala indartzeko eta interes pertsonalei eta, batzuetan, lan-eremukoei, erantzuteko balio dezakete. Sare informaleen beste mota, besteak beste, instituzioekin, enpresekin eta erakundeekin dituzten harremanetan oinarritzen da; zabaltzen den informazioa, kasu honetan, ondasun edo ondare ukaezina da eta askotariko interesak asetzeko ere balio dezake. Bi motek, hala ere, boterea eta prestigioa edo estatusa sorrarazten dute.
- Elkarre gastronomikoetan, gainera, erakunde jakin batzuekin harreman formalak sortzen dira. Harreman horiek (burokrazia kontuak direla-eta, ezartzen denetik haratago doazenean) bi ondorio dakartzate: batetik, prestigioa elkar trukatzeko dute (berezi, elkarteak nolabaiteko prestigioa badu), eta bestetik, erakundeen presentziak nolabaiteko egiazkotasuna ematen die elkarte gastronomikoei.
- Elkarre gastronomikoetan sortutako eta gehitutako kapital soziala desberdintasunaren eta bazterketaren kausa izan daiteke, sare horretakoak direnentzako bakarrik direlako onuragarriak, sarekoak ez direnen kalterako.
- Hari beretik, elkarte gastronomiko batzuetan emakumeek parte hartzeko dituzten oztopoek edo betoek (oro har, kapital sozial handiena dutenak dira mugatze hori praktikatzeko dutenak) "laguntalde" batetik urrunaraztea baino gehiago esan nahi dute: era berean, botere-sareetatik eta horietan sortzen den kapital sozialetik aldenarazten zaie. Bazterketa horren garrantzia, elkarte gastronomiko baztertzailak sortutako kapital sozialaren garrantziaren arabera izango da (elkarre gastronomiko murriztaile askoren kasua da).

### **3) Elkarre gastronomikoak prestigio-iturrietarako sarrera dira**

- Gizarteko zenbait eremutan elkarte gastronomikoen duten protagonismoari esker, elkartekideentzako prestigio-iturri neurtezinak dira elkarteak. Gizartean garrantzia duten ekitaldietan parte hartzean, edo erakundeekin, instituzioekin edo prestigioa duten pertsonekin loturak izatean, elkarte gastronomikoen prestigioa handitzen da, baita elkartekideena ere.
- Askotariko eremuetan eragina eta prestigioa duten zenbait pertsonekin kontaktua ezartzeko aukera ematen dute elkarte gastronomikoen, hori guztia harremana errazten duen giro informalean. Horrek guztiak eragina du elkartekideen estatusarengan, eta ezkutuan duten curriculumak indartzen dute.
- Elkarre gastronomiarekin duten lotura, era berean, balio soziala areagotzeko faktore bat da, gaur egun euskal gizartean gastronomiak duen garrantzia kontuan izanda. Gastronomía euskal etnizitatean nortasun-zeinu garrantzitsua bihurtzeaz gainera, inoiz ezagutu ez den handitasuna

lortu du. Kultura-, aisialdi- eta entretenimendu-munduko hainbat eremutan dago, non ukaezina den prestigiozko eremuetan mugitzen baita guztia. Euskal gastronomiak errekonozimendu handia du, ospea eta izen ona (baita nazioartean ere). Gastronomía honen helmena hain da handia, ezen nortasun-erreferente garrantzitsua eta prestigio markatzailea bihurtu bat baita, eta horri esker, elkarte gastronomikoak lehen onuradunen artean daude.

- Elkarte gastronomikoetatik emakumeak baztertzen badira, emakumeenak izan daitezkeen botere-sareetan parte hartzea ere zailtzen dute eta, beraz, emakumeek ezin dute sartu sare horietatik sortutako prestigiozko iturrietara.
- Sukaldea, oraindik ere, tradizioz emakumeena den eremua da eta, gainera, garrantzi handia izan du gaur egun “euskal gastronomía” izenez ezagutzen dugun horretan. Ildo horretatik, ikus daiteke tradizioz emakumeena den jakintza bat nola bihurtu den errekonozimendu eta esan nahi berria duen eremua, baina, eremua oro har gizonena denez, emakumeak at geratzen dira.

#### ***4) Elkarte gastronomikoek genero-harremanak ulertzeko modu berri bat sortzen eta irautarazten dute, baina sexu hierarkizazioa horren guztiaren ondorioa da, emakumeen kalterako***

- Elkarte gastronomikoek gizartean eta taldearen pentsaeran dute lekua kontuan izanik, adierazpen mota jakin batzuk sortzeko ahalmen berezia dute, bereziki genero-harremanei eta emakumeei buruzkoak. Elkarte gastronomiko batzuetan erabiltzen diren adierazpen mota horiei dagokienez, bazterketa-ereduak (bir)sortzen dira, emakumeei izen ona galarazten dieten ezarritako estereotipo batzuk oinarri. Erreferente soziala direnez, elkarteetatik kanpo ere eredu ideologiko bat esportatzeko gai dira.
- Elkarte murriztaileetan, emakumeak boterea galtzeko egoera batean daudela esan daiteke, izan ere, sarrera ukatzen baitzaie, elkartekide izatea, elkartearen arteko trukean parte hartzea. Prestigios jantzitako janaria egiteko moduaren lekuko pasiboak dira eta, horregatik, bereizi eta balioa galtzen du emakumeek jarduera bera etxean egiten dutenean.
- Elkarte murriztaileetan elkartekide ugari emakumeen bazterketa justifikatzeko erabiltzen dituen estereotipoek adierazten dute emakumeak “besteak” direla, “gu” horretatik bereziz. Halaber, emakumeak estereotipatzeko bi ohiko modu daude: gaitz guztien errudunak direla esatea (gizonak kontrolatzen dituzte, askatasuna mugatzen dute, liskarrak sortzen dituzte, agindu egin nahi dute, elkartearen esentzia galarazten dute, etab.) edo gai ez direla esatea (ez dituzte elkarte gastronomiko batean elkar bizitzeko behar diren gizonen ezaugarriak, gastronomiaren “izpiritua”).

- Konturatu ere egin gabe, tradizioa zeharka aipatzen dute, elkarte gastronomikoetan emakumeak zergatik bazterten diren justifikatzeko eta adierazteko, pentsatzen baitute tradizioa zalantzan jar ezin daitekeen argudioa dela bazterketa hori mantentzeko. Hortxe dago argudioaren indarra. Ikuspegi horren arabera, tradizioak aldaezinak dira, baina aldaketari esker, hain zuzen ere, mantendu ahal izaten dira, tradizioak parte hartzen duen gizartea aldatu egiten delako. Gaur egungo gizartean, genero-harremanei dagokienez asaldu-garaian murgildua, tradizioaren bidez iraunarazi nahi diren balioak anakronismo hutsa eta egungo ordena sozialaren adierazpena dira.
- Gainera, argudiatzen da, emakumeek elkarte gastronomikoak erabiltzeko dituzten mugei esker, haien alde egiten dela, emakumeek normalean etxean egiten dituzten lanetatik askatzen direlako. Hala ere, kontuan izan behar da sukaldaria sartzeko inposatzen den mugak bi helburu dituela: etxean eta elkarte gastronomikoan egiten den janaria bereiztea, bigarrenari ematen zaion esanahi berriari esker prestigio eta balio gehiago emanez; elkarrekikotasun erritu batetik emakumeak bazterzea, desberdinak direla eta trukerako adore falta dutela erakutsiz; jakintzen usurpazioa eszenifikatzea; eta legezkoztat jotzea, ohiz kanpoko zerbaiten gisa, gizonen etxeko lanen ardurarik ez dutela.
- Azken aspektu horren haritik, ikusi da emakumeak hauren sarrerarekin lotu direla eta horrek elkartekideei enbarazu egiten die; horregatik, euren praktika diskriminatzaileak justifikatzeko erabiltzen dute aipatu argudioa, emakumeak familia zaintzeko lanen arduradun bakarrak direla esanez.
- Elkarte gastronomiko murriztaileetan egiaztatu da ez dela inongo oztoporik jartzen emakumeak elkartera lanera sartzeko (garbitzaileak edo sukaldariak kasu). Ez dago arriskurik elkarrekin egiten dituzten praktika diskriminatzaileak zalantzan jartzeko eta ez dute elkartekideekin harremanik, izan ere, euren lana soilik egiten dute, gehienetan, elkartekideen begi-bistatik at; beraz, ez dute elkarrekiteko edo trukatzeko aukerarik, lan hori egiten dutenak trukagarriak direlako eta, hortaz, anonimoak. Ildo horretatik, ez dira salbuespen bat; aitzitik, garbitzaileen irudiak emakumeak desberdinak direla adierazten jarraitzen du, garrantzirik ez dutela (trukagarriak direlako), ezta trukerako gaitasunik edo baliorik ere.

##### **5) Elkarte gastronomikoak maskulinitasun-eredu jakin bat birsortzeko lekuak dira**

- Elkarte gastronomiko murriztaileek, maskulinitasun-eredu jakin batzuk birsortzen jarraitu ahal izateko, gizonen espazio bat izateko beharri erantzuten diote.
- Elkarte gastronomiko murriztaileak gizonen espazio bezala ulertzen dira, berez, elkarrekin definitzeko ezaugarrietako bat dela uste baita. Emakumeen sarrera mehatxu bat da elkarte

gastronomikoek denboran aurrera jarraitu eta nortasun maskulinoa birsortu ahal izateko. Edozein elementu femeninok hori ezinezko egingo luke.

- Femeninoa dena eta maskulinoa dena mugatzeko baliabide gisa erabiltzen da espazioa; horregatik, emakumeen presentzia zorrotz mugatzen da. Beraz, bereizketa hori mantentzeko garrantzitsuena emakumeen kontaktutik at modu berezian babestea da; kasu honetan sukaldea da tabu gehien sortzen dituen lekua.
- Emakumeak sukaldera sartzeko debekua erresistentzia-baliabide bat da emakumeen “kolonizazioaren” aurka. Debekuaren bidez, gizonak elkarrekin gastronomikoetan duten boterea betikotzen da, sukaldeko jarduera leku horietan egiten den garrantzitsuena, nortasun eta prestigio gehien duena dela kontuan izanez.
- Banaketa hori beharrezkoa zaie elkarrekin gastronomikoa berresteko, eta bereziki sukaldea, gizonen eremu gisa. Aipatutakoa funtsezkoa da, kontuan hartzen bada sukaldea feminitateari lotutako espazioa dela. Ildo horretatik, etxeko sukaldearen eta elkartekoaren arteko bereizpen argia sortu eta indartu behar da: lehenengoa emakumeena da eta bigarrena, berriz, gizonena. Espazioari eta bertan egiten diren jarduerari esanahi berri bat emanez lortzen da, elkarrekin gastronomikoetan prestatzen den janaria ezaugarri maskulinoez jantziz (profesionaltasuna, prestigioa, balioa, etab.) eta, hala, emakumeek etxean prestatzen duten janaritik bereiziz. Esanahi berri horretan, kontuan hartu behar da funtsezkoa dela elkarrekin gastronomikoan janaria prestatzeari eskaintzen zaion denbora; etxean, ordea, betebeharrak bat da.
- Emakumeak ere ekitaldi herrikoi batzuetan baztertzen dira, bereziki elkarrekin komunitaterako antolatzen dituen karga sinboliko handiko ekitaldietan, izan ere, emakumeen presentzia mugatu egiten baita ekitaldiaren esentzia galdu egiten dela pentsatzen delako. Modu berean, nortasun maskulinoa osatzen duten aspektuetako bati buruz eztabaidatzen da: prestigioari eta botereari buruz.
- Elkarrekin gastronomikoak sozializatzeko erreferenteak dira, baina bereizitako (sexuaren arabera) gizarte batekoak. Elkarrekin gastronomikoek, sozializatzeko funtzioen artean, urratsak eskaintzen dituzte maskulinitasuna birsortzeko funtsezko balioak jarrera gisa adierazi eta izateko, gure kulturaren adibidez, berdintasuna, adiskidetasuna, jatorritasuna, etab
- Ildo horretatik, eta sozializazio desberdinduaren haritik, ezin dira elkarrekin gastronomikoak emakumeen leku “propio” gisa ulertu, “bizizalearen” irudiari lotuta baitaude, aisialdian oinarritutako “bizi onaren” zale denari, janariak eta edariak gozatzei, lagunekin egotei. Ezaugarri horiek gizon euskaldunarenak direla esan ohi da, baina emakumei zailtasun ugari aplikatuko litzaizkiekeenak.

**6) Emakumeak elkartekide izaten uzten ez duten elkarte gastronomikoen eskubide batzuk urratzen dituzte**

Azaldutako eskubidearen oinarrien berrikuspen eta azterketaren arabera, elkarteek, auto-gobernu eta auto-antolaketarako eskubidea badute ere, ezin dute eskubide hori askatasunez erabili. Boterea ez da absolutua, eta legeak eta hirugarrenen eskubideak (besteak beste, sexu-arrazoiengatik diskriminatuak ez izateko emakumeek duten eskubidea) errespetatu beharrak mugatzen du.

- Elkarte gastronomikoetako elkartekideek sinatu duten elkartze-ituna (elkartea sortzerakoan zein elkarteak dirauen bitartean) elkarteei aplikatzekoa den araudiaren eraginpean nahiz tratu-berdintasunari eta sexu-arrazoiengatik diskriminazio ezari buruzko xedapenen eraginpean egongo da.
- Indarrean dagoen araudi osoa aplikatuz, banakoek askatasunez elkartzeko eta elkarteak sortzeko eskubidea badute ere, kasu honetan, hots, elkarte gastronomikoen kasuan, eskubide hori absolutua ez dela esan daiteke. Elkarteak sortu eta auto-antolatzerakoan, konstituzioaren, lege organikoen eta indarreko ordenamenduaren esparrua errespetatu beharko da, eta bereziki, aztergai dugun gaiaren ildo beretik, tratu-berdintasunerako eta sexu-arrazoiengatik diskriminaziorik ezerako eskubidea errespetatuz.
- Adierazitakoaren laburpen gisa, sexu-arrazoiengatik diskriminazio zuzena eta zeharkakoa dagoen elkarte gastronomikoetan, tratu-berdintasunaren eta sexu-arrazoiengatik diskriminaziorik ezaren printzipioa betetzen ez dela begien bistakoa da batzuen kasuan, eta beharbada ohiko praktika da beste batzuen kasuan. Bi bazterketa-egoera horiek Konstituzioa, 3/2007 Lege Organikoa eta 4/2005 Legea urratuko lukete; jarrera eta adierazpen batzuk, gainera, Zigor Kodean aurreikusten diren moten barruan egongo lirateke.
- Ikuspegi horretatik, elkarteak, erakunde publikoak diren aldetik, ez dira sexu-arrazoiengatik diskriminazioari lotutako erantzukizunetatik kanpo geratzen.

**7) Elkarte gastronomikoen osaketa eta araudiak aldatzen ari dira, bilakaera oso desberdina badute ere**

- Elkarte gastronomikoak aldatu egin dira, baina bilakaera oso desberdina da batetik bestera. Ekarpenean jaso denaren arabera, elkarte asko ahaleginak egiten ari dira euren estatutuak eta funtzionamendua egungo gizartearen errealitateari pixkanaka egokitzeko; hala, emakumeei ezarritako mugak murrizten edo kentzen dituzte, baina, hala ere, egiaztatu da “berdintasun” egoera lortzetik urrun daudela oraindik.
- Berdintasunezko elkarte gastronomikoak funtzio oso garrantzitsua betetzen ari dira prozesu horretan, emakumeak elkarte gastronomikoetan barne hartzeko aukera bideragarriak eskaintzen

baitituzte eta horiek guztiz bideragarriak direla erakusten baitute.

- Nabari da, elkarte murriztaileen arrazoibidea hain onartua izateko arrazoia, edo hobe esanda herritarren aldetik errefus eskasa izateko arrazoia, legeen bilakaeragatik ere, kasu honetan praktika sozialak legeen atzetik doazela dela. Dimentsio sinbolikoa aldatzea oso zaila da, legeetan aldaketak egin izan diren arren.
- Kasu batzuetan praktikak indarra galtzen doaz, horiek oinarri diren gizarteko balioak aldatu egin direlako; bada, elkarte gastronomiko batzuetako belaunaldi-erreibuei esker, estatutuetan aldaketak egitea posible da, duela hamarkada bat planteatu ere egiten ez zena.
- Elkarte murriztaileak dira prestigioa eta gizartean garrantzia dutenak; berdintasunezko elkarte gastronomikoeak, aldiz, egungo gizartean garrantzi gutxi dute.
- Beharrezkoa da azken horiek egungo egoeran betetzen duten funtzioa zabaltzea eta sustatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritzen diren sozializatzeko modu berriak sortzen dituztelako, gure gizartearen bilakaerarekin bat datozen harreman-eredu berriak sortzen dituztelako; gainera, modu horretan elkarte murriztaileetan oinarritzen diren balioak zalantzan jarrarazten dituzte, emakumeentzako aukera bideragarriak eskainiz.
- Dena dela, ezin da politika larderiatsua ezarri elkarte gastronomiko murriztaileak desagerrarazteko, jarrerak dauden bezala geratzea lortuko litzatekeelako soilik. Aitzitik, horretarako, berdintasunezko elkarte gastronomikoen ereduak sustatu behar dira eta ez bi korronteak aurrez aurre ipini.

Azken hausnarketa gisa aipatu behar da, lan hau kontuan hartuz, elkarte gastronomiko murriztaileak sexua hierarkizatzeko mekanismoak izan daitezkeela eta emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko oztopo bat. Ez dira lagun batzuk biltzeko lekuak soilik; aldiz, gizartean duten garrantziagatik eta bertan burutzen diren praktika motak direla medio, elkarte gastronomiko murriztaileetan emakumeen bazterketaren kausa eta ondorioak dira, estuki lotuta baitaude egun desagerrarazi nahi diren hierarkizazioan eta sexu-diskriminazioan oinarritutako ordena soziala adierazten duten balioekin.

Baina ezin dugu amaitu ikuspegi positibo bat azaldu gabe. Aldaketak sortzen ari dira eta eragile guztiek ulertzen dute aldaketa horiek halabarrezkoak direla, baita esentzialistenak diren elkarte gastronomikoetako ordezkariak ere. Era berean, ezin da ahaztu azken aldiak sortzen ari diren elkarte gastronomiko gehienak berdintasunezkoak direla eta elkarte gastronomiko murriztaile batzuk, aldaketa-prozesuan guztiz murgilduta dauden genero-harremanak direla medio, behar berrietara egokitzen ari direla.

## 3.2 Proposamenak

Ikerketa honetan landutako Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte gastronomikoen egungo egoerari buruzko jarduera-proposamenak bitan banatzen dira: batetik estrategia orokorrak eta, bestetik, ordena juridikoko estrategiak.

### Estrategia orokorrak

- Erakundeen eta elkarte gastronomiko murriztaileen artean gatazka zuzena edo publikoa sor dezaketen ekintza mugatuak, ahal den neurrian, saihesten saiatzea, indarrean dagoen legedia betetzeko aplikatu behar diren lege-neurriak bazter utzi gabe. *Erakunde publikoen eginbeharra.*
- Kulturaren eta tradizioaren izaera aldakorrari buruzko eztabaida gizarteratzea, herritarrei zabaldu, horiek horrelako argudioei kontra egiteko gai izan daitezen. *Erakunde Publikoen eta komunikabideen eginbeharra.*
- Ordezkaritza politikoa eta erakundeak kontzientziazatzea eta sentsibilizatzea beraiek elkarte murriztaileekin dituzten loturek dakartzaten ondorioei buruz, eta elkarte horietara ahal den gutxienetan joatera gonbidatzea. Ildo horretatik, ez zaie ekitaldi publikoei soilik erreferentzia egiten; aldiz, ekimen pertsonaleko kasuez ere ari gara. Horrelako bisitek komunikabideetan duten oihartzuna arintzeko modua izango litzateke, baita, elkarte murriztaileak komunikabideetan agertzean, erakundeekin edo pertsonaia publikoekin duten lotura indargabetzeko ere. *Erakunde publikoen eginbeharra.*
- Elkarte gastronomiko murriztaileak komunikabideetan gutxiago agertzea. Elkarte gastronomiko murriztaileak berri izatea saihestea, bestela gizartean duten garrantzia indartzen baita. 2008ko abenduaren 24an Teleberrian agertutako berrien modukoak saihestea, izan ere, elkarte horietako menu baten berri eman zen, elkartekideak janaria prestatzen zeudeneko irudiak erakutsiz. Horrelako erreportajeak egiten badira, berdintasunezko elkarte bati eman beharko litzaiokie protagonismoa. *Komunikabideen eginbeharra, Erakunde Publikoek sustatuta.*
- Era berean, berdintasunezko elkarte gastronomikoak gehiago agertu beharko lirateke komunikabideetan, murriztaileek okupatzen duten tokia haiek hartzeko. Beharrezkoa da aspektu hori azpimarratzea berdintasunezkoei murriztaileei baino balio gehiago ematen saiatzeko; entzute gehiago izan behar dute berdintasunezko elkarteek, komunikabideetan agertzeko aukera gehiago emanez, adibidez, berrikuntza eta genero-berdintasunerantz bilakaera positiboa erakutsiz. *Komunikabideen eginbeharra, Erakunde Publikoek sustatuta.*

- Berdintasunezko elkarte gastronomikoen historia eta ekarpena herritarren aurrean errekonozitzea, prestigio handien duten sarien artean. Liburu bat idaztea edo dokumentalak egitea elkarte horien historia azaltzeko. *Erakunde Publikoen eginbearra, komunikabideen lankidetzarekin.*
- Elkarte gastronomikoetan ekitaldi enblematikoak egiteko bidea zabaltzea. *Erakunde Publikoen eta pribatuaren eginbearra, komunikabideen lankidetzarekin.*
- Modu berean, berdintasunezko elkarte gastronomikoei errekonozimendu handiagoa eman beharko litzaieke gastronomiari dagokionez. Interesgarria litzateke gastronomian egiten duten ekarpena berdintasunezko elkartearen izaerarekin batera agertzea. Gastronomiaren munduan, nolabaiteko garrantzia duten pertsonak elkarte horietara gonbidatzea eta/edo bertan janaria presta dezaten proposatzea. *Gastronomiarekin lotutako ekimen pribatuaren eginbearra, komunikabideen lankidetzarekin.*
- Elkarte gastronomikoei parte hartzen duten jaietan eta erritualetan emakumeen presentzia sustatzea. *Erakunde Publikoen eginbearra.*
- Emakumeak aisialdiko testuinguruetan azaltzen diren irudiak lotzea, lagunekin daudenean, jan onaz gozaten, etab. *Erakunde Publikoen eginbearra, berdintasunaren aldeko kanpaina instituzionalen bidez eta/edo berdintasunaren aldeko taldeen lankidetzarekin.*
- Era berean, elkarte gastronomikoen idiosinkrasia osatzen duten balioekin ere lotzea: adiskidetasunarekin, laguntasunarekin, lankidetzarekin, trukearekin, etab. Balio horiek nabariak diren kasuak edo adibideak identifikatzea. *Erakunde Publikoen eginbearra, berdintasunaren aldeko kanpaina instituzionalen bidez eta/edo berdintasunaren aldeko taldeen lankidetzarekin.*
- Elkarte gastronomikoetan emakumeen bazterketa oinarritzen den estereotipoei kontra egiteko balio duten irudiak zabaltzeko eta sustatzeko, *estereotipoak alderantzizatzeko estrategia erabiltzea* proposatzen da, *transkodetze* izenez ezaguna den praktikari jarraiki. Estrategia horri esker, esanahi berriak emango zaizkie –kasu honetan ez baztertzailleak, ez emakume diskriminatzaileak– eta, modu horretan, haien indarra neutralizatu eta onarpena eztabaidatu ahal izango da. Estrategia hori arestian aipatutako esku-hartze proposamenei aplikatu dakieke, alegia, estereotipoei aurka egin dieten irudiak eta kontzeptuak zabaltzerakoan. *Bereziki komunikazioaren arduradunek edo erakundeek hartu behar dute kontuan (bai erakundeetako pertsonak bai komunikabideetakoek oro har).*

Estereotipoen *transkodetze*ari heltzen dioten hiru praktika daude; jarraian azaltzen dira zehatz-mehatz:

- *Estereotipoak alderantzikatzea*: alderdiz trukatzean edo iraultzean datza. Emakumeak estereotipo negatiborik gabe adieraztea da, estereotipo horietan oinarritutako bazterketaren arrazoiak zalantzan jartzen dituzten irudiak sustatuz. Zinema amerikarrean izugarri erabili izan da, adibidez, zinema beltzean edo *film noir* deritzon horretan; aktore beltzek interpretatzen zituzten paperek izugarritzko glamourra zuten eta heroien paperak ziren, pertsona beltzen estereotipoen guztiz kontrakoak, kontuan hartzen bada, besteak beste, euren estereotipoek marjinal, txiro eta mendeko gisa definitzen zituztela.
- *Irudi “positiboak” eta “negatiboak” ordezkatzeta*: elkarte gastronomikoen pentsatzeko moduaren parte diren eta zabalduen dagoen adierazpena izaten jarraitzen duten irudi “negatiboak” irudi “positiboak” ordezkatzeta, baita ezagunak zaizkigun emakumeenak ere (adibidez, ordena, garbitasuna, antolatze gaitasuna, etxea eta sukaldia ondo ezagutzea: amonaren errezetak, etab.). Puntu horretan kontu handiz ibili behar da, ezin baitira eredu batzuk indartu, eremu horretako esanahiak labaingarriak direlako, sukaldia tirabira espazioa izaki: emakumeen taldeak elkarte gastronomikoetako sukaldaritzarekin eta horrek dakarren guztiarekin lotu behar dira, eta ez etxekoarekin.

Ikuspegi horrek balantza orekatzeko eta eskubide-berdintasuna ezartzeko abantaila eskaintzen du. Onarpenaren bidez indartzen da, desberdintasunaren eta aniztasunaren ospakizun gisa. Aurkakotasun binarioa iraultzen du, mendekoa pribilegioz jantzi (kasu honetan emakumeak), batzuetan negatiboa dena modu positiboan irakurri, “beltza ederra da” estiloan. Ukatu zaien identifikazio –edo nortasun– positiboa sortzean datza.

Emakumeek euskal gastronomiara egin dituzten ekarpenak gehiago errekonozitzeko aukera egon beharko litzateke. Hari beretik, amez eta amonez hitz egiteari utzi eta bakoitzari bere izenez deitu beharko genioke. Sukaldari ospetsu askok euren ikasketa-garaian emakume horien errezetak oso garrantzitsuak zirela esaten dute, baina gutxitan aipatzen dituzte haien izenak. Sukaldari ospetsuekin lankidetzan izateko aukerari buruz pentsatu beharko litzateke informazio hori berreskuratu eta zabaltzeko.

- *Eta arraroa, arrotza egitea “normal” gisa onartutakoa, ezohikoa bihurtzea nabarmena dena*: estereotipoei ikuspegi berri bat ematean datza, ohiko egoerak arraro, ezohiko, bihurtzen dituzten irudiak erabiliz. Modu horretan, nabarmen agertuko da askotan ezkututzen dena, egoerarekin izugarri ohitzen garelako: dimentsio diskriminatzaileekin, iraingarriekin, baztertzailaekin, desintegratzaileekin, etab. Adibidez, emakumeen eta gizonen paperak truka daitezke elkarte gastronomikoetan edo irudi batean emakumeak gizon beltzengatik ordezkatu. Modu horretan,

protagonistek okupatzen duten lekua alderantzikatuz edo beste batzuegatik ordeztuz alegia, diskriminazio- eta bazterketa-egoera zein den nabarmen agertzen da.

Azkenik, Teresa del Vallek baieztatzen duen moduan, logikoa da pentsatzea dinamikak aldatzen ez dituzten elkarteek –euren arauak aldatu arren– pixkanaka elementu anakroniko bihurtu eta oso zaila suertatuko zaiela irautea, gero eta zailagoa izango baitzaie iraupena bermatzen duen belaunaldi-errelebu bat lortzea. Ildo horretatik, iraganeko eta gaitutako garai baten aztarna gisa aurkeztea proposatzen da, baina gizarte berritzaile, aurrerakoi eta berdintasunezkoak iraungo duen ideia sustatuz.

### **Arlo juridikoko estrategiak**

Azaldutako eskubidearen oinarrien berrikuspen eta azterketaren arabera, elkarteek, autogobernu eta autoantolaketa-erako eskubidea badute ere, ezin dute eskubide hori askatasunez baliatu. Boterea ez da absolutua, eta legeak eta hirugarrenen eskubideak (besteak beste, sexu-arrazoiengatik diskriminatuak ez izateko emakumeek duten eskubidea) errespetatu beharrak mugatzen du.

Ikuspegi horretatik, Estatutuetan zuzeneko diskriminazioa jasotzen duten elkarteek konstituzio-arauak urratuko lituzkete, eta Zigor Kodearen 515.5 artikuluan tipifikatutako jokabidearen pean eroriko lirake. Bestalde, beharbada zeharkako diskriminazioa gauzatzen duten elkarteek ere modu berean urratuko lituzkete tratu-berdintasunari eta sexu-arrazoiengatik diskriminaziorik ezari buruzko konstituzio-arauak eta ordenamendu juridikoa.

Bi diskriminazio mota horiek atzemateko, gomendagarria izateaz gain, ezinbestekoa izango da barne-dokumentazio egokirako sarbidea izatea, horren ondoren, berdintasuna berrezartzeko neurriak hartu ahal izateko; zehazki, honako hauek:

- Elkartearen Erroldan sartutako Estatutuak
- Barne Erregimeneko Araudiak
- Elkartekideen eta Zuzendaritza Batzordeetako kideen zerrendak
- Batzar Nagusien eta Zuzendaritza Batzordeen aktak eta buletinak.

Azken batean, honako hauen ahaleginen harmonizazioa lortu behar da: erakunde publikoak, Elkarteen Errolda (besteak beste, erregistratu beharreko elkarteen legezatasuna kontrolatuz), Babesletza (ondorengo egiaztapenerako, batez ere onura publikokotzat aitortu diren elkarteak badaude), eta emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa sektore pribatuan betetzen dela zaintzeko ardura duen agintaritza.



DEFENTSORIA

# Bibliografia

- AGUIRRE, Rafael. (2006) *Las Sociedades Populares: Donostia 1870-2005*. Hiria Liburuak.
- AMORÓS, Celia. (1990) "Violencia contra las mujeres y pactos patriarcales". En V. Maquieira y S. Sánchez (comp.), *Violencia y sociedad patriarcal*, Madrid, Pablo iglesias, (pp: 39-53).
- (1994) "Espacios de iguales, espacios de idénticas." En Amelia Valcárcel (comp.): *El concepto de la igualdad*. Madrid, Ed. Pablo Iglesias.
- (2001) *Feminismo, igualdad y diferencia*. México, UNAM.
- APPADURAI, Arjun. (1981) "Gastro Politics in Hindu South Asia". *American Ethnologist* 8 (pp: 494-511).
- AUGÉ, Marc. (1993) *Los no-lugares. Espacios del anonimato. Una Antropología de la Sobremodernidad*. Editorial Gedisa.
- BADINTER, Elisabeth. (1993) *XY: la identidad masculina*. Madrid, Alianza.
- BARANDIARÁN IRASTORZA, Xabier. (2006) "El capital social y su influencia en el desarrollo económico". Ponencia en el curso *Capital social y valores: El sistema relacional y de conocimiento de las ciudades como fuente de innovación*. Oficina del Plan Estratégico de Donostia-San Sebastián, en colaboración con Bilbao Metrópoli-30. [http://www.donostiafuture.com/cas/comunica/actualidad/junio\\_06/Resumenes\\_ponencias.pdf](http://www.donostiafuture.com/cas/comunica/actualidad/junio_06/Resumenes_ponencias.pdf) (consultado el 12-12-08).
- BARBERÍA, J.L. "Celaya y las concejales donostiarras consiguen sortear el veto machista de la sociedad Gaztelubide". *El País*, 20-01-87 [http://www.elpais.com/articulo/sociedad/ALBISTUR/\\_XABIER\\_/PNV/CELAYA/\\_GABRIEL/PAIS\\_VASCO/GUIPUZCOA/Celaya/concejales/donostiarras/consiguen/sortear/veto/machista/sociedad/Gaztelubide/elpepisoc/19890120elpepisoc\\_3/Tes?print=1](http://www.elpais.com/articulo/sociedad/ALBISTUR/_XABIER_/PNV/CELAYA/_GABRIEL/PAIS_VASCO/GUIPUZCOA/Celaya/concejales/donostiarras/consiguen/sortear/veto/machista/sociedad/Gaztelubide/elpepisoc/19890120elpepisoc_3/Tes?print=1) (consultado el 29-12-08).
- BAUMAN, Zygmunt. (1994) "Alone Again. Ethics After Certainty". [en línea] *Demos* <http://www.demos.co.uk/publications/aloneagain> (consultado 29-12-08).
- BENERÍA, Lourdes (1977). *Mujer, economía y patriarcado durante la España Franquista*. Editorial Anagrama. Barcelona.
- BOURDIEU, Pierre. (1985) *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Akal. Madrid
- (1986) "The forms of capital". En J. Richardson (Ed.) *Handbook of Theory and Research for the Sociology of Education*. New York, Greenwood (pp: 241-258).
- BROD, Harry & Michael KAUFMAN (eds.) (1994) *Theorizing Masculinities*, Thousand Oaks: Sage.

BULLEN, Margaret (2000) "Hombres, mujeres, ritos y mitos: Los Alardes de Irun y Hondarribia" en Teresa del Valle (ed.) *Perspectivas feministas desde la antropología social*, Barcelona: Ariel, pp 45-78.

(2004) "Eskubide unibertsalak ala kultur berezitasuna ikuspegi antropologiko bat", G. Moreno & X. Kerexeta (koord.) *Bidasoaldeko Alardeak: Herria versus hiria*, Udako Euskal Unibertsitatea.

BULLEN, Margaret y DíEZ, Carmen (2002) "Violencia y cambio de culturas androcéntricas", Comunicación presentada en el Simposio *Culturas y Violencia*, IX Congreso de Antropología de la FAAEE, Barcelona, 4-7 de septiembre.

BULLEN Margaret & José Antonio EGIDO (2004) *Tristes Espectáculos: Las Mujeres y los Alardes de Irun y Hondarribia*, Servicio Editorial de la UPV-EHU Argitarapen Zerbitzua.

BUSCA ISUSI, J.M. "Cosas del País", *Norte Expres*, 14-02-1975.

BUTLER, Judith. (2006) *El género en disputa*. Barcelona, Paidós.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA. (1984) *Gaztelubide 34-84*. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.

CAMACHO, Juana, GUARÍN, Alejandro y VAN AUUSDAL, Shawn, (2008) "Historias de la Comida y la Comida en la Historia". *Bogotá, Revista de Estudios Sociales* N° 29, abril de 2008 (pp:11-12).

COMAS D'ARGEMIR, Dolores. (1996) "Economía, Cultura y Cambio Social". En Joan Prat y Ángel Martínez (eds), *Ensayos de Antropología Cultural*. Barcelona, Ariel Antropología, (pp:104-113).

CONTRERAS HERNÁNDEZ, Jesús, GRACIA ARNAIZ, Mabel (2005) *Alimentación y cultura*. Barcelona, Ariel.

CONNELL, R.W. (1995). *Masculinities*. Cambridge, Polity Press.

(1996) "New Directions in Gender Theory, Masculinity Research and Gender Politics", *Ethos*, Vol. 61: 3-4, pp157-176.

(2003) *Masculinidades*, México: Universidad Autónoma Nacional de México.

CONWAY-LONG, David (1994). "Etnographies and Masculinities". En Brod and Kaufman (eds.), *Theorizing masculinities*, Thousand Oaks, Sage (pp: 61-81).

DEL VALLE, Teresa (1991) *El espacio y el tiempo en las relaciones de género.[en línea]* <http://www.cholonautas.edu.pe/modulo/upload/ESPACIO-TIEMPO-GENERO.pdf> (consultado 15-12-08).

- (1997) *Andamios para una nueva ciudad. Lecturas desde la antropología*, Madrid, Cátedra.
- (Ed.) (2000) *Perspectivas feministas desde la antropología social*, Barcelona: Ariel.
- DERRIDA, Jacques. (1976) *Posiciones*. Valencia, Pre-Textos.
- DÍEZ MINTEGUI, Carmen (1996) “Emergencias etnográficas”, *El Diario Vasco*, XX-10.
- (1999) “Sistemas de género, desigualdad e identidad nacional” P.Albite (coord.), et al., *Sociedad Vasca y construcción nacional*, Donostia: Gakoa liburuak.
- DOUGLAS, Mary. (2000) *Pureza y peligro: análisis de los conceptos de contaminación y tabú*. Madrid, Siglo XXI.
- DURSTON, John. (2000) *¿Qué es el capital social comunitario?*. Santiago de Chile, CEPAL.
- DYER, Richard (ed.) (1977) *Gays and Film*. London: British Film Institute.
- (1986) *Heavenly Bodies*. Basingstoke: Macmillan/BFI.
- EGIN suplemento, entrevista “Jose Maria Busca Isusi: El ídolo de las etxekoandres”, 15-11-1981
- FALUDI, Susan. (1991) *Blacklash: The Undeclared War Against American Women*. New York, Doubleday
- FOLGUERA, Pilar (1998). “El franquismo. El retorno a la esfera privada (1939-1975)” en *Historia de la mujeres en España*. Editorial Síntesis. Madrid.
- FOUCAULT, Michel. (1978) *Microfísica del poder*. Madrid, La Piqueta.
- (1999) *Estrategias de Poder*. Barcelona, Paidós.
- FUKUYAMA, Francis. (1999) “Social Capital and Civil Society”. *Conference on Second Generation Reforms*. International Monetary Funds. Washington D.C., November 89. <http://www.imf.org/external/pubs/ft/seminar/1999/reforms/fukuyama.htm#1> (visitado 12-12-08).
- GILMORE, David D. (1994) *Hacerse hombre: concepciones culturales de la masculinidad*. Barcelona, Paidós.
- GODELIER, Maurice. (1986) *La producción de grandes hombres. Poder y dominación masculina entre los baruya de Nueva Guinea*. Madrid, Akal.
- GONZÁLEZ, Pelegrín. (2005) “Bertsolari: una sociedad con 25 años de vida”. [en línea] *Hautsa*

*Kenduz VIII* [http://www.altza.net/ahm/hautsa\\_kenduz8.htm](http://www.altza.net/ahm/hautsa_kenduz8.htm) (consultado 29-12-08).

GRAMSCI, Antonio. (1977) *Pasado y presente*. Barcelona, Gedisa.

GRUPPI, Luciano. (1978) *El concepto de hegemonía en Gramsci*. México, Ediciones de Cultura Popular.

GURPEGUI, Mikel. “Siete redobles por siete décadas”. *Diario Vasco*, 21-01-07. [http://www.diariovasco.com/prensa/20070121/san\\_sebastian/siete-redobles-siete-decadas\\_20070121.html](http://www.diariovasco.com/prensa/20070121/san_sebastian/siete-redobles-siete-decadas_20070121.html) (consultado el 29-12-08).

GUTTMAN, Matthew C. (1997) “Trafficking in Men: The Anthropology of Masculinity”. *Annual Review of Anthropology*, n. 26, pp. 385-409.

HALL, Stuart. (1981) “The whites of their eyes”. En Brunt, R. (ed.) *Silver Linings*. London, Lawrence and Wishart.

(1996) “The after-life of Frantz Fanon”. En Read, A. (ed.) *The fact of Blackness: Frantz Fanon and visual representation*. Seattle, Bay Press.

HERDT, Gilbert H. (1981) *Guardians of the flutes: Idioms of masculinity*. New York, McGraw-Hill.

HOBSBAWM, Eric. (2002) “Inventando tradiciones”. En *Historias* N° 19. México (pp:3-15) <http://www.cholonautas.edu.pe/modulo/upload/eric.pdf> (consultado 29-12-08).

HOBSBAWM E. & RANGER T. (eds.) (1985), *The Invention of Tradition*, Cambridge University Press: Cambridge.

IDRÓQUILIS, Patxi Anton. (1994) *Comer en Sociedad. Un recorrido por los Rincones Gastronómicos de Álava*. Diputación Foral de Álava-El Correo Español.

JULIANO, Dolores. (2001) *El juego de las astucias. Mujer y construcción de modelos sociales alternativos*. Madrid, LAS HORAS.

KAUFMAN, Michael. (1994) *Cracking the Armour: Power, Pain and the Lives of Men*. Toronto, Penguin.

KIMMEL, M.S. (1997) “Homofobia, temor, vergüenza y silencio en la identidad masculina”. En Teresa Valdés y José Olavarría (eds.) *Masculinidad/es. Poder y crisis*. Ediciones de las Mujeres, n° 24. Isis Internacional-Flacso Chile.

KORTA MURUA, Kepa. (2006) “La importancia de las redes sociales ante el reto de la innovación”. En el curso *Capital social y valores: El sistema relacional y de conocimiento de las ciudades como fuente de innovación*. Oficina del Plan Estratégico de Donostia- San Sebastián, en colaboración

con Bilbao Metrópoli-30. [http://www.donostiafuture.com/cas/comunica/actualidad/junio\\_06/Resumenes\\_ponencias.pdf](http://www.donostiafuture.com/cas/comunica/actualidad/junio_06/Resumenes_ponencias.pdf) (consultado 29-12-08).

LÉVI-STRAUSS, Claude. (1970) *El origen de las maneras en la mesa, Mitológicas III*. Madrid, Siglo XXI.

LLONA LARRAURI, Jesús. (1989) "Los Txokos, Tradición de un Pueblo". *Periódico Municipal de Bilbao*, nº 17 (abril 1989).

MAC CLANCY, Jeremy. (s.f.e) Entrevista aparecida en: "Gastronomía Vasca", Universidad Pública de Navarra [http://www.universia.es/html\\_estatico/portada/actualidad/noticia\\_actualidad/param/noticia/iicdf.html](http://www.universia.es/html_estatico/portada/actualidad/noticia_actualidad/param/noticia/iicdf.html) (consultado 27-12-08).

MAQUIEIRA, Virginia. (1998) 'Cultura y derechos humanos de las mujeres', en Pilar Pérez Cantó (coord.) *Las mujeres del Caribe en el umbral del 2000*, Madrid: Comunidad de Madrid Dirección General de la Mujer, Conserjería de Sanidad y Servicios Sociales, pp171-203.

(2006) *Mujeres, globalización y derechos humanos*. Madrid, Cátedra, Colección Feminismos.

MAQUIEIRA, V. Y SÁNCHEZ, S. (comp.). (1990) *Violencia y sociedad patriarcal*, Madrid, Pablo Iglesias.

MESSNER, Michael A. (1992) *Power at Play: Sports and the Problem of Masculinity*, Boston, Beacon Press.

MUCHNIK, José. (2006) "Sistemas agroalimentarios localizados: evolución del concepto y diversidad de situaciones". En III Congreso Internacional de la Red SIAL "Alimentación y Territorios". Universidad Internacional de Andalucía. Baeza, Jaén, España.

OSTROM, Elinor. (2000) *El gobierno de los bienes comunes. La evolución de las instituciones de acción colectiva*. México, UNAM-CRIM-FCE.

PUTNAM, Robert. (1993) "The prosperous community: social capital and public life", *American Prospect*, 4:13.

RAMÍREZ GOICOECHEA, Eugenia. (1984) "Cuadrillas en el País Vasco: identidad local y revitalización étnica". *Reis: Revista española de investigaciones sociológicas* Nº 25, pp:213-222.

REVEL, Jaques. (1984) "Masculin/Feminin: sur l'usage historiographique des rôles sexuels". En Michéle Perrot (dir.) *Une Histoire des femmes est-elle possible?* Marseille, ed. Rivages.

ROSSEBERRY, W. (1991) "Marxism and Culture". En Brett Williams (ed.) *The Politics of Culture*. Washington, Smithsonian Institutions Press, pp: 19-43.

STOLCKE, Verena (1993) “Sistema sexo-género. Ruptura de las categorías universales?”, ponencia al Congreso Internacional - Investigación, Docencia y Feminismo, Donostia.

ULÍA, Lucio. (1959) “Las Bodas de Plata de Gaztelubide”, *San Sebastián: Revista Anual Ilustrada*, 1959, pp:53-58.

VARELA, José Ramón (s.f.e). *La masonería en el País Vasco. Apuntes históricos*. [http://www.jrvarela.net/Plancha\\_masoneria\\_y\\_sociedades\\_gastronom.htm](http://www.jrvarela.net/Plancha_masoneria_y_sociedades_gastronom.htm) (consultado 29-12-08).



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean  
Txosten berezia

# Eranskinak

## I. ERANSKINA: ELKARRIZKETA SAKONAREN GIDOIA

- 1) Zure udalerrian elkarte gastronomikoek duten eginkizunaren ikuspegi orokorra emango al diguzu?
- 2) Zure ustez, elkarte gastronomikoek zure udalerriko gizarte-bizitzaren zein esparrutan dute garrantzi handiena? Zer eginkizun dute esparru horietan? Segur aski, jarduera askok bazkideengan dute eragina soilik, baina beste batzuk (hala nola, jaiak antolatzea, erakunde-ekitaldietan parte hartzea), aldiz, elkarteen ateez haratago ere badoaz. Zure elkarteak zein esparrutan eta nola hartzen du parte?
- 3) Zure udalerriko elkarte gastronomikoak nolabait sailkatuko al zenituzke? Jatorria, bazkide motak, jarduera mota, gizarte-garrantzia, eta abar.
- 4) Zure elkarteak zein motatakoa da? Zer jardueratan egiten du lan? Zein bazkide mota ditu?
- 5) Ikuspegi historikotik, zeintzuk izan dira aldaketa edo jazoera garrantzitsuenak?
- 6) Elkarte askoren historia luzea dela kontuan hartuz, nola egokitu dira elkarte horiek gizarte-aldaketetara? (horietako askoren jatorria anaidiak edota adiskide taldeak izan ziren garai historiko jakin batzuetan, nolako eragina izan dute aldaketek?) Zein aldaketaren eraginez aldatu behar izan dituzte elkarte gastronomikoek euren antolakuntza, jarduerak, bazkide berriak sartzeari, eta abar?
- 7) Emakumeak sartu izanak elkarte gastronomikoetara aldaketa handiak ekarri dituela suposatzen dugu; nolakoa izan da aldaketa hori? Elkartearen artean alderik ba al dago? Aldaketa hori nolakoa izan da zure elkartearen? Horren alde eta kontra aurkeztutako argudioak zeintzuk izan dira? Horri dagokionez, gatazkarik izan al da? Ba al dakizu emakumeak elkarteetan sartzeko eskaririk ote dagoen?
- 8) Emakumeak bazkide gisa zure elkarte gastronomikoan sartu izanak nolako aldaketak eragin ditu? (hala badagokio soilik)
- 9) adakigu zenbait elkarteren kasuan, emakumeen sarbidea modu desberdinetan mugatuta dagoela (asteko zenbait egunetan, ordu jakin batzuetan, urteko garai jakin batzuetan, sukaldara ezin dute sartu, eta abar); horri dagokionez, zure elkarteak nolakoa da? Zein irizpideren arabera erabakitzen dira modalitate horiek? (Esate baterako, zergatik soilik seietaatik zortzietara edo larunbatetan baino ez? Zer dela-eta ezin dute sartu sukaldara?) Muga horiek erabakitzeko irizpideak zeintzuk dira? Muga horiei dagokienez, bazkideen emazteek zer deritzote?
- 10) Elkarteek kokatuta dauden kolektibitatea nolabait ordezkatzeko dutela esan al daiteke? Zein alderditan islatzen da hori? (jaietako partaidetza, bazkide kopurua, bazkideak beren elkartearekin identifikatuta sentitzen ote diren, eta abar).
- 11) Nolakoa da erakundeekiko harremana, zehazki, udalrikiko harremana? Elkarteak zerbaitetarako

kontuan hartzen al dira (ekitaldiak, jaiak eta bestelakoak)? Harreman horren eta udalek beste mota bateko erakundeekin edo elkarteekin duten harremanaren artean egon litezkeen desberdintasunak zeintzuk dira? Desberdintasunik badago, zein da horren arrazoia?

12) Elkarre guztiek harreman berbera al dute udalekin? Horietako zenbaitzuk maizago hartzen al dute parte erakunde-ekitaldietan edo protagonismo berezia hartzen al dute? (esate baterako, ordezkari berezia jaietan edo ekitaldietan) Zer dela-eta gertatzen da hori? Zure elkarteak nolako harremana du udalarekin (zein jardueratan hartzen dute parte)?

13) Nola finantzatzen dira elkarteak? Erakunde-finantzaketarik jasotzen al dute? Eta halakorik jasotzen badute, zertarako dira, elkartearen funtzionamendurako edo jarduera jakin batzuk gauzatzeko? Zein jardueratarako?

14) Zure elkarteak nola kudeatzen du bazkide berrien sarrera? Elkarreen artean desberdintasunik al dago? Desberdintasun horiek zerekin dute zerikusia (elkarre mota, haren historia, estatutuak, eta abar)?

15) Zerk bultzatu ohi du pertsona bat elkarre bateko bazkide izatera, esaterako, zure kasuan?

16) Nolako onurak dakartzkio horrek (sozializatzea, integratzea, harremanak, eta abar)?

17) Zure ustez, elkarteak negozioak hasteko edo ixteko edota harreman-sare jakin batzuetarako sarbidea izateko tokiak al dira? Elkarreen artean desberdintasunik al dago (tradizio handienekoak, gizarte-maila jakin bateko bazkideak dituztenak, eta abar)?

18) Elkarreen artean hierarkiarik al dago? Esate baterako, tradizio handienekoak modu jakin batean hartzen al dira kontuan? Adibidez, Donostiako danborrada: lehenik eta behin, Gaztelubide, eta horren ondoren, Unión Artesana, nolabait gainerakoak baino gorago al daude hierarkian? Horretaz gain, litekeena da "hierarkia" hori informala izatea, esplizituki aitortuta ez dagoena, inplizituki baizik. Nolako da gai hori zure udalerrian? Sailkapenaren zein lekutan kokatuko zenuke zure elkarrea?

19) Emakumeek elkarreetan parte hartzeari dagokionez, etorkizuna nolako izango dela iruditzen zaizu? Eta zehazki, zurean?

## II. ERANSKINA: ELKARTE GASTRONOMIKO EZAGUN ETA MURRIZTAILE BATI BURUZKO KASUAREN AZTERKETA: GAZTELUBIDE (DONOSTIA)

### *Gizarte-protagonismoaren balioespena*

Sortu zenetik, gizarte-protagonismoarako bokazioa duela erakutsi du Gaztelubide elkarteak. 1934an eratu zen, zehazki, urte horretako urtarrilaren 19an gizarte-egoitza inauguratu zen, eta garai hartan Donostiako alkatea zen Fernando Sasiain jauna joan zen inaugurazio hartara. Ekitaldi horren ondoren, lehen aldiz altxa zen bandera Konstituzio plazan, eta hori dela-eta, Donostiako hiriko egun historikotzat har daiteke egun hori. Horrela, hiriko historia Gaztelubide elkartearen historiarekin lotuta geratu zen, eta horrek benetan garrantzi handia du Gaztelubide elkarte gastronomikoak hirian duen gailentasun sozial eta sinbolikoa ulertzeko.

Inaugurazio-afarira 150 lagun joan ziren, eta horren ondoren, gaueko 12ak baino lehentxeago, lokaleko lehen danborrada atera zen; danborrada horren ibilbidea ondoren jasotzen da, erakundearen webgunean:

*“Elkartearen lehen danborrada egin zen, Luis Irastorza jaunak zuzendua eta honako ibilbide hau izan zuena: Gaztelurako igoera, Kanpandorrera, Puyuelo kalera, Konstituzio plazara (geldialdia), Abuztuaren 31 kalera, San Telmo plazara, San Jeronimo kalera, Portura, Kale Nagusira, Puyuelo kalera, eta Kanpandorrera”* ([http://www.gaztelubide.org/gaztelubide\\_actividades\\_tamborrada\\_historia.php](http://www.gaztelubide.org/gaztelubide_actividades_tamborrada_historia.php)).

Horrela, elkarteak inauguratu zen egunaz geroztik hona izandako gizarte-proiektzioa ez dago pertsona entzutetsuak izatera mugatuta; izan ere, elkarteak kokatuta dagoen auzoa, hots, Alde Zaharra, gertakari horietan sartu zuen, zio horrengatik herri-jaiak ere antolatu baitzituzten. Erakundearen 50. urteurrenean honako ekitaldi hauek jaso ziren:

*Sortu berria den donostiar-donostiar elkarte honen (...) gizarte-lokalaren inaugurazio ofiziala dela-eta, herri-jaiak antolatu dira, eta segur aski, auzokoek bozkario handiz hartuko dituzte jai horiek* (Aurrezki Kutxa 1984:11).

Horrela, sortu zenetik, elkarte horrek Gipuzkoako hiriburuko gizarte-bizitzan bere lekua lortu zuela

ikus dezakegu, bere egoitzako atearen alde batean zein bestean. Harrez geroztik, elkarteak bere presentzia nahiz ospea finkatu ditu Donostiako gizartean, esparru askotan gizarte-gailentasuna duten hainbat jarduera antolatuz eta jarduera horietan inplikatur; horien artean, hiriko jai garrantzitsuenen, hots, Danborradan gauzatutako sustapena nabarmendu behar da, eta baita jai horren ekitaldi adierazgarrienenaren hasieran gauzatutakoa ere: Konstituzio plazan bandera altxatzean, hain zuzen ere.

### ***Jaiak: Danborrada, Festara eta beste hainbat***

Danborradaren sorrera herri-elkarteei zor diegu, baina Danborradak Gaztelubideri zor diona ere oso garrantzitsua da, urtez urte elkarte horrexek izan baitu bandera altxatzeko ekitaldiak eragiten duen hunkidura berezi eta handitasun horiek danborradari emateko ardura.

Gaztelubideren danborradak hasieratik izan du herritarren harrera ona. Horrela kontatu zuten Gaztelubideren gizarte-egoitzan San Sebastian eguna bizi zuten modua:

*“Ondoren, danborrada lokaletik irten zen (...). Danborrada gogo handiz hartu zuen jendeak, jantziak oso ikusgarriak baitziren, danborradako kideek itxura martziala baitzuten, eta beste ezer baino gehiago, Shotero Irazustak, Luis Irastorzak eta horien mutilek oso umore ona erakutsi baitzuten”* (Aurrezki Kutxa 1984:11).

Horrela eman zion elkarte horrek hasiera azkenean hirian finkatuko zen usadioari, batez ere bandera altxatzeko usadioari dagokionez, hiriko beste ezein egun edo ekitaldik eragiten ez duen paroxismoa sortzen baitu usadio horrek. Ildo horretatik, Gaztelubide ikuskizun bat, erritual bat sortzeko gai izan dela onartu behar da, ikuskizun edo erritual horrek hainbat elementu biltzen dituela, eta elementu horiek ikuskizuna ikusten dutenen sentimenduak piztea lortzen dutela: danborrek, “jantziak oso ikusgarriak izateak, danborradako kideek itxura martziala edukitzeak”, musikak (donostiar guztiek haurtzarotik ezagutzen dutena eta oroitzen ugari dakartzana), pertsonaia ospetsuak egoteak (bereziki, alkatea, eta horrek esanahi eta ofizialtasun bereziak ematen dizkio ekitaldiari), hamabietan puntuan hasteak (hunkidura, egonezina eta berotasuna ematen dizkio horrek ekitaldiari), bandera altxatzeko ekitaldiak eta aldi berean, Donostiako ereserkiaren lehen konpasak jotzeak (horrela, ekitaldiak handitasuna hartzen du, toki-nortasuna goresten da eta ia magiko bihurtzen da jaiari hasiera ematean), eta azkenik, jendetza berotuta egoteak (eta horrek, era berean, emozioaren atzeraelikadura-efektua du bertako pertsonengan). Elementu horiek guztiak ezin zirraragarriagoak dira, eta ekitaldiko danborrak berriz, gorgarriak, gutxienez donostiarrentzat eta hiri horrekin lotura bereziren bat dutenentzat.

Horrela, elkarteek gizarte-proiektzio handiko ekitaldietan eginkizun garrantzitsua izan ohi dutela aintzat hartzen badugu, hori bereziki egia da Gaztelubide elkartearen kasuan, bandera altxatzeko ekitaldian protagonista denez gero (hots, jaiari hasiera ematen dion ekitaldia), San Sebastian jaiari rol garrantzitsua baitu. Hori nahikoa litzateke Gaztelubide elkarteari gaur egun duen ospea emateko, ekitaldi hori garrantzitsua dela, esanahi berezia duela, eta horretaz gain, paregabea dela kontuan hartuz.

Sortu zen urteaz geroztik hona, Gaztelubide elkarteak bandera altxatzeko usadioa ezarri zuen, baina horretaz gain, denbora igarotzearekin batera Aste Nagusiko jaietako erreferentzia garrantzitsu bilakatuko zen beste ekitaldi bati ere hasiera eman zion: Amabirjinaren egunaren bezperako gaueko Festara kantuari, hain zuzen ere. Festara kantua, Danborrada bezala, toki-nortasunaren sentimenduari lotuta dago, eta alderdi hori 1934ko abuztuaren 15eko *“La Voz de Guipúzcoa”* egunkariaren honako zati honetan jaso zen:

*“Abuztuan egindako Amabirjinaren Jaia ulertzeko, ezinbestekoa da donostiarrek izatea edo donostiarrek izango bagina bezala sentitzea.*

(...)

*Eta Donostian hain errotuta dagoen jaia sentitzen dugun modua erakutsi zuen (...) atzo gauean Gaztelubide Elkarte donostiar-donostiarrean gailendu zen kantari talde batek; Gaztelurako igoeraren ondoan dagoen portuko balkoira atera zen talde hori.*

(...)

*Shotero Irazustaren zuzendaritzapean, ‘Festara’ abestu zuten gazteek; ez dakigu abesti hori nola iritsi zen gugaraino, baina Donostiaren espiritua islatzen du (Ibid: 20).*

Egungo prentsak ere horrelako aipamenak egiten jarraitzen du, hots, Festara kanta Donostiakoa izatearen eta toki-nortasunaren sentimenduarekin lotzen duten aipamenak:

*“Donostiar izateaz harro dagoen pertsona oro joango da gauerdian Gaztelubideren ‘Festara’ ekitaldira” (<http://www.deia.com/es/impresas/2007/08/14/bizkaia/herrialdeak/391990.php>)*

*(...) Kondarrak Elkarteko bi kide hunkituk (...), amets bat bete zutela aitortu zuten. Bizitza osoa eman dugu gaurko gaua hemen igaro nahian, eta azkenean, lortu dugu. ‘Hauxe da benetako*

*Donostia, adierazi zuten*” (<http://www.diariovasco.com/20080816/san-sebastian/cantando-festara-bajo-lluvia-20080816.html>).

Baina Gaztelubideren lana ez da jai horretara mugatu. Elkartearen lehendakariak adierazi duenez, berak nahiz Zuzendaritza Batzordekoek beren karguari dagozkion lanen ardura hartu dute, Elkartearen administrazio-lanei eta Elkarteko kideak nahiz komunitatea dinamizatzen dituzten jarduerak antolatzeari dagokionez, gizarte-ospe handiena hartu duten gertakariak alde batera utzita, hots, danborrada eta Festara.

*Gure elkartearentzat, garrantzitsuena San Sebastian egunaren bezpera eta Festara dira, baina karguan eman ditudan urteetan honako hauei ere garrantzia ematen saiatu naiz [lehendakari gisa]: Sagardo Eguneko jaiak, Santo Tomasetako babarrun-jana, futbolariak, politikariak eta abarrei egindako omenaldiak, eta abar.*

Zalantzarik gabe, alderdi horri esker lortu ahal izan du Gaztelubidek gaur egun duen ospea eta gizarte-aintzatespena, garai hartan Donostian genuen gizarte-bizitza eskasa dinamizatzeko interesa zuela erakutsi baitu hasieratik, beste elkarte ugari bezala, nahiz eta beste ezeinek ez duen lortu Gaztelubidek bezain protagonismo handia; izan ere, Gaztelubide hiriko jai-ekitaldi garrantzitsuetan inplikatu da. Alabaina, Gaztelubide ez da herri-izaeratik nabarmentzen, beste elkarte asko ez bezala, oro har gizarte-proiektzioagatik bereizten diren ekitaldietan parte hartzeagatik baizik, ekitaldia berez hirirako garrantzitsua delako (hala nola, Danborrada), ekitaldi horretan hainbat pertsona ospetsuk parte hartzen dutelako edota ekitaldiak oroimenezko edo/eta ohorezko izaera duelako (omenaldiak, sari-banaketak, eta abar), eta horiexek dira Gaztelubidek horrelako gizarte-gailentasuna izateko beste arrazoi batzuk.

Gaztelubidek antolatutako ekitaldietan emakumeek ez dute presentzia edo protagonismorik, eta ekitaldi horiek, hain zuzen ere, hiriko ekitaldi garrantzitsu eta ospetsuenak dira; emakumei parte hartzeko aukera ematen dien ekitaldi baliokiderik ez dago. Emakumeak horrelako ekitaldietan apurka-apurka sartzeak eragindako polemikak eta erresistentziak oso esanguratsuak dira, batez ere, ekitaldi horiek hutsaltzeko arriskua dakarrela argudiatzen baita horren aurka.

### ***Nortasun kolektiboa eta adierazgarritasuna***

Kolektibotasunaren barruan gaudela sentiarazteko balio digute jaiak, toki-nortasuna islatzeko, hain zuzen ere. Horri dagokionez, elkarte gastronomikoen oso rol garrantzitsua dutela ikus dezakegu, eta

Gaztelubidek, kasu honetan, hiriko jai nagusian, hots, San Sebastian egunean –hiriaren zaindariaren egunean– oso rol esanguratsua hartu du; horretaz gain, donostiarrentzat nortasun-rola dute elkarte gastronomikoeak, eta hori ez da inolaz ere gutxietsi behar.

Jende askoren aburuz, San Sebastian jairik ez legoke elkarte gastronomikorik gabe (oro har), eta Gaztelubide eta Unión Artesana elkarteekin rolik gabe, bereziki. Bandera jaisteko ekitaldia informalagoa bada ere, bandera altxatzeko ekitaldia handitasun itzelekoa da, eta horretan parte hartzen duten pertsona guztiek (duela zenbait urtez geroztik, baita emakumeek ere), San Sebastian Martxa eta erreperitorio osoa behar bezala antzetzeko erantzukizun handia dute.

2008an, eta ekitaldiaren handitasuna areagotzeko, Donostiako Orfeoari bandera altxatzeko ekitaldian parte hartzeko gonbita egin zioten, ekitaldiari eman nahi zaion proiektuaren adibide bat ([http://www.eitb24.com/noticia/es/B24\\_82936/a-pie-de-calle/TAMBORRADA-DONOSTIA-orfeon-Donostiarra-se-sumara-izada/](http://www.eitb24.com/noticia/es/B24_82936/a-pie-de-calle/TAMBORRADA-DONOSTIA-orfeon-Donostiarra-se-sumara-izada/)). Orfeoia nazioartean aintzatespen handia duen eta sortu zenetik sari ugari jaso dituen taldea dugu (<http://www.orfeondonostiarra.org/galardones.php>). Haren partaidetza (unean unekoa izan bada ere) ekitaldiari eman nahi zaion izaeraren adierazgarri eztabaidaezina da, eta baita ekitaldi horren garrantzia ulertzeko aski argigarria ere, baita toki-nortasuna goraiatzeko erritual horrek Gaztelubideren protagonismoaren esanahia ulertzea zein neurritan ahalbidetzen duen ulertzeko ere. Halaber, Donostiako Orfeoaren partaidetzak ekitaldiaren donostiar nortasuna nabarmentzen du, hiriko erakundeen artean ospetsuenetakoa baitugu Orfeoia.

Zalantzarik gabe, gau horretako protagonista izateak dakarkion gizarte-ospeak handiagotu egiten du Gaztelubide, eta horretaz gain, hiriko ekitaldi adierazgarrienaren egile nagusia (hala ere, duela zenbait urtez geroztik hona, egiletza hori partekatu behar izaten du) da, ekitaldi hori komunitate-nortasunaren funtsezko erritual bilakatu dela alde batera utzi gabe. Horrela, Gaztelubide adierazgarri gisako elkarte bilakatu zen hiriarentzat.

Toki-nortasuna islatzeari eta nortasun horri eusteari dagokionez, Gaztelubidek duen eginkizuna Elkartearen 50. urteurrena zela-eta Elkarte horri eskainitako liburu batean aintzatesi zen publikoki; erakunde handi batek argitaratu zuen adierazitako liburu hori, hots, garai hartan Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala zeritzonak. Liburu horretan Gaztelubidek probintziaren gizarte-dinamizazioan egindako lana aipatzen eta aintzatesten bada ere, bereziki deigarria da elkarte horrek toki-idiosinkrasia osatzeko prozesuan egindako ekarpenari buruz liburu horretan egindako erreferentzia; horrela, entzute-maila handia lortzen duten eta azkenean hiriko komunitate-nortasunaren erreferente nahastezin bilakatzen diren ekitaldien bitartez nortasun-bereizgarri kolektiboak sortzeko eta horiei eusteko prozesuan Gaztelubide elkarteak izandako eginkizuna aintzatesten da erreferentzia horretan.

*“(…) [liburuaren] jomuga Gaztelubidek ordeztutako kolektiboak egindako lanaren gorazarre izatea da; zalantzarik gabe, Gipuzkoako komunitateko kultura-garapena aberastu du Gaztelubide*

*elkarteak, eta hein edo neurri batean, garapen horretan laguntzen jarraitzen du oraindik ere, garapen hori zentzu antropologikoan eta Herriaren Izatearen eta Egitearen mamitzat hartuz“ (Aurrezki Kutxa 1984:5).*

Danborradan duen rolaz gain, Gaztelubidek hartu duen garrantziaren arrazoia, hein handi batean, musikaren barruan egin dituen ekitaldiekin du zerikusia; horrela, Gaztelubideren Gaztainaren Abesbatzak eta Fanfarreak Donostiaren ordezkari gisa hainbat toki eta ekitalditara joateko gonbita irabazi dute. Horrela, Gaztelubideren lehendakariak elkarte hori eta haren abesbatza eta fanfarrea hiriaren enbaxadoretzat hartzen ditu ([http://www.gaztelubide.org/gaztelubide\\_actividades.php](http://www.gaztelubide.org/gaztelubide_actividades.php)):

*“Abesbatzaren saioa izaten dugu, oso ondo pasatzen dute [entzuleek], enbaxadoreak garelako. Baina [Abesbatza eta Fanfarrea] anfitrioi paregabeak izan diren bezala, atzerrian egindako biretan parekorik ez dute izan enbaxadore gisa. Gure txokotik kanpo jokatu dutenean, Donostiaren izena ez da sekula hain ongi ordezkaturia egon”.*

Bira horien bitartez, horien jardun-esparrua munduko hainbat lekutara ere iritsi izan da, bereziki herrialde askotako Euskal Etxeekiko harremana dela medio, eta horrela, hiriko mugez haratago zabaldu ahal izan da horien ospea eta izen ona (eta horrek Donostiaren barruan duten ospea ere handiagotzen lagundu du zalantzarik gabe).

*Eta horretaz gain, Gaztainaren Abesbatza eta fanfarre bat ere baditugu. Atzerrian hamabi bidaiari antolatu ditugu, Las Vegaseko, San Franciscoko, Los Angeleseko, Pariseko, New Yorkeko eta beste hainbat lekutako Euskal Etxeetan abestu dugu (...). Bai, Euskal Astean izan ginen. Lehendabizi, Mar de Plata hirian, gero, Rosarioko Euskal Astean, Buenos Airesen lau aldiz, eta abar. Galíndez-i egindako omenaldian ere egon ginen, New Yorkeko Euskal Etxean. Eta orain, Txinara joateko asmoa dut: Shangaiko Euskal Etxea ezagutu behar dugu.*

Inolako zalantzarik gabe, Gaztelubide Donostiaren ordezkari da, eta horri dagokionez, elkarte horrek duen ordezkartza-indarra agerian geratzen da, Donostiaren nahiz Euskal Herriaren irudia esportatuz, balio jakin batzuekin lotutako irudia, hain zuzen ere, nahiz eta balio horien artean emakumeen bazterkeria nabarmentzekoa den. Orobat, emakumeak sinbolo- eta nortasun-eduki handiko

ekitaldietatik kanpo geratzea oso esanguratsua da, eta horren eraginez, emakumeen presentzia garrantzitsurik izan dezaketen nortasun-kolektiboaren ordezkartzarik ezin da sortu; are gehiago esan daiteke, horrelako ekitaldiek nortasun hori soilik gizonei dagozkien elementuekin parekatzen dute.

### **Harreman-sareak**

Elkarte Gastronomiko guztiek, antzeko pertsonen elkargune diren aldetik, elkarteko bazkideen harreman-sarea ezartzea, finkatzea eta areagotzea ahalbidetzen dute, eta alderdi hori bereziki garrantzitsua da Gaztelubide Elkartearen kasuan, askotariko esparruetako pertsona ospetsuekiko harremanak oso maiz ezartzen baitira Elkarte horretan.

Gaztelubide Elkarteko bazkideak Elkartean bertan handiagotzen diren harreman-sareekin lotuta daude askotan, eta Elkarte barruan sortutako baliabide horiek Elkarterako sarbidea mugatzen duen esparru murriztu batean mugitzen dira. Sortu zenetik, Gaztelubiden garrantzi handiko pertsona ospetsuak elkartu izan dira, gizarte-arlokoak nahiz politika- eta kultura-arlokoak. Inauguratu zenetik, (garai hartan Donostiako alkatea zena joan zen inauguraziora), Elkartearen egoitzan beste hainbat pertsona ospetsu egon dira, eta Elkartearen aktetan<sup>13</sup> askotan aipatzen dira erakundeek eta pertsona famatuek egindako mesedeak eta aintzatespenak. Adierazitako harreman-sarea zein motatakoa den ondo adierazten duten aipamen horietako zenbaitzuk jaso ditugu testu honetan.

1952-09-18: *“Lehendakariak jakinarazi du Real Sociedad elkarteak Industria-bazkidearen txartela aurkeztu zuela ordainketa gisa; txartel horrek lehentasunezko bi sarrerarako eskubidea ematen zuen, eta zirkunstantzia berezietan sinatu zen”.*

1962-09-13: *“Duela gutxi Elkartean egindako hainbat ekitaldiren berri ematen da, besteak beste, NBEetan AEBen enbaxadore iraunkorra den Adlai Stevenson jaunari Kanpo Arazoetako Ministerioak eskainitako afaria; Stevenson jaunak adierazi zuenez, inoiz topatu zuen girorik alaiena izan zuten, gure fanfarre paregabearen saioa ikusi ondoren. Espainiako prentsa eta irrati guztiek jaso zuten ekitaldi hori, gure Elkartearen abegi ona nabarmenduz”.*

Une zailetan egindako laguntza-adierazpenak ere aurki ditzakegu, esate baterako, bazkide fundatzaileetako bat hil zenean:

1957-12-12: *“57-11-10ean Gaztelubide Elkarteko bazkide fundatzaile eta ohorezko lehendakari izandako Luis Irastorza jauna hil zen (...). Heriotza hori zela-eta, partikularren eta hainbat erakunderen dolumin-adierazpen ugari jaso dira”.*

Era berean, akta hauen bitartez, Donostiako Udalaren barruan boterezko lanpostuak lortu dituzten bazkide ugari daudela atzematen da:

---

13. Ondoren adierazitako aipamenak (eta horien datak) Gaztelubideren 50. urteurrenaren liburutik atera dira.

1958-02-06: *“Aristeguieta jaunak hitza eskatu du, gainerakoei proposatuz Vega de Seoane jaunari zorionak ematea, hiriko alkate izendatu baitute, eta hori dela-eta, hari omenaldi-afari bat antolatzea, Gaztelubideko bazkide baita”.*

1961-12-05: *“Lehendakariak honako hau eman du jakitera: Danborrada eta Uztailaren 18ko plaza apaintzeko eta argiztatzeko obren inaugurazioa aldi berean gertatuko direnez, eta lehendakaria horien sustatzailea dela kontuan hartuz, horrelako ospakizun garrantzitsuan Danbor Nagusiaren makila eramateak poz handia emango liokeela, eta horregatik, bere jomuga Danborradaren ardura hartzea zela, eta are gehiago kontuan hartuz adierazitako arrazoiengatik, Donostiako Udaleko hiru zinegotzik parte hartuko zutela Danborrada horretan, zehazki, Aycart jaunak, Peironcely jaunak eta Ameztoty jaunak”.*

Eta baita estatuan aitortutako ohoreak jaso zituzten zenbait pertsona ere:

1962-09-13: *“Lehenik eta behin, Dublang lehendakariari zorionak eman nahi dizkiogu, Kanpo Arazoetako ministroak Isabel Katolikoaren domina eman diolako, eta Batzordea sari horregatik oso pozik dagoela jasoaraziko da aktan”.*

Gaztelubideren Danborradari ere aintzatespen ugari egin zaizkio, jaia dinamizatzeko egindako lanagatik:

1961-02-06: *“Donostiako Danborradekin Urrezko Ezteiak bete izanagatik, Donostiako hiriak Elkartearen Danbor Nagusi Shotero Irazusta jaunari egin zion merezitako omenaldiagatik Batzordea oso pozik dagoela aktan jasoarazteko gogorarazten da ondoren”.*

1978-03-27: *“Horretaz gain, honako hau ere jakinarazi zuen: Danborrada tradizionala atera baino lehentxeago, Merkataritza Zirkuluaren lehendakari jaunak Zirkulu horren intsignia eman zion Gaztelubideren egungo lehendakari Múgica jaunari, Gaztelubide Elkartearen urtero Danborradan izateagatik eta desfilatzeagatik, zehazki, urte bakoitzeko urtarrilaren 20an Elkartearen gizarte-egoitzan”.*

1980-05-06: *“Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxeak eta Kaldereroen Konpartsak Gaztelubide Elkarteari egindako omenaldiaren berri ematea”.*

Eta Elkartearen fanfarre ezagunak egindako lanagatik aintzatespenik ere ez da falta:

1964-06-22: *“Informazio eta Turismo Ministerioak gure Elkarteari eta Fanfarreari Merezimendu Turistikoaren Brontzezko Plaka eman diola jakinarazi du lehendakariak, hain sari ohoragarria eman izanagatik ministroari eskerrak eman behar zaizkiola gogoraraziz”.*

Aurrekoa ikusirik, Gaztelubideko egungo lehendakariak esandakoa egia da zalantzarik gabe:

*Harremanen bitartez mugitzea beharrezkoa da (lekuetarako gonbitak lortzeko).*

Eta lan hori eraginkortasun handiz egin dute Gazlekubideko bazkideek, Elkartea bisitatu duten edo bisitatzen duten entzute handiko pertsonen hedapenaren bitartez, nahiz bazkide ezagunenak goratuz edota sariak ezarriz.

Urrezko Upela, 1990ean ezarritako saria, Elkartearekin elkarlanean aritu diren edo ari diren pertsonak eta erakundeak saritzen ditu. Urtarrilaren 19an egiten da ekitaldi hori, Bandera altxatzeko ekitaldiaren aurreko afarian, eta beraz, urteko sari-banaketa horrek prentsa-estaldura handia lortzen du. Sarituen artean, berrienak honako hauek dira: 2006an, Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberaren lehendakari eta Gaztelubideko bazkide Ignacio Echeberria jauna, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa (2008ko Urrezko Upela), edota Kutxa erakundea (golardoa aurten emango zaiola dago aurreikusita).

Halaber, “Ohorezko Festara” saria ere ematen dute. Duela 25 urtez geroztik hona Donostiako Musika Hamabostaldiaren zuzendari eta duela 30 urtez geroztik hona Gaztelubideko bazkide den Antonio Echenique jaunari eman zaio aurten sari hori. Hona hemen hura baino lehenago saritu ziren beste hainbat pertsona: Javier María Sada (kronista, historialaria eta Gaztelubideren 75. urteurrenaren liburuaren idazketaren arduraduna), José Antonio Sainz Alfaro (Donostiako Orfeoiaeren zuzendaria) eta Vicente Zaragüeta (Donostiako Aquariumaren zuzendaria) (<http://www.diariovasco.com/20080808/san-sebastian/festara-honor-para-echenique-20080808.html>).

Euskal sukaldaritza eta zehazki, Michelín izarrak dituzten gipuzkoar sukaldariak aintzatesteko omenaldiak ere egiten dira (<http://www.diariovasco.com/20080930/san-sebastian/cena-estrellas-20080930.html>); omenaldi hori eta Juan Mari Arzak Euskal Herritar Unibertsal izendatu izana aldi berean gertatu ziren.

Horrela, modu formalean –oso ekitaldi serioen bitartez, hala nola, sari-banaketak, sariak, omenaldiak, eta abar– nahiz informalean –afarietan, jaietan, eta abarretan– Gaztelubide gizarteko pertsona ospetsuz inguratzeko gai izan dela ikus dezakegu. Elkartearen webgunean, izan ere, Elkartean izan diren pertsona ospetsu guztien berri ematen duen esteka bat aurki dezakegu, eta interesgarria litzateke pertsona ospetsu horiek hemen jasotzea, horrela Elkartek dituen harreman-sare moten ideia argi bat izan baitezakegu.

**Famatuak:** “Gogoan dugun Gregorio Altube jaunak honako hau idatzi zuen Albumean: *Gaztelubideren Albumean sinatzea Donostiaren bihotzean sinatzea da! Jakina, Elkartean pertsona ospetsu ugari egon dira, eta horregatik, horietako gutxi batzuk aipatuko ditugu soilik. “José María Aguirre Gonzalo jauna.- Donostiarra, Banesto eta Banco Guipuzcoano erakundeen lehendakaria” (1996, omenaldia GAZTELUBIDEN).*

**Politikariak:** Adlai Stevenson, Estatu Batuetako presidenteorde ohia. Lehendakariak: Carlos

Garaikoetxea, José Antonio Ardanza, Juan José Ibarretxe. Gipuzkoako diputatu nagusiak: Xavier Aizarna, Imanol Murua, Eli Galdos, Román Sudupe, Joxe Joan González de Txabarri. Donostiako alkateak: Jesús María Alkain, Ramón Labayen, Xavier Albistur, Odón Elorza. Alberto Buen (Irun), Javier Pagola (Calahorra), Yolanda Barcina (Iruñea).

**Zinema-zuzendariak:** Julio Medem (donostiarra).

**Musikariak:** Antxon Ayestarán eta José Antonio Sainz Alfaro (Donostiako Orfeoiko zuzendariak). Tomás Aragües (Konpositorea eta Easo Abesbatzako zuzendaria). Pedro Ugalde (konpositorea). Sánchez Granada, Joaquín Rodrigo, Mendoza Lasalle, Enrique Jordá, Markewich, Ataulfo Argenta, Ramón Usandizaga, Gorostidi, Bastida, Nicanor Zabaleta arpa-jolea.

**Abeslariak:** Carlos Álvarez eta Carlos Munguía. Lucho Gatica. Pablo Civil, Cristobal Altube, Mafalda Favero (Gaztelubiden sartu zen lehen emakumea), Bengliamino Gigli, Alfredo Kraus, Carlos Álvarez.

**Antzezleak:** Alfredo Landa, Kirk Douglas, Cantinflas, Antonio Mercero.

**Toreatzaileak:** Manuel Martínez Flamarique “Chopera” (Enpresaburua). Antonio Chenel “Antoñete”. Paco Camino. Victorino Martín (ganaduzalea). Serafín Vigiola “Torquito”, Victoriano de la Serna, Rodolfo Gaona, Marcial Lalanda. Rafael el Gallo, Domingo Ortega, Luis Gómez, José Fuentes, José M<sup>a</sup> Recondo, Miguel Baez “El Litri”, Julio Aparicio, el Niño de la Capea eta Victoriano Valencia. Eta Manolete? Hain zuzen ere, “munstroa” Gaztelubiden izan zen hainbat aldiz, baina zoritxarrez, bere sinadura “desagertu” egin zen.

**Kirolariak:** Jesús Abrego, Atano III, Iturri, Atano X (pilotariak).

**Nazioarteko futbol-jokalariak:** Ignacio Eizaguirre, Luís Arconada, Andoni Zubizarreta, Alfredo Di Stefano, Zamora, López Ufarte, Górriz (Real Sociedad). Benito Díaz Samitier, Zamora, Gamborena eta Luis Regueiro futbol-jokalariak. Eta jokalaria-zerrenda hori osorik: Eizaguirre, Asensi, Antúnez, Lozano, Gonzalvo, Puchades, Basora, Venancio, Zarra, Panizo, Gainza. Epi, Ontoria eta Igoa.

**Golfa:** José María Olazábal (Augustako bi Master).

**Txirrindularitza:** Marino Lejarreta eta Pello Ruiz Cabestany, Eddy Merck, Fausto Coppi.

**Idazleak:** Fernando Savater, José Luís López Aranguren, Arturo Pérez-Reverte eta Javier M<sup>a</sup> Sada.

**Sukaldaritza:** Luís Irizar, Juan Mari Arzak, Martín Berasategui, Ricardo Idiaquez, José Juan Castillo, Pedro Abrego (jatetxe-jabea), Andoni Luís Aduriz.

**Artea eta zientzia:** hainbat zientzialari, hala nola, Waskman eta Castroviejo doktoreak; idazleak eta

kazetariak: García Lorca, Marquerie, Miquelarena eta Iñaki Gabilondo. Bagaria, Lagarde, Ansa eta Gila marrazkilariak.

Zerrenda luze horri esker, Gaztelubideren gisako elkarteetan ezar daitezkeen harreman-sare moten ideia izan dezakegu ([http://www.gaztelubide.org/gaztelubide\\_famosos.php](http://www.gaztelubide.org/gaztelubide_famosos.php)).

Nabarmentzekoa da zerrenda horretan bi emakume baino ez direla ageri: Mafalda Favero (50eko hamarkadako sopranoa) eta Yolanda Barcina (Iruñeko alkatea). Zerrenda horretan, abeslari hori “Gaztelubiden sartutako lehen emakume” gisa agertzen da; gizonaz mozorrotuta sartu behar izan zuen, El Correo egunkarian (<http://www.sociedadesgastronomicas.com/articulo.php?id=50>) eta Gaztelubideren 50. urteurrenaren liburuan jasota geratu zen bezala.

Ikus daitekeenez, Gaztelubidek metatutako kapital soziala zenbatezina da, gizonen artean ezarritako harremanen ondorioz sortzen da eta era berean, gizoni soilik egiten die mesede.

### ***Erakunde-harremanak***

Historikoki, Elkartearen harreman-sareak erakunde-ordezkariek ere izan ditu, Elkartearen egoitza barruan nahiz egoitzatik kanpo egin diren ekitaldi ofizialen bitartez nahiz erakunde-ordezkariek ekitaldi informaletan modu pribatuan parte hartuz (afariak, bazkariak eta abar). Elkartearen akten zenbait zatitan –aurreko atalean jasotakoak– ordezkariek horietako zenbaitzuk aipatzen dira. Bandera altxatzeko ekitaldiko protagonismoan udal-ordezkariek garrantzitsuenarekin baterako partaidetzaz gain, Gaztelubidek ekitaldi ofizialean ere parte hartu du; besteak beste, Urrezko Danborra entregatzeko afari ofiziala nabarmendu behar da.

Iraganean Donostiako Udalaren eta elkarte gastronomikoen arteko lankidetzak, oro har, askoz ere arinagoa bazen ere, hainbat tirabira eta gatazka ere izan zituzten; izan ere, Danborradan zuen rolagatik aintzatespen handiagoa jasotzeko eskatzen zion Gaztelubide Elkarteak Donostiako Udalari, Elkartearen akten honako zati honek erakusten duen bezala:

1958-01-30: *“Danborrada ofiziala denez gero, beharrezko elementuak berriz jartzeko eta erosteko gastuak Udalak ordain ditzan lortzeko modua aurkitzeko proposatu du Iturrioz jaunak. Irazusta jaunak adierazi duenez, Danborrada ez da jai ofiziala.*

Edota 1934tik 1950era arte Gaztelubideren lehendakari izan zen Luis Irastorza jaunak egindako adierazpenak, “La Voz de España” egunkarian eta 50. urteurrenaren liburuan jasoak:

*“Gauzek horrela jarraitzen badute herri-elkarteak laster desagertuko dira. Aurten, esaterako,*

*‘Gaztelubidek’ 19.000 pezeta ordaindu behar izan ditu zerga gisa, negozio bat izango balitz bezala. Udalak, bere aldetik, diru-laguntza % 40n murriztu du, eta lehen baino askoz ere gehiago balio dute gauzek orain. (...) Gainera, Ongintzaren ardura ere badugu (...). Leku guztietatik estutzen gaituzte, eta ondoren, kanpokoei erakusten dieten lehenengo gauza herri-elkarteak dira” (Aurrezki Kutxa 1984:54).*

1987an, Urrezko Danborra Pilar Miró andreari eman zioten ([http://www.elpais.com/articulo/ultima/LABAYEN/\\_RAMoN/GUIPUZCOA/SAN\\_SEBASTIaN\\_/MUNICIPIO/Ramon/Labayen/elpepiult/19870121elpepiult\\_1/Tes/](http://www.elpais.com/articulo/ultima/LABAYEN/_RAMoN/GUIPUZCOA/SAN_SEBASTIaN_/MUNICIPIO/Ramon/Labayen/elpepiult/19870121elpepiult_1/Tes/)), eta horrekin batera, lehen aldiz hautsi ziren Udalaren eta Gaztelubideren arteko “harremanak” ofizialki; hala eta guztiz ere, gaur egungo lehendakariak komunikabide-gatazka gisa gogoratzen du gorabehera hori, eta ez hainbeste benetako gatazka gisa, Pilar Miró andreak erakundearen afarira joan nahi izan ez zuela kontuan hartuz, lehendakariaren ustez, Gaztelubidek ez baitzion halako irainik egin kondekoratuari. Alabaina, 1989an egiaztatu zen bi alderdien artean desadostasunak zeudela, urte horretan hautsi baitzen behin betiko Urrezko Danborra Gaztelubide Elkartearen entregatzeko usadioa ([http://www.elpais.com/articulo/sociedad/ALBISTUR/\\_XABIER/\\_PNV/CELAYA/\\_GABRIEL/PAIS\\_VASCO/GUIPUZCOA/Celaya/concejales/donostiarras/consiguen/sortear/veto/machista/sociedad/Gaztelubide/elpepisoc/19890120elpepisoc\\_3/Tes?print=1](http://www.elpais.com/articulo/sociedad/ALBISTUR/_XABIER/_PNV/CELAYA/_GABRIEL/PAIS_VASCO/GUIPUZCOA/Celaya/concejales/donostiarras/consiguen/sortear/veto/machista/sociedad/Gaztelubide/elpepisoc/19890120elpepisoc_3/Tes?print=1)).

Usadio hori hautsi ondoren, Udalak Gaztelubideri ematen zion protagonismoa murriztu egin da apurka-apurka, eta hiria bisitatzen duten erakunde-ordezkariek edo diplomatikoak edota Nazioarteko Zinemaldia dela-eta Donostiara etortzen diren ordezkaritzak jadanik ez dira elkarte horretan egindako afariekin lausengatzen.

Gatazka horiek guztiek ondo erakusten dute ofiziala dena eta informala dena mugatzen duen lerroa, eta krisialdiek alderdi hori agerian uzten dute. Ildo horretatik, ez da harrizkoa Gaztelubideren lehendakariak hain zuzen ere zenbait erakunde-ordezkariekin dituzten ustezko harremanak informalak direla aipatzea, harreman horiek elkartearen ikusarazteari garrantzia kenduz. Ondorengo zatian emakumeek Gaztelubiden duten tokia azaltzen da, eta horrela, elkarte horren lehendakariak zenbait erakunde-ordezkariekin duten harreman mota (bere hitzetan, harreman horiek informalak dira) justifikatzeko beharra sentitzen du, erakunde ofizialak erakunde diskriminatzaileekin lotuta ez egoteak duen garrantzia defendatzen duten argudioak baliogabetzeko helburuarekin.

*“Horregatik, niri harrigarria iruditzen zait Gaztelubideren afari batera joan izanagatik Batzar Nagusiek edota Udalek Osoko Bilkuretan barkamena eskatu beharra, horrelakoak ez baitira afari ofizialak. Erakundeek ordainduko balituzkete, ofizialak lirateke, baina Gaztelubidek egiten du gonbita, baita ordaindu ere. Frankismoaren garaian, Udalaren harreman publikoen arduradun batek honako hau*

*esaten zuen: abuztuaren 14an, Armadaren ministroa edota Kanpo Arazoetako ministroa joaten bazen, otorduak ordaintzen zituen. Baina ni hemen nagoenetik, afaria ez da ofiziala inolaz ere. Gaztelubideren afaria da, elkarteak ordaintzen du, eta agintariek joateko edo ez joateko askatasun osoa dute. Jendeak zera uste du, Gaztelubideren afaria eta danborrada ekitaldi ofizialak direla; baita zera ere! Hemen guztiak gara soldadu xeheak, gutako inor ez da ofizial” ([http://actualidad.terra.es/provincias/guipuzcoa/articulo/jose\\_antonio\\_salas\\_no\\_gaztelubide\\_677516.htm](http://actualidad.terra.es/provincias/guipuzcoa/articulo/jose_antonio_salas_no_gaztelubide_677516.htm)).*

Elkartearen historia kontuan hartuz, bitxia da ikustea nola aldatu diren ofizialtasun handiagoa eskatuzetik erakundeekiko harremanen izaera informala aldarrikatzera. Horrek bi gauza frogatzen ditu: batetik, elkarte gastronomikoaren eta erakundeen artean dagoen desfasea, batez ere emakumeak sartzeko “arazoari” dagokionez. Eta bestetik, botere-sareak mugitzen diren zirkuituak agerian uzten ditu, hots, formala dena informala denarekin nahasten den tokia. Gaur egun, erakundeek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko apustu publikoa egin dute, eta egoera horretan, adierazitako harreman lauso horiek zalantzan jartzea da aukera bakarra; horretarako, erakunde-ordezkariek jarrera argia hartu behar dute ezinbestean, zalantzarik gabe emakumeen eta gizonen arteko erabateko berdintasunaren aurka dauden erakunde eta jarreretatik aldentzeko.

### ***Emakumeak Gaztelubide Elkartean***

Emakumeek ez dute Gaztelubideko bazkide izateko aukera, eta horretaz gain, sarbide murriztua dute, nahiz eta, denbora igaro ahala, murrizketa hori arindu egin den. Tradizioa eta batzordearen subiranotasuna dira emakumeei elkartean sartzeko aukera murriztea edo emakumeak aukera horretatik kanpo uztea justifikatzeko erabilitako argudioak. Sukaldeko zuzendari Evangelista Fernández jaunak El Correo Digital egunkarian izandako elkarrizketa batean ([http://www.elcorreodigital.com/vizcaya/prensa/20070409/sociedad/ellos-guisan-ellos-comen\\_20070409.html](http://www.elcorreodigital.com/vizcaya/prensa/20070409/sociedad/ellos-guisan-ellos-comen_20070409.html)) honako hau adierazi zuen emakumeak baztertzearen arrazoi gisa:

*“80 hamarkadan emakumeei soilik eguerdian sartzeko aukera erabaki genuen. Elkarte zuzentzeko estatutu jakin batzuk ditugu hemen, usadio bat”.*

Ondoren, adierazpenarekin jarraitzen du, “batzordearen boterearen” argudioa erabiliz:

*“Donostiako alkate Odón Elorza hemen egon zenetik, mundu guztiak presionatzen gaitu. Horrela jarraitu genuen, baina araudia aldatu zenez, beste hainbat gauza ere aldatu behar ziren. Gaia sinplea da: hainbat gaitan parte hartzen utzi behar zaio emakumeari, baina batzordeak erabaki behar du emakumeek sartzeko aukera izan behar ote duten. Kazetariak diskriminazioari buruz hitz egiten dute baina ni ez naiz arau horien egilea. Orain ezin dute sartu, bihar, beharbada, bai. Gai hori atera eta batzarrean onartzen bada,...”.*

Emakumeei Gaztelubiden sartzeko aukera murrizteari buruzko araudiaren bilakaera moteltzat har genezake, nahiz eta azken urteetatik aldaketa horren aldeko seinaleak daudela dirudien. 80ko hamarkadaz geroztik hona bazkarietan emakumeei elkartean sartzeko aukera ematen bazaie ere, Udalak 2006an eman zion ultimatumaren eraginez ([http://www.diariovasco.com/pg060117/prensa/noticias/San\\_Sebastian/200601/17/DVA-SSB-185.html](http://www.diariovasco.com/pg060117/prensa/noticias/San_Sebastian/200601/17/DVA-SSB-185.html)), Danborradan emakumezko urketariak sartu “behar izan” zituen Gaztelubide Elkartek; horrela, usadio bati eutsi ahal izateko (bandera altxatzeko ekitaldiaren ardura izaten jarraitzea), beste usadio bat hautsi behar zuen (elkartearen danborrada berdintasunezkoa izan zedin ahalbidetzea). Azkenean, Donostiako jai nagusiaren hasiera ordezkatzeko prestigioak eta ohoreak arau zaharkitua gainditu zuen. Danborradan emakumezko urketarien presentzia onartu zen egunaren biharamunean Elkartearen lehendakariak honako hau adierazi zuen:

*“Hain zuzen ere, horixe izan zen atzoko eztabaida. Erabaki bat hartu behar genuen: bandera altxatzeko ekitaldian parte hartzen jarraitu eta 72 urteko usadioari eutsi ala ekitaldi horretatik kanpo geratu. Eta egun horrek eta ekitaldi horrek erabateko garrantzia du Gaztelubiderentzat, elkarte 1943ko urtarrilaren 19ko gauean sortu baitzen. Afalostean, Gaztelubideren lehen danborrada irten zen, aurten egingo duen ibilaldi berberarekin. Eta Konstituzio plazara bandera altxatzera joateko usadio horri beti eutsi izan zaio, errepublikaren garaian, frankismoaren garaian, trantsizioan, eta oztopoak oztopo”* ([http://actualidad.terra.es/provincias/guipuzcoa/articulo/jose\\_antonio\\_salas\\_no\\_gaztelubide\\_677516.htm](http://actualidad.terra.es/provincias/guipuzcoa/articulo/jose_antonio_salas_no_gaztelubide_677516.htm)).

Hori gertatu zenean, José Antonio Salas jaunak zalantza izan zituen bozketa horrek bere berrautapenean izan zitzakeen eraginei zegokienez ([http://actualidad.terra.es/provincias/guipuzcoa/articulo/jose\\_antonio\\_salas\\_no\\_gaztelubide\\_677516.htm](http://actualidad.terra.es/provincias/guipuzcoa/articulo/jose_antonio_salas_no_gaztelubide_677516.htm)):

*“Egun horietan gertatutakoak zure hautagaitzari kalterik eragin al diezaioke?”*

*“- Nik esan nahi dudan gauza bakarra zera da, azken 20 urteotan ez dudala arazorik izan. Eta alkateari erantzun gisa igorritako eskutitzean adierazi nion kontu horrek ahuldura psikikoa eragiten zidala eta irudi txarra hartzen ari nintzela bazkideen aurrean, argi dago”.*

Alabaina, eta beldur bazen ere, Gaztelubideren lehendakari hautatu zuten berriz ere, baina elkarte murgilduta dagoen 75. urteurrenaren ospakizuna dela-eta, urtarrilaren 20an lanpostua behin betiko utziko duela adierazi du; hala eta guztiz ere, bere kargua 2010eko martxoan amaituko da. Dimisio hori esanguratsua da: dirudienez, laster aldaketa gertatuko denaren susmoa du Jose Antonio Salas jaunak, edo hori atzeman daiteke bere adierazpenetan:

*Laurogeita hamarrek hamarkadan, emakumeek hemen bazkal zezaketen; orain ezin dute hemen afaldu, baina datorren biltzarrean, beharbada, talderen batek hori baimentzeko proposamena egin lezake.*

Hori ez dator bat lehen aipatutako elkarrizketan adierazi zuenarekin ([http://actualidad.terra.es/provincias/guipuzcoa/articulo/jose\\_antonio\\_salas\\_no\\_gaztelubide\\_677516.htm](http://actualidad.terra.es/provincias/guipuzcoa/articulo/jose_antonio_salas_no_gaztelubide_677516.htm)): *“ez dakit nire semeek edo nire bilobek osoko bilkuraren batean onartuko ote duten emakumeei bazkide izateko aukera ematea, ez dakit, etorkizuna da hori”.*

Era berean, duela gutxi jakinarazitako beste albiste bat ere oso esanguratsua da; horren arabera, Danbor Nagusiak lehendakariarekin batera utziko du kargua, batez ere kontuan hartuz hark egindako adierazpenetan aipatu zuela danborradan emakumezko urketariak egotearen kontra zegoela (<http://tamborrada.diariovasco.com/2009/noticias/abad-baston-mando-gaztelubide-200901151208.htm>):

*“Honaino iritsita ez naiz inori ziria sartzen hasiko. Ni ez nengoen horren alde, eta horixe adierazi nion Odon Elorza alkateari gau hartan, bozketa egin baino lehen hizketan aritu ginenean. Tira, gau hartan hamabi emakume joan ziren, iaz, berriz, hamasei, eta aurten, azkenik, hoge”.*

Gaztelubide Elkarterako, eta hedaduraz, Donostiarako historikoa izan den gertakari horren ondoren

gertatutakoak kontuan hartuz, bozketa horrek Gaztelubideko bazkideen kontzientziak banandu zituen. Zalantzarik gabe, Gaztelubiden zerbait gertatzen ari da, baina hurrengo biltzarrera arte itxaron beharko dugu mugimendu horren irismena jakiteko.

Alabaina, bilakaera motel horrek duen eragina elkarte barruaz haratago doa, proiektio handiagoko ondorioak baititu, elkarte horrek Donostian duen eginkizuna, tokia eta protagonismoa kontuan hartuz. Horrela, zilegi da emakumeak Gaztelubidetik kanpo uzteari buruzko eztabaida barne-arazo bat baino gehiago dela esatea.

Konstituzio plazan bandera altxatzeko ekitaldiaren erritualean emakumeak sartu izanak argi erakusten du egoera hori paradoxikoa dela, eta gainera, gizarte-sektore desberdinak bilakaera desberdinak izaten ari direla emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna beren gain erabat hartzeari dagokionez. Bandera altxatzeko ekitaldia elkarte gastronomiko baten ondare izatetik hiriaren ondare izatera aldatu denez, elkarte gastronomikoaren balioen eta hiriak dituenen arteko desberdintasunak baterako ekitaldi horretan eszenaratzen dira. Horrela, Donostiako Udalak berdintasunaren printzipioarekin eta legearekin kontsekuenteak izatearen aldeko apustu argia egin du –bereziki, Donostiako biztanle guztiak ordezkatzeko xedea duen ekitaldi batean–, baina printzipio hori Gaztelubiderentzat problematikoa dela dirudi. Zalantzarik gabe, Gaztelubide eta Udalaren artean (edota EAEko beste edozein erakunderen artean) hesi bat dagoela atzematen da, eta baita Donostiako gizarteari dagokionez ere, kontuan hartuz ez dela sekula atzeman bandera altxatzeko ekitaldia ikustera joan diren milaka pertsonen Konstituzio plazako oholtzan emakumeak egoteak arazorik sortzen dienik. Polemika hori elkarte gastronomikoetara mugatuta geratu da.

Horri dagokionez, argi eta garbi atzematen da arazo larria dela elkarte gastronomiko baztertzaille batek, kasu honetan, Gaztelubidek, bere burua toki-nortasunaren ordezkari eta hiriaren adierazgarri gisa ezartzea, kontuan hartuz emakumeak ezin direla ordezkaritza horretatik kanpo utzi. Gaztelubide elkarteak ordezkari-rol hori duen eszenatokietako bat baino ez da bandera altxatzeko ekitaldia (garrantzitsuenetakoa, bestalde), baina ezin dugu ahaztu rol hori beste hainbat esparrutan ere baduela, hain gizarte-proiektio eta protagonismo handia ez duten arren, oso garrantzitsuak diren beste hainbat esparrutan, hain zuzen ere, batez ere kontuan hartuz Gaztelubide botere-zirkulu jakin batzuetan mugitzen dela.

Halaber, bereziki Gaztelubidek, eta oro har, elkarte gastronomikoek nazioartean duten proiektzioa ere esanguratsua da. Nazioartean, elkarte gastronomikoengatik (besteak beste) da ezaguna Euskal Herria, eta horiei dagokienez, Gaztelubide da segur aski gure mugetatik kanpo gehien ezagutzen dutenetako bat. Ildo horretatik, elkarte gastronomikoek esportatzen duten Euskal Herriaren irudia ez dator bat beste zenbait esparrutatik (erakundeak, kultura, enpresak, eta abar) esportatu nahi denarekin, hots, berrikuntzarekin, aurrerabidearekin eta modernitatearekin lotuta dagoenarekin. Horren ildotik, Gaztelubideko bazkideek, abesbatzak edo fanfarreak “enbaxadore” gisa duten eginkizuna problematikoa bihurtu da, ez soilik Gaztelubide bera ematen ari den irudiagatik, ordezkatu

nahi duen guztiari ematen ari zaion irudiagatik baizik, hots, Donostiari edota euskal gizarteari.

### ***Amabitxiak eta salbuespenak***

Gaztelubidek, beste hainbat elkartek bezala, salbuespenak ditu emakumeak kanpoan uzteari dagokionez, baina hala eta guztiz ere, horrek ez du eragozten bazterkeria hori betikotzea, hura indartzeko balio baitu. Halere, egoitzan emakumeak egoteari dagokionez, ezinbestean adierazi behar da Gaztelubide ez dela elkarte murriztaileena; izan ere, emakumeak egunero sar daitezke bazkaltzera Gaztelubiden, eta beste zenbait elkartetan, aldiz, emakumeek ezin dute inoiz ere sartu, egun jakin batzuetan izan ezik.

Gaztelubidek “amabitxiaren” figura du, eta figura horren xedea emakume batek elkarteari emandako laguntza aintzatestea da. Salbuespen horiek, txosten honetan ikusi dugun bezala, bazterkeria defendatzen duten jarrerak indartzeko balio dute, bi gauzatarako erabili ohi baitira: batetik, emakumeen partaidetza salbuespenezko ekintza bihurtzeko, eta bestetik, diskriminazio-jokabideak izateagatik elkarteren aurka egindako salaketak minimizatzeko.

Amabitxiaren figurak, esate baterako, ustez emakumeak gutxiesteagatik edo bazterteagatik elkarteren aurka egindako salaketen aurkako argudio gisa balio du, emakume bati bereziki garrantzitsua den toki bat emanez. Era berean, emakumeei sartzeko baimena ematen zaien ordutegi eta egun jakin batzuk ere ezartzen dira (hori bai, sukaldean ezin dute sartu), eta beraz, salbuespen horrek (kontrol zorrotz baten pean dagoen egoera) ustezko diskriminazio-jarreraren aurkako argudio gisa balio du. Honela zehaztu zuen hori Elkarteren lehendakariak elkarrizketa batean:

*“-Zer eginkizun izan dute emakumeek Gaztelubideren historian?”*

*“-Gaztelubiden emakumeak izan direnaren seinale garrantzitsuena gure amabitxia da, Paquita Mendizábal; aitzindaria izan zen eta omenaldi bat egin genion. Eta horretaz gain, Gaztelubidera egunero etortzen dira emakumeak bazkaltzera. Erabateko informaziorik eza dago gai horretan. Talibanak garela eta emakumeak gordirik jaten ditugula dirudi, eta hori ez da horrela.”*

Amabitxiak Gaztelubiden duen eginkizuna hobeto ulertzeko, hona hemen horri buruzko zenbait xehetasun. Gaztelubide elkarteren amabitxi Paquita Mendizábal andereñoak elkartea formalki sortu baino lehendik zituen loturak harekin; izan ere, dirudenez, bazkide fundatzaileak haren familiaren bulegoetan elkartzen ziren elkartea sortzeko xehetasunak amaitzeko. Era berean, Mendizábal

andereñoak eta bere ama Cristina Urreberueta andreak lehen danborradarako uniformeak egiten lagundu zuten. Hori guztia zela-eta, “ohorezko bazkide” hautatzea merezi zutela jasotzen da hainbat egunetako aktetan:

1935-01-24: *“Lehendakari jaunak nabarmentzen du Cristina Urreberueta andreak eta bere alaba Paquitak laguntza garrantzitsu eta mereziduna eman dutela; horregatik, sari bat jasotzea merezi dute, eta beraz, emakume horiek ohorezko bazkide izendatzea onartu da aho batez”.*

1955ean Gaztelubideren “amabitxiak” bilakatzeko aukera eman zitzaien; trantsizio hori esanguratsua da.

1955-02-05: *“Ondoren, Elkartearen Bandera –duela gutxi eresia– goresteko ekitaldia antolatu behar dugu. Honako hau adostu da: ekitaldi hori egin baino lehen, aurretiazko izapideak konponduko dira, eta ondoren, Gaztelubideko ohorezko bazkideak diren Cristina Urreberueta andreak eta Paquitatxo Mendizábal andereñoari galdetuko zaie ea bandera horren “amabitxi” izan nahi duten gorespenean.”*

Azkenean, Paquita Mendizábal andereñoak onartu zuen gonbit hori, eta harrez geroztik, Gaztelubideren amabitxia da:

1955-09-17: *“(…) Aldanondo jaunak proposatu ondoren, Aita Gorostidiri eskerrak ematen dizkiogula jasoarazi da aktan (haren lehen meza dela-eta), eta batez ere, ohorezko bazkide Paquitatxo Mendizábal andereñoari, gure asmoa adeitsuki onartu baitzuen.*

Amabitxiaren rola sinbolikoa da batez ere. Gaztelubide elkarteak sortu zenetik izan dituen hiru banderak goresteko ekitaldietako lekuko izan da amabitxia; 1992an omenaldi bat eskaini zitzaion, eta Gaztelubidek antolatutako urtean behingo bidaietan eta gurutzaldietan hartzen du parte aktibokien ([diariovasco.com/prensa/20061109/san\\_sebastian/homenaje-paquita\\_mendizabal\\_20061109.html](http://diariovasco.com/prensa/20061109/san_sebastian/homenaje-paquita_mendizabal_20061109.html)).

Txosten honetan argudiatu denez, horrelako kasuetan emakumeak gurtza- eta benerazio-objektu bilakatzen dira, baina emakume gisa duten balioa ukatzean oinarrituz eta ama gisa duten eginkizunari balio handiena emanez (kasu honetan, amabitxi izenarekin, amaren figurari dagozkion ezaugarriak ditu). Orobat, kontuan hartu behar da amabitxiaren figura nabarmena eta salbuespenezkoa dela, eta ezaugarri horietan oinarritzen dela figura hori orokortzeko ezintasuna; horrela, tituluren bat duen emakume nabarmen batek har dezake parte elkartean soilik, eta nolnahi ere, gizonak bezala ez.

Emakumeei elkartean sartzeko baimena ematen zaien salbuespenezko egunek eta ordutegiek ere eginkizun berbera dute, hots, horien presentzia erregularizatzea; gizonak –elkarteko bazkideek nahiz bazkideak ez direnek– askatasun osoz sar daitezke elkartean, eta emakumeen egoerarekin alderatuz, oso bestelakoa da hori.

Alde positibo gisa, eta omenaldi bakarra bada ere (edo gutxienez, kontsultatutako bibliografian aurkitutako omenaldi bakarra da), ondoren adierazitako akta nabarmendu behar da; emakume batek Gaztelubide elkartearen barruan egindako lana aintzatestea eta agerian uztea ahalbidetzen baitu:

1967-08-01: *“Gure zerbitzu-arduradun Teresa Eguibar andrearen alde egindako omenaldi-afariak arrakasta izan zuela eta harmonia ona egon zela jasoarazi da, eta gainera, emakume horrek Zuzendaritza Batzordeari eskerrak eman dizkiola ere jasoarazi da aktan”*.

Kasu horretan ere esker on hori berezia zela atzeman daiteke, eta horretaz gain, emakumeei dagozkien esparrutzat hartutako esparru baten barruan –kasu honetan, sukaldean– emakume batek egindako ekarpena aintzatesten da. Ildo horretatik, honako hau adierazi behar da: beste esparruren batean ekarpenik egiteagatik elkarte horretan emakumeren bati aintzatespenik egin zaionik ez da geratu jasota; aitzitik, gizon ugari egin zaizkie aintzatespenak eta omenaldiak, elkarte gastronomikoaren barruan nahiz elkarte gastronomikotik kanpo.

### ***Aldaketari buruzko oharra***

Kasu-azterketarako Gaztelubide elkarte aukeratu dugu elkarteen artean adierazgarri eta ezagunenetakoa delako. Eta horretaz gain, elkarte horren dinamika eta filosofia Donostian gizonentzat ditugun beste hainbat elkartek dituztenen antzekoak eta adierazgarriak direlako, batez ere emakumeei ezarritako sarrera- eta partaidetza-murriztapenei dagokienez. Horri dagokionez Gaztelubiden ikus daitezkeen polemikak, eztabaidak eta aldaketak (ekitaldietan sartzea eta parte hartzea, esate baterako, Danborradan) beste hainbat elkarte murriztailek ere badituzte. Horietan guztietan ikusten denez, ika-mika hor dago gutxienez, eta elkarte horietako askotan eztabaida-gai bilakatzen hasi da, baita bazkideen arteko desadostasun-gai ere. Hortaz, gure gizartean gertatzen ari diren aldaketetara apur bat irekita daudela erakusten ari dira elkarte horiek, emakumeen tokiari eta genero-harremanei dagokienez.

Gaztelubiden zein beste zenbait elkartetan, funtzionamenduan hainbat aldaketa gertatzen ari dira, eta beraz, denbora igaro ahala, emakumeek horrelakoetan sartzeko duten aukera gero eta handiagoa da, emakumeek elkartean sartzeko baimena duten egunak eta ordutegi-tartea handiagotuz. Beste zenbait kasutan, emakumeak ekitaldietan sartzea da arazoa (esaterako, emakumezko urketariak danborradetan). Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ibilbide luze gisa aurreikusten den prozesuan emandako pauso txikitzat har baditzaiegun ere, zenbait mugimendu daudenaren eta nolabaiteko eztabaida dagoenaren seinale dira aurrerapauso horiek. Horrek guztiak frogatzen duenez, mota horretako elkarteetako zenbait bazkidek anakronikotzat hartzen dute emakumeak kanpoan uztea.





DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Gastronomikoen  
eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Gastronomikoen  
eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Gastronomikoen  
eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Gastronomikoen  
eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Gastronomikoen  
eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Gastronomikoen  
eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA

Txosten Berezia



DEFENTSORIA

Elkarte Gastronomikoen  
Garrantzia eta Eragina Gizartean



DEFENTSORIA